

AITA ONAINDIA



ESKUTITZAK

ESKUTITZAK

***Euskal
Literaturari
buruz***

Bilbao 1974

«Hobe da adizkide hon bat,
ezen ez ahaide ehun bat».

Oihenarte

Ona, euskal idazle ta irakurle onok, liburu barri au. Eskutitz liburu, arean be. Nork idatzi ete ditu eskutitzok? Zeuok, egia esan, zeuok; nik, artu ala, onenetatik, eder-bitxiz eta jakintza-igalez astun iruditurik, ingi-otzarara jaurti ordez, maiteki gorde izan ditut. Asmu onekin gorde be, egunen baten argitara emoteko asmuz, ain zuzen.

Orrela dagit gaur. Igaz, Olerti egunean, niri omenaldi kaskar bat egiteko erabagia artu eben adiskide on batzuk; ez dautsot narda egiten ornen orri: zenbait min emon arren, oituraz datorrena da-ta, bioa aurrera. Neronek be, orraitiiño, neure aldetik, ornen joria opatu nai neuskio euskal erri osoari; esku artean dozun idazki-sail eder au da nik euskal idazle guztiai eta, bidenabar, Euskalerrri osoari —euskal literaturari— dagiodan bezuza ta omenik panpox beiñena. On begizue!

Zuok onela, bear bada: «Nork emon ete dautso orren gure kartak argitara ekarteko baimena?» Eskutitz batzuk ba-dira oso ixillekoak, iñori be ez erakustekoak nunbait; baiña ba-dira beste batzuk agiri antzekoak, edozeiñek irakurrita be kalterik ez dakarskuenak. Mailla ontakoak ditugu, nik uste, esku artean daukazuzanak: ederrak eta iñori min ez emotekoak. Auxegaitik bialdu ditut irarkolara. Ez bedi, beraz, iñortxo be kiskitu.

Zer dozu eskutitza? Urrin aurkitzen dan edonori eskuz —gaur, makiñaz be bardin dagigu— idazten dautsogun zerbait. Itz askatuan eta neurtsuan, askotariko gaiak erabilli oi dira: norbait iltean, atsekabeen laguntzen dautsogu, ezkontzean edo-ta urte-beteteen zorionak emon, zerbait erakutsi, goratzen goraberak adierazo, ta abar. Idazkera lau, errez ta berezkoa darabilgu Olakoetan; iturri-txorroak ura lez, luma puntatik jarioka doa gure barrua.

Onakoxeak dituzu emen doazanak. Bertoko gaia, alan be, ari batekoa dozu, euskal literaturari buruzkoa, al dala beintzat. Lenengotik azkeneraiñoko guztiak dabe gure elertiarekiko zerbait. Ogei urte oneitan —«Milla euskal olerki eder» argitara nebanetik— arturiko kartetan egin izan dautzut aukeratzea: enparauak puskatu arren, euskal literaturaz zer-ikusia eukienak arasa berezian metatu izan ditut, azkenez, igarri bage, pillo itzala osotuaz. Pillo onetatik orain, argitaratzekoan, ez ditut onenak be autatu, egozan lez urteka batzuk artu ta eurokaz liburu barri au biribildu baiño. Beste onako bi egiteko lain ba daukadaz oindiñokarren.

Argitaratu dodazan oneik, idazleak zuzendu eustezan moduan dagoz, nik ezertxo be ez kendu ez ipiñi barik; egozanez joan dira irar-kolara, iñoiz komaren bat edo-ta z ta s'ren bat aldatu badot be. Diñodan au siñistu nai ez-ta iñor or ba'lego, betor ona ta ikusi begiz orijinalak.

Euskal literaturaren aro berezi bat mugatzen dabe eskutitzok, 1954-1974 bitartekoa bai beiñik-bein. Garai ontako euskal idazlerik jatorrenak daukaguz berton; 257 karta dira, 110 idazle. Beste askorenak be artu izan dodaz; etziran, baiña, gure literaturari buruzkoak, eta suak iruntsi zituan.

Gai onek, munduko literatura zabalean atan be, sail ederra joritzen dau bere duiñean. Gerkarren artean Platón, Sokrate, Pitagoras eta abar eskutitzez jardunak dira; Erroma'n bardin Katon, Kikeron eta besteak; Prantzia'n, Paskal, Racine, Montesquieu ta gaiñerakoak, maixu doguz zelai onetan; Espaiña'n eta Alemania'n, orobat. Baita gurean be: Azkue'k idazkitan egiña dau bere «Ardi galdua» eta J. A. Oar-Arteta'k bere «Miren'en Senargeya», zati batzuk beiñik bein. Eta Deba'ko «Tene» argiak karta-sail ederra dakar bere olerkiakaz batera. Irakurri barri ditut F. Kafka'k bere maiteari egindakoák, eta areik izkuntza askotara itzuliak izatea merezi izan ba'dabe, geure txikerrean ez ditugu baztertu bear, nik uste, daukaguzan bitxi eder oneik. Bakotxak dau bere sena, ta neurria.

Ar egizuez, azkenez, nire zorionik beroenak idazki sotil, gartsu ta jakingarri onein alderako.

Eta bedi liburu auxa guztiok euskal literaturari dagiogun opari ta atsegin-saririk bikaiñena.

Larrea, 1974-10-15'an

Aita Onaindia

1953-1958

Larrea'n.

Agur, aspaldiko lagun sarrapela:

Atzo eskura naioan irea ta bereala erantzuten duat astirik galdu eztaian. Onaño idatzi bear izatekoan, bero abil ibili be eure arlo orretan. Baña, nondik atera dok zuketa ori? Esne galduaren antza aurkitu jauntsat izkera orri,

Ba-genkian poema andi bat egiten ebillela, baña beste lan orren barririk ez gayeukan iñondik. Ta orren luze ta ornidua gero. Nondik billatu einkez orrenbeste olerki edo «pedesia»? Emen beintzat ez dok egingo atarramendu andirik. Ameriketako urte guzti oneitan etxoat ia ezer idatzi. Ta obe, euzkerarik enayekian-da. Oraintxe diarduat ito bearrean euzkeraz ikasten. Ta ba-dakik ori zer dan? Emengo bizikera zoroan ekite ori Gor-bea'n «chirimoi»-en begira egotea lez dok.

Beraz, emen idatzitako olerkiak, orixe, orain bialtzen duadana ta beste zerbait baño ez dozak. Etxakiat non dan irugarren au. Patxadazko gauza etzalakoa jaukat.

Orra ba nire begietan zerbait balio dabenak: *Euzkera*, *Basetxea*, *Udabarria*, *Kaskalluak* eta *Larramendi'ko sorgiñak*. Azkeneko bi oneik alkarren antzekoak dozak eta etxakiat ezer balio daben. Bietatik bat agertzea naiko izango litekek. «Basetxea»-n izki bat txarto edo oker jagok: «Geldiro ta polito aratu gaitean», ez «eratu».

Beste nire olerki edo zereko zer guztiak erre kara bota einkez. Lotsatu egingo nintekek aietakoen bat ire gutun ortan ikustean. Bein «*Katua*» deritxona irakurri ostean, Eustasi'k esan joan:

«Cómo se equivoca uno en el juicio de lo propio». Nire ustean obeak ziranak baño atsegiñagoa aurkitzen ebala esan gura joan. Baña nik etxoat ikusi gura be. Ta enparauak, or nonbait.

Guenez, olerkitan txiro ba'nayabilk, dolarretan txiroago. Ze-regin orretan geldoa edo txepela izan nok beti. Dana dala, iñon-dik batzeko eretia izan ezker, bialduko duat zerbait.

Bide batez: Txanton'ek Berriotxoa'ren bizitzan «bere aide-ko adizkide asko eukazan» diñok (22 orrialdean). *Kideko* orde-*aideko* erabiltea uts andia dok gero.

Gorantziak orko ezagunei ta eure lan orren begira geratzen dok beti lengoa dan

Agustin Atutxa

Donostia, 4-VII-53

Aita Santiago Onaindia

Amorebieta.

Biotzeko adixkidia:

Ona emen Lekuona jaunak ekarritako olerkiya. Orain bi urte «Educación y Descanso»k eratutako konkursoan aurrene-ko saria atera zuan. Lekuona jaunaren illobarena da. Alegia, nai luke zure antologi orretan agertu dedilla. Oso ona deritzait.

Konkurso artako jurauko izan nintzalarik, gogoratzen naiz beste olerki punta-puntako batetzaz. Altzako mediku jaunare-na. Don E. Arzac Casares, Médico, Alza, oso oker ez ba nabil, zan, orain esaten ari naizen olerkiaren egillia.

Denpora askuan zalantzan ibilli giñan lenengo sariya zeñi emango ote genion. Arzac Casares onen olerkiya oso ona zan. Sentimentu aundikoa. Iruditzen zait zure antologian agertu biar duela.

Besarkada batez agindu

Artetxe'tar Joxe

Medellin'dik 1953'gn. Orrilla'k 22
Onaindia'tar Jagoba A. Agurgarria'ri
Larra'ra.

Aspaldiko Santi maite, agur:

Zure gutuntxoia egunokaz eskuratu yat. Eskerrik asko.

Zuk niretzat opa dozuzan osasun, bake ta zorionak nik Zeu-
retzat be opa ditut, ta zuk niretzat letxe eurrez izango al dozuz.

Zuk olerkaritzat banaukazu be nik neure buru biribil au ez-
tot olerkaritzat etsi. Gañera aspaldion ez olerki-sallean ez neur-
titz-sallean, ezta bestelako euzko salletan enabilzu lanean. Bes-
telako lanak ugari bai-ditut, ezin dot ain maite dodan euzkera-
zelayan zuek eta neuk nai lez ekin.

Benetan txalogarria eta goragarria buru, biotz eta eskuartean
darabilzun lana. «Euzkerazko Milla Olerki Onenak» izenagaz
argitara nai dozun idaztia gauza ederra izango dala zertan esanik
ez. Nik antxiña egindako neurtitz ganorabakoentzat be idazti
bikain ortan tokia dozula diñostazu. Nik barriz idazti olako ba-
ten argitara emotekorik bat be eztotala esan bear. Bilboko egu-
neroko baten orain dirala 18 urte noizik beinka argitaratu zira-
nak, nai ta kaskarrak izan, neretzat egokienak zure idaztirako.
Donostiko Argia'n be orain 20 edo 23 urte banaka batzuk ar-
gitaratu ziran. Batzutan Barbin izenordia, beste batzutan Lea-
buru'tar Bikendi, iñoiz beste izen ordenen bat ipiñi oi neban.
Baña neure eskuetan bat be eztot orain. Erroman dagon neure
anayari emon neutsazan, atxillotu ninduenian eta arrezkero iku-
si be eztitut.

Bada ezpada nire aitari itandu egiozu berak nire anayaren
gauzaen batzuk gordeta eukitia izan leike-ta. Emen beintzat ba-
kartxu bat be eztot neugan.

Iñondik nire neurtitzok ageri ezpadira, beste norbaitenak
artu eta argitaratu, edozelan be nireak baño obeak dirala ondo
dakizun ezkerro. Ez naz orregaitik asarre jarriko. Endaitz oler-
karijak izan leike jakitea nire neurtitz batzuen barri, bere es-
kuetan be ibilliak baitziran.

Neurtitzen alboan txanponak bialtzeko diñostazu. Asko ezta izango baña olako lan ederrak nire laguntza izango dabe. Iñori laguntzeko neuk euki bear lenengo. Nundik edo andik atera bearko zuri laguntzeko. Bestela ezin bada kale ertzean jarriko naz berreun edo irureun laurlekotxu bederik zuretzat eskuratzeko. Ao zabalik itxi baño olakoxe apurra bialtzia obe izango yatzula deritxat. Geyago batu al badot, geyago lagunduko dautzut. Baña ezin badot orretxenbeste be lortu, etzara asarretuko.

Baña idazti barik ez nozu itxiko, ordaintzeko lain beti be igorriko dautzut eta. Aitu dozu?

Eta orra zurearen erantzuna, berandutxo bada be. Zuk Palmiran nintzalakoan ara bidali zeunstan idazkia; eta ango Pralleak eztira niri onantz bialtzeko bizkorregi ibilli. Parkatu arei eta niri.

Egungoz etxat geyago gogoratzen eta luzeegitu baño len amaitu bear.

Emendik be ezta «nobedaderik» pralleen artean. Gorantzi adiskideei eta milla besarkada zuri.

Agur, eta agindu zeure sukaldari-lagun,

Batiz Aba'ri

Donostian, Iraillaren, 21'an, 1953

Aita Onaindia biotzekoa:

Zure karta artu nuen. Ez det ordea nun dedanik. Etzait galdu, agertuko da, baño lanez menderatua nago eta berebiziko nasketa daukat nere mai gañean.

Dana dala, esan nai nizun, ederra egin nuela eta egin degula Altza'ko Casares Arzac orren izena zuri eramanez, eta zuk berari eskribituaz. Nere burua nola dagon... NIK ZER EZ EGIN, ZER EZ EMAN... ? olerkiaren egillea etzan Casares, Irigoyen Michelena sendagillea baizik

Eskatu nion nere lagun on baten bitartez eta orra or bere eskuz idatzita olerki benetan xamur ori. Polita ez ba-da ba... Zuk esan gustatzen zaizun edo ez.

Itz egingo degu azkar etortzen bazera, datorren illaren asieratik bakazioak ditut eta. Baita premiya ere. Egunetik egunera jende geiago dator —udaran beintzat ala izan da— eta lanpean murgil nabil.

Biotzez besarkada batekin,

Artetxe'tar Joxe

Bilbaon, 1953-VII-21'gn.

Aita Jakoba agurgarriari.

Larrea'rat.

Ene aspaldiko hori:

Pozez hartu neban zurea, eta behingoan erantzun ere, nahi deusut egin.

Gure Euskeraren alde nonortxuk oindiño ere badiarduala iakitea, oso atsegingarri izan iat.

Io dagigun arira: nik neuk eztot lehengo nire olerkirik (edo olerkitzakorik) bat ere. Txorta bat neban, mugaz araindi eroan eusten, eta hemen naukazu semerik bagako aita. Zuk nireak badituzu, ni baiño aberatsago zagoz. Euretarik, bada, onenak zeuk hautetsi. Arrezkero, «Egan»-en eta «'Gernika»-n agerrarazi ditut Zenbait.

Nahi dozuna egizu; baiña beste lau barriok agertu egizuz, behintzat. Hona hemen: «Azkueren heriotzan» (Donostian sarizatua); «Amaren giro»; «Andre Mari» eta «Maitale bi». Horra gaurko *seleziñoa*. Lautzuok argitara bage dirala uste dot.

Orain, dakuskezunez, euskal idazkera klasikoen bidez nabil, harako Kruwig eta Villasante Aitaren asmoen iarrai.

Hontaz, badakizu gure arteko betiko eztabaidak. Giputzak beti giputz bakarrik. Osotasuna, edota batasuna euren euskalkiz nahi dabe, eurak ezer aldatzeke, eta nekhatzeke. Besteok gara nekhatu eta ikasten saiatu behar dogunok.

Behintzat, iokera nagusi bi ditugu Oraingo: gipuzkera eta lapurdiara. Zeintzuk errazoitsuago? Geroak esan begi. «Orixe, ostera, naparrez ari da iñoiz baiño areago.

Guda-geirik zorrotzena «h» letrearen hauzia da. Euskal liburu zaharrenetan bethi agiri da letra hori. Hemengo euskalariak, ostera, kutsudun izakia bai litzan, io ta bazterrera egotzi eben. Ez othe dauko bapere zer-egiñik? Zerbait baietz dirudi.

Aita Lino-k ere, badaki eztabaida oñezaz naihoa ta lar.

Zurearen zain,

Erkiaga Enxebio

Ondarribia, 1953-VII-27'an

Onaindia'tar Jakoba jaunari.

Agur, olerkari jakintsu ori: Artu det zure eskutitz zoragarria.

Asmo ederra ta goragarria zure lan ori. Ordua zan gure izkuntza zarraren alde lan egiteko.

Lengo nere olerkiak ezagutzen ba'dituzu, zuk nai dezuna berezi ta jarri. Emendik egun batzuetara bialiko dizkitzut sei olerki berri oraindik argitaratu gabeak, eta... zuk ikusi... gallurrera igotzen ba'dira, bat edo beste jarri, eta bestela otarrara bota.

Orain beste gauza bat esan bear dizut. Baditut beste bi lagun olerkari, biak Ondarribi'ko semeak. Ni bañon obeak biak. Arren, idatzi bieri, eskatuaz beuren olerkiak. Emen bialtzen dizkitzut bien izenak.

Arrazoi dezu: «Nai-ta-ez zoragarri guretzat, euskaldunontzat». Udaberriko egun-sentian eguzki ori agertzen danean... Aintza zuri!

Txomin ori nere anaia dezu, bañan ez Clerkari, ta bai abeslari. Noizbait bere izenean bialdu izan det sariketara nere olerkia.

Eskerrikasko nitaz Oroitu zeralako, eta agur; agindu zure adizkide *Sagartazu'tar Kauldi'ri* (Satarka).

Donostia, 10-IX-53

Yakue Onaindia, Aite agurgarriari.

Banuen prestaturik zure lan ederrari laguntzeko abe bat edo beste: baiñan zuk uko egin gure etxera.

Atzo Manterola-ren Kantutegian ikusi dut poesia bat, ederra. Eta oroitu naiz zutaz. Euskal prantsesen ortografia, gauza ardurakoa da, *ch*, *x*-ean aldatzea, eta *tch*, *tx*-ean: ezen Espainialdeko euskaldunendako bereziki da zure irakurgaia, eta hemen, ale ezpadeгу egiten, ez dute deusik xilatuko.

Eta *h* batzu ere ekendu beharko dituzu; konsonante ondoko guztiak: *kh*, *ph*, *th*; eta utziz, vokal-en artekoak, *ohore*, *behar*, *zuhur*. Eta *r*, *l* eta *t*-en ordeз *rr*, *ll* ta *tt*. Ale erabaki dugu ere Euskaltzaindian; leenagoko izkiak zilegi eta legezko uzten direla: *r-l-t*.

Otoi, erradazu; zure makinaz izkiriatzeko laguntzalea bezalakoa baten beharra dugu Euskaltzaindian. Donostian bizi deia?

Onart zazu ene goraintzi minenak.

Aingeru Irigarai.

Guatemala'tik, 1953'gnko. VII-26'an
Onaindia'tar Yakoba Aba agurgarriari
Larrea'ra.

Ene Aba agurgarri ta olerkari bikaiña: Goikolea apaiz yau-naren eskuz yasorik ditut, «Euzko-Gogo»-ren gudurako igorri dituzun amar olerkiak. Beraz, epailleei erakutsiko dizkiet eta

erabakia beuren esku dute, ta garaiz guziei yakin-eraziko dizkiegu. Etorri diran olerkirik oberenaz gure aldizkariaren zenbaki bat antola nai dizut. Eder eta bikain azalduko da ale ori. Irakurri al duzu Euzko-Gogoa'ren banakorik?

On eta eder litzaiguke, zu, gure lankide bezela, itz neurtuz eta itz lauz lanean asiko ba'ziña: zuk bidalitako guzia poz-pozik argitaraziko nizuke. Ain zuzen ere, aspaldidanik zure berri ikasi nairik irrikan nintzaizun. Lengoan, Batiz'tar Bingen Aitak —gure lankide bikain dugu— zure berri eman zenidan. Iñolako idazti sendoa antolatzen ari ornen zera: Milla euskal olerki onenak eta len-bai-len argitaratzekotan ornen zaude. Gora zu! Lan ori bearrezkoenik dugu gure olerkari beartsuen argi betea tinkatzeko: or agertuko dituzu, noski, gure olerkari dirdaitsua, itzetan eder eta egiñetan ederragoa; talde ederra, benetan. Olerkarien atarían bakoitzaren bizitz-xeetasunak ezarriko ba'zenitu, obe: bakoitzaren izen osoa, gezur-izena, noiz ta non yaioa dan, ikasi ala ez-ikasia dan, non ikasia, nun argitarazten zitun olerkiak (izparringi, aldizkariak t.a.), olerki-idaztirik argitarazi ote zun, noiz ta non il zan eta iritzi laburra. Xeetasunok lagungarri genituke gure ele-ederraren atze osoa biribiltzeko ta gure olerkariak goraiatuak ditezen. Bear bada, saiets guziok nik baiño argiago ikusiak dituzu. Beraz, bego emen nire yarduna.

Zure berri ta zure yardunen berri izango al dut.

Guzion alegiñez euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu dezagun.

Agindu euskeraren onerako X'gan zure aberkide ta apaizkide dan

Zaltegi eta Plazaola'tar Yokin'i

Guatemala'tik, 1913-9-28' an
Onaindia'tar Yakoba Aba agurgarriari
Larrea'ra.

Ene Aba laztana: Bearrik eskuetara zait zure azkenengo gutun atsegiña. Eskarrik asko. Nere izena ezaguna dute nonbait gure etsai laztanak.

Olerkari bakoitzaren atarían yarri bear zenituke xeetasunak oro. Olerkiak irakurri baiño len, olerkariaren nortasuna ikusi nai du irakurleak. Adibidez, nere bizitzaren xeetasunak badituzu, bear bada. Geigarritzat or dioazkizu.

1906'garren urteko uztailaren 26'garrenean yaio zan Zaitegi Arrasate zarrean. Yon eta Pantzeske deritzate gurasoak. Garako gizona zalarik il egin zitzaion aita. Bizirik du ama.

Lenengo ikaskizunak beraren erriko Udal-ikastolan egin zitun. Beraren irakasle artean aipagarrienik dugu Azpiazu'tar Eli. 1919-1920'garreneko ikastaroan Durango'n asi zan ikasten. Andik 1937'garren urterarte ikasten yarraitu zun. Lenengo meza 1935'garren urtean esan zun.

Latera, eladera, parantzera, españera, englandera, eberkera ikasiak ditu: doitzera apur bat. Españi'n, Venezuela'n, Belgika'n, Panama'n, El Salvador'en, Mexiko'n eta Guatemala'n bizi izana da. Oraingoz Guatemala'n bizi da, «Landibar» ikastetxe-ko Zuzendari eta Ikastetxe-Nagusian eladera irakasten.

«Jesus'en Biotzaren Deya»-n asi zan idazten; gerora, «Euzkadi»-n, «Jaungoiko-Zale»-n, «Revue International des Etudes Basques-en, «Yakintza»-n eta «Gernika»-n. «Euzko-Gogoa» euskal aldizkaria ateratzen ari da Guatemala'n, 1950'garren urtea ezkerro. Ilabeteroko orren baranoan ageri dira oraingo euskal idazle ta olerkari bikaiñenak: Orixe, Mirande, Iratzeder, Etxaniz, Aurraitz, Mitxelena, Onaindia, Andima, Altube, Labaien, Etxaide, Ametzaga, Kruwig, Zaitegi bera ta abar.

Olerkari zurrian «Goldaketan» olerki-idaztia argitara du Mexiko'n. Zarautz'en 1934'garren urtean, Aitzol zanak antolatzen

taratua. «Sopokel'en Antzerkiak» aurreneko idaztia Mexiko'n argitarazi zun. Argitaratzeko ditu «Bidalien Egiñak», «Parantzeko elertiaren edestia», «Sopokel'en Antzerkiak» (II'garren idaztia), «Erbesteko olerkariak euskeraz», «Gu ta gutarrak» t.a.

Or dituzu labur-zur, nere bizitzarekiko xeetasunak. Onelatsu jarri ditezke besteenak ere. Zure idazkeraz yantzita: ta olerkari bakoitzak merezi dizun iritzia labur eta dirdaitzu.

Galdekizun zail xamarra egiten didazu, adiskide:... «zeingura zeunkezan sail orretan sartzea»...; bertso-berriak egiten ari geranok ezkera egokienik izaten gure itz-neurtuak aukeratzeko. Ori yakin arren, orra zerrenda bat; nere ustez, irakurgarriak, noski: «Tori nire edontzia», «Goiko ereillea», «Maiteak etsia», «Larratxoriak», «Baserriko illunabarra», «Olatuarena», «Nire barneko satorrarena», «Zorion betea», «Yaungoikoaren yaurerriko altxorra», «Atzerrian udaberriz», «Lañoarena», «Euzko-Artzaiaarena». Geitxo aukera dizkitzut: eskuarki laburrak dira, ordea. Guziok «Goldaketan» olerki-idaztian dituzu. Arrezkero egin ditudan olerkiak illunagoak ornen dira: baliteke. Bigarren olerki-idaztia antolatzen ari nauzu.

Eskaritxo bat egingo nizuke: zure idazti eder ori egiteko al-dizkariak oro irauli-bearra izan duzu, noski. Ez al dituzu erbesteko olerkirik euskal itz-neurtuz yantzita arkitu? Zeintzuk?

H elatza ez zait gogoko, Orixe'ri bai. Idazkera ederrena ta egokiena aukeratu duzu, nere ustez. Orixe'ren zuzenbidea: «Finca Miramar, Zaragoza, Departamento La Libertad, El Salvador, Centro América».

Bidal idazu gure aldizkarirako olerki ta lanak: pozik argitaraziko dizkitzut: or igorri dizut azkenengo alea.

Elkarren alde Otoi egin dezagun. Agindu X'gan euskeraren alde,

Zaltegi eta Plazaola'tar Yokin'i

Lasarte'tik, 1935-X-31'an
Onaindia Abari, Larrea'ra.

Agur, Aba agurgarri: Erañegun Donostia'n izan gendun Euskaltzaindikoen Itzaldia amaitu zanean, zure izena eman nuan datorren Batzarrerako itzaldi-egille bezela. Ez dezu noski gaitzetsiko nere ausarkeria. Zeurorrek iñoiz esanaz-gain egin nuan-da. Oroituko zera noski.

Gaia, len aipatu genduana: «Aita Prai Bartolome Euskal idazle». Biografi ta estilo arttertze etab. Zeurorrek derizkiozun dana, eta zeurorrek derizkiozun eran.

Illebete ta erdi emen egin ditut, Lasarte onetan, beti udazkenean oitzen dedan bezela. Zuk Kalagurrira bidalitako ikerbide ta idazkiak emen arkitu ninduten. Eta orain berriro ere Kalagurrirako asmotan nabil datorren aste Ortarako. Eta antxen egon bearra nauzu Abenduko Andra Mariak arte gutxi-gorabera. Beraz zuk zure itzaldia egingo dezunean, ez nauzu emen arkituko. Ala ere ba'dakizu ondo artuko zaituztena. Naiago nuan emen arkitu banintz. Bai zure itza entzuteko, baita Zurekin itz batzuek egiteko ere. Len ere esan niuzn, Donosti ontan arkitu nai zindudala nere Udazken-oportxu onetan. Bañan etzaitut arkitu. Beste bein bearke. Esateko aundirik ez nualarik ere, zer-edo-zertxu esango genduan itz-aspertu batean. Nola-nai ere gu-re illobaren olerki saritua eman bear nizun. Orain eztizut bidaliko, ezpaitaukat esku artean; galdu-edo egin zait; bañan nundik edo andik arkituko det, eta bidaliko dizut asko luzatu gabe.

Itzaldia, ba'dakizu nun izaten dan: Diputazioko «Urkixoaretoan». Illunabarreko zazpiterdi-zortzirak laurden gitxitan asita. Lana, dakizun bezela, naiz irakurri, naiz esan: geienak orain arte irakurri egin dute; eta ondoren, irakurri baita, esandakoaren erakusgarri bezela, Idazlearen zatirik artarako egokie-nak... Eta azkenean iñork galderarik egin nai badu, erantzun.

Eztizut itzaldiaren eguna noiz dan esan. Illebete bakoitzaren azkeneko Ostiralaren aurregunean, bezperan; beraz Azaroaren 26'an. Eta itzaldi ta irakurtze, dana, ordu bete.

Idatzi eidazu erantzun laburtxo bat idazki au artu dezun ezaugarri.

Eta agur onenbestez. Egin lan asko. Eta ba'dakizu gure lanetan laguntzeko beti prest daukazula zure antziñako adiskide,

Lekuona apaiza

Donostia, 3-XI-53

Aite Yakue Onaindia agur.

Amorebietan.

Neure yaun eta adiskide; Artu nuen garaiez zure gutuna, eta bai zure illobari eman ere zenbeit itzneurtu eta poemak, zuretak: orain kopiatuko dut «Lehen eta orai», ezpaldin ba du zure ilobak, nik emanikakoen artean.

Naiko ziñulakoan nago, geure Euskalzaindiako bilkuretan, hitzaldi bat eman, Fr. Bartolome de Sta. Teresa-z; esadazu berehala, gertu egongo zeran, ilabete hunen 26-ean. Bainan geure xedea da, ez geyegi sermoirik sartzea: gendeak nai duelako solas ariñ, atsegin, eta Literatura zaharrez gaiñera: zuri iduri bayatzu illun edo zakar-egi agertuko dela Fr. Bartolome-taz soilik mintzatzea, Orrezaz gaiñera sar zenezkezu beste zerbeit, zure olerki oyetatik batzu, edo Bustintza-ren konta bat edo bi parregarri... zuk ikus: ordu erdi edo 3/4 da itzaldiaren iraupena.

Zure yardespenaren zai gelditzen da zure zerbitzari,

Aingeru Irigarai

Zaragoza'tik, 1953-XI-10'gn.

Onaindia A-ri. Larrea'ra.

Etzaukodaz bapere buruan edo oroimenean, bañan ez da dura. Orduan gaztetxu ta ez-ezaguna baitziñan

«Milla euskal-olerki onenak». *Bota, bota Iaungoikuak emongo dota*. Gaztelarrak diñoena: «Pobres, pero hidalgos». Egizu gura dozuna nire neurtitz orrekin. Neuk aukeratutea ez deritxot ondo.

«Amaika maite-lelo ba-dogu euskeraz —diñostazu—, alan be, lizunkeru gitxi; Etxepare'renak, aundienak be. Gaur, oster, a makal itxi dabenak ba-dira». Damurik! Orretaz diñardu gaur berton iaso dodan Oiartzabal'dar Martin'en gutun batek. Ikus nik erantzun deutsodana.

«Mirande ori txori bitxia da. Yudutar (heberkera mintzatzzen bide du) komunista, nik ez dakit Zenbait —*ista*. Ele edertzale oriek burua galtzen dute edozer ausarkeri ta gordinkeri ontzat emanez. Satsa gain-zuriturik ere barnean ustel. Zaitegi'ri esana daukat ez dutala aurrera irakurriko Euzko Gogoa. «Mosu garaia», «Iturriko lastana», «Ars amandi» ta olako oriek *nec nominentur in nobis*. Olerki-gudu Ortarako gauza bat igorri dute guziz nabarmena: Garcia Lorca'ren «La Esposa infiel» antzera «Emazte Zintzoa», baiñan *incidit descriptio coitus valde vivida*. Gure adiskide E'tar N. apaizarena da. Burua galdu ote du? Eta Zaitegik? Len-saria eman ote ledikion? Oarkizun batean au ipinten du egilleak: «Ba-dakit Orixe'ri atsegin izango etzaiona. Irakurri diet Lekuona'ri ta beste Zenbait apaizi, eta «euskaldunok ez ornen dugu beti gizagaixo agertu bear». Literatura orrek gizona aski buruarintzen du».

Ez dakit orretan eretxi bardiñekoa zaitudan. Itsusi ta zantar iduritu yakun A. Donosti'k «Gure Herria»-n *Charmagarria zira, eder eta gazte* argitara emon ebanean. Ez al dozu ori iminiko. Ez *Juana Bizenta Olabe eta* olakorik. Lizardi'ren XX (aiztu yata zelan yakon), bera il eta laster Markiegi'k argitara ebana. *Aitzol' is sententia coitus describí videtur*; ni ez nintzan konturatu Orrezaz. Zuk ikus *ut moralista, non ut litteratus homo*.

Ni Orixe'n iaioa naiz (Orexa, Gipuzkoa), 6-XII-1888'gn. Nere biziko itzal aundia itzal igaro egizu, edo bestera... «Hizo

sus estudios en la Compañía de Jesús, de la cual fue despedido como San Luis Gonzaga y San Francisco de Regis».

Aita Gaztelu, nire senitartekoa, onara bidean ikusi neban. Iru egun egin be bai kaputxiñoetan. Musika ioaldi bat ederra emon eustan. J. S. Bach'en Coral'ak, iru ordu laurenez. Argana zuzenbidea: «Euskal-Echea, Llavallol, República Argentina». Memento.

Orixe

Zaragoza'tik, 115'-XII-12'gn.

A. Onaindia'ri. Larrea'ra.

Agur, adiskide on: Emona deusut erenegun erantzuna, baiña zertxobait erakixitea otu yata. Gurago neuke «Iainkoagan bat» eta «Lizardi gurean» kendu ba'ziñeiz. Aski ezagunak dira ta *istori tristea* dabe beuren gain. Lelengo orri bigarren saria emon eutsoela Errenderin? Guzur andia. Ebazletatik bat bera be etzan konturatu ezer balio ebanik. Esana neutson Lizardi'ri, baña bear eta bear... gura ebana egin zegiala erantzun neutson.

Iru sartu ebazan batzaldi aretan: XX (ez dot gomutetan izena), «académica», «brillante» orreitakoa. Aitzol zanak baztertu eban sortatik. Saria etara legiken bildurrez? Artatik neurtitzxo bat kopiatuten eustan ebazleetako batek nerea zala asmauaz. Ez zan agertu argitara.

Bigarrena «Idi zekena», errikoia. Ba-nekien ziñegotzi aiek ez ebela sudurra lar zoli eritxia zuzen emoteko. Lauaxeta'k berea irakurri eustan «Euzkadi»-n, zer neritxon eta... nik ere bialdu ete neban. Bai nik irakurri be, naikoa bildurrez eta gorri-gorri egiñik au esan eustan: «Nerea bañon askozaz ohea da; etarako dau». Nik: «Ez, ez; iñortxo be ez da konturatuko». Ni *propheta*. Ez eban lortu autarkirik bapere, eta Lizardi'k, sekretarioak, esan: «Ori bañon askozaz ohea ba-da or sortan». Orduan Aitzol'ek idatzi eustan Bilbo'ra, bigarren saria nai nukean. Ez bigarrenik, ez aitatzerik be, erantzun neutson.

«Lizardi gurean» orrek bakarrik izan eban autarkia len-sarirako. Lekuonak berak esan eustan Endaiako zubian, Donibane Garaziko Biltzarrera giñoiazala: «Nik zuri emon deutsut».

Ernani'ko batzaldia zan. Bigarren ebazle Intzaragai zana. Ez eban geia irakurri, belu zalako; lan larregi. Irugarrena Arrese (Emeteri). Oneri sari-eguna baño iru egunez lenago emon eutsoen izugarritzko paper sorta, eta, «ori ez da formalidadea» esanez, ez eban irakurri gura izan. Aitzol'ek saria P. Etxeberria'ri emon eutson. Askotan baztertu eutsazan *sobreak* len-saria lortu ez nengian. Azkenean Estornes Lasa'ri Eusko-Ikaskuntza'n iason-agiria eskatu neutson. Alperrik. Bakarra sartu neban, neuk, beti lez, Aitzol'en lantegiko ziskuan.

Baña noizbait atrapau neban. «El Dia»-k agertu eban, le-lengoz, lan guztien zerrenda, euren idazpuru, zenbatgarren eta guzti. Ori, batzaldirako epea bukatu zanean. An agertu da nire ori «Imoz'ko apaizgaia» (eriotzea egin ebana), poemarako egiñik neukona. Sari-egun bezperagoan «El Dia»-k emon dau bigarrenez zerrenda ori; baiña... nerea otarrera yaurtia, beti lez. Ioan nintzaxon bere etxera, ta; «Nererik ez dozu iason ala? «Ez, onara ez da erdu». «Ba-da ordu», nik. Eta lelengo zerrenda erakutsi neutson.

Lekeitio'n aren iges ibilli nintzan beti. Aspaldietan ez nintzan agertu euskal-pestetara. A zala bide atertu nintzan «El Dia»-n idaztez, azkenean, bai euskeraz, bai erderaz. Ixillik eta bakarrik etxean nengola, ara be zirika «El Dia»-tik, aren adis-kide Tomas Garbizu, «Zubigar» zanaren anaiak batez be - uno de los cuatro condiscípulos de Comillas: Aitzol, Jautarkol, Barrensoro, Garbizu. Bakea gura nebala etxean, idatzi neutson «El Dia»-ri, eta geiagoren geiago ez bialduteko gure etxera, dubarik be.

«Euzkadi» bidean lapurtuten eustien, eta gure etxean ez zan sartuten «Ekin» eta «Eskualduna» besterik.

Lekeitio'ko egunaren biaramon baltza! Etxerantza alkarre-gaz asi gintzan Lekuona, Aita Altzo, Labaien, Markiegi, Aitzol

eta ni. An asi iatan Aitzol burruka-billa. «Ez dot eletarik gura», nik, eta beste muturrera ioan nintzan popatik. Nere atzetik bera. Ni ixil. Deba'n trena artunda Donostira bidean, barriro zirika. Nik: «Begira, Aitzol, zuk eta neuk geuron bidea dogu, ta ioan dadikez zabal-zabal alkar io gabe». Zergaitik guzti au? Bera bakarrik izan gura eban Lizardi'ren kritiku, ta ez gengozan erara. Lizardi ta Jaka-Kortajarena ta ni ez ginduzan bere deboziño-koak. Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena zituzan bere kutunenak. Erdu gara Donostira. Bazkaritakoan, alkarren ondoan imiñi ginduzen Aitzol eta ni; Aita Altzo nire aurrez aurre. Ni ixillik. Aitzol'ek *batuta* eroan gura eban, baiñan geroenean A. Altzo'k itaun bat egin eustan, *Derecho Romano* dalakoaz. Nire eritxia emon neutson, eta Aitzol'ek niri aserre: «También entiende Vd. de eso?» Nik malko bi ixuri nebazan barbantzua baño andigoak, eta arrezkero tutik eneban itzezin egun guztian. Bazkal ostean aiek pianoan iardun eben euskal kanta emonez; ni beti baztar-antzetik. Atsaldeko lauretan edo etxerantza. Ni Labaien'ekin Tolosa'ra. Bere autoa imiñi nai eustan ni Orixe'ra eroateko, baiñan anaiak erabillan egurastuten. Egun goibelak aiek!

Gero Prantzian be agertu yatazan arerioak, batez be *los que tienen la sartén por el mango*. Nire lanik ez eben argitara gura: Bergson'en Pilosopia ta abar. Ointxe be Belloc'eko beneditarren etxean obeto nengoke —aspaldi eskiñi eustien gelatxo bat— Aita Mixelekin, Iratzederrekin eta beste lagunekin. Bañan an dago Monzon iauna, Ministro de Cultura, arerio leiala. «Su poema es hermoso, pero le falta una cosa: le falta sencillamente poesía». Aberatsa bera, ots, emazte aberatsa du. Alan da guzti be, Euzkadi'ko jaurlari lez, zerbait *unkhitzen* edo du. Niretzako ez da olango maukarik.

Emen ederto nago, guztiz ederto. Zetako ioan orrera auzibilla? Iñoz etxera ba'nendi, ba-dakit zer zokotan gordeko nazan. «Nisi granum frumenti... si autem mortuum fuerit...».

Beraz, edo kendu egizuz bi bertso orreik edo ez esan, beintzat, «Iainkoagan bat»-i bigarren saria emon eutsoenik. Ni ixildu naz, baña ba-daukot eskubide neure alde iokatuteko. Bi orrein ordeztu «Et habitabat cum bestiis» eta «Berraondo'ko Meza» gurago neukez.

Ez ete litzake oba «Milla euskal-olerki bikain» onenak baño? Aiztu yatan *h* onezaz erantzutea. Zure Irizpidea ona dirudit. Memento.

Orixe

Guatemala'tik 1953-XI-20'garrenean
Onaindia'tar Iakoba A. Agurgarriari
Larrea'ra.

Adiskide ona: Aurrenik Gabon eta Urte Berri zoriontsuak opa dizkitzut, Josu Aurraren obari onenak eskeiñirik.

Zure azkenengoa eskuetara zitzaidan eta atsegin bitsetan iarri niñuzun bearrik.

Nere ustez zorrotzegia dugu gure «Orixe» andia, iainkotiar olerkiak besterik ezpaititu onartu nai. Alare, on deritzat alegiñak egitea berari atsegin ematearren. Alabañan bide-erdian barrena ioatea deritzat zuzenik: likiskeriak eta gordinkeriak, eztitut onartzen, iñola ere. Gizon danaren kezka ez ditut astangarri ta arbuiagarri, ordea.

Otoi, igorri izkidazu laupabost olerkiok, erbesteko olerkiak euskal-itx-neurtuz iantzita, alegia.

Milla olerkion itzaurrean ezarri gogo dituzun iritziok berebat igorri izkidazu, poz-pezik argitaraziko dizkitzut-eta. Prai Bartolome'z izan duzun itzaldia ere pozik iasoko nizuke argitaragarri.

Argitara bage dituzun idaztietatik ere, aldaki bat edo kopi bat atsegiñez artuko nuke: baitik-bat *Biotza dardar* (olerki-idaztia) ta *Guliber'en Ioan-etorriak*, Euzko-Gogoak idaztiak ere

bereizian argitarazi nai baititu, batez ere, orain Andima nere ondora datorren ezkeror. Aurrenik zabalkundea egingo nuke onenbeste arpededun iritxi arte: orrezkero, xautu-bearrak iaso ta ondorena zuretzako litzake. Zeuk ikus dagokizunik.

Aurtemein Mexiko'tik iaso-berriak ditut nere idaztien Zenbait ale: «Goldaketan» egal-ontziz igorri dizut, besteak itxasoz ta legorrez.

Gure aldizkarian argitara ditudan nere olerkien bat-edo-bat eder ba'deritzazu, argitarazi dezakezu zure Milla olerkien artean, teknika edo antzez zerbait aurreratu dudala uste baitut. Justo Garate euskeraz idaztera iarri dut; totel-motel etorri arren, iarraibide ona deritzat, gure gizon ikasiek euskeraz asi ditezten: beste idaz-lan bat ere igorri dit bearrik.

Karmen'go Argia asiko al duzue berriz argitaratzen: nere gaztaroan pozik irakurtzen nun lengo zuen aldizkaria eta gure Errian on aundia egiten zun: erritarra ta iakingarria baitzan.

Onenbestez, Oraingoz besterik ez.

Tori nere euskal-agurrik kartsuena ta agindu X'gan euskeraren alde zure adiskide min duzun

Zaltegi eta Plazaola'tar Iokin'i

Zaragoza'tik, 26-1-54

Aita Onaindia'ri. Larrea'ra.

A. Agurgarri ta adiskide on: Lengo astean itz emona neukon neure burua, ez nebala eskutitzik egingo S. Agustiñen «Aitorkizunak» amaitu arte. Azkenengo iardunean diñardut (XII'garrenean) eta ointxe beste lau eguneko lana. Gaur goizean iaso dot zurea, ta berela ezin erantzun. Bi bider irakurri dot aurkibidea eta ageri danez, diranak eta ez diranak batu dozuz liburugei ortan. Ni, beti lez, liburu barik eta nire Oroimenaren mende, ez nadike baitaratu zenbat uts dauden olerki ixilduenak. Ba'leike zuk ez ixildu izatea, bainan ez dodaz idoro Xenpelar'en

«Bei betroia» ta «Mutil zarraren despeira», millaren artean ez-ezik eunen artean bere bikaiñetariakoak. Ez eta Dibarrart'en «Sotoko (g) ophorra». Ez eta Sor Juana Inés de la Cruz Mexikutarraren «Andra Mari'ren zeruetara iasoera» (bizkaieraz), ez eta Iturrino'ren «Markesaren alaba», eskual-herrien egin den phertsurik ederrena, bidarraitar batek esan eustanez. Gero «Mendiak bethe ehunez, beldurrez» (sic Bidarra'i'n) eta «Erregek gizon ederrik», bat eta bera dirana lelengo ahapaldia ta au irugarrena; «Xuriko» eta «Mehetegiko xakurra» bere ez ete dira olerki berbera? Urrena, «Ezkondut nintzanean» bi bidar aitatzen duzu. Nik dakidana irugarren bat ete da? Naiko zantarra: «Gaztea nintzanean —denbora batean— ez nintzan sosegatu —ezkondut artean—. Ezkondut eta gero —lenengo gaubean— jipoi bat eman zidan oiaren aurrean», etc. Ziur nago, bera dan lez ez dakigula ez zuk eta ez nik. Taberna-zulorako ohea. Osterantzean, ez neuke esango gure Bilbilitarragaz «sunt mala», baiña bai, nere gardiz, «sunt mediocria multa». «Sunt bona» bere bai, eta asko. *Aliter non jit, Avite, liber*. Baiñan erdi erdiko orreik baiño kaxkarragoak ageri dira beste ernetako lorategietan (Anthologietan). Orreik bere, euren mendeko barri emoten deuskue, ta ba-dabe, ondo begiratu ezketiño, alderdiren bat polita. Itz labur batzuk imiñi dagidazala liburu ori aurkeztuteko. Gatz egiten iata. Zer esan? Aski du Itzaurrea. Loikeririk ez-baiña ba-dozuz olerki naiko ñabarrak, esaterako «Mendiak bethe elhurrez». Azkeneko ahapaldia... «ene maiteñoari - gerria loditu» (zorroa loditu, ipurdia anditu...).

Goizean ibilli naz «Berraondoko Meza» ta «Et habitabat cum bestiis» billa, baiñan ez dodaz topau ez bat eta ez bi. Ez dot gordetan «Euzko Gogoa», eta an dagoz. Bat argitara bagea igorriko dautzut, orain urtebete egiña, Zaitegi iaunari azken bialdu neutson, «Ixiltasuna». Nik uste etarako daula zuk orduko. —Jaka? —Ez dot aren barririk, ez belarririk. Argentinan zan, eta neregana zuzenbidea eskatu ei eban. Besterik ez dakit. Bi auzoak guziz lagun gintzan, baiña karta idazteko ni baiñon arlo-

itza zotzezko giltza». S. Agustiñekin egun terdiko lana.

Liburuan izena aldatzen ba'deutsozu «Milla euskal-olerki» (aldiz-urrena aukeratuak), itz bi esaten saiatuko naz. Osterantzean, ez. Argi ta garbi. Memento.

Orixe

Aranzazu, 1954'go. I'ak 18.

Karmeldar anai biotzekoak: Pake ta On.

Ez dut zalantzarik; abegi ona nezake zuen artean. Asmo bat agertzeratorkizute: Euskalerriko anaien alkartasuna nai genukela. Aspaldi egin bear zan gauza, guztiz bearrekoa dan egin-kizuna; beste ezer bai ote da gero?

Ortxe nunbait izango da urte bat. Eskutitz interesante bat egin zigun Ibarrek. Eta Euskalerriak *euskaldun* iraun zezan egin-bearreko batzuek aitatzen zizkigun: 1) Seminarios y estudiantados religiosos:

Que se cumpla en ellos las disposiciones de la Iglesia referentes al cultivo del idioma patrio y al estudio de las necesidades peculiares de cada región. II) La Acción católica... III) Fundación de una revista de cultura eclesiástica y predicación, con secciones de cada especialidad, bajo los auspicios de las autoridades diocesanas y con redactores y cooperadores de uno y otro clero. IV) Editorial euskaldun.

Berak esaten zuan eta nik ere onela derizkiot: gauzak nola dauden ikustean, animorik gabe gelditzen gera. Gañetikakorik ezin guk konpondu; alde batera utzi dezagu. Zer gertatzen da beraz? Alkartasunik eza eleiz-gizonen artean (egiten degu lan apur bat baño bakoitzak bere aldetik eta onek emaitz gutxi du). Onen frutu eta ondoren erriarenik eza. Ederki zion At. Harin-

bart'ek (Belokeko benediktinua) Guatemalako errebista batean: «Gure bizi moldeak eta ohidureak goraki diote egiazko anaitasun bat nahi dugula ezarri ororen artean gure Aberrian».

Egin genien Beloke'ko eta Ustarritz'koeri. Ez dugu oraindik erantzunik artu. Bai Lazkaokoeri ere, auna izan dugu. Ona atal batzuek:

«Pozaren-pozez irakurri degu igorri diguzuten eskutitza. Alaigarri zaigu zuen artean dirakin zaletasunaren berri jakitea, izan ere Euskalerrian egin-bear aundia dagola guztiok ondo dakusgu».

«Atsegin-atsegiñez batuko gera zuekin, zuen eta gure elburuak ditzaken eragozpen guziak garaitzeko».

«Guzion artean egin dezakegun lanak igali mardulenak eman ditzan lendabiziko eginbearra, deritzaigu, gure elburua argi ta garbi mugatu, «programa» bat egiñaz, zer dagigun eta nora goazen ikusteko. Eta ondoren bakoitzak dezaken kemen aundienaz iarrai ekindako lanari».

«Gure ustez, orain asten geran lan au apaiztu ondoren ez degu baztatu bear: orain izendatzen geran oro gero ere lan berean jarraitu bearrean gera».

Donostiko apaizgaiekin ere alkartu nai izan degu; baño gañekoen bildur aunditxoak daukate, ez dira ausartu. Oraintxe gutxi dala egin diegu Pasionistei. Urrungoan or dituzute denen seiñak. Ikusiko dugu beste iñorekin batzerik dan. Batasun au filosofo eta teologuekin nai genuke; baño asteko aski ditugu teologuak.

«Euskerak burua jasotzea nai du *Jainkoak*» (Kardaberaz benegarriak).

Agur. Zuen apaiz-gaikide,

Ettxeberria'tar Joxeba Ant.

Aranzazu, 1954, Ilbeltzak 20
Onaindia-tar Jakoba Aba, C. D.
Zornotza-n

Ene Aita agurgarria:

Or bialtzen dizkizut gure teologo-ikasleetariko eskutitzok. Eta bide batez nik ere eskaritxo bat egin nai nizuke: ara zein. Bidasoz-aruntzako euskaldunak Euskal-Literaturaren Antologia edo Bilduma bat gertutzen ari dira eta emengo prosisten sailla neri egotzi didate. Jakiña, eman didaten tartea motxa izaki, ezin an gauza aundirik sartu; ala ere, Fr. Bartolome-ren «Olgeta» aetatik bi edo iru orrialde onenetarikoak pozik sartuko nituzke. Bialduko al dizkidazu bi edo iru orritxo oiek, zerorrek aukeratuta? Mesede aundia egingo zenidake eta txit asko estimatuko nizukena. Kopiatzean, Euskaltzaindiaren ortografian ipiñi bear dira, baiña marradun letra oien ordezt (1, r, t...) , letra bi aldiz ezarriaz (ll, rr, tt...) (Antologiaren antolatzaileak ipiñitako arauak dira auek). Pusketa zein tokitatik artua dan ere jarri, otoi.

Eta zure Milla Olerkiok nola dijoaz, ba? Argitaratuko ote dira lenbailen? Irrikitzen gaude ainbat ariñen ikusteagatik. Aita Sorarrainek esan zidan nola bildurrez ziñan baimena eskatzeko. Eztut uste trabarik ipiñiko dizutenik. Aldizkariak ez, baiño Liburuak samur uzten ornen dituzte. Dana dala, etzaitez atzeratu. Guk ere egun auetan eskatu bear dugu baimen ori liburutxo bat ateratzeko (guk Donostiko Prensa y Propagandara eskatzen dugu; bearbada, Donostian Bilbon baiño errezago izango da lortzea...)

Zurea

Villasante'tar Koldobika A., O. F. M.

Ondarrabi, Otsaillak 16-1954'gn.
Onaindia'tar Yakoba
Karmeldarra
Larrea-Amorebieta.

Agurgarri zeran Aita maite ori:

Zabarra ta lasaia nauzu nere gauzetan, ez arritu beraz illa-
bete banatorkizu.

Milla Euskal-Olerki batu nai dituzu; lan ederra eta on-ona
egiten ari zerana. Zorionak. Badakit lana aurreratuta daukazuna.
Ulero Donostiko aldundian egin oi diran itzaldi xakon orietan
izaten nauzu; zurea ez nuen entzuterik izan. Badut pena. Or-
duan alkar izketatu bagifia, agian berotuko nintzan zertxo bat
bedere zuri bialtzera. Gaur, Satarka eta Basurko'k beltxak eta
bi esan dizkiate eta orrexegatik nator zuri galdera egitera. Ga-
raia alda oraño?

Olerki sail aundia badut egiña, batzuek sarituak... denak
txiroak eta ezerezak. Alaere ikusi nai ba dituzu, pozik utziko
nizkizuke. Zu Donostira, nere ustean, maiz etortzen zera, edo
bestela pozik etorriko nauzu Amorebietaraño, jakitean zu or
zaudela; ainbeste merezi dezu, eta ez nuke zure aurrean lotsa-
garri eta alproja bat bezela gelditu.

Zure menpeko nago eta bildurrik gabe agindu.

Beti Jelpean

*Artola'tar Pernando
Bordari*

Guatemala'tik, 1954'gko. Orrillaren 8'grn.
Onaindia'tar Iakoba Aita A'ri.
Larrean

Apaizkide ta adiskide ona:

«Milla Olerki onenak» idaztiari ezarri diozun itzurrekoa,
erabat bikain eta eder idatzi duzu, noski. Idaztiaren zabalkun-

ñera, beste 6 zenbaki eratxiko dizkitzut zure lagun artean zabaldu dezazun. Iñolako zabalkundea egin nai dugu, gure aldizkaria gotorerazteko. Ain zuzen ere, Andima euskal-idazle bikaiñenatarikoa nere ondoan dut lankide, bazterrak arrotzeko.

Igorri dizkidazun erdal-olerkiak ez nitun bear, damurik. Erbesteko erderetatik euskerara itzuliak nai nituke, ain zuzen ere, idazti biribil bat ontzeko, Orrialde batean españeraz, parantzerez, inglanderaz, doitxeraz t.a. iarri gogo nuke, beste orrialdean, berriz, euskal-itzulpena: arean, oraiñarte argitarazi diran euskal-itzulpenak. Beraz, zure txordoketan olako euskal-itzulpenik arkitu ba'duzu, pozik artuko nizuke aldaki bat.

Zertan ari da «Karmen'go Amaren Argia»? Erabakirik artu al duzue?

Egunetan egingo dugu agiri bero bat, «Euzko-Gogoa»ren idaztiak» deritzan saillerako bear ditugun arpidedunak irixteko. Ain zuzen ere, Iñaki deunaren egunerako argitaraziko didate «Bidalien Egiñak», «Euzko-Gogoa'ren Idaztiak» saillean.

Oar ondo: euskera osotuan lengoari buruz, *zitzaigun*, adibidez, etorri zitzaigun ez zaigun: oraingoan buruz ta relativoz darabilgu *zaigun*: etorri zaigun gizona.

Apaiza ote zan Manterola'tar Joseba, «Euskal-Erria»-ren iraslea? Ezbaian ari gera emen.

Aipatzen duzun «Errebido» urrutiko olerkaria, Erretereria'tar Gorgoni duzu, Andima'ren esanaz, beraren erkide baitzan, elantxobetarra alegia.

Oraingoz besterik ez,

Tori nere euskal-agurrik kartsuena

Agindu X'gan zure adiskide

Zaltegi eta Plazaola'tar Iokin'i

Eibar'en.

Aba agurgarri, Agur! Lengoan, Altzo'tik Donostira'koan, Mokoroa Abagaz egon gintzoazan Tolosa'n Sebastian, Agustin eta ni. Iru ordu inguruz Euskera ta euskal-gaiak izan zoazan gure barriketa-gai; ekin ta ekin, iru orduok iru miñutu lez juan zoazan. Ire (ta zegaitik ez *gure*}) olerki-xorta orretzaz zerbait baño geiago itz egin genduan. Oso entzungarri ta jakingarri dozak sail orretan bere eritxiak. Hiribarren («Eskualdunak»-en egille) olerkariaren argitara gabeko olerki-mordoxkaren barri Pierre Lande'ek ei yakik; eta, bere ustez, Lande'kin egotea oso *endagarri* litzakek. Eta abar, eta abar... Igaz barriketa-aldi bat egiteko gogo andia ei yaukok; albait lenen, ire *mutiko* orri prakak jantzi baño len. I Tolosa'ra, beragana, joaten ezpaaz, bera etorriko ei yak Eibar'era; baña eu ara joatea obe. Orra ba berak iretzat niri emondako enkargua; beteko ete dok ik?

Gure «Orix» andia Gabon-aurretik Lazkano'ra etorteko ei dok, «Breviarium Romanum» euskeraz ipinteko asmoz.

Efren Peru'tarra zetan yagok? Erabagirik artu ete yok?

Gorantziak orko danai.

Agur!

Ire anai

Arteaga'tar Laurentzi

Bilbaotik, 1954 bagillaren 24-an.

Onaindia Aba agurgarriari,

Eibar-erat.

Adiskide zintzo: Emen dot zure karta atsegingarria. Aita-zen daustazuzan olerkietaz batzuk kendu egizuz: Zorigaitz eta itxaropen, Alde guganik, Uso bi iduri.

Orien ordez emen dituzuz iru askoz obeak, nire ustez: Alaba galdua, Zaramazaleak, eta —labatik arakoa— Arbasoen herri. Onetxek ipini, arren.

Eta Orail edo Amesaren orde, leen igorri neutzun MAI-TALE BI ez ete ohea? Errota zuri eta Txintak gogoratzen ditut, baiñan beste antziñako orreik —kendugarri diranak, alegia— eztakit zein diran bere. Ba-niñoan oar orretan gudu aurretiko olerkitxorta galdu egin nebana, eta oraiñarteko alegiñak alperrekoak izan ditut eurak aurkitzeko. Ba-ziran an beste batzuk politak, adibidez LORE GORRIAK, eta aurreragoko urtean Jauregi-ren saritu-ostean ezarri ebena, AIDA ZURI, AIDA GORRI... baiñan galdu ziran argitaltzeke, eta kitu.

Nire bizitza zeetasunetan, zuzenketa bat egizu. Lekeitioko Sariketan «Aipagarria» izan zan nirea (zurea ere bai, eta beste iru). Lenengoa Otamendi uste dot izan zala, eta Ohorezko Aipa, Sukia.

Oneik artzean mesedez erantzungo daustazu, zure eskuetan dirala yakitun nadin. Laztan agurra zuretzat zure adiskide

Eusebi'k

Zeanuri'tik, dagonilla, 27-1954'gn.

Onaindia'tar J. Abari.

Eibar'en.

Ene aizkide maite In Xto: Aspaldi zure eskuetan egon bear eban idazki onek, baña zeugaz barriketaldi bat egiteko asmoa neukalako ez neutzun idatzi. Orra yoateko asmotan nagoan arren, ez dot gura itxaron geyago.

Idazti ori argitaltzean asmo ederra artu dozu, baña ez erreza.

Nitzaz gauza andirik ezin neikezu esan: 1890'gn Epalla, 18'n Zeanuri'n yayo, Yaupari ikasketak Gazteiz'en egin eta 1914'gn. yauparitz artu (Epalla, 28'gn.). Yaupari lanak: 22 urtean Eibar'en, 10 ^{1/2} Ingallanda'n eta enparauak emen.

1916'gn azi ta 20 urtean Yaungoiko Z'ko argitalbenetan idatzi neban eten barik, eta Euskeltzaindian Laguntzale lez lenengotatik. 1920'gn J. Z. Bazkunakoi Lemoa'n egindako itzaldia argitaldu zan. Lenengo Bederatziiurren ta olango batzuk izan ziran. 1921'gn Goi-izpiak, Santuen Bizitza Laburrak Euskaltzaindiak 1921'gn argitaldu zituan. «Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak», (1922) dakar Durango'ko Udaletxean egin neban itzaldia. Batez be Zumarraga Aba ta Astarloa'tzaz. 1929'gn «Smichdt'en Ipuintoak» bigarren argitalpena 1934'gn. Agirre'tar Domingo'ren omenez Ondarruan egindako itzaldia «Yakintzan» Agorra-Urrilla 1934'gn. Baita «Yakintza» Loreil-Garagarrilla 1933'gn «Eusko-Yakintza ta Elertia» deritxon lantxo bat. Etorri nintzan ezker euskeraz idazteko aukera gitxi izan da-ta erderalbenak egiten astia emon dot; bost idatzi pantzeratik eta bi ingalanderatik biurtu dodaz. Baña emendik aurrera argitaltzeko eragozpenik ez ba'da, Euskerari ekin bearko. «Yesu-Kristo'ren Alatzak» gertauta daukat eta beste ainbat lan len-goak pilatuaz. Orixe da dana.

Etkezarraga'tar Bingen (Zidorra)tzaz auxa bakarrik dakit: 1890'n Urtarrilla 22'gn Zeanuri'n yayo zan. Bost urte Valmaseda'n Miren Biotzeko Semeen ikastolan (Valmasedan) igaro zituan eta bere olerkiak oin aitatu ezin leiken Euzkadi'n, Arratia'ko Deya ta Y. Z'n argitaldu ziran. Oin Arjentina'n oin saspi urte yoanda.

Aukeratu dozuzan olerkietatik. Zer esan? Atsegin yataz, baña ba'daukadaz zelanbait pillatuta berreunen bat, bat edo beste atsegiñago yatazanak. Yakiña, ni ez naz olerbertsogille baño. Berein-beregi iñoz be ez naz yarri «olergille», yakin bear litzakezan egiak yantzi apañez ipinten baño. El arte por el arte nik beste batzuntzat itxi dot. Orixe dala-ta «grifo»a zabalduta berez urten dabena ia bape zuzendu barik argitaldu dot. Orra noanean Y. 1. batzuk erakutsiko dautzudaz, bear ba'da ezagutuko dozuz baña... Orixe bein idatzi eban lez «yolas-kara» egiñak

izan dira nire bertsoak. Emen bialtzen dautzut «Edurtzan» zer deritxozun ikusteko. Ondo ba'deritxozu A. Livino'ri bialdu zeinkio, *Karmen'go Egutegian* argitaltzeko.

Beste barik, agur or Y.l. datorren illaren lenengo erdirantza ikusi artean.

Zurea In Xto.

Manterola ta Urigoitia'tar Gabirel

Elorrio'tik, 1954'gko. Iraillaren 16'gn.

Onaindia'tar Jagoba Aba Jaunari.

Eibar'era.

Agur, Aba agurgarri: Eskuetan zure azken-lerroak, bost olerki-izenakaz. Emen doakizuz bostok, lengo Fonetika-arauak (Euzkeltzale-Bazkuna'renak) aldatuaz, guztientzat aditzeko bide errazagoa dalakoan, eta geienak darabilen era jarraiturik.

«Gaztearen negarra», zerbait aldatu dot: «Bai Euzkadi'n mendiak: Bideak geiago»'ren orde, aux: «Bai lur ontan mendiak! Bideak geiago». Eta berago:

«Ta zer! Pozik il ziran: Urtzi ta Euzkadi

Ezpanetan ebela, ezpan ta biotzan!»,

beste era onetan:

«Ta zer! Pozik il ziran: Urtzi, Euzkel-Erri

Gogoan ebezala, ezpan ta biotzan!»

Ondo al-dago? Baita era onetara bere izango litzake:

Urtzi eta Aberri...

Baita onetara be:

«Ta zer! Pozik il ziran: Euzkel-Erri ta Urtzi»;

baiña batek edo bestek esan ez dagian Urtzi baiño lenago Euzkel-Erri darabilgula... Zeuk deritxazuna.

Aldatze onekaz, bardin izango litzake «mendigoizale» ori gudari bat nai erreketek bat izan; geratu dan letz, iñok ezin daieke agorik irigi.

Beste olerki onek, ikuturik bear izango? Zerbait egin dau-tsot. Zu maisu. (Nire aurrean zure olerki-taldetxua: «Saratsa ta Itxaropena», «Ontziska ta ekaitza», «Gaztar» ta «Larrosa le-gor». Zabalkundea-Sorta-ren 14'gn. idaztian: ELERTI).

Eldu yat niri be «Euzko-gogoa»; uts batzuk aurkitu dodaz nire lerroetan: arin ibilliaren ordaiña. Ikusi dot «Milla olerki onenak»'en Itzaurrea (nik, Aurre-itza, Aurritza edo Sarrera ipi-ñiko neukean); ederto dago, atsegin izan dot. Baita 27'gn in-goskian, gure eskumaldean, diñoana bere, itzen bardin amaitze dala-ta; ez nekian Orixe'k be olan uste ebanik.

Orain, ondo ta apain urten dadilla idazti ori, oso apain, ne-gurri txikian (manejable y transportable), ingi onean ingi mea, «papel Biblia»? azal ederrean, azalpen ederragoan, (batzuk narruzko azalpena euki dagiela, niretzat bat beintzat), itz batez, guztia ondo ta dotore; bear du olako euzkel-olerti idazti goren-goena-ta! Txanpon batzuk geiago emon bear ba-dira bere. Eta uts-egiten edo «errata» gitxigaz.

Gogor egin eta barriz be zorionak. Eta nire beste aldetik, beste milla eskar aintzakotzat artu nozulako. Gure Aita Artea-ga'k egingo dauz barreak!

Agur, ba; agindu, ardura gabe, nai dozuna; zuri laguntzeko beti gertu.

Kisto'gan zure adizkide

Kerexeta'tar Jagoba

Praga'tik, 1954'gko. Agorrillaren 30'ean.

Onaindia'tar Jakoba Aitari

Larrea-Amorebieta'n.

Aita guztiz agurgarria:

Jauregi'tar Koldobika jaunari esker zure zuzenbidea daukat, banan zure izen argia aurretik ezaguna zait, euskal-idazle os-petsu batena delarik.

dizkariak eta liburu berriak irakurtzen ditut. Nik idatzitako euskerazko artikulua euskerazko aldizkarietan arkituko dituzu.

Badakit laister argitaratuko dezula lan berri bat, «Milla olerki onenak» deritzana. Guatemala'n argitara ematen duten «EUKO GOGO» izeneko aldizkarian zure euskal-poesi bilduma onen itz-aurrea irakurri dut eta asko gustatzen zait. Zure liburu berria garrantzi handikoa izango da euskaltzaleentzat eta orregatik ez da arritzekoa nere liburutegian euki nai nukela.

Zoritxarrez, ezin dut erosi emendik Espainia'ra dirua bialtzea debekaturik dagolako. Orra Zergatik eskatzen dizudan niri ijeki bat bialtzea. Emendik zerbait euki nai ba-dezu, esaidazu, eta berealaxe bialduko dizut.

Nere eske au beteko ba-dezu, otoi, zure liburua zuzenbide ontara bialdu:

Monsieur Alexandre Hombrados Onativia
rue Ganbetta

PEYREHORADE / Landes / France /
esanaz neretzat dela.

Zure berrien zai nago. Ar itzazu, Aita guztiz agurgarria, itzal handiko gorantzi onenak eta agindu nai dezun guzia zure menpeko

Tauer'tar Norberta'ri

Iruña'n, 1754-IX-24'ean
Onaindia'tar Aba Santiago'ri
Eibar'en

Agur, aba gurgarri orri.

Garaiz daukat eskuratua ila unen 13'gko zure gutun ederexi au. Lotsez eragin dit ene izneurtuetan begiz jo duzulako berriak, baita ere ez mereziko goraintziaz ere.

auetan nago ezin eskutik utz ta urrengo batean egingo dizut kopia: sarri edo aurki atonduko dizut, igandean apiko

Darabilzun olerki-xorta biltze ori asmo ona ukan duzu. Txalo jotzen dizut ausar. Beintzat, baldin eta euzkel-eremua laburtzen ba'zaigu, ordea dezagula idaztiak atereaz.

«GERQ»-rik heldu zaigu egun otan zenbeit ijeki ta saldu ere. Zure idazti ortarik ere salduko dugu zertxobait.

Bitarte untan agur dagizut baita eskuan mun-ematen ere.

Agerre'tar Jose'k

Tolosa'tik, 1954-ko garagarillaren 25'gnean

Onaindia-tar Jakoba agurgarriari

Eibar-era.

Ene aita maitea: Eguna joan ta eguna etorri, bi aste egin ditu zure karta atsegiñak nere mai gaiñean erantzupen-zai. Mutillen azterketa egun aurretsuan eldu zan, eta ordurako buru-belarri sartuak giñan prestamenetan; orregatik ez dizut jaremanik egin al izan, erabat askatu geran arte. Zu luze-etsirik egongo ziñan aspaldi, ez bidegabe; baiña nere aldetik ez det damu, itxuraz nagi ibilia. Bitarte luze ontan iñor gutxik ezagutzen ditun bertso-pilla ederrak arkitu al izan ditut, eta ez dago esan bearrik zuk ere artuko dezun poza. Beste amar bat eguneko eginkizuna burutu ondoan, bear dan baimenez bertso-sail aundi ori kopiatzen ekingo diot J. 1.; (kopiatzen eta utsak albait osatzen); eta datorren illaren azken alderako osasunez baldin banaiz, nundik edo andik egingo det alegiña zuregana joan ta erakusteko. Egillea ezaguna zan emen oetan, baiña bertsoak iñun argitara-gabeak dira, ta atsegiñez irakurriko dituzula deritzat.

Illaren 4'an emen izandako iru karmeldarrak pozez joan baziran, nere poza etzan batere makalagoa izan; A. Agustin adis-

kiderik fiñenetakotzat daukat aspaldi; ta egun ortan egindako beste adiskide berriak gogo-barruan sartu zitzaizkidan bizi naitzen arteko. Eskerrak, berai zor dizkiet nik, ez berak neri.

Zure lan itzal ori ikusteko irrikiz nago, beste norbaitek aren berri eman zidan ezkerotzik. Ez nekian zu ziñanik nere galdezka arestian emen etorri omen zana; egun artan kanpoan izaki nunbait, eta nor ote zan ezin asmatuaren kezka gelditu nintzan etxeratzean. Nere olerkiak ere sartu nai dituzu meta ortan, diotzunez. Ni ez naiz egundaino olerkari izan, eta alakoen artean agertzeko biderik nolatan eman dizut? Gazte-denborako txotxikeriren bat nun-edo-nun billatu badidazu, ez diteke izan aukurakoenen artean sartzeko gauza; ta azaldu-aurretik erakutsiko didazu, arren, zer dan. Ikasle-urteetan, erdal-maisu ta erdal-lagunenartetik romantiko antzera jarduten nintzala gogoan det, baiña aurki utzi nitun alde batera ames-bide aek, eta lotsa ateratzeko baizik ez nituzke noski gaur izango. Nolanai dala, itz egingo degu alkarrekin, ezertara baiño len.

Lafitte-k eta, Martin Hiribarren apaizaren bertsoak erakutsi al zizkizuten? Dasconaguerre-k dionez bertso-pilla ugariak utzi zitun, eta Bardos-ko apaiz-etxean ezpada Azkain-en edo beste nunbait jasoak izango dira iñolaz ere. Bertsolari asko-jakiña huraxe!

Naikoa degu gaurkoz. Ea urrena bertatik bertara berritzen degun jarduna.

Bitartean zuk ere nai-guria agindu zure adiskide

Mokoroa'ri

Aiengitz, 1954, urrillak 20
Onaindia'r Yakoba Abari
Eibar'era.

Ene Aba ta adiskide gogoko: Datorren igandean, urrillak 24, Goikoak nai ba'dau, esku bete olerki artuta zeugana juteko asmua dot.

Askotxo dira bidalgoz (korreoz) igorteko eta eskuz eroatea erabagi dot, gal ez daitezana; ausaz, zeugaz iru-lau itz egiteko gogo andiaz nago; emetik ez dot ezagutzen, ba, olerkaririk geure *gauzetaz* mintzatzeko.

Emen amaikak aldean urtetan dan orgadian (trenean) urte-tako amesa dot eta ondo ba'da, or izango naz ordu bata-ordu bat eta erdiak inguruan.

Uste dot esango eutzula zeuen atezaiñak, orain illebete inguru, zeutzaz itaundu nuena or. Arantzazu'ra izan nintzan eta ortik igaro nintzan etxerantzean, txirringutsean; tamala artu nuen ez zengozalako.

Iganderarte, ba, eta ondo bizi.

Besarkada batez, agur.

Aurre'tar Balendin

Guatemala'tik, 1954-X-21'an

Onaindia'tar lakoba A. Agurgarriari

Eibar'era.

Apaizkide ta adiskide laztana: Egun eskuetara zait Ama Terese Deunaren eguneko zure gutun atsegiña. Eskarrik asko.

Noan erantzutera sailka. Poz-pozik argitaraziko nizuke Bergili'ren Eneida. Ekin, ba! Orain arte asmo ori izan dute beste zenbaitek; Etxeberria asi zan Euskal-Esnalea'n: atal batzu egin zitun, baña ez zun burutu. Ederra litzake zure euskeralpena: ortan nere ustea ez litzake ustel aterako, ez orixe. Beraz, asi bialtzen. Andima'k Bergili'ren Unai-kantak euskerara ekarri ditu. Ederki gero euskeratu ere. Orain euskal elertiaren edestia burutu nai du. Zure idaztia ikusteko gogo aundik gera. Ederra izango da, ederrik ba da. Itz-lauz bilduma egiten ari da Villante prantziskotarra: nere zerbait bialtzeko eskatu zion Andima'ri. Villante, Lafitte A. t.a. ari dira ortan. Idazti au ere erabat bearrezkoa dugu, nik uste

Arzuaga'tar Erramun tolosarra da. *Oñatz-mendi* (Goena-ga'tar Joxe Mari), azpeitiarra. *Liligorriaga* (Argarate'tar Errai-mun?), onen olerkia eskuetan ba'nu, berealakoan igarriko río Argarate dan ala ez. Beraz, bidal idazu onen olerki bat, eta be-realakoan erantzungo dizut.

Biar datorkit «Orixe» agur egitera, Lazkau'ra Beneditarre-nera ioateko: an lan polita egingo du, oraindik sendo ta gordin baitago.

Milla olerkien zure itzaurrea pozik irakurri dute bazterretan, gaztigatu digutenez. Non-nai idazti orren zai daude.

Egunotan bukatu dut Euripide'ren «Medeia» euskeratzea. Sopokel baiño askozaz errezago gertatu zait, baiña antzerki zangarra da, izan ere. Sopokel'en antzerkiak oro euskerara eka-rrri ditut: bigarren idaztia geurtz argitarazi nai nuke. Orra Al-tube'tar Seber erri-zaleak idatzi didana «Zarakindarrak» an-tzerkiari buruz: naiz ta arto bero usai aundia izan, or dioakizu: «Zarakindarrak». Au irakurri det, buruz buru. Iztegi aberatsa du. Itz zaarrak ere, bai ugari! Onek au dakarkit burura:

Euskaltzaindian, iztegi arazoetan, Aita Olabide genuan mai-xu. Azkue jaunak, berak ere, bere iztegian agerturiko itz asko, sarri, aztu xamartuta izaten baitzitan, Olabide-ri galdetzen zizkicn gogarazteko; eta onek, beti buruz, tapa-tapa azaltzen zion guzia, Azkue-ri, ta bide batez, euskaltzain guzioi.

Zeregin Ortarako, Olabide-ren jarraitzaille bikain, zeu zin-tzaiguke, orixe agertzen baitez «Sopokel»-en itzulpen-lan or-tan. Nik neronek, gutxienez 60 bidat jo bearra izan det, Az-kue-ren eta Aita Lande-ren iztegieta, zure itz ugariak uler-tzeko: eta ala guziz ere, oro eztitut aurkitu. Bejon deizula, iztegi-ezagutze zer arrigarri ortan! Nik, gixaxo onek lanik asko izan det itz-pillo ori arilduten.

Alan ere, ta ortikako ulermen illuntzeak gora-bera, aurkitu ditut, zure idatz-lan ortan, esakun jator eta bikaiñik ugari...»

Ibargutxi'ren idazti berriak iaso ditugu, «Geroko bizitza» ta lengo berrituak. Ageri danez, Bizkaia'n ere beldurra galtzen asi dira bearrik.

Frai Bartolome'z egin itzaldia oraingoan ez ta bestean eman-go dizugu gure aldizkarian: mamitsu, iakingarri ta sakon azaltzen duzu.

Bi edo iruk eskatu digutenez, gure sariketaren aurtengo epea datorren Aberri-Eguneraño luzatu dugu; lagunen bat ortan ari ba'duzu, arren bai arren esaiozu, bear danez txukundu ta antola dezan, garaia bait-du.

Eibar'ko euskaltzaletasuna lur-iota zegola ta orko erria erdaldunduta zegola idatzi zidan norbaitek: bearrik, ez da egia, ta len bezain zintzo diraute eibartarrok. Ala obe.

Datorren illean asti apur bat geiago izango dut, Ikastetxeko cpor-aldia dala-ta. Garai ortan, igazko sariketarako olerkiak antolatu ta ataurrekoa egingo diet. Ta bereak irarkolara. Aldizkarian ez ezik, idaztiño txukun batean ere, argitarazi nai ditugu, «separata» bezala, beintzat, Ortarako dirurik izaten ba'dugu. Betiko leloa dugu auxe: diru bearra gure lanetarako. Neri, beintzat, Iaungoikoari eskarrak, poliki laguntzen dit nere ikastetxeak. Alderantziz lur-iota nengoen aspaldidanik.

Besterik ez, Oraingoz. Nai duzunean erantzun. Zure gutun ederrak biotz-betegarri zazkigu beti ere.

Tori nere euskal-agurrik kartsuena. Otoi nere alde zure otoi beroetan. Zure adiskide laztan

Zaltegi ta Plazaola'tar Iokin

Kaixo, Onaindia Aba: Zure idazti berria noiz iasoko urduri gagoz emen. Igorri eiguzu arin-arin, iritzi sakon ta luze bat gertu daidan.

Zorionak eta txaloak

Andima'k

Lasarte'tik 1954'gn urteko Azaroa'ren 12'an
A. Onaindia Karmeldarrari
Larrea'ra

Agur, adiskide: Atzo artu nuan gure adiskide Zugasti jaunarengandik zure mezutxo bat. Kalagurri'ra idatzi didazula, alegia, len iñoiz zuk eskatu ta nik agindutako zer-nolaren batzuen eske berriz ere.

Egia esan, aginduta gero, agindutakoa aztu egin zitzaidan; eta gerora oroitu izan naizenetan, beti ere berandutxo izango zalakoan utzi izan dizut erantzutea. Ikusten dedanez, ez da oraindik berandurik; bañan laistertxo ala izango dalako, zer-edo-zer esatera nijoakizu.

Nere jaiot-urtea, 1894; illabetea, Otsailla; eguna 9'a.

Gure illoba Juan Mari'rena, 1927, Azaroa, 11.

Bigarren abizenak: nerea, Etxabeguren; arena Berasategi. Biok Oyartzun'goak.

Nere lanak? Ez dira orain-oraingoak Gazteiz'ko apaizgaitegiko Euskerazko Erakusle 1916'gn urtean egin ninduten. Eta Erakusle izan nintzan 1936 arte. Ogei urte. Nere lenengo lana —lan-lana, alegia— Gazteiz-Eleizbarrutiko Kristau-Ikasbidearen gipuzkoeralbena. Ez daukat aztutzeko. Gogoz egin nuan. Eta ustez ondo erten zitzaidan. Nere gipuzkoeraren gañean egin izan zuan Eguzkitza zanak bere bizkaieralbena. Mons. Eijo y Garay'ren egunetan zan. Gero A. Zakarias Martinez'ek bere Pastoral'en euskeraltzalle egin ninduan. Eta egiteko ortan jarraitu nuan baita Mons. Muxika'ren egunetan ere.

Artean nere lanetan aipagarriena *Literatura oral euskerica* izan zan, 1935'gn. urtean argitaldua. Bañan Bergara'ko Euskolikaskuntzaren Batzarrean (1929? 32?) gai bera erabilli nuan Itzaldi batean. Itzaldi ura ere argitaldua bait-dago Batzarraren Liburu aundian.

Besterik zer nai dezu aipatzea? Poesiak, ba'dakizkitzu. Nik neuk baño obeto ausaz. Nik aztuta ere bai bait-dauzkat asko ta asko.

Bañan auxe bai gogoan daukadala: Gure anai Martin zarenaren eta bion artean Antzerki bat egin izan genduala, eresiduna bera; *Eun dukat*. Eta Zenbait Antzerki gipuzkoeraltze zañera, aien artean, len noizpait, Barbier'en *Sorgiñak*, eta orain berrirotxuago, Lartzabal'en *Akillomendi*.

Beste Itzaurre bat ere gogoan det antziñatxu egin nuana, erderaz ezik: Erretereria'ko Zapiain bertsolariaren *Genoveva'rentzat*. Neuk argitaldu bait-nion bere Poema arrigarria, irakurtzen ez dakian baten millaka bertso dituan Poema...

Euskaltzain, 1951'ganean egin ninduten. Itzaldia —sarrerako Itzaldia— ezagutuko dezu noski, *Gorotzika'tik Gurtzeaga'ra*. Euskaltzain egin ezker, Zenbait liburu berriren Itzaurre ditut egiñik: Basarri'ren olerkiena, Basurko'rren olerkiena; eta tartean Zuen Andra-Mari danarena.

Ez det uste beste ezer aipagarriarik dedanik.

Juan Mari'k berriz —oraindik gaztetxua ere da-ta— ez du ezer argitalduak, bere olerkiak izan ezik. Orain Erroma'n Doctoratua egiten diardu, eta gero examina emateko prestatu nai lukean gaia, Axular'en *Gero* du begiz jota.

Orra, A. Onaindia, agindu nizuna, berandutxo bederenik, nik bere.

Zure berrien zai gelditzen naiz orain, zure aspaldiko adiskide

Lekuona zarra

Bermeotik, Otsaillak 12, 1956
Onaindia'tar Jakoba Anaia K. O.
Eibar'en

Kaxo Aita Jakoba, lagun jator, ta Euskal-seaskan nere anai maite: Kristoren Pakea zurekin beti.

Eskutitz luzerik ez dijoakizu; itz bi bakarrik jartzen dizkitut, lenengoz: nere esker on eta beroa zuri azaltzearren.

Zure «Milla euskal-olerki eder» orren orri artetik gabero zerbait osasungarri edan ondoren... Orko ezti goxoz anima ondo ase ondoren, ikusi egin bear zenduke nere euskal-barruko borbor goxoa, esker bizi ori; ikusi, itza ta luma nagitua esateko motel diran ezker.

Itz labur auetan, auxe bidali nai nizun, bada, Aita Jakoba ona-yayoa: nere esker beroa, zuk egiñiko mesede aundiagatik; mesede aundi ta mamizkoa. Eta eskerrak, nere Aita San Franziskoren izenean ere, bere magal gorrian sortua naizela gogoan izan dezulako. Nere eskerra ta Bere maitasun-besarka estua, zure euskal-biotz ameslarian nabaitu ditzazula. Auxe dezu nere asmorik beroen.

Zuk Ama Euskerari sortzetik zor zenion maitasun ori «Milla Euskal-olerki eder»-ean txintxo eman diozulako, orain euskal biotz guztiak zuri zor dizute itz bero bat: **ESKERRAK!**, eta txalorik piñena bi esku garbien indarrez. Nerea emen dijoa-kizu, Aita Jakoba, bero ta garbi, obeagorik eta mamitsuagorik arkitu eziñaren miñez: **ESKER ON! GORA BETI AITA JAKOBA!** Zuk zerua eskuan dezu, Jakoba. Gu gaude orain zorretan, eta zor aundi ori nola agertuko kez karen arantzak josita biotz gaztea. Zu bezelako izar argi bat aurrean gidari degularik, itxaron daigun...

Eta orain egingo dizudan eskaritxo au, ez aldidazu ukatuko. Ez. Zuk biotz zabalegia dezula ikusia dago. (Pentsatu ere... Sinistu: goiko itzakez dira eskari onen mandatari izan... Zure liburu eder ori irakurtzean, barruan erretako esker on ta asmorik ederrenak baizik. Egia!)

Aurreko batean nere Errezillen niñuzun, ala bearrez. Eta anai batek auxe esan zidan: «oraintxe asperturik negok lurpeko lan gogor ontan; eguzkiaren pozgarririk ez duan bearra ta gañera arriskugarria. Eta oraintxe nunbaitera joan bearrean nauk. O'rtxe Eibar'ko lantegi batean txoko bat banuke...»

Onezkero ondo ulertu dezu nere asmo, Aita Jakoba. Auxe esan nai nizun ba. Mutilla jatorra da. Zuk neri *ona* esaten di-

tzi urteko gaztea dezu, Ernioko aizea bezain garbia oraindik eta, ori bai; oso konfiantzazkoa.

Bera itxurazko etorkizunari begira dago beti eta orregatik dago orrerantz begira. Jakiña, berak diona: ni bezela, bear bada, beste milla gazte egongo dira asmo berdiñakin baño... ikusi benepein bidea. Eragozpenik bada, ez degu ezertxo galdu. Eta nik auxe erantzun nion: «Anai: oso gutxi dezaket nik; baño aldedana egingo diat, ire asmo bernetan argi pixkat ematearren. Eta orain ni zugana nator, Aita Jakoba... Ikusi ere, ain konfiantzazko ikusi zaitut... Oker banabil, barka; ta aztu oraindaño esanikoak.

Mesede ori zure eskuan dagolarik, zalantzarik be ez det: pozik egingo zenidakela deritzait. Baño zuretzat «konpromisobidea» balitz, ez nuke aitortu ere egin nai goian esanikoa. Ikusi, bada, mesedez Aita Jakoba on, ia or fabrikaren batean txoko bat arkitu al-liteken nere anai orrentzat. Berak ALFA'n esan zidan al izanik; baño zalla zala esan nion nik or bide billa astea. Zuk ikusi zenezake. Dana dala, eskerrik beroenak esku-aurrez, Aita Jakoba, eta zure erantzunaren zai naukazu. Baiezkoa baletorkida, ondo gogoan izango zaitugu. Eta borondate zuzena ikusita, ezezkoa baletorkida be, eskerrak milla: ezetz ori esatea zuretzat ere mingarria izango data. Itxaropena bizkor daukat zure naimen zuzen eta arduratsuan.

Erantzuna lenbaitlen emango bazenida, pozik negoke oso; anaiaren naia bai da, or zerbaiten itxaropena duan edo ez jakitea.

Danagatik eskerrak berriro, Aita Jakoba, eta zuk nai dezun arte.

Zure anai dezu beti, eta mesede egiteko eskura

Galarraaga'tar Joseba An., O. F. M.

Elorrio'tik, 1955'gko. Otsaillaren 16'an.
Onaindia'tar Jagoba Aitari.
Eibar'era.

Nire Aita agurgarria: Artu neban zure 1-22'gko idazkia. Egun areitan ez neban izan idazteko gogorik, gure aita oso txar-to egoalako; gaur bere ez asko, Jaungoikoa'k Bera'gana eroan dauskulako. (G. B.) Otoi bat bere alde, mesedez.

Au dala-ta, ez naz urten etxetik iñora, ta zure idazti ederraren zabalkunde edo propagandarik ezin egin izan dot. Ez da aukera ona oraindik, geroago bai. Orraitiño, berealaxe bialdu egistazuz: 1) 125 *lauerlekoko* idaztia (errustikan, ale batekoa), ta 2) *beste bat 150 lauerlekokoa* (azal apaiñez).

Salduko neukez geiago be nire adiskideen artean, baiña gerotxuago izan bear.

Parkatu ez dautzudalako erantzun lenago. Agindu barriz bildur бага.

Zure adiskide dozun

Kerexeta'tar Jagoba

Elorrio'tik, 1955'gko. Otsaillaren 25'an.
Onaindia'tar Jagoba Aba jaunari.
Eibar-era.

Ene Aba agurgarria: Eldu yatazan atzo zure «Milla olerki» idazti biak: errustikan bata ta azal-apaiñez bestea. Amaibako zorionak artu egizuz nire aldetik! Aldi luzea bear izango neu-ke idazti onen eta zure omenez goraltzak egiteko; egi-egia esaten dautzut, ez azaleko egia, barru-barruko egi biribilla baiño. Bear izan dau gure Euzkerak olako olerti-txorta bat. Sekulako «enkuadernaziño» ederra ipiñi dautsazu (au, errustikan baiño milla bidar obeto dago), ingia barriz oso aukeratua, meiegia izan бага, oso apaiña, «elegantea». Agiria, ba, ezin ohea. Eta

barruko zure aukeratzaille-lana? Ori, esan ezin oindiño bear dan letz, lan ikaragarri orretzaz gitxiegi esango neuskizu-ta, txiki geratuko nintzake-ta.

Atsegiñez irakurri dodaz Olerkarien aurrean ipiñi dozuzan euren bizitza-lerro batzuk; (miñik egiten ez dauan piparmin idazkortza dozu, e?, ta azkarra, polita). Nire zatian be, ekiotsazu, jo ta kea... Eta zelan asarre egingo dautzut ba? Aintzarik lartxo emoten daustazula-ta nago. Orraitiño, uts bat bai badiñozu: Gazteiz'ko Apaiz-Ikastetxe nagusian nire ikaskizunak osotu nebazala. Ez da alan; asi, lenengo lau urteak, Gaztelu-Elexabeitia'ko Abadegei-ikastetxean egin nebazan, eta gero, gudarik aurrera, neure-neureak ikusi bear izan nebazan Etxe aretako nagusi egiten eban aren aldetik: emetik kanpora joan bear izan nintzan, Comillas'en egon nintzan, gero Burgos'ko Seminarioan bertako kuartelera joateko, ta azkenez, ikaskizunak amaitu baiño urte bi lenago, Organo ta Maestro de Capilla-oposiziñoak egin nebazan Tuy'ko Katedralean, irabazi be bai, ta bertan egon nintzan orain iru urte inguru arte. An, Seminario'ko irakasle izan nintzan gaiñera, baita Obispado'ko Sekretaria'koa be. On-do nengoa, egia; baiña nik etxerantz etortea gurago. Eta nire aita (G. B.) zarra zala-ta, lortu neban etxera, Elorrio'ra, etortea ta ementxe gelditzea, igande ta jai-egunetan Urkiola'ra joan bear izan arren.

Emen dozu ba nire bizitza barrabana! Eta zegaitik guztia? Abadea izan baiño abertzalea ta euzkeltzalea geiago gura nebalata, ez nebala «vocaziñorik»... Artu egik ori! Esan bestela orain, itandu Begoiña'ko Sekretarioari. Alan da guzti be, orain, —orain—, aitzu naz jazo yatan guztiagaz, ta Aurtenetxe bera izan zan onako bidea zabaldu eustana..... Guzti au, zer dala-ta esan dautzudan? Ez dakit ba; onetan, zure idazti ederra da errudun! (Zeuretzat bakarrik euki).

Parkatu barriz zuk onenbeste luzetu nazalako.

Eskabidea: bialdu egistazuz ainbat lasterren beste ieki *bi*,

barruko zure aukeratzaille-lana? Ori, esan ezin oindiño bear dan letz, lan ikaragarri orretzaz gitxiegi esango neuskizu-ta, txiki geratuko nintzake-ta.

Atsegiñez irakurri dodaz Olerkarien aurrean ipiñi dozuzan euren bizitza-lerro batzuk; (miñik egiten ez dauan piparmin idazkortza dozu, e?, ta azkarra, polita). Nire zatian be, ekiotsazu, jo ta kea... Eta zelan asarre egingo dautzut ba? Aintzarik lartxo emoten daustazula-ta nago. Orraitiño, uts bat bai badiñozu: Gazteiz'ko Apaiz-Ikastetxe nagusian nire ikaskizunak osotu nebazala. Ez da alan; asi, lenengo lau urteak, Gaztelu-Elexabeitia'ko Abadegei-ikastetxean egin nebazan, eta gero, gudarik aurrera, neure-neureak ikusi bear izan nebazan Etxe are-tako nagusi egiten eban aren aldetik: emetik kanpora joan bear izan nintzan, Comillas'en egon nintzan, gero Burgos'ko Seminarioan bertako kuartelera joateko, ta azkenez, ikaskizunak amaitu baiño urte bi lenago, Organo ta Maestro de Capilla-oposizi-ñoak egin nebazan Tuy'ko Katedralean, irabazi be bai, ta bertan egon nintzan orain iru urte inguru arte. An, Seminario'ko irakas-le izan nintzan gaiñera, baita O'bispado'ko Sekretaria'koa be. On-do nengoan, egia; baiña nik etxerantz etortea gurago. Eta nire aita (G. B.) zarra zala-ta, lortu neban etxera, Elorrio'ra, etortea ta ementxe gelditzea, igande ta jai-egunetan Urkiola'ra joan bear izan arren.

Emen dozu ba nire bizitza barrabana! Eta zegaitik guztia? Abadea izan baiño abertzalea ta euzkeltzalea geiago gura neba-la-ta, ez nebala «vocaziñorik»... Artu egik ori! Esan bestela orain, itandu Begoiña'ko Sekretarioari. Alan da guzti be, orain, —orain—, aitzu naz jazo yatan guztiagaz, ta Aurretetxe bera izan zan onako bidea zabaldu eustana..... Guzti au, zer dala-ta esan dautzudan? Ez dakit ba; onetan, zu-re idazti ederra da errudun! (Zeuretzat bakarrik euki).

Parkatu barriz zuk onenbeste luzetu nazalako.

Eskabidea: bialdu egistazuz ainbat lasterren beste ieki *bi*,

azal-apaiñezkoak. Ipiñi ingi txatal baten zenbat ordaindu bear dautzudan. Aurrerantzean bere, eskatuko dautzudaz ieki geiago, ziur. Arin-arin bialdu.

Zorionak, barriro be. Artuko dozuz geiago be beste aldizkari batzuk irakurten dozuzanean.

Aiztuten yatan: idaztien saneurria ez da karu, idaztia datorren letz ikusita. Baiña ondoen, enkuadernauta datorrena.

Agur ba, Onaindia Aba agurgarri, ta artu nire euskel-agurrik gartsuena. «Agur, jaunak» abestuteko be ba-zagoz, ni or-ganoz joteko.

Agur, ba, «agur t'erdi...»

Kerexeta'tar Jagoba-Iñaki

Olivan'dik, epaillak 23, 1955

Aita agurgarria: Zure liburu jatorra jaso nun. Ederra liburu, ederrik bada. Baño, goazen beireagoko gauzetara. Zenbat ordaindu bear dizudanik ez didazu esaten. Esaidazu len-bai-len, kito gaitezen.

Arraioa!, gipuzkeraz idatzi ba'zenu, errexago zitzaidan, baña... gogor zerate bizkaitarrak! Bejon daizuela. Ez nun uste Karmeldarrak ain azkarrak ziranik. *Quinque impossibilia'tan* «Carmelita sapiens» ez da ba sartzen? Mutil onak zaudete!

Tira, ba; tira. Gauden bat Jainkoagan.

Besarkatzen zaitu, apaizldde

Ijurko'tar Premin'ek

Donostia, 18-11-55

A. Yakue Onaindia agurgarri: ikuskatu dut gaingiroki zure liburu ederra; eta gutiziatuik nago irakurtzeko.

Zeurearen esperoan gelditzen naiz, baldin baduzu aleren bat adiskideendako. Ala balitz, lau lerro idatziko nituzke «Boletín de los Amigos» dalakoan areri buruz.

Zure benetako zerbitzari eta adiskide

Irigaraik

Larrea'n.

Enaz uste olerkari;
tori gogoz ene opari
ames gabeko bertsotan:
zorion lore ugari
lanai begiz ta egunari.

Nor dan alako «Amesti»?
Ez arren ibil kezkatu
ez bai dozu olerkari;
nok ez biotzean ezti
ta maite aroan amesti?

Gozo zure lanan guna;
zegaitik aipa ez «Eguna»,
indartu baño len illa,
gudako seme kutuna,
mami ta odol euzkelduna?

Nok nai gure ele illeta?
Ez jo karmeldar semeta,
ospez negartu nai miñez,
Jagoba'n anai dire-ta;
ala naizenez «Arteta».

Ara nik bertsotan
zein nitzan itz-lautan.

«Milla euskal-olerki eder» irakuri dot, erosi ondoren. Zorionak. Ta ekin lanari. Iñoiz eneban usteko nire bertsoak aukeratu leikezanik. Or konpon. Makuak aukeratu ezkeror Orixek esan biar: «mediocria bere bai; baiña euren tokia ba'dabe liburuan orreik be».

Agur ta erdi ta zorionak barriro.

A. Zubikarai

Eibar

Ene Aba agurgarri ori! Itz bi zorionak ematearren «Milla Euskal-olerki eder» liburu bikaiña argitaratu dezulako. «Egan» aldizkarian nere irizpena zure lanari buruz azaldu dizut eta lenbailen ieki guziak saldu ta zabaltzea opa dizut saritzat, eta gure euskeraren onean.

Eskerrikasko bertan niregatik ontartez egiten didazun goi-aipamenegatik.

Arren, itzuli zaidazu «Elizanburu'tzaz» utzi nizun nere biografitxo. Ez ba didazu onera bidali nai, otoi, «Begoña» liburutegian uztea besterik ez duzu ta andik jasoko dizut.

Utsegite.—Ez da zuri bear ez duzun irakaspena emateko asmoz, baiñan egiaren kariaz orain gogoratzen ditudan utsegite txikar batzuek esatera noakizu.

1) *Eskualdun seme denak*, egille izen gabekoen artean ipintzen duzun olerkia Elizanburu'rena duzu ta nere lanean bildua daukat.

2) «Apexa» lapurtarrez, edo obeki, saratarrez, «mitxirrika» —mariposa— duzu ta ez «golondrina».

3) *Elizondo Jose* donostiartzat daukazun olerkaria tolosarra zan eta ez «apaiza», sastre edo joskiña baizik.

4) *Ramón Artola* ere, Pepe'ren aita, tolosarra.

Ori da guztia gaurkoz.

Agur, adiskide, ta gaizki esanak barkatu

A. M. Labaien

Eibar

Adiskide maite:

Atzo, Larunbat-Guren arratsaldean jaso nayoan irea, Berbizkunde ta Aberri-Egun bezperan. Adu oneko eguna? Orain arteko nire adu txarra onera aldatzen asi ete yatak? Beñola, gure ludi kaxkar au sortu baño len, aingeru arro-putz batzuk, soñeko zuriak Jainkoaren oñetara jaurtita, «kaltxagorriakaz» jantzi ei zoazan, egunotan euren alabatxo gixajoak ezpan gorriakaz (?) diran lez. Orain arte nire ezkerraldean ziri-zirika ibilli dan «kaltxagorri» altsu ta satsu ori, jantzi zuriak barriro eskuetaratuta, aingeru biurtzen asi ete yatak? Dana litzakek, gure Jaungoikoa «todopoderoso» ei dok-eta. Ola irakatsi yeus-kuan txikitan, ta olan ikasi gayenduan geroago gutun lodito batzuetan, an Brahminen lurraldean. Euskalerrian eta Brahmine-rrian egi dana eztok guzur agertuko Inkaerrian. Zegaitik diño-dazan onenbeste tentelkeri? Ba-dakik orain arteko nire jazokunik gomutagarrienetarikoak adu txarreko egunetan izan dirala, «kaltxagorri» egunetan. Eta orain Aberri-egun bezperan gure olerkaririk bikañen eta ospatsuenetariko baten, gure Olerki-gutunik gizentsuena argitaratu dauan baten eskutitza jasotea zerbaiten adu ona izango dalakoan nayagok. Beraz goiazak aurrera. Eskarrik asko ireagaitik. Baña, mutil, kostea yak korotz txiki bat niri bialtzea. Ain karestia ete augu?

Jakitun nayengoan aspalditxotik, ire idazti ospetsu ori or ebillala Euskalerriko tontor-zakonetan; ta euskal-lotsa apurrik daben euskaldun guztiak arrapaladaka dabiltzala beragaz jabetu nairik, eta abar eta abar. Dana arpegira esatea eztok komeni. Baña auxa diñoat kolkoa zabalik: Oraingoan euskal-txapela ondo ta zakon sartu dok buruan. Eztaua aize-boladatxu batek erantziko. Tamalgarri litzakek orain erañontz-orri artean loak artzea. Euskerea ta Aberria oyuka yaukaguzak, amasa eske. Era-

gozpen, batzuk ezarri dabezala gutun ori dala-ta? Ez adi ikaratu: txakur aundiai ausi gogor egin arren, iñor etxakek urrerrazten. Ezpan-ertzetik agin bat erakustea naiko dok ttotto guztiak txilioka ta buztan-makur ezarriazoteko.

Zenbat zenbaki nai dodazan? Oraingoz bialdu egidazak dozena bi. Zelan edo alan konponduko nok. Neurea itxasontziz barik egazkiñez bialtzen ba'daustak askoz obe. Etxaukat itxaroten egoteko eroapenik. Besteak bialdu egizak onantza datorran anai orregaz. Eta ez adi ainbeste estutu txindi-kontuagaz. Emen-go sakelak be tximur samartxoak dozak, baña olako batentzat lain zuzenduko yoagu.

Eta buru-biotzetan darabilzuen aldizkari ori argitalduko ete dozue ba? Nire eritxiz, gure etorkizunerako obe litzakek «aterki-konpontzallea» agintari dan bitartean olako lana astea.

Urkiola'ra zoiazenean, aupada bulartsu bat egiok Mugarra'ri ta bere babesean, intxausti baten ondoan dagon nire basetxe arpegi-zabalar.

Eskumñak orko guztiai, Errapel, Jon, Jon-Bingen, eta abar...

Azurtza aldetik izan ete az? Esan ez daukodazala aztuta.

Ar zak, motel, nire zorion eta besarkada bat. Agur!

Laurentzi

Aiengitz, maietzak 17, 1955

Onaindia'tar Yagoba Abari

Eibar'en.

Neure adiskide ta Aba agurgarri ori: Alkarren barri barik gagoz aspaldion eta zeuk atondutako «Milla olerki eder» bat eskatzeko zuzentzen niaitzu gaur. Bidali egiozu liburu eder orreitariko bat oni: «Jon Aldekozea, «médico dentista», Gernika». Garestienetarikoa gura dau azal gogorrezkoa. «Reembolsoz» ordainduko deutz.

Jakitun nago zeuk atondutako lan orrek izan dauan ezbe-
rraz. Zertako dira zure «kolaborazionismuak», ba? Atzitu zai-
tue... Asko minduten naz ori jazo bearraz... Oindiño lengo as-
tean txairo egoan Gernika'ko idaztitegi bateko erakustoki baten
erosleren baten zain. Niretzat garestitxua da, baiña aleginduko
naz saltzen, lan erreza ez danarren.

Idazkitxu bat egin neutson, lengo aldian, Orixe'ri; baiña
ez daust erantzun. «Iturriko laztana» idatzi nebalako edo, ez
naiako gogoko, antza.

Ontzuengo E. G. etxat eldu. Urte ontako lenengoak ekarriko
ei ditu gure saritutako olerkiak, esan eustan Ibiñagabeitia'k.

Zeure idaztiaren aurre-itzean diñozu olerkia dala ertietan
gorengoa; nik uste dot, barriz, musikea dala gorengoa...

Emen nabil gcgoaren zelai urdiñetaz birrin-bolaka munduz
bestaldeko loren billa. Askok zorotzat gaukez olerkariok, baiña
ba'lekie zelako kaden (melankoli) zerutarrak laztantzen gaitun
geure ixil-barruetan!

Agur sutsu bat eta urrengorarte.

Aurre' tar Balendin

Donosti'tik, 1955'go loreillaren 20'an.
Onaindia'r Yakoba Karmeldar Aba'ri
Eibar'era

Karmeldar Aba agurgarria: Ba'det onezkero arturiko libu-
ru-sailla ordaintzeko garairik. Orain arte eskatu ditizudan gu-
ziak iritxi zaizkit. Berrogei ta amairu, guzira. Auek zuk idatziri-
koetatik. Aita Emiliano'renetatik, berriz, lau ditut. Orain zer-
tara natorkizun? Ageriko zaizunez, diru pilla azitxoa da zuri
bidali bear dizudana. Au guzia nola bidali, ordea? Jiroz asi
ezkero, bidaltze utsean ere garesti datorrela-ta beste bideren
bat nai. Ez al genezaizuke «Bankuren» baten bidez bidali? Kar-
meldar-etxeari egokien zaion «Banku» naiz beste «diru-etxe»ren

baten bitartez, egoki gureztat. Bestela berriz, errien Donosti'ko Karmeldar-etxearen bidez zuri bidali. Ontarako, apaiz batek eramango luke nere orde. Nola nai ere zuk esan.

Idazki oni erantzutean, ez neri idatzi. Obe dezu «D. Antón Garro Pbro. Mayordomo, Seminario» jaun oni idatzi. Onela jokatuko gera zuzenen.

Bitartean, beste *bi* MILLA OLERKI liburu bear ditut, azal apañezkoak. Beste *bat* bi aletakoa. Onela, berrogeita ama-sei ditezke, guzira.

ANDRE MARI GAZTEDIAREN ESKUTAN, berriz, beste bi ale. Guzira, sei ditezke. Guziena batera ordainduko ditut, zerorrek agintzen didazun eraz.

Asko saldu al dituzu zure liburu oiek? Emen Donosti'n kontutuz xamar dabilzala uste det, Zenbait baimen-kontua dala-ta.

Orain datorkit beste kontu bat ere, Begoña'tik artu nitun ogeita sei liburuak zuri ordaintzeko asmoa det nik, zuk ezer besterakorik ez esatekotan. Berari bidaltzea baño egokiagoa bai dirudit.

Agur, Yakoba Aba, ongintza zoragarri ortan luzaroan jarrai dezazun otoika ari dan apaizgai onek muñ damaizu apaiz-esku sagaratu oietan. Adiskide apaizgai

Gaztañaga'r Jexux'ek

Guatemala'tik, 1956-VI-29'an

Onaindia'tar Iakoba aita agurgarriari

Eibar'era.

Adiskide ona: Azkenengo zure gutun atsegiña garaiz eskuetara zitzaidan. «Bidalien Egiñak» idatzia dala-ta ioten dizkidazun txaloen aldera eskerrik asko. Karmen'go Amaren Egutegian iritzia idatziko ba'zenida, esker obeak emango nizkitzuke; zenbaki mardulagoa ateratzeko asmoetan baitzaudete, erreza litzake, nere ustez. Zeuk ikus.

«Milla euskal-olerki eder» bilduma iasorik dugu, zuek bialdia, ta larru gogorrez iositako bestea Bilbao'tik. Goitik beraño irakurria dizut. Iñolako lan bikaiña burutu duzu. Nork uste zezakean gure Olerkarien oparotasuna ta etorria orren betea zanik? Gure ele-ederra aul eta errena dala dioten irizleei, ezezko biribilla eman diezu idazti eder orren bidez. Txalo ta txalo zuri, olerkari bikain orri! Amaikatzko idazti zar eta xira irauli-bearrak izan dituzu, gai guzi ori aukeratzeko. Olerkarien inguru iarri dituzun berri iakingarriak ere biltzen buruauste ederrak izan dituzu, noski, Erbestekoen Zenbait olerki-lorategi ezagunak ditut; Onis, Domenchina, Souviron, Gerardo Diego espaiñerari soil-soillean nagokiola. Zure bildumak ezertan ez tie zorrik oien olerki-bildumari. Ta gure olerkariak buru-zut, aidor eta bipil aurkezten dituzu, iñongo Olerkarien aurrean txapelik kendu-bearrik bage. Gure olerkari-sailla ugari, bikain eta gorengoen aurkezten duzu. Itz-lauz orrelako idazleak ba'genitu... Gure aldizkarian iritzi luze ta ederra emango dugu datorren banakoan Andima bizkorrak idatzita, zure idaztia bear danez gorai patuz. Gure atzetik datozken olerkari gazteak bide zabala ta eroso du-kete adiñean elduagoei orpoz orpo iarraiki,

Enea'rena'ren zatia oraindik ez zait eldu: biderdian da, antza. Nere iritziz, euskera osotuan eman bear zenuke, garrantzi aundiko lana ta ikasiendako egiña baituzu. Euskera osotuan Bizkai'ko itz ta esaera txanbelin asko sartu bear zenituke, bel-durrik bage: ni beñipein, orixe egiten ari natzaizu, baitik-bat Sopokel'en Antzerkiak II'garren idaztian alako erri itz ta esaera iator ainitz tartetu ditut, Azkue'gandik ietxita, Bizkaian soillik erabiltzen diranak. Aditza beti euskera osotuan eta kito. Geure ezipaiñetan eta idaztortzetan garatzen ari bait-da etorkizuneko euskera. Gizon ikasiak euskerarenganatu bear ditugu norae-zean, gure izkera iraunerazi nai baldin ba'dugu. Alderdikeriak oro oildu egin bear ditugu, euskaldun guziek euskera erabil de-zaten. Esku artean darabiltzun lan aundi orrek on aundia egin lezake gerorako, latin ikasten ari diran gazte artean batez ere.

Gure aldizkarian buruz idatzi nai duzun iritzia pozarren argitaraziko dizugu. Besteak beste, auxe iritxi dugu, euskal-idazle geientsuak eta gorengoak elkar-eraztea. Or duzu «Egan» euskera utsean bikain idatzita. Gure gaztaroan «Yakintza» aldizkaria aintzat genun, zerbait zalakoan; damurik, geiena españeraz emana zan. Aurrerantzean, orrelakorik ez zaigu gertatuko, nik uste. Benetako euskaltzale iatorrek euskeraz emango ditute beuren zitu mardulak, euskera Ortarako gai dala erakutsi bait-du gure aldizkariak, eta ori noraezeko dugu il ala bizi auzi ontan.

Urrundik euskeraren oraingoa ta geroa argi ta garbiago ikusten dugu. Bost urteotan aurrerakada polita egin digu: Mitxele-na biak (prantziskotarra ta bestea, Luis), Villasante, Etxaide gaztea, Andima t.a. berriak ditugu gure auzo-lanean: gazteok txairo, sakon eta goxo datoz eta euskeraz besterik ez dute idatzi nai. Ortarako ikasi egin bear eta gogotik ikasi dute gure euskera zaarra. Gure iauntxuok, gure etsaiak, alegia, ez dira betirako. Bitartean zear-mearka iardun bear; Machiavelli'ren irakatsiak ikasi bear litukete gure agintari iatorrek.

Torizu nere euskal-agurrik kartsuena. Agindu euskeraren onerako adiskide laztan duzun

Zaltegi ta Plazaola'tar Iokin'i

Bilbao-Begoña, 1956'gnko. Garilla 21'an.

Onaindia Aba'ri

Eibar'era.

Agur adiskide: Lentxuago idatzi neutzun KISTO'ren ANTZ-BIDEA'tzaz oar bat egiñaz: beste geigarri barik obeto egongo litzakela esanaz. Agiri danez zuk ez dozu zeure asmoa aldatu ta «zeure zioak eukiko dozuzala» esan biarko,

Au dala-ta orain beste neure asmo bat agertu gura dautzut. Ieki batzuk, esaterako 50'en bat, ezin leikez josi geigarri ori barik neuretzako?

Beste gauza bat. Felipe Arrese zanaren alabiak esan daust bere aitaren AMA EUZKERIAREN LIBURU KANTARIA barriro argitaldutiaz zerbait esan dautsola zuetaiko batek, ta eskatu daust esan dagitzudala zuri berak zerbaitegaz lagunduko leukela idazti ori argitaltzeko, esaterako 10.000 lauerleko edo zertxobait geyago emongo leuskizuzala, zure aldetik ieki batzu berari emotia baño beste egin biar barik. Arrese'ren alabia egun gitxi barru Otsandiora illebete an igaroteko, yuateko da-ta, be-riala zerbait erantzungo bazeuke ondo letorke.

Agur eta agindu zure serbitzari ta adiskide

Arzubiaga Zirilo

Urrestilla'tik 1955'gko. uztaillaren 29'an.

Aita Onaindia agurgarriari.

Larrea-Amorebieta'ra.

Ene adiskide ona: Ikusi det zure MILLA OLERKI EDER eta oso atsegiñ izan zait. Lan bikaiña egin dezu benetan euskal-literaturaren alde. Zorionez goruntz dijoakigu gure Elertia, baño beruntz zoritxarrez gure Euskera maitea. Bildur naiz laister literatura utsarekin Euskal-Erria geldituko ez ote dan. Euskaldunak, ez dutela euskerarik nai dirudi. Bere izkerari uko egiten dion Erria eriotzaren urrean dago. Auxe da nere iritzia. Euskaldun gurasoak beren umetxoei euskera erakusteko ardurarik ez dute batere. Etorkizun illuna dakust, nik beintzat. Argatik, Jeremias bere garaian bezela, Olerkari ta bertsolari ta idazle oro asi bearrean gera laister baño laisterrago, gauzak oraingo tanke-tan baldin ba'dijoazkigu beintzat.

Zure liburu ori bidali zaidazu libreruei ematen diezun pre-ziuan, ta jasotzen dedan bezin laister, dirua, zeuk esaten dida-

zuna alegia, bialiko dizut giro postalez. Uste det errebaja ori egingo didazula ta orregatik liburutegian ez det oraindik erosi. Lagun bateri eskatuta nere eskuetan izan det eta asko irakurri ere bai, baña nere liburutegirako ale bat nai nuke. Argatik idazten dizut auxe. Gañera beste onexengatik:

Ezautuko dezu edo aditzea izango dezu NORBERT TAUER jaunarena. Atzerritarra izan arren oso euskaltzalea degu jaun au. Euskal-idazle guziekin artu-eman ba-du, eta nerekin ere bai. Ara emen gaur jaso dedan bere azken-idazkia. Irakurri, zuretzako ere ba-dakar zerbait eta gero biali zaidazu berriro neri, jaun onen idazki guziak gorde egin oi dizut-eta Zerbait euskaldunei erakusteko. Atzerntar onek ez die euskaldunei ikasbide txarra ematen...! Argatik nere aldetik erregutzen dizut bere naia bete dezaiozula, merezi baitu euskal-idazle oron eskerrona.

Ta orrenbestez, agur, adiskide, ta urrengo bat arte.

Jauregi'tar K.

Bilbao-Begoña, 1956'gnko. Dagonilla 1'an.
Onaindia karmeldar Aba'ri
Eibar-era

Adiskide ta lankide, agur: Zure idazkiari erantuna dozu au, Iraduz nago ta lerro batzuk baño ez.

Arrese'ren idaztia berrargitaltzia dala-ta esan biar dautzut baimena lortu dogula Euskaltzaindiaren bidez. Zuk aitatu zeus-tan jaunagana jotia gaur danez alperrekua izango litzake: berak eta bere lagunak oraingo aldian beste buruko min astunak daukez.

Euskeltzaindian esan dauskue beriak atara leikela idazti eder ori, baldintza onekin: lenengo errian ipiñi Euskeltzaindiak ataraten dabela —Kanpion'en itzaurrea kendu— Ortografían ch ordeztxe ta s ordezt x erabili. Zeuk itz-aurrea egin zeinkela

diño. Olan ba asi zaitezke beriala. Arrese zanaren sendiak diñozte zeuk ipiñi zeikezala zeure itzaurrean, Kanpion'ek berian ipiñi ebazan gorasarreak. Onutz etorri bearrik badozu emen obeto aituko gara izketaz. Arrese'ren alabiak idazti ori argitaltzeko agindu ebazan 10.000 lauerlekuak nai dozunian emongo dautzuz.

«Gráficas Récord»'en irarriko ete dautzue? Irarkaiak zuzentzia neuk egingo neuskizu, orra ta ona astirik galdu ezdaiten, idazti orrek len-bai-len eta edozelan be Lotazilla'rako, au da aurtan, egillearen eriotz-urteurren barruan argitara urten biar dau-ta.

Kisto'ren antz-bidea'tzaz ez dakit zer egin. Izan naz irar-kolan. Antz-bidea ondiño asi barri dauke; baña aurretik ipiñi dotsazu beste atal bat eta nik Antz-bidea bakarrik nai. 50 nai 100 ieki erosiko neutzuzan. Danadala, ondiño astia dago ta ikusiko dogu.

Agur eta agindu nai dozuna

Arzubiaga

Saturraran'dik, 1955'go dagonillaren 22'an.

Onaindia'r Yakoba Karmeldar Aba'ri.

Eibar'era.

Agur, karmeldar aba: Patxada ta asti geiagoz idaztekotan geldi nintzan eta..., orain arte. Batetik, ustegabeko ikasi-bearrak eta etxean berriz, baserri-lan Zenbait, bestetik. Gaur, orratio, emen itsasaldi degun bitartea alperrik galdu gaberik, idazten asi natzaizu.

Artuko zenitun, noski, liburu saillaren ordaiñak. Nik, esku ziurretan utzi nizkitzun, beintzat. Zuk Donosti'tik artzea besterik bear etzala utzi arazi nitun. Ta gañontzean, zelan dijoazkitzu liburu zorioneko orren salketak? Nundinai txaloa besterik ez dut entzun liburu ta onen egillearentzat.

Oraintxe bertan ere iruren eske natorkizu. Bi azal apaiñezko ta bi ale ditun *bat*. Ta bidali?... Ona nere iritzia: Or Eibar'tik taldetxo asko etorri oi dira igandero ta aste barruan ere nor-baitzuk emengo itsas-ertzera. Zure ezagunik ba'letor naiz ez, nere izenean Saturraran'go Apaiz-gaitegira iritxi ditezke... Errekadista bitartez ere bai.

Egokigo ba'dirudizu, berriz, korreoz. Iru bide oietatik zuk aukera derizkiozuna, zure esku uzten bai dizut.

Garra: Bidaltzekotan, agorraren *irua* baño len irixteko era egizu, mesedez. Bestela urriaren lenengo egunetan Donosti'kora. Zer moduz?

Makiñaz ta abar, urrengoan bearko txukunago.

Bitartean, karmeldar Aba'ren esku sagaratu oietan itzalkiro muiñ emanez, agur dasaio apaizgai

Gaztañaga'r Jexux'ek

Praga'tik 1955'gko. Dagonillaren 26'ean.

Onaindia'tar Jakoba Aitari

Eibar'en

Nere Aita guztiz agurgarria:

Atzoko eguna, osteguna izan arren, jaieguna izan zan nere-tzat: Eibar'tik bialdutako «Milla Euskal Olerki Eder» izeneko liburua nere eskuetara eldu zan.

Liburu onen artzeak eman didan poza ez da esatekoa. Lenago, Euzko Gogoa'n eta beste euskal aldizkarietan irakurri ditut zure lan berari buruzko iritzi batzuek. Idazle guziak zure lanaz ongien itzezin arren eta iritzi oyen bitartez banekien eder-ederra eta garrantzi aundikoa zala, orain ikusten dut zure olerkien bilduma askoz ederragoa dela uste izan baño.

Askota dira, eta zoritxarrez euskotarren artean ere, uste dute-nak euskaldunak ez daukatela elerti bat beste abenderriak beze-

la; banan zure lana azterkatu ondoren, iñork ezin dezake ukatu, euskeraz eginak dirala mota guztietako olerkiak, bai errikoak, bai olerkari ospetsuak idatziak.

Eta neretzat, euskaltzale sutsu bat naizelarik, atsegin aundi-aundia da olerki oiek irakurtzea. Batzuek lendik ezagutzen ditut, Euzko-Gogoan eta beste aldizkarietan irakurri ditudalako, bañan asko neretzat berriak dira. Irakurtze jakingarria dut aste batzuentzat.

Mingarri zait ezin dizazukedala pagatu, emendik atzerrira dirua bialtzea debekaturik dagolako. Banan ziur zaude, zure doai ederra zure Aberria ta izkuntza biotz-biotzetik maite dituen euskaltzale bati eldu zaiola. Nere liburutegian —nere etxean euskerazko liburuak ugari dauzkat— zure liburuak leku onena izango du. Pozik nere zorra garbitu nai nuke. Orra Zergatik eskatzen dizudan niri esateko, emendik zerbait euki nai ba-duzu. Nai dezuna berealaxe bialduko dizut. Gaurko nere eskerrik onenak bialtzen dizkizut.

Euskerazko irakurgai batzuek idatzi ditut. Euzko Gogoaren lankidea naiz eta Zeruko Argia'rena ere. Illeroko onen urrengo zenbakiak / agorrillekoak/ nere euskerazko lerro batzuek ekarriko ditu.

Buenos Aires'ko «Euskaltzaleak» izeneko bazkunak eratu-tako «Idazkuntza»-n parte artzen dut, idazkilaria naiz, eta orain-arte 137 idazki bialdu dizkiet nere euskaldun adiskideei. Asko poztutzen naiz zu, euskal-idazle ospetsua, nere adiskideen artean ikustez. Pozik Zurekin elkar idaztean sartzen ari naiz eta uste dut idazki au ez dela azkenengoa izango. Orregatik zure berrien zai nago astigaberik.

Zure Aberri'tik Praga'ra zuzenki idatzi dizadakezu.

Besterik gabe, onar itzazu. Aita guztiz agurgarria, nere agurrik beroenak eta agindu nai dezun guzia zure menpeko

Tauer'tar Norberta'ri

Iruña'n Dag. 29'gnean
Onaindia'tar Jagoba Abari
Eibar'en

Agur Aba maite ori:

Garaiz eta ondo eskuratu zitzaidan zuk egorria ta bereala eskutitza. Aureli Abari ukain diot idaztia bai eta zuganiko agurra. Adiguri au bero oneritzi du ta «ordez» egortzen dizu. Gañez aña izan da poz, idaztia jasorik.

Beste idazti bat ari dut salketan eta karako ditut entseguak; bururatuta, bioen dirua hel araziko dizut.

Urteak ezin auxa, gaztetango karraz alha naiz ba ordean zaharraz, induri geiagoz. Eskerrik asko dizkidazun itz eder oriengatik, irabazlerik ez naiz arren. Zerbait aipagarri egina ba'nu olerkitan, bai somatuko zen eta —adibidez— zu zeran usnakari barrunkorraz, baizenuen nunbait atxikiko. Au ta be, bertan dizut olerki bat nere aburuak ez ain ezetsia; Deun Laurentzi'ri bai leia atxikiaz, bai agian ola eman beitu lanak berak, bai edo zer ereko beste ziyoaingatik, neuk egin eta argitaldu olerkietan ez detsat ain eskas.

Oler-egiten dudanean, gaikinak ola nai nituke: asmua, sorzear edo jator, gogamena, zorrotz: solasa, zeatz eta irudian zintzo: elea, doi eta trinku. «Jaundone Laurentzi»-ri olerki ontan olerkerea antsiatuari urbilena deritzait. Ez bedi nausi, bañan, nere espen au eta zuk ebagiko baike gaia den edo ez den helbururako, bialtzen dizudan nere lan au.

Gaurkotz ezer geyo ta betiko goraintziz nizaizu

Agerre'tar Joseba

Gabiri'tik, 1955'ko agorrak 21.
Onaindia'tar Yakoba Aba.
Eibar'en.

Agurrik beroena, Yakoba Aba: Lendikan «Euskal Olerki Eder» dexente ditugu eskatuak. Bada lengoz gañera beste batzu eskatu nai nizkizuke.

Lengoak oso gogoz irakurtzen ditute gure mutikoak eta euskal kutsu ori pixkana-pixkana zerbait erantsiko zaielakoan nagokizu. Oraingoz ia beste bi bialtzen dizkidazun. Bat eunezkoa (150 lk.) ta beste bat 125 laurlekoa. Geiago ere eskatu bearran izango naizela uste det, baña eskatzea ezta ezer asko kostatzen, ta euskeraren alde izan ezkeru are gutxigo. Bien salneurria «reembolso»'z ordainduko dizut, ongi ba'deritzazu,

Liburu oiek nola biali, zuk esango dezu. Korreoz edota bestela, eskuz-esku nai izan ezkeru, Zumarraga aldera datorren norbaiten bitartez gure orko lekaidetxera igorri nere izenean eta andik neronek jasoko nituke. Ta orain, ausarkeri ezpada, galderatxo bat egingo nizuke. Bizkai aldean, Larrea'koei batez ere, idazti ori biltzeko agindu diela entzun edo jakin det. Egia da dioteneko ori? Gipuzko'n beintzat edozein liburutegitan salgai agertzen dalakoan nago. Bizkai aldekoek estuago lotu nunbait lokarriak? Ala ere, aidean dijoan arria, bere indarrez, lurrera erortzen dan bezelaxe, gure gauzak ere goiz edo berandu bere bideetara joko al dute.

Besterik gabe ta zure idaztien zai gelditzen naizelarik, biotzez agurtzen zaitun zure adiskide ta apaizkide,

Larrarte'tar Kol.

Bermeo, 1955'ko Azaroaren 19'an.

Onaindia'tar Aita Santiago agurgarri eta euskaltzale ospetsuari. Eibar'ren.

Aita Santiago, Kristoren aldaren anai maite: Kristoren Pa-kea Zurekin. Aspalditxoko asmoa nuan gaur egin bear dizutan eskaria.

Oraindik orain Larrean dezuten konbentu bikañera joan nintzan an zeundelakoan; baño... oker jo nuan nunbait. Or Eibar'ren zeundela esan zidaten.

Itz gutxitan esango dizut, ba, nere eskaria.

Arantzazuko Ama Birjiñaren bederatziurrenean ikusi eta es-ku artean erabilli eta irakurri eta nere biotzaren mami bezela egin nuan zure euskal biotz bikañak «Milla olerki eder» izena-ren azpian eta animan utzi duan puska eder ori.

Lan bikain orri zetorkion bezela, ondo aipatu ta goraldu dute zure arnas bizi orren jaiotze pozgarria... Orregatik, ez noa-kizu gauza berririk esaten, Aita Santiago. Baño euskaldun jator denen esker onean alkartuta: «Zorionik sutsuena!», esango di-zut biotzez, urre zati enbidigarri ori gure eskuetan jarri dezu-lako.

Arantzazuko egunetan ikusi nuana bakarrik esango dizut: iñularreko ixillaldi paketsuetan oso gogokoa oi dutela «Milla olerki eder»'aren irakurraldi saio bat, ango irurogei gazteak, euskaltzale piñak guztiak.

Oso pozik izango nazu, Aita Santiago, MILLA OLERKI EDER bat lenbaitlen bidaltzen badirazu. Mesede auxe asko estimatuko nuke egi esateko. Zuk esango didazu bere salneurria. Baño, bada ez bada ere, San Franzisko beartsuaren seme «beartsua» naizela esan bear dizut eta... au kontuan jasotzen badezu, milla esker aldeaurretik.

Zorionak, ba, berriro eta zure liburu bikain orren zai nau-
u.

Zuk nai dezun arte, Aita Santiago. Otoi dagigun alkarren
alde.

Kristoren amasean eta euskal seaskan zure anai

Galarraga'tar Aita Joxe

Irun'dik, 1955'ko Azaroak 20.

Aita Onaindiari.

Eibar'en.

Nere adixkide agurgarria: agur.

Zure azkeneko eskutitza artu nun. Uste dot ze, uri oneta-
ko aldizkariaren Zuzendari jaunak bialduko eutzula zure Beñat
Etxepare olerkariaren lan ederra argitaratu zan zenbakia.

Parkatu nire euskeria ezpada ez Gipuxkoakoa, ez Bizkaikoa
ez Naparra ta ez Prantzeza. Bizkaitarra jaiotez, orain ezdakit
nongoa egiten dodan, ba alde guztietako idazlarien idazkiak ira-
kurtzen ditudaz.

Nai nuke jakin gauza bat zuregandik: Ia ze lan egin daben
Karmel'go Ordenak euskeraren alde, igaro dan guda-ostian.
Idatzi dodaz idazgai batzuk Prantziskotarren ta Jesusen Lagun-
dikoen gañian, eta jarraitu nai nuke Karmel'tarrakin, Domini-
ko'tarrakin da beste Ordenakin.

Batez ere, nai nuke jakin ia Karmeldarrak aurtengo (1955'ko)
urtean zer liburu, aldizkari edo beste lan argitaratu dituzuen
euskeraz, ba nai dot lan bat egitea, buru onegaz; «1955'ko ur-
tean argitaratu diran euskal idazkiak».

Nai nuke lan onetan ipintzea mundu guztian argitzen diran
liburu, aldizkari ta beste gauza guztiak euskeraz. Baita erderazko
aldizkariak, euskeraz argitaratzen badute zeozar

Berri onak euki ditudaz zure «Milla olerki eder» liburuaren
gañian. Entzun dot asko saldu dala. Zorionak.

Animatuko zera Euskal-elerti'ko idazti-lixunak jartzen, olerkiakin egin dezun bezela? Asko poztuko nintzake, asiko bazintzakez lan onetan. Lenengoko, antxiñako idazleak, liburu baten. Gero, urrengokoak. Egunen baten amaituko dezu, Jaungoikoak gure badau.

Beste barik, zure berri onaren zain gelditzen naiz,

Anai Balendin B.

Donosti'ko Apaizgaitegi'tik 1955'go azaroaren 24'an.
Onaindia'tar Yakoba Karmeldar Aba'ri
Eibar'era.

Karmeldar Aba agurgarria: Artu nizun aurreko dagonillekoa, erantzun ez dizutanez, ez ba dirudizu ere. Baita ere artu nitizun iru liburuak. Barka idazu, arren baño arren, erantzun gabezko zabarkerian gaur arte iraun izana. Ustekabeko ikasbearra udaldian eta ua bukatu nuenerako, azken egunak nitun etxe-alde. Emen berriz, lenen Gogo-jardunak eta gero beti zer-bait. Ba'duzu nigan barkakizunik eta ziur itxaroten dut zugandiko barkapena.

Nere bi adiskideekin gertatu omen zera aurtengo udaldian: Bein Itziar'en —eskutitzez zerorrek zeniodanez— eta urren Zarautz'en. Ba'dut neronek ere Zurekin aurrez-aurre mintza-gogo. Eguberri Donosti-aldirik ba'zenu, pozik inguratuko nintzai-zuke.

«Teología ikasten ari omen naizela...» Bai, Jainkoari esker aunitz, alaxe ari naiz eta ain zuzen ere Eguberri apaiz-jantzian itten bear dut, Etorraroko ordenaldiz arturen bai'ditut Eleiz-illemozketa ta beste «ordenatxoak», Goikoa lagun. Urte ta erdi barru pozaren-pozez apaiz gindezke. Pozez bear, nai ta nai-ez, pozez, geren ustea Algutidunagan dugularik. Bestela ez, noski, gerenez zer gera, ba, besteren erantzun-bearrak gerongan artzeko? Au dala-ta, zure otoitzean ere ba'dut itxaropide.

ta oso atsegin izan zait. «ANDRA MARIA» are atsegiñago, ber-
rриз. «Etorki guziok, zenbat negar ixuri dogun, arrezkero!» Do-
torea iruditu zait au. Lenengo zatian, «naita billotsik egon, etzi-
ran lotsatzen», ariñegi dirudit. Zabalxeago adieraztea atsegiña-
go zitzaidaken. Billotsik egon arren ere ez lotsatze ori, sakona-
go adierazirik nai nun. Nere iritzi oiek ezartzeak ez zaitzala arri-
tu ta, batez ere, etzaitzala naigabetu, gai au ikas-berria baitugu.
Ain zuzen ere, aurten. Aurreraxeago, irugarren zati asi aurreko
itzak «ipsa conteret» Vulgata'renak dituzu. Euskeraturik, orde,
apur bat lenago idatz duzunez, «ipse conteret» adierazi nai
duela dirudit. Zergatik? Emakume ta suge, bion ondorengoan
artean da burrukaldi, biok esan edo aipatu ondoren, «berak
lertuko» diozu. Au da, «ondorengoak», alegia. Ontaz bai egoki
legokela! Izan ere Eberkeraz ta gerkeraz «ondorengoarekin»
bai 'dute jarduna, Vulgatak bestez ba' dio ere. Beraz zu ere
lenengo itzuleran, «berak» «ondorengoari» darraikiola dirudi.
Ez da, noski, alde aundirik, bat esan ala bestea esan. Ala ere
arrokeri apur bat ez al zaigu bidezko ikasleori ere? Biziro atse-
giñ zait idazki au. Egutegi guziko dotoreena ba'dala dirudit.
Sakonaz gañera dotore idatzia duzu. Arritzekoa bezela, aspaldi
ikasiek olañ egoki erabiltzea «idatz Deunetako» gertaera bat,
nun da bere goxo bertan ez dun batek. Torizkitzu, beraz, nere
txaloak.

Gaur —25'an— zuzendariaren egun ospatzen degu Apaiz-
gaitegian. Orain arte jai jatorra dijoakigu. Gero arratsean, be-
rriz, zine ederra ere izanen dugu. Izen aundikoa, beintzat. Ez-
takit nola idatzi, baña, «IVANHOE» letra oiek beintzat ba'ditu.

Orain iru egun jakin nun «Begoña'n» egon berria zerala.
Ea alde oietara noiz urbiltzen zakigun.

Azkenik, iru MILLA OLERKI bidalizkidatzu: *Ale bateko*,
BAT eta *bi aleko*, BI. Lengoz, sei ditezke ordain-bearrekoak.
Eguberri ondoren kitatu bearko, zuri ajolik ez izatekotan. Zuk
agindu.

Beste gabe, agur —jai au aogoxatzera bai noa— eta ondo jarraizu. Ni laguntzeko naukazu al dezaketean. Apaiz esku oietan muñ bero bat emanik edo-ta Karmeldar lokarrian, zuk naia-go izatezkero. Zure serbitzari ta adiskide (ausarkeri ez ba dirudizu) apaizgai.

Gaztañaga'r Jexux'ek

Iruña'tik, 1955-XII-6'an
Onaindia'tar Jakoba Abari
Eibar'en

Agur adiskide gurgarri ta maite ori:

Garaiz eta bai pozik artu nuen zure 25'gkoa ta «Karmen'go Egutegia». Arpidedun ezar nazazu ta zuk esango nola egin bear den diruz ordaintza. Eskerrik asko nerekiko zure adeia dala-ta, ene izneurtu menteak jarriaz. Noski ez dire gai larri, meheia baño, bañan ziur nago ere bai arien helmena sakontzen ari dela pixkat yendetan. «El Pensamiento Navarro» ta «Pregon», biak Iruña'ko, egunoroko ta iruilabeteko ingurtia, zein bere, gozatzen dira euzkerazko gauzak ekarkiz. Berrikitan bertoko ta sasoiko igerr-dei bat, gertuzko eta saloskari-deia, etorri zait esatez arek ere nai duela euzkerazko zertxobait ekarri. Ona bestien oiarzuna. Euzkera aldeko leia bat dabil ingurumenean. Ikus dezazuntzat, bi «Pensamiento» egun otakoak bialtzen dizkizut. Batean ikusiko dezu nola dakarren zure sortako olerki bat; erdel-itxikia bakarrik dakarra, luzegia beitzen, euzkerazkoa ere ba'zeka-rran. Ba ordean «Pregon» ingurtian sartuko degula ustean gera Ontaz landa, Bilbao'ko VIDA VASCA ingurti pintxoan euzkeraz ez naiz beñere ikusia aurtan arte. Emen ere sartu dute euzkerea. Ez gero joan nintzela ni aren eske, ez, beroiek etorri zitzaizkidan billa. Ez didazu tutik esan «Vida Vasca»-ko olerki ontaz. Ez al zenuen irakurri, ala? Ezezkoan, «Vida Vasca»-ren banakoa egorriko dizut.

Batzuek ordean —puritano oriek— agian aitzakia aterako dute ezalde baten bat dutela egunkariok ta uko egiten dutela berek. Or konpon, uste ba'dute aroa ez dela heldu oraño «torre de marfil» ortatik jausteko. Elea sart ahal ba'genu egunkari guzietan, orra ederreneko saila, oraikotz beintzat.

«Milla Euskal Olerki Eder»
espena, Censura'n tatxatua.

Barnean doakizun espen-idatzi au da nik egina. «Pregón» aldizkarirako egina nizun. Oztopo ez genuen uste izan deikenik ta orra; atzera bialdu dute idatzia esatez liburu ori *debekatua* dela-ta, ez dela zil olako liburu batez argitaltzea espena. Iruzikin-bearrik ez: erraizunik eztare. Gure zirtoari esan zuten *debeku* orrekin adierazi nai dutela bearreko baimena ez duela liburuak.

Aipatu dezun elkarrekiko aditze ori badela on iardun-bearrik ez da. Olaberri ta Asteasu'n bildu giñen zenbeit idazle, baidu apur bat. Donostia'n badezute inartzeko manera pollita, Seminario de Urkixo'ren bidez eta Akademiez eta aldizkariez. Bizkaia'n da gauzea gordinago. Beti ere, euzkelzaleak ez dira peitu. Orai jun da Bilbao'ra emengo mutil bat, egunkarigin euzkerantzako lege onekoa; «La Gaceta»-ra juna da.

Super flumina Babilonis sedimus et flevimus. . . . Aurrera bear eta baikor. . . . Orai zeorrek «Milla Euskal Olerki Eder»-ren sarreran ipiñi goiburuaz: Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du.

Ta orai, ezti-bearrez, esanen dizut berri «konsolagarri» bat. Iyeki bat saldua dizut eta dirutua, beste bat, bai saldu bañan ez dirutua. Bioen aintoa helaraziko dizut berandu gabe.

Agur ta betiko leiaz, urrengoa arte

Agerre'tar Yoseba

Paris'en, 1956-VIII-2'n.
Onaindia'tar Santi Aita agurgarria.
Eibar.

Agur Aita agurgarri ta maite ori.

Ara nun datorkizun aspaldi ta urrutiko adiskide baten berria. Ar-itzazu lenengoz nire agurrik gartsuenak; bide batez nire zorion-agurak ere gure euskal-soroan, zure liburu bikañez, orren landare ederra erein diguzulako.

Ain zuzen, zure liburu ori delakari artzen dituzu nire lerro motz auek.

Ba-liteke zuk jakitea, baña dana dala Paris ontan amar milla euskaldun baño geiago gera bertan bizi geranak; geienak, ja-kiña, muga ipar aldekoak. Auek, Bayona'ko Gotzain jaunak lagunduz, etxe bat ideki dute guzientzako: «Eskual-Etxea». Bertara amaika euskaldun doaz jaietan batez ere, eta bertan egin nai da euskal-usaidun den guzia.

Orixe dala-ta bertan —eta al danean ere— euskal-liburuak saltzeko alegiñetan sartzea otu zait. Diruduna izango banintz, neronek erosiko nituke bakoitzatik batzuek salketa ori egin al izateko. Baña dirudunak Amerika aldean edo bizi dira. Orren-gatik urrats auek ematen asi natzaizu:

Muga bi aldeetako adiskideak zirikatu ta liburutegi batzuei auxe eskatu diet nire asmoa betetzeko. Liburu bakoitzetik iruz-palau edo bospasei igeki neri «deposito»-an bialdu, gero, saldu ondoren (eta saldu ezkeron noski) ordaintzeko. Geienetan ontzat artu didate asmoa ta asi dira batzuk beren liburuak igortzen.

Egoki izango al litzaizuke «Milla Olerki Eder» zure liburu «eder» Orrezaz orrenbeste egin? Bayetzean, nire zuzenbide ontara bialdu zenizaizkidake: 7, Avenue du Président Wilson-Paris (XVI).

Ezagutzen edo dituzun Labayen'dar Andoni Mirena ta Garmendia'tar Yon (auxe «Begoña» liburutegikoa) laguntza-lleak ditut eta berak dira, beste batzuen artean, liburuak bialdu

dizkidatenak. Nai baduzu —neronek nai dut— eurekin itzegin ezazu, besterik ezpada, beren bialtzeak nola egin dituzten esan dizaizuten.

Aita Rafael Zurekin al dago or? Orain lau bost urte or ikusi nuen-da. Eman ezaizkiozu, niketz, goraintzi ta agur on eta mai-tekorrenak, arren.

Eta emen nauzu, zure berrien zai eta nai dezazunerako ger-turik; ene asmoen alde gogoratu ezazu, arren, zure otoitzetan, bearra baitut. Eta aurretik guziagatik esker-on agertu naiean, onar ezaizkidazu nire agur eta besarkada beroak

Urrestarazu'tar Andoni

Paris'en, 1957-XII-9'an.

Onaindia'tar Jakoba Aita agurgarria
Larrea-Amorebieta.

Agur Aita on eta maite orí.

Joan dan urrillaren 24'garrenean idatzi zeunstan gutuna be-re orduan eldu zan nere eskuetara eta pozik ere irakurri bertan idatzi zenduan guztia.

Bialdutako liburuetatik batzuk saldu dodaz, ez guztiak. Ala ere laister idatziko dausat arrebari, guztiena, laurlekoz, zeuri bialtzeko. Onelaxe da kontua, neure ustez;

Goi-Zale	2	igeki	15'ean	30	laurleko
Bertso berriak	5	»	5'	25	»
Olerkiak	2	»	55'	110	»

Guzira 165 »

Zoritxarrez beti zaletasun gutxi guretarren artean; eta li-buruak aleka saldu bear eta... astiro. Ala ere pozez ikusi bear zeuk esaten daustazuna, aldameneko erri oietan asko saldu do-zuzala.

Egia diñozu; kulturen zerbait diranak euskera erruz erabili-
lako balu, erritarrak atzetik lirake ezpairik gabe; baña orain
arte «kultureadun» guztiak beti zapuztu dabe gure izkuntza, ta
ezer ezta kitenak orrenbeste egin bear, «zerbait» dirala erakus-
tearren.

Zallak edo gara euskaldunok alkartzeko, eta beti eroapenez
beterik ari izan bear amaika «gauzatxo»'en aurrean; alan eta
guztiz be, aurrera jo egingo dogu, gure aulkerien errurik eus-
kerak ezta eta.

Ba-dodaz berri on batzuk zeuri emoteko. Gasteiz'en, gaur
zortzin asiko dira ango irratiz (Gasteiz'ko irratiz) euskal-ikas-
kayak astean iru bider ematen: astelen, asteazken eta ostiralean,
arratsaldeko sei t'erdietan. Ordua txarra da neure ustez, baña
eziña izan da beste oberik lortzea. Entzuten al da ortik? Orrela
izango balitz, esker-onekoa izango nindukezu, zeure iritzia
emango bazeunst. Gero, urtearekin, ango Instituto'an ere beste
ikastaldiak, bertako Gobernadore'k idarokita, asiko dira emoten.
Ez ete dago ondo? Pozez beterik nagotzu. Orain entzule ta ikas-
le izango balira! Ba-liteke Iruña'n be orrenbeste egitea.

Bein ikusi neban «Karmel» zeuen aldizkaria eta oso gogo-
koa izan yatan. Ez dodaz artu oraindik agintzen daustazuza-
nak.

Milla esker ene arrebaren adeiez eskeintzen daustazuna;
berak ere pozik arrera on bat egingo dautsu, zalantzik gabe.

Laister Gabon'eko gure jai ederrak. Zorion ugari opa dau-
tzudaz bai zeure etxe ortako guztiai ere. Eguberri on eta Urte-
berri on!, biotz-biotzez. Aita Errapel'i beste ainbeste zeuk ikusi
ezketiño.

Zeure esaneko nauzu beti; agindu, bada, nai aña. Eta onar
eidazuz neure agurrik on eta beroenak

Urrestarazu'tar A.

Agur jaun eta adiskide on:

Eranegun artu nizun ortik bidalitako aldizkaria, «Karmel» alegia. Zuk ba'zeneki zenbateraño poztu naun. Ederra baño ederragoa iruditu zait. Ez nuan uste ainbesteraño iritxiko ziñatenik, ez bait-da errexa mami gizen eta azkurritsua arkitze, are gutxiago erlijiozko aldizkaria jazteko eta betetzeko. Orain arteko bide ortatik jarrai ezkerro «sukaldekeririk» gabeko aldizkaria egitera iritxiko zerate. Izan ere, ba'dirudi gure aldizkari guziak sukaldean soilki irakurri bear izaten dirala eta ez etxeko aretoan. Nik ez dut esango sukaldean irakurri bear ez danik eta aldizkariak ekarri bear duten gaia erazko eta erakoa izan bear ez duanik; baña, sukaldea aitatu ezkerro, ba'dirudi pellokeriak bai-zik irakurri bear ditugula.

Zuek ederki moldatu duzute aldizkaria eta era guzietako gaiak dakarzkizute, erri xumearentzako, irakur-zaleentzako eta zer bait ikasi naiean dabillenentzako. Orregatik, zein zati iruditu zaidan atsegiñena ez nizuke esango. Zati guziak ba'dute lausoro goxoa.

Olerkiak oso atsegin izan zaizkit, motxak bai dira eta ni olerki motx zale naiz, eta jendia irakur-zaletzeko, olerkiak irakurtzen jartzeko, auxe da biderik egokiena.

Dante'ren lana ederra da. Egillea nor danik ez digu aldizkariak esaten. Bearbada zu zaitugu itzultzailea, ats aundiko lana bait-da eta era ontako lanak zure adimen, euskaltzaletasun eta lan-zaletasunari neurriz datozkio, euskera oso mendean bait-duzu. «Lun ñabar» itza panterarena adierazteko nundik atera duzu?

«Ikasi euskeraz» zatia ere oso ona da eta benetan ikasgarria, ikasi nai duanentzako beintzat.

Jarrai ba, bide ortatik. Arpidedun artean zenbanatu nazezu, eta saiaturko naiz arpidedun berriak billatzen, zuen aldizkariak merezi bait-du.

Gabonetarako etorriko ziñalakoan ez dizut dirurik bidali. Bañan emen ikusten etzaitudan ezkerro, aste ontan bertan jiroz igorriko dizut zuretzat daukatena.

Eta besterik ez. Ekin gogor lanari. Eta beste gauzatxo bat: r tildedunik ez al duzute? Oso maitemiña dut eleiz au.

Ia noizko ematen diguzun zure ustekabeko bat, euskai liburu berri mardul bat alegia.

Agur, ba, eta urren arte Nere esku-zartadarik beroena eta maitekorrena

Egaña'tar Gotzon

Miarritze'tik, 1958'gko. Otsailaren 15'garrenean.

A. Onaindia Agurgarriari.

Larrea'ra.

Apaizkide ta adiskide on ori:

Labur ba'da ere, lenik agur egin nai nizuke, adiskide antzo. «Karmel» zuen aldizkariaren azkenengo zenbakia pozarren irakurri dizut. «Dante»'rena, atalka bada ere, osorik emango al duzu, asko edertzen bait-du aldizkaria.

Egunotan il-berri dugu «Oxobi» gure olerkari gorengoa (G. B.).

Esan nizunez, ilero batzarre egiten dugu gurean, euskera ta euskeraren gora-berak gaitzat arturik. Lengo batzarrean zure izena norbaitek atera zun, eta zuri dei-egiteko ardura lepora zidaten. Datorren illaren 3'an barriro alkartuko gara arratsaldeko lauretan. Etorriko ba'ziña, alde z aurretik eskerrik asko biotz-biotzez. Etorreko aleginak egingo dítuzulakoan eskerrik nago.

Oraingoz besterik ez. Alkar ikusi arte. Bitartean, orizu nire euskal-agurrik kartsuena ta agindu euskeraren onerako adiskide ta apaizkide duzun

Zaltegi eta Plazaola'tar Iokin'i.

Irun-Urantzu'n, 1958-IV-14.
Aita Santiago Onaindia, O. C.
Larrea'ko Nagusia.
Zorrontza'n.

Adiskide maite Aita Onaindia; Pake ta On.

Lengo egunian artu naban zure 9'gko. eskutitza. Aspalдин neukan emen zuk bialdutako liburu pillotxo bat: Arrese'ren «Olerkiak»; bi «Jesukristo'ren Antz Bidia» eta bertso-liburutxo bi. Uste neban emen saltzeko bielduak izango zirala, eta orregatik ibilli naiz or-emenka saltzen. Kosta yat, baña diru guztiya osotu nebanian, Donostia'ra juen nintzan batian zuen konbentuen itzi neban dirua, zuri bieltzeko praillien bategaz, esanda. Bai laister artu be egin dozu. Bertso liburutxoetatik bat ez naban saldu; galdu egiñ yatan. Da asko sentitzen dot, ba «Euskera»-n argitaratzen duan bibliografirako ez dot oraindiñoko notarik artu bertso-liburutxo ortatik; bestiekandik bai, eta datorren zenbakian agertuko dira, irarkolan daude ta. Esandako liburutxo orren ale bat bialtzen badeustazu, estimauko dautzut, nire bibliografiyan sartzeko.

Ez dot diru asko ibiltzen euskal-liburuetarako, baiya «No-ra?...» ornaren ongille batek diru pixkatxo bat bieldu eusten, da irutik bat baiño geiyau bieltzen deutzut «Karmel» aldizkariaren ordaintzarako: $15 \times 7 = 105$ peseta, au da, zazpi urterako. Sari bezela emango ditudaz aldizkari orren ale bakarrak, or-emenka, mutill gaztien artian. Esango didazu, mese-dez, ia artzen dozuzen edo ez emen sobre barruen bieltzen deutzudazan eun da bost peseta oiek.

Pozik irakurtzen ditudaz «Karmel»-eko irakurgaiak. Bada-kixu, or erabiltzen dezuen euskalkie da nirie, Ixurtzan jaiue izanik. Orain danetik ulertzen dot, baita Prantzi aldeko euskalkiek be, baiña beti dot erreztasun geiago Bizkaiko euskeran. Noiz edo bein pozik bialduko neuke ba, irakurgaitxoren bat «Karmel»-ean argitaratu nai bazenduke, baiña jakin bier ni

«Zeruko-Argia»-n, «Herria»-n, «Gure-Herria»-n, «Boletín Príncipe de Viana»-n, «Euskera»-n etabar idazten dot; erderaz toki askotan: Boletín de los Amigos del País, Boletín Instituto Fernán-González, etabar. Idazle-izenak: H. V. B. (Hermano Valentín Berriochoa); N. A. G. (Nikolas Alzola Gerediaga, nire fameliko izen-abizenak); N. Alzola; Bitaña; A. Iburreta; Oxiñondo'ko txoria; Altzarte; Ozerin-Jauregi; V. del Parral; Pedro José de Bitaña-echevarría Lizundia... Ortik ikusiko dozu idazle barri izan arren, ainbat gai erabiltzen ditudala, bai euskeraz eta bai erderaz: Bibliografiya, Kritika, Etnología, Kondaira, Gizon-bizitzak, ipuiak eta abar. Olerkari ez naiz, baiña azkenengo «Euzko-Gogo»-n argitaratu nitun olerkitxo bi, neurri-azkatukoak, bata Juan Ramón Jiménez'en opaz eskiñia, ba olerkari ospetsu orri emon eutsienien Nobel saria, bere olerki batzuk irakurri nituan eta orduan egin nitun. Iñoiz be ez dot olerkietarako erreztasunik izan, baiña orrelako batzuk baliteke noiz beinka edo egitie.

Ez nintzan jua atzo Urruña'ra. Praillerik ez eizan izan an; Don Nemesio Etxaniz apaiza bakarrik emenko aldeko sotana-dunen artian. Ni pozik juengo nintzan, baiña komentuko barri zuk ondo dakizu, gure artien orrelako batzarretara jueteko Anai Probintzialari baimena eskatzeko oitura izaten dogu, eta bat juen ezkerro beste batzuk be juetie gure... ta... ni illero illero jueten naz Donostiko «Urkijo Mintegiko Itzaldietara», gaiñera Euskaltzaindiko Batzarretara be jueten naz, da neiku da; gure ártien baimenak eta kontuz, onako batzarretarako. Astiro-astiro.

Besterik ez. Zure erantzunen zai gelditzen naz, eta agur,

Anai Berriotxoa

Iruña, maiatzak 12-1958
Onaindia'tar Aita Santiago'ri
Eibar'en

Agur, adiskide agurgarri ta jaso ori,

Garaiz det artua zure IV-25'gkoa.

Dezun asmoa begiko zait baita txalogarri ta sustagarri.

Ardiesteko opa dizut nai dezuna. Jarrai ba aurrera naiz eta norbaitzuk irten bidera, aldiok olerdirako gai ez direlako aitzakiaz. Olermenaren bulkoain ziria aditzen degunok, esan ok gora bera, ez gera ketxu. Ezta azol minik ez digu ekarri behar baldin eta karrask egiten ba'dute besteen aleginek. Besteen gertatzen dena beharrez ere guri ez digu gertatu behar. Egin zagon geon-nen ahala ta beharkizuna. Txanda ba'da alabeharrezko, betor ba orduan, ezinbestez ta azkartara, amor egin-beharra edo kur-unea.

Olerria dela bide, gozogarririk topatzen dira bizitzan. Euskerari buruz ere ez da etsi behar. Emanun ziur aleginzaro berri untan aldeka onurakorrak ukanen ditukegula baita, alarik ere. Bederik bertsolari edo koblakari buruz. Ertilari erritar ok beren aise utzixeak ditugu aspaldion. Ain zuzen ere solasa ibili degu artemein zelan esna bazterretan bertsolari gaztek, degula nola degun bertsolaritza erriaren goreneko aldina. Orra, aurki sorta-o zaigu, bertsolari-kariotan, jorieneko mena, Aita Zavala'ren iaztia. Erran dezakegu aro berri ta naroa degula urran. Ta zein eta zenbat menak ez ditugu bertotik eskuratzeko gai!...

Uni soai, eskainkor agertzen zaigu geroa. Tira ba ta datorla re aldizkari begikoa.

Agerre'tar Joseba

Bilbao'tik, 1958 orrillak 23
Aita Onaindia agurgarriari
Larrea'n

Ene Aita agurgarria:

Zure 20 gnko. idazkia jaso dot, eta tamalez diñotsut ezin joan naitekela datorren igandez euskal idazleak or egingo do-
zuen batzarrera.

Neure bekokiko zorioneko gatxa sendatuteko osapide latz
batean jarri nabe, bai, eta orrek galera zuten deust orra joatea.

Alan bere, or artu ziñegien erabagieri zelanbait iagunduteko,
gertu nago, J.I., al daidan giñean.

Barriro bere orko pralleen lapikoko gozoa txastauteko nik
neban gogoaz, ereti au galdu bearra...!

Euskal agur beroenaz.

Garro'tar Bernata M.

Caracas (Venezuela), 1958, maiatzak 28
Onaindia Abari
Larrea'ra.

Jaun agurgarri ta adiskide ona: Atzo eldu yatan zurea
pozez irakurri neban.

Arrituko zara munduaren andiko erpin ontatik idazten di-
tsudalako. Aberria itxi ta ona etorri naz, aba, munduko g
berak zio. Maiatzaren 11'an eldu nintzan, eta gogaro onik '
nago, erri-miñez. Diru-zalekeriak ez nau ekarri, baiña bai
re olerkiak-eta argitara aal izateko diru apurrik batzeko asti.
Emen ez dakit zelan urtengo daustien gauzak, baiña or
ba'nintz, bear bada iñoiz ez neban aurreratuko neure o)
argitaratzeko lain, ta illunpean ito bearko eben nire lanak
bada «ustel urtengo dauste neure usteak» eta etzaitez azt
koaren aurrean lana ta Osasuna Beragandik izan dagidaz

Ñ ta 11 batasunerako? Arrati-aldean be ez dira erabilten, eta, ezta mendiz bestaldekoak be, txikigarrietan baiño. Azkue jaunak berak be etzun ontzat emoten.

Lan egokiren bat aurkitzen ba'dot, eta astirik, «Karmel»-era idazten jarraituko dot. Gotargi ta etorria izateko txarra deritzat emengo giroari; baiña nire gogoa beti dagonez Euskal-Erri mai-tean, zeozer sortuko yat, Goikoa lagun.

Tauer'i neuk igortzen neutson «Karmel», neuk irakurri ondoren; baiña emendik gaitz egiten yat. Igorriko ba'zeuskio, asko poztuko litzake.

Goitiko baimena lortu arte diñozu «E. Gogoa» ? Goitiko baimenik ez dagoarentzako... Lengo urteko azken zenbaki biak irakurri nitun or, ez dakit nork ez nundik bidalita. Baiña aurreko laurak, ez. Idatzi bear deusatz Zaitegi jaunari, bidali dagis-tazan. Emen izan bear dau Ibiñagabeitia'k be; alakoren baten ikusiko dot.

Agur, urrerogarte; ta euskera-alde jokatzeko gertu nagotsun onen besarkada aundi bat artu egizu.

Aurre'tar Balendin

Arantzazu, Garagarrillak 18, 1958

Aita Onaindiari

Larrara

Aita agurgarri: Bake ta On eta ZORIONAK!

Jainkoak lagun, gaur luzatxoago mintzatzeko asmoa daukat. Gauza askotxo zuri esateko, zorionak emateko, iritxiak eskatzeko, t.a.

Aspalditxotik esan zidan norbaitek nola OLERTI argitaratua zenduan. Eta baita beste liburuen bat ere egiña zenuala, alegia, euskal idazleen zatirik bikaiñenen bilduma bat, len olerkiekin bezela orain itz-lauz. Eta oien barri eskatzeko, ta eskatzeko, lanaren lanak asko luzatu erain deust. Eta ara nun, egun

batetik bestera nun agertzen yatan zure errebista txanbeliña. Milla esker! ez neuri bialdu deustazulako (orregaitik be bai, jakiña); baita be euskerari damoizun edertasunagaitik. Zer eta nolakoa izango ete zan galdetzeko nengoanean ara nun datorren eritxi ta bertso ugariz Udaberri lorati, edergailluz jantzia. Bejondeizula! Nere eritxia ematekotan ez neuke jakingo zelan esan. Oso beta gutxi daukat eta ezin izan dot ia ezer irakurri. Alan be, gauari ordu batzuk lapurtuz, arakatu dot goitik beera, eta ezin ederrago iruditut yat. Polliki-polliki joango da edertzen, geroago eta ederrago. Neuk be izan dot olerti-miña, eta egin ere egin dodaz noizbait, eta baita sariketan baten bigarren atara be. Baiña zoritxarrez urteak dira olerkira biurtu ez nazena, ezta urreratu be, eta jakiña, ekin barik ez dago ezer izaterik. Zure errebistatxo ortan ia ta lekua daukoda, elduko naz egunen baten nere olerki-musa izartuaz, biotzari dariozan sentipenak Oler-ti jantziz apainduta OLERTI'ren orritxoan batzuk zikindu besterik ez bada egiten.

Beste liburu orretzaz zer dozu? Arrezkero esan deuste ez dozula egin, egiten zabizela baiño. Esango deustazu zer dan egirik. Ni irrikitsu naukazu orrelako liburuak erosteko, ain eder baitira gure egunetan. Errebista be ezer esan barik bialdu deustazu, baiña nik ordaintzeko be prest nago. Zeuk dozu itza.

Gure YAKIN artuko zenduan, azkenengoa. Irakurri? Elkar-izketan artikulotxo bat joan zan «illobira bultzaka»; eta zarata apurtxo bat atara dau. Etzan arritzekoa. Egilleak diñoanez, berak jartzen zituan oiñarriak edo premisak jarri ezker ez dagola ondoren ukatzerik. Nai duanarekin premisa oiek diskutidu bear bada egingo dituala, baiña oiek baieztu ezker ondorena beti ondoren. Eta jaso dana auxa, zaarrak mindu egin dira nunbait, eta gazteak danak artikulua iritxi bateko etorri. Izan ere gazteentzat eginda ei egoan; gazte askok esaten eben ba, euskeraz jakin eta egunero euskeraz mintza arren ez ebela askoren euskera aituten, eta ez edozeiñen euskera, mai-xuen euskera baiño. Nik nere ustez yakintza gaietan, filosofi-

teologi..., apur bat beintzat esku zabalak izan bear gara, geie-gikeririk barik, eta ez biarko euskera egin gaurko baiño,

Eta emen zure eritxia jakin nai neuke. Zer deritxazu orreri, ze bide artuko zenduke? YAKIN aldizkariatza zer pentsatzen dozu? Nolakoak bere gaurrarteraiño bideak, nola gaurkoak eta biarkorakoak? Arren eskatzen deusut erantzun auxe.

Beste gauza bat. Lenau, Yakin'en lenengo aleetan, ba-ziran karmeldarren izenak be, baiña gaur ixildu egin ete dira? Ez al dago filosofi-teoloji etxeetan euskaltzalerik?

YAKIN'en idazten dabena udaran billeratxo bat izaten dogu ixillean, emen Arantzazun. Iraillaren 10 eberdirako etorri, amaika osoa emen igaro eta 12 goizean bakoitza bere etxeetarantz. Ordena guztietakoak etortzen dira, beneditarrak, pasiotarrak, sakramentinoak, agustinoak, apaizgaiak (gipuzkoako-bizkaiko), jesulagunak... Eta igaz beintzat etzan karmeldarrik agertu? Aurtengo ezin ete geinke izan zuetarikoen bat?

Billera ori ikasleena da. Eta bere asmoak, elkar ezagutu, egindako lanak kritikatu, gerorako amets egin... (Jateko, lo t.a. bakoitzaren kontura; guztira 150 bat laurleko bakoitzarena).

Aurtengo arazo au zure eskuetan itxi ete neinke? Ez dakizu zenbat poztu nintzaken karmeldar bat edo bi emen ikusteaz, zuen filosofo edo teologariekin izketalditxo bat egitea. Zuk itza.

Ba-dot nik zeugaz berbalditxo bat egiteko gogoia be. Bear bada, gitxien uste dozun egun batean Larrean agertuko natxatzu. Ez dakit, gatz, oso gatz izango da, baiña izan leiteke.

Eta nere esanaia amaitu da. Ezin iñoz be astiro ibilli ni. Koruko kargua daukotean lez, emen nabil kantu barriak ataritzen eta Arantzazuko Amaren Bederatziurrena gertutzen. Lana eroaten deust, bai. Alan da guzti be, burukomin apur bategaz baiño ezpadabe, danetara eltzen naiz, eta ez daukot nagiarentzako unetxo bat be. Jainkoari eskerrak.

Zure barri jakingarrien zai, ba, onespena eskatzen deus Kristogan anai txikien onek, Zure-zure

Enbeita'tar Kepa

Buenos Aires'en, 1958'ko uztaren 7'an
Onaindia Aba'ri
Eibar'en.

Agur, euskaltzale bikain ori:

Aspalditik zuri idazteko gogotan arkitzen nintzan. Bañan urteak ere joan zaizkit nere gogo ori bete gabe. Gaur emen nator-kizu lenbizi zuri zorionak ematera idazti bikain bat eman zenigulako. Zure «Milla euskal-olerki eder» jasotzeko itzik ez det arkitzen. Lan ederra bene-benetan, euzkotar guzien eskuetan ikusi bear litzake!

Bañan gaur beste eskaera bat dakart. Nere adiskide on eta euskal-ikasle Albizuri'tar Osvald jaunak aspalditik esan zidan zure idazti eder ori beretzat eskatzeko eta bere gogoa betetzera orain emen nator. Biali zaidazu bada ieki bat nere zuzenbidera itxasoz zertipikatuta, eta bere sari-agiria biali zaiozu nere Ordezkarri Guillermo Recondo, abogado, San Francisco 9, Tolosa, eta berak ordainduko dizu.

, Nik ere nere aldetik urte oetan alegin guziak egin ditut euskal-idazti berri bat egiteko: «Etimologías de apellidos vascos», lan luze eta zalla eta laister, emendik bi illabetera inguru, irten-go da. 800 orrialde izango ditu.

Nere adiskide Albizuri jauna mutil zintzo bat da eta euskeran poliki ari da aurreratzen. Esan zidan, gañera, zuri idazkien bat edo beste euskeraz egin zizula, eta beti zure liburu ori artzeko irrikitzen dago. Orain, beraz, poz ori emango diogu.

Ekin bada aldegun bezela gure euskeraren alde. Nik urte asko ditut, laister larogei, eta begietatik gaizki nabil. Ala ere apurtxo bat ikusten det eta orrela jarraitzen ba det il arte beti lanari ekingo diot.

Agur, bada, aberkide on ori eta agindu JEL-aldez

López Mendizabal'dar Ixaka'ri

Huelva'n, 1956'gn. Dagonilla'k 24
KARMEL aldizkarirako
Larra'ko leikaidetxean
Zornotza.

Ene adiskide maiteok:

KARMEL'en laugarren atala egunotan eskuratu dut, etxetik at bainabil aspaldion.

Aurrenez, eskerrik asko, nik igorri eskutitza aipa ta bere txatalik iar duzutelako bertan. Ez dezutela baimenik Ortarako? Bai iaunak, ba-duzute; Ortarako ta edozertarako, zeuen-zeuenak baitira nik bialdu ta bialduko dizkitzuetan idatzi oro. Ez ori bakarrik, baita pozik nagola ere esan bear —egia baita—, gure aldizkari txukun ontan, KARMEL alegia, iarteko aina garrantzi eman diozutelako ezerrezkeritxu orrei.

Fozez ekin diot orain ere GURUTZEGRAMA'ri, baina ez-tut uste ondoegi dagoenik, ezta gutxiagorik ere, baina ori ezta aski, ixilik, mintzul gelditzeko; emen doa ba dagon lez. Ondo atera dituztenen ixenez beterik ikusteko lei naz Ortarako autu duzuten zokondotxu ori, ura bai poza! Ainbatek urrurik urteko arpidedza aterako ba'lizuteke. Lenengoa ondo egin ebenak gutxiagc ziran bigarren onetakoak baino, ta olan iarraituren ba'dute sakela benetan gerta bearrean zaudete.

Amartxu bat arpidedun barri ia egiten ditudan be emen nabil jo ta su GOI-ZALE bat irabazteko gogoz. Badazaut idaztitxu ori, lengo baten Aurraitz'i bialdu bainion beretzako Aita Onaindiak igorria. Otciz leun-leun eta iakintzaz beterik iator-kun bitxi ori edozein alditan irakurten da aspertzeko. Goi-sun-dez beterik... Aurre'tar B.'ren zuzenbidea DE MIQUELA-CHO A TRACABORDO Num. 175. Caracas.—Venezuela da orain. Emen iartzen dizuet ori, berari zuzen bialdu nai ba-diozute KARMEL edo. Nere osaba dezute olerkaria, baino ez-

tut uste olerki-giro aundirik ixango dutenik atzerrietako lur
ligorretan, etxetik, geure baso maiteetatik landa. Atzera be las-
ter etorriko al da onuntz.

Urrengorarte, neure agurrik eta adiskidetsuenagaz

Alazne

Donostia'n, Agorrak 30, 1958

Onaindia Aita Agurgarriari

Markiña'n.

Agur, Aita:

Eztaikit Eibar'en ala Markiña'n duzunentz egoitza, baiñan,
nola nai ere eskutitz au zure eskuetara iritxiko delakoan nago.

Galderatxo bat egin gura nizuke: Orra; «Milla Euskal-Oler-
ki-Eder» deritzan zure liburu bikain orretan, «Altabizkar'ko
Kantua»'z diñozu euskerazko tekstua phrantzeratik itzulia dela.
Alegia, Garai de Monglave jaunak phrantzeraz egin dakotik
L. d'Uhalde «Ezpeletarrak» euskeratua. Zure aburuaren arra-
zoigarri diñozu euskal-tekstoa neurri ta rimarik gabea dela, itzul-
pena denaren seiñale jatorra. Ni ere, «biozkadaz», orretan nago-
kizu, baiñan jakin gura nuke zure esanaren sendogarri beste
arrazoirik ba'ote daukazun, orain artean guztiok uste baigen-
dun Uhalde zela egillea eta Garai de Monglave onen phrantze-
razko itzultzalea.

Besterik ere jakin gura dut. Nor da zuk diñozun L. d'Uhal-
de? «Meditazioneak» liburuaren egillea ote? Alabaiña, Vin-
son'ek diñonez, au, Martin zen izenez eta Uztaritze'n jaioa
1753'gn. urtean. Hariztoi'k bere «Les Paroisses du Pays Bas-
que»-n diñonez, Martin, Uztaritze'ko Legarria etxean jaio zen
1745'gn. urtean; baiñan, ba-zizun beste anai bat, apaiza ere,
Jean Louis, iru urte geroago jaioa eta beste bat Pierre, Ezpe-
leta'n jaioa. Iru auetakoren bat ote da zuk diñozun L. d'Uhalde,

ala eztauka berauekin zer ikusirik? Izenez, Louis'ekin dator ongi eta jaiotzez Pierre'rekin. Alabaiñan, orotan euskaltzaleena Martin dugu. Ez ote zendun nahasterik izan iru anaiakin?

Zure albiste ernegarrien zai nagokizu. Idazlantxo bat pres-tatzen ari natzaizu «Altabizkar'ko Kantua»'z eta zuk diñozunaren argibidea nai nuke lenbailen arazo onetan.

Besterik gabe eta zure berrien zai, on-ar ezazu nire esku-muiñik apalena. Agindu euskeraren alde zure adiskide ta agin-dupeko oni

Etxaide'tar Yon

Tolosa'tik, 1958-X-14

Onaindia'tar Yakoba Abari

Larrea (Amorebieta).

Ene jaun agurgarri ta adiskide on: Zure berriak artzeko luze iritzirik nintzaizun bai, baiñan ez arriturik. Biar eta la-aren loturak zer-nolako diran bai bait-dakizkit.

Nola nai zure il onen 12'goa jasotakoan poztu natzaizu ta geiago bertan damazkidazun albiste pozgarriak irakurrita gero.

Beraz ortan tinkatzen gera; il onen 26'an, J.l., or bildu ta batzartxo bat egiteko asmoz.

Erabili bear ditugun gaiak zuk azaldurikoak eta gañerako zer-zelan guziak ontzat artzen ditut.

Emen Gipuzko-tik zuk aitaturiko adiskideak joan ditezen leiatuko gera. Orretarako Etxaniz D. Nemesi jaunarekin itze-gingo dut eta elkarrekin beste guziai adieraziko diegu zure deia. Isilean noski.

Zuk emaniko izenaz gañera nerekin Tolosa'tik Ugarte Ima-nol joango da, euskaltzale bikaiña ta *Radio Tolosa'n* euskal saioan diarduna.

Bilbo'n beste tolosar jator ta euskaltzale sutsu ta zenzundu-na bizi da: Xabier Peña Albizu. Pérez Galdos 6-1.º izda. Bil-

bao. Euskaltzaindiaren ikastolako irakaslea, ta zeorrek deia egin gura ba'diozu obe. Bestenaz zure baimenaz nik idatziko diot.

Gaurkoz aski izango duzu ta laister arte gelditzen natzaizu esaneko, eskumuiñez,

A. M. Labaien

Donostia'n, Urrillak 22, 1958

Aita Onaindia Agurgarria'ri

Zornotza'n.

Agur, Aita:

Garaiz jaso nizun zure eskutitz ernegarri ta baliosa ta zure argibideari eskerrak burutu ahal izan dut eskuartean gelditurik neukan lana. Labairu, delako X'gn. eraskin ortan argi ta garbi mintzo zaigu Altabizkar'ko Kantua'ren egilleaz eta itzultzalleaz. Ez nizun ezagun «Historia de Bizcaya» delako liburu eder au ta txunditurik gelditu nintzan euskal-literaturari buruz ain sakon diardula ikusiz. Labairu, iñolaz ere, benetako euskaltzalea gendun eta ixtorigille batengan meritu aundi da auxe. Tamalez, Louis Uhaide delakoaren nortasunaz ez du ezertxore esaten, Ezpeletarra zela ta Ziburu'n bizitua baizik. Bidaso'z bestetik Uhalde asko da ta ez jakin au nor ditekean. Alabaiña, nire lanerako ez du garrantzirik. Xehetasun polit bat litzake soilki.

Mitxelena'k esan didanez, ba-da beste liburu bat gai ontaz diarduna, Camile Pitollet'en *Divagaciones sobre el canto de Altabizcar y su autor*, baiñan, ondikotz, liburu au eztute Aldundi'ko bi liburutegitan eta Mitxelena'k ere aitez bakarrik du ezagun.

Orizkitzu ene eskerrik beroenak zure eskutitz adeitsu ta jakingarriagatik eta agindu nai dezazun orotan zure adiskide ta agindupeko euskaltzale nauzunari

Etxaide'tar Yon

Bilbo'tik, 1958'ko Urrillaren 23'an
Aita Onaindia'ri
Larrea'n.

Biotz-biotzeko adiskide:

Luzapidetan ibilli barik, oraintxe eldu yatan zure idazkiari erantzupen emotera natorkizu.

Datorren igandean ezin joan naitekela orrera, adiazo bear dautzut lenen-lenengo: ta ezin joate orrek tamal bizia damostala sinist-egidazu. Egun orretan betetzen dira, ain zuzen be, ene biotzak egundano artu dauen urraturik garratzena jazo zanetik SEI URTE. Egun orretantxe, arratsalde-erdian, maite-maite neban adiskiderik miñena, Gcrbei-mendiko atxetan, zorigaiz-loko pausu txar bat emonda, jausi ta ilda geratu yakun. Sorterria benetan maite ebalako, erdel-jantzia ken eta euskaldun biur-tu eban bere burua. Aren euskal-miña, bai sakona!

Tolosar naizen au, alabearrez, Bilbo'ra etorri ta gure iz-kuntzaren irakaslanetan asi nintzanean, sarritan egoten nintzan beragaz. Eta aren zaletasun beroan aurkitu oi neban aurrera joteko, nekeari ta etsipenari uko egiteko, bear neban eragiña.

Aren senide ta adiskide garanok, egun orretan, Gorbeya'ko Ipiñaburu deritxon auzunean, meza baten batuko gara, Jain-koak aren gogoari betiko atsedena emon daion otoi gartsu egi-tera, ta arek maite eban baizen sendo guk be maite daigun Sorterri gaxo au.

Barriro be diñotzut: nire adiskiderik miñena izan zanari zor dautsodan eginbear ori izan ezpalitz, pozarren joango nin-tzaizuen Batzar orretara. Gogoz eta biotzez zuen artean izango nozue, ta guztioi agurrik beroena egiten dautzuet. Gogo Gure-nak argitu zaiezala, alkartze orrek ondoren bikaiñak emon dai-zan!

Aztertu ta erabiltzeko asmoa dituzuen gaiak, guziak dira garrantzi aundiko. Ilzorian dogun euskera gaxo oneri, alde guz-tietatik emon bear yako arnas: goitik eta beetik, kanpotik eta

barrutik. Euskerari eusteko bide bi ditugu onenak, gaur-gaurkoz beintzat: euskaldun diranak euskaltzaletu, euren izkuntza gorde daien; bestetik, euskaltzale diran erdeldunei euskeldun izateko bideak emon. Arek asko dira ondiño, Jainkoari esker; beste onek be ez dira gitxi. Millaka, millaka, ditugu gaur Euskalerri guztian, euskaldun izan gura leukienak. Zer egin? Bide bi orrek, jomuga bera eukiarren, berezi egin bear doguz beti gure asmoetan. Bata, euskaldun diranen bidea. Bestea, ordea, erdaldun diranena. Lenengo ortan, nik uste, irratiak emon leikiola euskerari laguntzarik aundiena: ez aitzu, euskaldunetan amarretik bederatzik eztakiela euskeraz irakurten, ta irakurri gura be ez. Orregaitik (gaur-gaurkoz, barriro diñot) irrati-bidez, bertsolarien bidez, entzute-bidez egingo dan lana askoz ohea izango dala deritxot. Orrek eztau esan gura idaztirik bear ez dogunik. Idaztiak ondo dagoz, eta era guzietakoak, goi-maillakoak eta xumeagoak, ongietorriak bitez guztiak. Bigarren bidea, erdaldunena, arlo zabalagoa dogu. Zer egin alde ontatik? Ikastolak zabaldu, uda-aldiak emoteko baserri euskaldun eta EUSKALTZALEAK billatu, ikastol-liburu egokiak argitara emon. Zer dala-ta eztogu idazlerik bape ikusten sail ori jorratzen? Nun ditugu Euskaltzaindia ta euskaltzale diran Bazkunak oro, lan Orretarako sari on batzuk eskeiñi barik? Eta ez ikasbideak edo Eliztiak soillik, ez, orrelakoak ere bear dira noski, baña bearrago ondiño irakurgai errez-errezak, lenen-mallatik asita, sei-zazpi urteko aurrentzat erderaz egin oi diranen antzekoak, irudi politiez apainduak. Dirua bear dala? Ba'dakit. Bilbo'n, ordea, nik uste, euskera baño errezago aurkitu leitekela dirua. Ia ba, guztiok alkar arturik, batzuk emendik eta besteak andik, susperraldi bat emoten dautsogun gure gaxo oneri. Euskal-sukarrez biztu daigun Euskalerri osoa. Ta lagundu gure inguruan dakusgun gaztedi yaukal oneri. Agur, jaunak! Zuk, batez be, artu nire biotz-agurrik beroena.

Peña Xabier

Tolosa, 1958-XI-5
Onaindia'tar Yagoba A.ri
Larrea'ra.

Aba agurgarri ta adiskide on: Oso pozik eta bizkor itzuli giñan etxera, zuen artean egun atsegin bat igaro ondoren.

Damurik ez nuen ekarri «madari» bat edo beste, aspaldi edo iñoiz ez bait dut jan alako igali ao-gozagarrik. Urrena bearco.

An erabilli ginduzan itz-aspertuak ausnartu ta egosi ditugu noski ta asmo batzuek azaldu nai dizkitzut gure euskal arazoari buruz.

Kristau ikasbidea.—Ene iritziaz au degu garrantzi aundietako bai gure gogo ta euskaltasunari eusteko.

Ekiñaldi edo «campaña» bat eratu bearra dago euskera beruntz doan erritan arpegi emateko. Orretarako ez dugu gauza edo batasun berririk sortzen ibilli bearrik. «Jaungoiko Zale» bazkuna litzake egokiena eta biderik errezena. Erdi illa bederen ba-dirau eleiza-legez onartua. Suspertu dezagun! Bizkaia'n ez ezik Gipuzko, Nafarro ta Araba'n ere. *Jaungoiko Zale'k* nere ustez bere gain artu bear luke lantegi ori; euskeraz, dotriña erakustea parroko jaunai eskatu; itzaldiak, meza ta beste elizkizunetan, eta abar.

Urtean bein umetxo, neska-mutillen jai eder bat sariak emanez euskeraz dotriña ikasi duten guziai.

Beraz *Jaungoiko Zale'k* apaiz eta abadeaz gañera, katekista gizon eta emakumezkoak sartu bear luteke. Aski da erri aunditxo geienetan amar edo amabiko *Jaungoiko-Zale* sail bat izatea asmo orren alde jokatzeko.

Orain, ekitaldi orri arnas, indar eta iraupena emateko, *karmeldarrak* bear luteke Zuzendari.

Lau iri nagusietan etxeak badituzute eta bertatik zuen itzaila ta laguntza errez zabaldu zenezateke errialde bakoitzera. Zer derizkiozu? «Karmel» aldizkaria ekitaldi orren adierazle biur-tuko balitz...

Orretarako, naiz apal eta txirogo urten, «Anaitasuna»-ren orrien ordeztu illero agertuaz bizitasun eta oraingotasun geiago izango luke. Begira, Aita Onaindia; Literatura aldizkariz eta liburu ondortxo gaude, baiñan errira joan bear dugu. Ta ume ta gaztedien biotzak irabaztea nai ta naiezko dugu euskaldungoa ta sinismena gaizkatzeko.

Euskeraz dotriña erakusteko ekitaldia bedi oñarri! Goiburutzat «Jaungoiko Zale»-rena: «Euskaldunai euskeraz». Ea berriaz lenbailen bide ortara ibiltzen asten gaituzun, karmeldarrak buru. Zuen Aita Nagusiak ez dut uste ezetz esango luke.

Ain zuzen atzo, Alegi'ra ninjoalarik, Altzo bide-gurutzean iru karmeldar ikusi nituen. Agur egin nien, ezagutu barik, orde. Gero D. Pio Montoya'k esan zidan bat Aita Hipolito Nagusia zala eta benetan, tamala! ez ezagutzea, bestela gogoz «eskapularioan» mun egingo nion agurtzera geldituaz.

«Xabiartxo» eskola liburuaz zerbait burutu al dezu?

Ea, bada, laister albiste pozgarriak bidaltzen dizkidazun goratxeago aitaturiko arazoaz.

Itxaropen ortan bukatzen dut beti esaneko J.pear,

A. M. Labaien

Durango, 19-11-1958

Ene Aita Santiago, agur: Durango guztian ibillia naiz anitz egunetan berorri atsegiñ emanaz gure ama Euskeraren alde zerbait egitearren; baiña, tamalez!, gauza gutxi egiñ al izan dot. Ara emen beste paper baten nik billatu ditudan arpidedun berriak. Beste biren atzetik nabil, eta arrapatzen ba'ditut, esango deusat.

Entzun gauza bat, Aita Santiago; euskal-irakurleak (gutxi ta motelak geraldako edo), izki txikiak izutu ta uxatzen dauz. Danak nai luteke izki aundiagoa, «Karmel»-ek dakarren aundie-

na baño aundiagoa, originalak erdira, edo, irutik batera etortzen ba'dira ere. Notiñak ez dagoz asko irakurtzera, gutxi ta erraz irakurtzera baño. Siñistu beza au, egi aundia da-ta. Azkenengo «Karmel» onek iru zenbakintzat aña original bai dakar. Nere esana egingo balebe «Karmel» antolatzen dabenak!

Asti asko eman dot arpide onen billa, eta bear asko dodanez (etxea, Senarra ta loba nere gain ditut, iñolako neskame barik), ezin dot denbora apur baten «Karmel»-erako idatzi, baña egingo dot al dotanean, eta pozik.

Nai dabenean etorri gurera, berbaz obeto esango gendukez gauza abek danok. Agur.

Eskauriatza'ren Azpeitia'tar fulene

Barzelona, 1958'ko, Abenduaren 26'ean

Nere aberkide miñ ori: Pakea ta Osasun.

Aita Nagusia emengokoak eman dit irakurtzeko zure liburu: «MILLA EUSKAL-OLERKI EDER». Ez dakizu zenbat gozatu naiz ikusten eta irakurtzen. Nik epaitutzen det dala obereña euskal-lanak artean ezagutzen degula gaur arte.

Nik naiko nuke bat egotea neretzat, baña diru asko baliko du eta txirua naiz. Orrengatik idatzitzen dizuk zure lana'gatik zoriontzeko eta eskatzeko bat or egoten badezu zure liburu artean. Ez dakizu zenbat pozatuko nuke eta zenbat esker milla emango nuzun. Al badezu billatuko dezu bat eta nik egingo dizut rezensio bat ederra gure errebistan. Nere lotxagarri barkatu baña zenbat gogoakin egongo nittuke liburu ori nere olan aurrean. Euskalduna naiz eta aspalditik ez naiz agertu gure errian. Emen egiten det al dan guzia zabaltzeko gure euskeraz. Euskaldunok artean irakurriko genuke gure billaretan eta ere bai ikasiko genuke olerki eder oiek.

Zure berria naidet jakin, Aita. Izan begiko nerekin. Ni nere otoietan beti gogoratuko naiz zuretzat.

Agur, aberkide ona. Barkatu nere atrevimentera, eta zure eskutitz arte.

Zure mirabe beti,

Botanz'tar Xabier Mari

Villaro'tik 11-XII-58

Onaindia'tar Jakoba A,

Larrea'ra

Nere Aita agurgarri ta maitea:

Artu nuan poz biziaz zure eskutitz mardul ta mamitsua. Beti oi dozun bezela, oraingoan ere bikaña, bizia ta aolkuz beteaz zegoan. Zu gizon urtetsu bezela, gazteai laguntzeko, bideak irikitzeke aparta, jatorra zara. Egia esan, asko kemendu ta animatu zidan zure eskutitzak nere olerki jardunetan jarraitzeko.

Lengoa aipatzen nizuan lez, bide barri batez asia nauzu. Ez dakit berritasuna dala esan dezakedanik, baño Oraingoan beintzat, euskeran gutxi ikusi dut onelako idazkera. Txillardegia ta Erkiaga'rengan apur bat.

Joan dan udaran, emen izan zihanean, mintzatu giñan zertxobait Juan Ramón Jimenez'en idazkeratzaz. Esan zidazunez, ezaguna dozu bere liburu olerkitsu «Platero y YO» zoragarria. (Eta erderazko liburua uste dut, euskerazkoan bere balioak zertxobait motelduak daude-ta). Olerkari goitar onek nere sena ta sentimentua erdi-erditik zauritzen ditu. Zelako olerki-jario lodi ta ez tibera onena! Zelako ederraren, poesiararen laztan gozo ta zabala onen olerkietan!! Bere olerkitasun zoragarriak legundu, ez titu egiten du. Oni irakurtzeak sekulako on paregabea dagit, bai erdel literaturako, ba euskerarako ere. Bañan, Juan R. Jimenez'en literatura onen alderdi bikañetakoak au da: euskeraren xoilasunarekin txit egoki datorrela. Bere idazkera itz xamur,

errezak dabilzki. Adibidez batzuk: «Tibio, blando, pálido, tier-no, frío, mustio...» t.a. Ikusten dogunez itz xoillak dira. Erri xeeak ere erabiltzen ditu ajetibu auk edo beren antzekoak. Orregatik idazkera onek ederki salbatzen du xamurtasuna, arin-tasuna. Eta gaur euskera errez bat eskatzen zaigu, baño errezta-sun onekin aberastasuna baztertu gabe. Oso gauz zailla da bi gauz auk batzea.

Juan R. Jimenez'i jarraituaz, bide berri ontan egokitasun berezi auk pozkiro ikusten ditut. Bere idazkera aberatsa, xoilla da. Irudi bizi ta atsegiñak dauzka. Itz errez ta apaiñez irudiak garbi ta xamargarriro jazten ditu. Alako olerki edo musika-jario mee ta leuna dario.

Ez det luzatu nai geiago argibidetan. Eskutitzarekin batera emen bidaltzen dizkitzut nere saio batzuk. Naiz literaturaberri onen adierazle izan nai, baliteke trakets xamar egotea. Bi izkun-tzatako idazlanak dira. Erderazkoan joera berri onen nortasuna garbiago ikusiko dozu. Euskerazkoan, «Zorion Zabala» artiku-luan, beste olerkietan baño obetoxeago. («Zorion zabala» artiku-lua argitara daikezu «KARMEL»'en).

Orain, zure iritzi sendoa daskaitzut, arren. Batez ere meta-fora ta itz kontuan: «Samin busti... egun erori ta belaxka... negu otz-erantzia... zorion borobil zabala...» Esaera ausarta aue-tako ba aldauka euskerak oztoporik? Erderan oso erabilliak dira, eta liburu batez baiestu detanez, oso zillegiak. Arantzazu'ko Mendizabal'dar Pernando'ri oso atsegin izan zaio idazkera au.

Zure ustez, ezaguna dut Rilke. Zoritxarrez ez diot irakurri ezer ere. Etxean ez daukagu bere idazlanik, eta ez dot arkitu ere beraiek lortzeko biderik. Oso pozik artuko nituzke bere liburuak saltzen diran zuzenbideak edo, zuk baldin badaukazu, liburu berbera, apur batean irakurri-ta laixterrean biurtzeko.

Besterik gabe uztera nijoa. Milla esker zure zerbitzaritzaren-gatik.

Agur ba zure zerbitzari onek Jesus ta Maria'gan.

Muxika'tar Luis M.

Elorrio'tik, 1958 Lotazillak 12.
Aita Onaindia Agurgarriari
Zornotza'ra.

Agur: Artu neban zure idazkia ta beste barrukoa. Eskerrik asko.

Lengo egunean artu neban Gráficas Ellakuria'ren presupuestua; benetan karu: Itxaropena'k baño ia birritan karuago. Beraz, Itxaropena'ri bialdu dautsat. Berak lortuko daustala Obispaduko baimena ziraustan. Orain, ez dakit prakadun-agintarien baimena berak jaritsiko dauan ala neuk daukedalakoan dagoan; nik neuk ez daukadala iñoren baimenik, esan dautsat, eta bere erantzunaren zain nago. Erraz lortzen dauala berak baimena esan dauste; ez dakit... ikusiko dogu. Besterik ezean, «Euskaltzaindiaren ardurapera» jo bear, baimena neuk jadetsi bear dotala esan ba'daist...

Eta larunbatean Bilbo'n? Nik ari, txori zarraren betiko kanta zarra izena damotsat. Arratsaldean, aspertuta alde egin bear izan neban. Urlia bere neologismoak dirala ta eztirala,.. neologismoak dirala euskera ilteko bidean dakarrenak! ! ! Bere neologismuak bai, bereak ziurrago. Utzi dagiela euskera erabilen eskola, irrati, izparringi ta toki guztietan, eta ikusiko dabe euskerak artuko leuken bizitza, milla neologismo ta guzti; antxe dago euskera-bizitzaren untzea, ez neologismuetan. Ni ta besteok zazpi urtez eskolara joan gintzazanean, guretzat itz guztiak ziran neolojismu erderaz, eta itz guztiakaz geratu gintzazan eta erderaz dakigu ordutik. Erderazko itzak barik (guretzako neolojismu areik baga) txiñu itzak erakutsi ba'euskuezan, bardin-bardin ikasiko genduzan, guztiak neolojismu izango ziran-eta. Antza danez, gizon ori orretarakoxe bakarrik jaio da, beti itzaldi bardiñak egiteko, lelokeri aretzaz itz egiteko. Isil bekidaz beingoz, eta esan dagiela euskeraren eriotza nun dagoan!, itsu edo guzurretan ezpa dabiltz.

Ni ziur nago: Zaitegi jauna ona etorriko ba'liz, alde onetan jarri, ta emen atera bere aldizkaria «Euskal-Idazle Alkartasuna» berbizturik, urte baten buruan eta lenago idazle guztiak bera-ganatu leukez. Orretarako, Aldizkariaren izena aldatu bear daua? Aldatu. Zuzendari-izena bere bai? Ba aldatu. Baña alde onetatik jokatu, Bayona'tik ezer ezin egin dau emen-eta. Nik erregu bat egingo neuskizu, Aita Onaindia; Zergaitik ez dautsazu zeuk idazten, nire uste au zeurea ba'lizanez agertuaz? Sekulako aurrekada egingo geukela uste dot euskerari buruz, euskal-idazle artean batez bere. Idatzi egiozu, mesedez eta mesedez. Nik esanda daukatsat bein baño sarriagotan; baño nire eritzi-erak gutxi balio dau; zureak beste indar bat az joango lizake... Gabon-jaiak Arrasaten igaroko dauz.

Amaitzera noa. Ar egizu nire agurrik samurrena ta agindu zure menpeko

Kerexeta'tar Jagoba'ri

Otxandio'n, 1958-XII-30
Onaindia'tar Jagoba Abari
Zornotza'ra.

Jaun agurgarria: Aspaldiko nire ixiltasun au apurtu nairik, lerrotxo auek idazten dautzudaz. Lan asko darabilt eta orregaitik eztautzut jaramonik egin; baño badakit zuen xede ta asmoen berri, ta poztutzen naiz. Astirik izaten dodanean, ezertan lagundu al izaten baldin badautzueta, emen nago gertu.

«Karmel» aspaldi artzen dot (egoki dator) eta ordaintzeko garaia ba-dala iruditzen yat. Onegaz igortzen dautzut iru-lau arpidedun berrigaz txarteltxo bat. Geroago egingo ditut geiago, Jaungoikoak nai badau. Orain, bi urtetako neurea ta besteen datorren urtekoa ordainduko dautzudaz; nirea, amaren izenean gelditzen da (olan obe) ta dirua postatik bialduko dautzut.

Erabatez, paper artean idoro dodan idazlantxo bat doakizu; ikusiko dozu, ia badan argitaratzeko beste. Urteak dira itzulpen ori egin nuala ta gizontxo batek eskatu zidan nunbaiten ateratzeko, baña «abenda» ta olako itz garbi «naskagarriak» eukazalako edo, sutaratua izan zan. Orain aurkitu dot eta zuri igortzea otu yat, naiz eta ez dan gauz aundia. Nai duzuna egin, ezertarako ezpada ere. Datorren urtean idatziko dodaz batzuk, bizkaiera apur bat besteakaz nastuan, al badot edo zeuk ondo ba deretxiozu.

Beste baten esango dautzuedaz gelditzen diranak eta orain biotz-biotzez diñotzuet, aurrera!

Zoriona Euskal-Erriarentzat, euskaldunentzat eta mundu guztiarentzat; baita asmo ona ta zuzentasuna garaitzaille izango diran urte berri bat emon daigula, eskatzen dautsat Jaungoiko maiteari. Ala izan bedi.

Agur zintzo bategaz edozertarako eskeintzen naiatzue

Kapanaga Bitor

1959-1968

Oñate (Gipuzkoa), 1959, Urtarrillak 4.
Onaindia-tar Jakoba Aitari

Berebiziko poz ta atsegiñaz artu dot zurea. Egia esan, nik itxaron nezakean baiño geiago bialdu didazu. Lendik ere banekian lan-gosea ta neka-eziña ziñala, eta emandako itzari zintzo erantzuten ba-zenkiala; eta orain berriro erakutsi didazu ori. Milla esker biotzetik. Pisia eta Kimia libruak eztaukoguz emen, damurik; bearbada len egongo zirean, baiña ba-dakizu gerrateko urtean txorakeri asko egin zireala, būdurragatik, noski. Nik libru oiek aztertuta daukodaz, beste komentu bateko Padre batek itzi eustazalako; baiña salgai balegoz, pozik erosiko nituzke biok, gure liburutegirako. Grimm Anayen Ipuñak ba-dituguz.

Zuk eztozu jakingo, baiña zure Milla Olerkietan datorren olerkari karmeldar bat neure senidea da; Aita Gerrika-Etxebarria. Iñoiz nere etxean egona ere ba-da. Nik laugarren abizena dot Gerrika-Etxebarria. Amaren partetik egiten zan gugaz senide. Nik ez neban ezagutu, baiña etxekoei entzunda daukot zelan egon zan gurean bisita bat egiten.

Beste barik eta barriro be eskerrak emonaz, zurea

Fr. Luis Villasante

Paris'en 1959-I-19'n.
Onaindia'tar Santi Aba agurgarria
Larrea (Bizkaya)

Nere Aita on ori:

Aspaldidanik zure berri zuzenik gabe, gaur natorkizu ni-gandik zerbait bialtzeko asmoz.

«Euskal-Kulturaren Alde» bazkunean sarturik gaudenok, batzaldi bat antolatzea nai izan dugu, eta «ipui-sariketa» izen ta izana eman dizkiogu.

Onekin batera bialtzen dizudan orritxoan, batzaldi orren gorabera guziak ikusiko dituzu; eta ongi baderitzaizu, pozik ikusiko genuke «Karmel» zuen aldizkari bikain ortan argitaraturik; alik eta geyen zabaltzea nai izango baikenuke. Ala ere eragozpenen bat argitaratze orrekin sortuko Htzaizuekela ikusi ezkerok, ez izan ajolik gutzaz, eta ezer egin barik lasai geratu.

Noizean bein «Karmel» ori ikusten dut, atsegiñez beterik burutik burura irakurtzen. Oso egoki ta eder deritzait; orren-gatik bijoakizue nire zorion-agurrik sutsuena.

Zer dakizu Aita Rafael'engandik? Asko gogoratzen zaituztet biok, betiko maitasunarekin. Ura ikusi edo idatzi ezkerok, eman ezaizkiozu, arren, nire goraintzi bero-beroak.

Arrebarekin gaur dala astebete Miarriz'en egon nintzan Oso ondo dago, adorez beterik, bai ta lanez ere, baña osasun guztiz onean.

Ni ere berdin natzaizu. Agindu ezaidazu nai dezazun guztia, menpeko bainauzu aiduru, eta onar ezaidazu ene agurrik gartsu ta adeitsuena

Urrestarazu'tar A.

Oñate, 59-1-20
Onaindia Aitari
Eibar'rera

Aita agurgarri: agur.

Bein azalduko eta berean mesede eske natorkizu. Orrelakoak omen gera prailleak, iñorekin gogoratzen bagera, zerbait eskatzeko izango. «Zei ingo xauk, ba», esaten zuen nunbait eza-gutu nuen Oñatiar argin batek.

Egia esateko, ba, aspaldi, entzutez, ez aurpegiz, ezaguna izan arren gaur duzu lenengo aldiz nere itzik entzungo.

Zarrak ba-dijoaz eta joan-etorri geldi ezin onek YAKIN'en Zuzendari jarri nau beste nere lagun, oso idea berdiñeko, batekin batera. YAKIN'en izenean natorkizu, gaurko eskabidetxo ori egiten.

Egia esan gure errebistatxo onetzaz ba-dut itz egiteko eta eritxiak eskatzeko asmo eta gogo bizia, baiña gaurkoz pakean utzi bear dizut, ez baidut betarik ezta seguru asko zuek ere opor aldirik izanen.

Ainbeste ots eldu dira ene belarrietara KARMEL billerokoatzaz. Lenago neronek ere artzen nuen urtero ertetzen zanean, baiño arrezkero ez dut ikusi. Emen ez da agiri iñun eta ara zer pentsatu dugun: Yakin'ekin trukatu. Guk pozik bialiko genuke YAKIN-zenbaki bakoitzeko ale bat KARMEL'en redakziorako-edo; ta len artu izan ezkero, gaurtik aurrera debalde genuke. Konforme al zaudekete? Gure aldetik biotz biotzez. Zeure eskuetan uzten dut, erabaki ezazu eta gure erara erabakitzen bauzu, milla esker aurretik.

Aitatu dizut zarrak badijoazela eta berriak, gu gerala gaurko berriak; ori dala-ta, ba, beste oartxo bat: emendik aurrera ene izenera edo beste ontara: Fray Joseba de Intxausti (bestea berdin, Aranzazu...), idatz beti. Aldaketa aundiak egiteko asmoan gabiltz zarrak gurekin bat etorri ezarren. Ixillean lan egin nai dugu, Ille pare batean, miñik iñori ez ematearren Ba-

dakigu ordea, orain bat etorri ezarren emendik urte pare batera ziñez onartu dutela egiteko asmoa dugun lana. Ez da ez, gure burutik bakarrik erten dan lana, Euskaltzaindiko gizonik trinkoenak eta beste benetan zintzo dauzkagun askok onartu baidigute. Eta, ori faltako, euskeraren laguntzarik ederrena deritzaigu! Baiña, gaurkoz, esan dizut len ere, itza ezpaiñetan utzi bear dizut, barkatu.

Eta beste gabe agurtzera beartua naiz. Zure mendeko gelditzen naiz zernaitarako. Agur, ba; zure erantzunaren zai be-launikatzen naiz zure onespina artzeko.

Zure-zure

Enbeita'tar Kepa Anaia

Bilbao'n, 1959-I-20'gn.

KARMEL aldizkariko Zuzendari Jauna
Zornotza.

Agur, Jauna:

Pozik irakurten dot zuen aldizkaria ta azkeneko zenbakian ikusi dot saneurria igoteko eskatuten dozuela. Egia esan, merkea da amabost laurlekotan. Igon niri, ba, ogetabost laurlekora.

Akatz bat, akatzik bada, ataretan dot zuen aldizkarian: Zergaitik eztabe egilleak euren izena iminten idazlanen azke-nean? Lotsagaitik ezta izango, ondo idazten dabe ta. Nik uste dot aldizkari bat izen-ordezkoaz beterik galdu egiten dabela.

Aurrera, zuen lanean Erlejiño ta Euzkeraren alde.

Gaurtik geyago barik, zuena,

Xabier Gereño

Bilbao'n, 1959-I-24'gn.
Aita Onaindia Jauna
Larrea

Agur, jaun agurgarria:

Niretzat onore andia izan da zure ille onetako 23'gnko. idazkia artzea, ta nire onen bitartez zorionak emon bear dautzudaz zure MILLA EUSKEL OLERKI EDER idaztiagaitik. Idazti au nire emazteak eskeñi eustan orain ira urte, nire urte-egunan, ta pozik irakurri dodaz olerki asko bein ta berriz. Zure idazti orretik artuta, batzuk TXISTULARI aldizkarian argitaraldu doguz.

Zuk eskatuten daustazun lez, emen bialtzen dautzut idazlan bat. Zuek erabagiko dozue argitaraldu bear bada, edo zegozer aldatu bear bada. Orretarako eskubide osoa daukazue, ni idazle txarra naz ta.

Etzi bialduko dautzubet giro postalatik 25 laurleko, nire arpidesaritzat KARMEL aldizkarirako.

Izen-ordezkoz gañean, Txistularien Alkartasuneko Buru Batzarrekoa izan naz urte bi azken onetan, ta gure TXISTULARI aldizkarian argitaraldu bear genduzan idazlanen egilleari eskatuten geuntsen euren izen osoak iminteko. Batzuk ezeben gura, baña geyenak bayetza emoten euskuen.

Gaur, nire aldetik, beste mesede bat eskatu bear dautzut: TXISTULARI aldizkarirako zegozer idaztea.

Bialdu egidazuz orri batzuk KARMEL'entzat arpide barriak billatzeko.

Gaurtik geyago barik, agindu zeure zerbitzari nazan,

Gereño'tar Xabier

Bilbo'n 1959'gko. Urtarrilla'ren 26'an.
Onaindia'tar Yagoba Aita
Zornotza'n

Agur, Jauna: Idazki onekin bateratsu bidaltzen dautzut euskerazko lantxo bat, zuen aldizkari ederrean agertu albaleiteke; ori da beintzat nire gogoa. Ezin baleiteke barriz, papel zaarren otzarara jaurti, ta kito.

Nire alabeak esan eustan geurera etorri ziñiala, ta, tamala artu neban ni etxean ez izatea, barriketalditxo bat izango genduan alkarrekin eta. Eskerrik asko danagaitik.

Gaurkoz beste barik, eta Jainkoa'ren laguntasuna opaz, gelditzen nayatzu zure barrien begira.

Arrutza'tar Mikel

Eibar'en, Otsaillak 20. 1959

Agur, Aita Santi:

Atzo jaso nuen zure eskutitz atsegingarria. Gaur ezin neza-ke joan Bilbo'ra, beste eginkizun batek lotzen nau eta urrengo larunbatera arte utzi bear.

Astean Donostira ostera bat egin nuen, bañan ez nun arkitu Arrue jauna, astelen arte Madril'en ornen da. Aita Nemesio'ri eta Txillardegri'ri ongi iduritu zaie, Arrue'ri, biltzarra Diputazi-ñon egitea eskatzea.

Juan dan igandean Larrea'tik pozik atera nintzan, ez nuen uste bilbotar ain jatorrik arkitu nezakenik, bildur nintzan erde-raz mintzatu bear ote giñan. Bilbo'n erdeldun asko baita eus-keltzale arkitzen direnak, eta euskera garbi zaleak gaiñera. Nik, oiek, katelajuekin ere ezin ditut ikusi.

Aita Zaitegi'k, ZERUKO ARGIA'rena egintzan emana zuen, bañan lengoan Txillardegik esan zidanez, bere Zuzenda-riakin egon ornen da aste ontan eta oraindik ez ornen dute bai-menik lortu.

ren batzuek arkitzen. Nere koñatoak oso ederki dibujatzen du eta iñoiz ezer nai bazenuke eskatu zezake. Badut beste adiskide bat ere umorezko dibujoan oso bikaiña dana eta KARMELE'entzat ederki izango litzake zenbaki bakoitzean orrelako dibujo orijinal bat argitaratzea, asko piztuko luke gure aldizkari ori; gaiñera, adiskide au KARMELE'en arpidedun dan Pedro Agirregomuzkorta eibartar gaztea da. Zirikada politak ditu bere dibujoetan eta komeni zaigu orrelako gazte bati bere zaletasunean bidea ematea. Gaiñera, euskal aldizkariak beren dibujugille berezi baten premiñan daude. Eskatuko diodaz batzuek eta zeuk esango duzu nolakoa dan.

Gaurkoz beste gabe, artzazu nere agurrik gartsuena.

J. San Martin

Donosti'tik, 1959-III-26

Aita Onaindia'ri

Larrea'ra.

Agur, Aita: Emengo andereño ta emakume batzuk erabakia artu dute «Xabiartxo» argitaratzeko, margotan, lenengoa agertu zan bezela, ta neregana jo dute bear diran pausuak emateko.

Presupuestoa eskutan daukate; baimena berriz neri aurretik Ixaak López Mendizabal'ek eman ziran «Martin Txilibitu» bezela argitaratzeko, ta ezin ezetz esan.

Ez al ziñaten zuek asiko... D. Nemesio'k esan dit zuk bizkaierazkoa egingo dezula. Oso ederki! Ekin orreri Bizkaia'n eta guk bestea Gipuzko'rako.

Urrutitik ikusi zindutan Gazteiz'en. Zer iruditzen ango jaia? Jai auk on dagiote erriari.

Agur berriz, ene Aita Onaindia. Aste Santu au ondo igaro.

Mari Barriola'tarra

Eibar'en, Epallak 13. 1959
Aita Onaindia'ri
Larrea'ra.

Agur, adiskide:

Emen natorkizu aspaldiko ordez. Uste dut artuko zenuela Aita Txanton'engandik irar-lantegirako klitxe bat. Ara bere ize-na ataurreko azalaren barrukaldetik barren aldean ipiñi deza-zun: *NEGU LATZAREN AZKENAK* (*Bizkai'ko Areitio'ko baserri bat Anboto mendia atzekaldean zuri duela*) *Etxeberria'tar Pernando'ren argazkia*. Argazki ori erdia baño goratxoago egongo litzake egoki ta bekaldean lenago biali nizun «KAR-MEL» jarriaz, azal guzia zuriz eta argazkia ta letrak zerbait urdiñeruntz jotzen duen tinta berdeakin. Argazkia ezagutzen dedanez ori izango litzake beretzako kolorerik aukerakoena. Ots, klitxeak zerbait garbitu bearra izango du eta ori irar-lantegikoak jakingo dute nola egin, bañan esan bereri garbitu bearra duela.

Emen dituzu nere adiskideak agindu zizkidan dibujoak ere, ba-du gatza mutil onek eta laguntasun aundia izango dugu berakin gure «Karmel»i bereztasun geiago emateko. Gartzen dedana da «Karmel»ek letra txikiegia duela eta lerroak alkarrengandik urregi. Naita idaz-lan gutxiago sartu obe litzake bananduago jarri. Idaz-lanak ere berdin, maíz, alkarren gañeregi azaltzen dira, ta lan baten asiera edo amaiera beste baten tartean arabakin bezela sartzea baño askoz ere ohea litzake utsunak laga eta utsuna oiek dibujoekin edo bete.

Emen dijoazkitzu Urkijo Mintegi'ra egin duten kartaren kopia, lenago Mitxelena'gandik artu nuena ere bai; beren borandatea ikusteko astegun baterako gertu gaudela erantzun diot, ene ustez oiek ez dute nai ez jaian eta ez asteen eta atxikia besterik ez dala izan ori, bañan laster probatuko ditugu. Ordezu «Arantzazu» aldizkariaren zuzendariari egin nionaren kopia ere; ez dut izan bere erantzunik. Mitxelena'ren karta eta beste kopia oiek al duzunean igorri.

kaltzaindin ere izan nintzan eta berek etzuela «Xabiartxo» argitaratu eziñik, bañan Ortarako lenbizi berek ikustea naiko zutela. Dana ere neolojismoren batzuek kentzeko izango da eta nere ustez obe da neolojismo oiek kentzen utzi eta argitaratzea geiago denborarik galdu gabe.

Datorren igandean Gazteiz'era joaten ba-zera ongi litzake gure ingurukoekin biltzartzea gauzak nola dijoazen eta nola geiago indartu litekezen estudiatzeko. Ni ez naiz joango, bate-tik lan askokin nabil eta bestetik diru sobrarik gabe; bi adis-kide txar ditut nere aurka.

Biotzez agurtzen zaitut.

J. San Martin

Bilbao'n, 1959, Epaillak 24

Agur, Aita Onaindia adiskide ori:

Arrapaladan, itz batzuk baño ez. Jai-aurretan gagoz eta lana, iñoz baño ugariago esku-artean.

«Xabiartxo»ren ale bat etxean neukan joan dan astetik. Ez dot ezertxo ere egin, zeugaz egon bearrean naizelako. Bilbao jaunak esan zidanez, klitxeak liburu-erdiraño bakarrik eldu dira. Ta beste guztiak, nun daude? Labayen'ek Tolosa'n emon eustan lotura aretan (nik zabaldu be eneban egin), dan-dana egoala esan eustan. Oker ote zegoan? Eztot uste guk ezertxo galdu dogunik.

Etzi Tolosa'ra joan bearra dot, Pazku-jaiak etxean emoteko. Ara orduko mintzatuko naiz Labayen jaunagaz, ia berak zer diñostan.

Atzo gabeen, Euskaltzaindian, Alpontso'k beste estalki bat emon eustan. Etxera eroan, zabaldu, ta... «Xabiartxo»ren beste ale bat, lengoaz batera. Estalkian, neure izena, ta Alpontso'k

niretzat zala. Nik ezetz. Gaur Gereño'k esan daust, estalki ori Alpontso'ri emoteko. Donostia'ra eroateko, noski? Baña orrela, dagoan lez, ezin leiteke iñora bialdu, ez iñori emon. Irakurgai guzien buruak txarto dagoz, eta liburu-erdia baño ez. Eztot ezer egingo, beraz, Tolosa'tik barriro itzuli arte, ta orduan zeugaz itz-egin ondoren, erabagiko dogu zer egin.

Ulertu be eztakit egingo daustazun idazki au. Ezetarako asirik bage nabilkizu, ta parkatu.

Beti adiskide,

Xábier

Tolosa'tik, 1959-IV-4

Aita Onaindia agurgarriari

Larrea'ra

Agur, adiskide ta Aba biotzekoa: Lengo egunean Xabier Peña-Albizu lagun maiteak «Xabiartxo»-ren Zenbait *cliches*, askotxo peitu dirala esan zidan. Nik nituen guziak eman nizkion bada ta ez dakit besteak nun ditezken.

Atzo berriz Maritxu Barriola andereñoak ots egin zidan «Xabiartxo» liburuan buruz duten beste asmozuek mintzatze-ko. Azkenik gipuzkeraz eta margo ederrez agertzekoak omen dira Donostia'n. Au onela dalarik, nik uste, Bilbo'n ez argitaratzea erabaki bearko degu, gipuzkeraz beintzat. Eta arren zure esku uzten det Bilbo'ko argitaldariari agindu ori ematea, kalterik izan ez dezagun.

Datorren ostegunez, illak 9'an San Martin Jon gure lankideak Diputazioa'n Julio Urkixo'ren aretoan, arratseko zazpi ta erdietan azaltzeko deia egin dit. Eta, J.l., an izango naiz Donostia'n. Ara biltzen bai zera, gai oiek guzitaz jardungo gaituzu elkarren berri jakin dezagun.

Bitartean onik jarraitzea opa dizut, eta zure berrien zai ikusi arte emen gelditzen natzaizu. Beti zure,

A. M. Labaien

Aita Onaindia, agur bero bat!

Ene jauna: Gaur eguerdian topatu dot etxean berorren kar-tea, eta pozez beterik geratu naz. Orain arte eztot berorren bea-rra begi onakaz ikusi, baña asmoan kontsideratu ezkerro, bio-tzetikan deadar azkar batek urtetan deust: Biba Aita Onaindia!

Bai, ondo ikusten dot berorren asmoa, eta ene laguntasunik aundiena eta iraunkorrena eskainduten deustat, amai on eta zo-rioritsu batera eroateko. Nere lanak, nere poesiarik sentiduenak, eta baita euskal eta estranjeriko poesiaren ganeko irizpideak, kritikak eta estudioak bialduko deustadaz.

Gauza bat: merkeegi idurituten jat urte beterako prezioa, 25 pezeta; 6 numerogatik prezio bajuegia da, batez bere in-prentaz etaraten badau, eta derrigorrean galdu behar dau dirua. Suskribidu begist lau numerorako, o sea, bat bialdu eta iru ko-brau. Ganerako irurak bialdu Ameriketara; nik eun pezeta pa-gaduko dotaz urtean erlejiosoro, urteko lenengo numeroagaz, reenbolsoz.

Entsegida parauko naiz bearrean: nere poesietatik batzuk aukeratuko ditudaz; buruan daroat estudio T. S. Elioten ga-ean. Onen atzean, Baudelaire, Rilke, Whitman eta Salinas es-tudiatu ditudaz. Berorrek publiketan badeustaz zeruraño bear egingo dot. Itzulpenak bere egingo ditudaz.

Eztabaida bere sortu bear da, baña bakarrik poesía ganean. Idatzi begist.

Artu begi nire gorantzirik eta agurrik egiaztienan,

G. Aresti

Caracas'tik Loreillak 1-1959
Onaindia'tar Jagoba Abari
Larra (Zornotza)

Aberkide ta adiskide:

Eskaritxo bat egitera naiatortzu: ni be KARMEL aldizkaria-
ren arpidedunen artean iasotzeko, ni edo nire izena. Jainkozko
Komedia agertzen asi zan ezkeroko zenbaki guztiak nai neukez
zure lan ederrari asieratik bertatik iarraitzeko. Esaidazu arpide-
saria zenbat dan, eta beriala igorriko dizut. Bidenabar zure idaz-
tiño GOIZ ARGÍ ere biali egidazu: eskein-itz batzu ezarriko
bazenizkio, garestiaigo ordainduko dizut.

Atzo Batiz'en berriak izan nituen. Agi danez, gure praille-
txoa izerdi-patsetan dabilkigu Tumako'ko beltz itsusien artean.
Ala ere euskalzale iator iarraitzen du.

Amar egunez izan da gure etxean Zaitegi Guatemalarako
bidez etorrita. Asma dezakezunez, itz-asperturik egin dugu eus-
kal-idazleen inguruan, eta iakiña, zure izena ere eta zure lan
andiak gure artean erabilli genituen, maxiatzeko ez, goraipatze-
ko baiño. Guatemala'n paperak antolatuta, berriz ere Biarritze-
ratuko da indar geiagoz Euzko-Gogoari ekiteko. Pozik ioan zan
emendik.

Egunotan ITUN ZAR BERRIA irakurtzen ari naiz, gogoz
ari ere. Zeruak egin lezaiguken bezuzarik ederrena da auxe be-
netako euskalzaleontzat. Gure izkera dagoen zoritzarretik ata-
ratzeko almen ere izango al du idazti orrek.

Aski, gaurkoz. Goraintziak orko euskalzale iatorrei eta zuk
artu ezazu nere euskal-agurrik gartsuena.

Ibiñagabeitia'tar Andima

Donosti-tik 59-V-4
Onaindia Aitari
Larrea

Nere adiskide eta Aita agurgarri ori: Olerkarietzako aldizkari bat laister sortuko dala jakiteak poztu egin nau oso. Bejondeizula! eta «Olerti» luzaro bizi dedilla!

Ortan txoko bat eskeiñi didazu. Milla esker.

Ni enaiz olerkari, bañan pozik lantxo bat edo beste bialiko dizut noizpenka, itz-lauz noski.

Arpidedun nauzula ezta esan bearrik. Agur!

Valverde

Elgoibar'tik, 1959-V-5
Aita Onaindia'ri
Larrea.

Jaun agurgarria:

Nerekin det zure idazkia, juntzan illeko 25 garren egunean idatzia.

Bertan, eskatzen didazu lantxoren bat, zure aldizkari berri OLERTI izenpurutuko dezun orrentzat.

Aitortu bear dizut, estu arrapatu nauzula; bada, aspalditxo, olerki-baratzan, lanik egin gabe nengoan, eta nere goiargitasuna, oso erdoitua zegon.

Orregatik, barkatu zaidazu, zerbait berandu eltzen bada nere «SARGO-ATE'KO ITURRIARI», zure eskuetara. Iturri au, berria da: Aurtengo Epallaren 5'ean, bedeinkatu zan.

Eta esan bearrik eztago, OLERTI aldizkari ortan, arpidetu nai detala.

Besterik gabe, zure eskua, apal muintzen du,

Larreategi'tar Luken'ek

Zeanuri'tik 1959-V-6'gn.

Agur adiskide In Xto:

Ondo deritxot «Oleri» argitalzeko dozun asmo orri, ma-kulluekaz dabillen gure Euskera gaxoari laguntzeko egiten dan guztia naiko ez da izango-ta. Ni beintzat arpidetu nagizu, baita KARMEL'era be, aspaldi esan arren, ondiño arpidetu barik nago-ta. Irakurteko aukera beti izan dot.

Emen bialtzen dautzut zerbait, argitalgai ba'deritxozu. Zuk diñozunez, «labur» ez da, eta «goxo» bez gauza andirik. Ba'da-kizu, ni ez nazala, lengo egun baten «La Gaceta del N»'en Onieva'k aitatzen daben «La Poesia de Ultima Hora»koen artekoa, baña lengo erara ta zerbait errez aituteko bertso batzuk egiteko gertu nago. Yakiña, iztegian, Euskaltzaindiak emon dauzan arauen *gorengo mallara* igoteko asmorik ez dot, biderditik tapa-tapa ibilteko baño. Orreri aldi bateko «Onse kosas para ver ya emos nacido pues»... esan bearko.

Iraduz nabil ta agur eta otoitz In Xto.

Manterola'tar Gabirel

Zarauz (Gipuzkoa), 1959-V-6.

Aita Onaindia'ri

Larrea.

Adiskide ta anai maite: Ba-dira egun batzuk zurea jaso nuala ta geiago luzatzeke erantzun dagizudan.

Ba-dira urte batzuk olerkirik egin ez dudala ta euskeraz idatzi ere gabe urteak eraman ditut. Oneratu-ezkeroztik berriro idazten asi natzaizu. Olerkiak baño ipui luze edo eleberritxoak idazteari eman diot, irakurleak irabazteko bide egokigoa bai-deritzat.

Izan liteke noizpait olerkitxoren bat edo beste zuri bidal-
tzea. Leengo bat edo beste or izatea gerta liteke, Urrestilla'tik
nik bidalduta, EUN OLERKI ONENAK liburua osatzeko zi-
ñala-ta.

Nola nai dala, arpidetu nazazu, eta 25 laurleko oiek, zu edo
zuetako bat edo bat zatoztenean ordainduko dizkitzut. Aztutzen
bazait oroitu-azi; ta orain bertan bear bazenituke, esaidazu.

Karmeldar IRUGARREN ORDENA'ko egin naiz. Beraz,
anaitzat ar nazakezu.

Zure adiskide ta anai beti,

Jauregi'tar K.

Eibar'en, Loraillak 7-1959.

Aita Santi'ri

Larrea'ra.

Agur, adiskide:

Nerekin dut il onen 4'an egin zenidana, aurretiko OLER-
TI'ri buruzkoa ere jaso nuen eta bai pozik irakurri ere, bertan
ederki adierazten dan bezela «Egan» ateratzen eztala eta «Euz-
ko-Gogo» iritzi ezinik, bear bearrezkoa dugu orrelako aldizkari
kultura-zale bat. Ori aurrera eramatera «Euzko-Gogo» emen
argitaratzea bezelakoa izango litzakela orrek piztu ta berotuko
ditu euskeltzaleak; bestela, bide ontatik guziok txepeltzen gau-
de eta euskera il-zoriara daramagu.

Gaur Imanol'en ezkongaitzako azken-agurra dugu eta ez
dut orruntz joaterik eta datorren igandean urtero egiten dugun
mendizaleen jaia dugu, beraz, zuk onera etortzerik ez ba duzu
urrengoago izan bearko du ni orra joatea.

Ez naiz arritzen Euskaltzaindia'ren agiri orrekin damutu
xamar egotia, nik «Urkijo Mintegia»n irakurri nienaren on-
doren pekatari guziak mutu gelditu ziran, entzutekoak entzun

ondoren. Gezurra dirudi euskera il-zorian dugularik Euskaltzaindia'ren biltzarretan orrelako Uskeriak erabagi naian ibiltzia, ba dugu ori baño lenagokorik.

Eingo ditut OLERTI'rako arpidedunen batzuek, Oraingoz egin naizu neu beintzat eta baita Julio Sarasua ere, bere zurzenbidea: San Agustín, 1 (Droguería) — EIBAR. Imanol'en azken-agur ontan izango dut berriak egiteko giroa, ala ere bazkalondoan kopa batzuek edanda daudenean. Papela ta lapitza eramateakin ez naiz aztu bear.

Ez dakit aldizkari orrendako dibujorik nai duzun, eskatu laisai, ezkon-anai bat dut zoragarri dibujatzen duena eta aukera ba dugu bera ere pozik ibiltzen baita orrelako lanetan.

Emen dijoakitzu nere lantxo bat, «Zori gaiztoko izadia...», olerki antzera idatzia dago eta oraindik iñun argitaratu gabe, egoki ba-deritxozu argitaratu zezake OLERTI'n.

Gaurkoz beste gabe, beti bezela artzazu nere biotzetiko agurgartsua.

J. San Martin

Villaro, 18-V-59
Onaindia'tar Jakoba A.
Larrea'ra

Nere Aita txit gogoratua:

Ba-dira majiñat egun artu nuela zure eskutitza, betiko eran suspergarria. Bañan, bitartean lantxo ta eginbear asko eduki ditut eta ezin eman eskua zureari.

Ta lenengoz, nik olerkari bezela, milla esker bero-bero-bero zure idea agurgarri orregatik. Begia zorrotza daukazu ta ekin-iturria ta ausartasuna oraindik areago. Benetan txalogarria zure azkeneko asmo au. Euskal olerkari ta bertsolariak etzeukaten noski ezer berezirik beaien jardunaldietarako. Majiñat bertsolari dira ernetan iñoren bultzadarik gabe bere bertsolaritasuna

ezkutatzen ari zaienak. Neronek daukat osaba bat bertsolaria, len idazten zuan aldizkari baten, baño gero oztu egin zan. Azkenean, nik eragin diot ta bidaldu dizkit bertso saill bat «Zeruko Argia»'n argitaratzeko. Ekingo diot barriro zure aldizkari berri ta polit ortara bialtzeko ere.

Ba... len esaten nizudana, asko poztu naizela «Olerti» aldizkariarengatik. Nere ustez Euskalerrian, olerkaritasuna ta bertsolaritasuna euskeraren eusgarri jatorrak dira. Ta gañera, au oso bide egokia da gure euskera oni barneko apaintasunak ager-arazteko, bera lantzeko ta egunen batean ere literatur-izkuntzen maillara iristeko Ea, noiz jasotzen dugun izkuntza kataluindar ta probentzatarren erara!

Gaurkoz oso gutxi bidaltzen dizut. Bi olerki bakarrik. Ba-dauzkat beraz beste batzuk, baño oraindik zuzendu ta eratu gabeak. Uztail aldera edo bidalduko dizut saill aundiago bat. Ta argitara-garriak ez dirala baderitzaizkizu, ez atera argira.

Zeniozunez maiatzaren erdialdera urtengo zan len zenbakia. Etzait iritxi neri oraindik. Ez dago presarik. Arren, bidaldu idazu neri be, ta neren izenera. Zuk gura dozun lez ordainduko det arpidetza,

Jakin det be, erradio bat eraikitzekotan zabiltzala. Bejon-deizula! Beti bezela urduri ta ausarta ikusten zaitut. Jalgi bedi ba zuen abotsa Bizkai'ko ibar ta mendien barna sutsu ta zoli gure euskal mintzoeran ere. Ez da makala noski zure asmo berri au. Bizkaia onen bear gorrian arkitzen da. Izan ere, tamalgarria da, baño gure mintzoa galtzen ari zaigu, ta Bizkaia'n geiago.

Lortu det Rilke'ren olerki liburu jator bat. Ez dauzkat bere olerki guztiak, banaka batzuk baño. Oso zoratua nago bere olermenarekin. Zeniozunez lez, euskerari egokia zaio bere xoiltasunagatik. Emen badago zenbat ausnartu gozaro. Nere ustez, euskaldunok (idazleok) erdal literatura geiago jan bear degu gure euskerari erasteko ango balio ta apaintasunak. Olerkari aundi

oiek, euskeran idazteko be, beste euskal olerkari ta idazle askok
baño on bikañagoa egiten didate. Gañera, euskera sarritan, ongi
eratzen da erdal idaztankera batzuetara. Ta besterik ez.

Barkatu idazu gaurkoz zuk gura ala olerki ez badizkitzut
bidaldu. Urrengoan ugariagoa ibilliko naiz.

Zure zerbitzari txikien,

Luis Mari Muxika

Morga 1959-V-18

Adiskide gogozko: Zuk igorri eskutitza artu nubela egun
batzuek ba-dira.

Egi-egiaz esaten dizut ordu onean datorrela zure OLERTI
izeneko aldizkari ori. Diozun utsunea neronek ere nabaritutakoa
da, askotan egon ba naiz nere lantxoak nun argitaratu! Eta
nere eskuetatik irtendakoak gaur gutxi izanda ere, ezkutuan
egon litezkenak alegia, beste euskal idazleen lanak irakurri-gose
egon naiz, nun gose ori berdindu ez dakitela. Onetaz gañera,
atzen aldi onetan olerki sallean lan gutxi datoz eta txepelagoak.

Gaitz onen sustraia sakona izango da noski. Ez noa orain
iritzi bat ematera. Baiñan aldizkari onek laguntza ederra eman
dezaioke euskal literaturari. Bebiltz ondo euskera gaurkoratzeko
gai guztiak jotzen dituzten aldizkariak. Gu literatura arruntaren
serbitzari gera. Betor ordu onean OLERTI izeneko gure lur-
bazterra!

Arpidetzea nai det. Zuzenbidea: Juan Maria Lekuona, Añor-
ga (Gipuzkoa). Igorri lenengo zenbakitik.

Itz lauz ipui antzeko zerbait tajutzen ari naiz. OLERTI'n
azaltzea nai nuke.

Agindu beti

Juan Maria Lekuona

Donostia, 1959 Maiatza'k 21

Onaindia Aita

Aita agurgarri:

Zurea garaiz jaso nizun. Bejondeizula. Pozik irakurri nuen eta pozik irakurri zuten nere lagunak ere. Iñork elesari eta itz goralgarririk merezi ba'du zuk merezi dezu, bai noski. Ba'dezu kixkalmena zure inguruak gori-gori jartzeko eta Olertia jasotzeko. Zure aldizkaria noiz jaso irrikaz nagokizu. Lenbailen izango al da. Aurretik artu itzazu nere zorion-agurrik miñenak.

Eta beste zertxoa. Dagoaneko arpidedunen artean jarri nazakezu eta arpide berriak lortu nai dizkizudan ezkerro, bial izkidazu, arren, amarren bat ieki.

Besterik ez. Euskaltzaindian gertatutakoak ez dizkizut jalkitzen, onuzkero txetasun guziak ba'dakizkizu-ta. Izparringietan agertutako Euskaltzaindia'ren agiriak ongi piztu ditu baztarrak, alajainkoa. Arrue ta a. ez dira oso pozik eta lasai.

Agur. Nere esku-zartadarik beroena eta agindu zure adiskide eta biozkide oni.

Egaña'tar Gotzon

Arama'tik, 27-V-59

Aita Onaindia Agurgarriari.

Larra'ra.

Agur Aita:

Si audes, emoizu artikulu ori *Karmel'en*. YAKIN'eko orreik lotsagarriro diñardue.

Euskalzain bitzu orreik A. Villasante eta Irigoyen dira.

KARMEL'tik loraz bete ei nozue. Aspaldion ez dot irakurri. Etxetik ez dauste bialtzen. Orain emen bizi naz.

Nik ez dot *ukaiterik* arpidea ordaintzeko; baiñan emendik ara bialduko deutsudaz olango artikuluak, lankoak onez.

YAKIN'era bere bialdu dot beste bat; baiñan azkanengoa dadike.

Memento.

Ormaetxea'r Nikola

Durango, 1959'ko Orrilaren 28'n.
Onaindia'tar Santiago aita agurgarriari
Larrea'n.

Aita agurgarri ta adiskide on:

«Karmel»'en argitaratuta ikusi dot nire asmamen txikiaren erakuski argala. Eta ezpairik ez izateko, an, bere oiñean, nire izen-abizena agiri da. Baña, idazle a nerau ete zan niri itandu dausten euskeldunakaz ezin euskeraz egiteko izan dodan lotsa, andiagoa izan dala uste dot, nere burua euskal-idazletzat ikus-teko arrotasuna baño...

Bai, adiskide maite, nereak dirala lantxo orreik iñork ez jakitea gurago dot. Orrenbestez, argitaraturik izatea merezi daben nire lantxuotan, izki bi bakarrik ipiñi dagiguzan otoitzen dautzut.

Dana dala, nire «barriketa» orrek izan daun ondore onak beste bat atontzera adoretu nau ta adei-liburutik itzulita neukazan orri batzuekaz bialtzen dautzudaz. Lengo legez, onek be mamin txikia dauko; baña aldizkariko baztertxu bat betetzeko lagin ba'diruditzu, pozarren geldituko naz.

Zorionak zuri emoteaz amaitu bear dot, «Karmel» gero ta ederrago, jakingarriago ta mamintsuagoa dala-ta. Pairugabez itxaroten dautsot, ta arreta andiz irakurtzen burutik burura. Eta bardiña egiten daben beste asko be ba-dira, ba, nire izena bertan agertu dan lenengo aldiz, batzuk etorri yataz orretzaz berba-egitera... ta ez dot uste ezagun asko dodazanik euskal-irakurleen artean.

Niregandiko agur bioztiak artu ta gura dozun legez agindu zure serbitzaria nazan oni

Etxano'tar J.

Ondarribi'tik, Larrea'ra, 1959'gn. Loraillak'k 29
Aita Onaindia Agurgarria
Larrea.

Ene Aita, begiko ori:

Zeure-zeurea jaso nuen bere garaian. Poz aundia eman zidala esan bearrik ez dut. Ori da jatortasuna, ori da asmo ona, ori da, bene-benetan... «Txurian» (erdi-erdian) jotzea. Bejoin-dizula!

Badakizu, ni alper xamarra naiz, eleketa-bide, lagunari idatzitzeko; ikusi bestela zenbat egun bear izan ditudan zureari erantzuteko. Baña, berandu bedere, emen natorkizu, zuri arnas eman naiean.

Ni olerkari ustela nazu, gauz aundirik ezin igorri; ez dakiena askotan ausarta izan oi da; ni, bat... izena izana baño aundiagoa detana naiz. Zuk ongi dakizu.

Ez dakit iritxiko zaizun zure lenengo zenbakirako. *Milla Olerki eder'ren* ere zu billa, espaziña etorri, nererik etzan argitaratuko. Zabarra naiz, zabarra, Aita Onaindia.

Onekin batera olerkitxo bat igortzen dizut; ondo baderizkiozu... argitaratu; txarra bada...

Arpidetzea pozik, oso pozik nai nuke. Alako batean ikusiko gera ta eskupekoa ere emango dizut.

OLERTI. OLERTI. OLERTI! ! ! Olerkariok ere zerbait bagerala agertuko dezun aldizkingia, artzazu nere ongi-etorria.

Milla esker, nik ere zuri.

Zure esku orretan muiñ ematen dizutala, besarkada, Euskal-besarkada samurrez estutzen zaitut. Agur.

Fernando Artola

Praga'tik 1959'gko. Loraillaren 30'ean
Onaindia'tar Jakoba Aitari
Larrea-Amorebieta'n.

Aita guztiz agurgarria ta adiskide ona:

Gaurko goizean eskuratu zait «Karmel» izeneko orko aldizkari eder-ederraren azkeneko zenbakia /Orrilla-Bagilla/. Asko gustatzen zait zure aldizkari au, artikululu irakurgarriak eta euskeraz ondo egiñak dakarzki-ta. Atsegiñez beterik irakurriko ditut bertan dauden irakurgai guziak, neretzat balio aundikoak dira, nere euskera edertu ta itz askorekin osatzeko. Ezdaldt nola nere eskerrona zuri agertu, aldizkariaren bialtzearengatik. Zoritxarrez, ez dut aurreko zenbakia, Epailla-Jorrailla artu. Orra Zergatik eskatzen dizudan banako au bialtzeko. Aurrez eskerrik asko.

Epaillaren 4'gko. nere idazkia artuko zinduela uste dut. Ba-tean bialdu dizut nik idatzitako artikululu bat, L. Mendizabal'dar Ixaka'ren omenez, orko aldizkarian argitaratzeko.

Eta orain itaun bat zuzendu nai nizuke. «Melo Alfereza», «Dirauket» eta «Irizar'tar Domingo» izenekin idazten duten jaunen zuzenbideak euki nai nituke. Baldin ba-dakizkizu, otoi, niri jakin-arazi.

Bilbo'ko euskaltzaleak eskeini didate Olabide'ren Bibliaren ijeki bat. Neretzat, egitan, poz aundia da, liburu bikain au nere euskal-liburutegian eukitzea.

Arretaz jarraitzen dut euskeraren aldeko lana. Euskerazko agur bat bialdu diot Luzaide'ko bikario jaunari, urrengo igandean an egingo den Euskal-Festa'n irakurtzeko.

Zure berrien zai nago. Ar itzazu, Aita guztiz agurgarri ta adiskide orrek, nere agurrik beroenak eta agindu nai dezun guzia zure menpeko,

Tauer'tar Norberta'ri

Caracas'tik Garillak 24-1959
Donibanez
Onaindia'tar Jagoba Abari
Larrea'ra (Amorebieta)

Adiskide maitea:

Zure gutuna baiño egun batzu lentxeago iritxi zitzaizkidan KARMEL eta *Goi-zale* ale biak. Ez dakizu zer nolako ioranez irakurri dudan zure aldizkari zoragarria, benetan ernagarri ta irakurgarria. Aspalditik KARMEL'en otsandia ene belarrietaratu zan, eta beti nengoen zuri idazteko, biali zenezaidan, baña astirik ez eta lan geiegi, beti geroka ibilli izan nazaizu. Oraingo ontan beñipein, ondo poztu nau zure lan ederrak. Ori, ori da euskeraren alde gogoz ta iakintsuki iokatzea! Ez nau bat ere arritzen ainbeste arpidedun izateak.

Ni ere euskeraren kezkak narabil, ez daukat beste amesik... Baña emen gaindi ez da errex gure arlo ederrean buru-belarri sartzea. Dana dala al dudantxoia egiten dut geiago egin guraz, ordea. Iradokitzen didazun asmoa, Bergili'rena alegia, ezin obea duzu. Nik ere «Larre-kantak» itzultzeko asmo orri aspalditik neukan, Paris'en bertan Georgikak'en ekoizpen berri bat billa ibilli nintzan Ortarako, baiña ez nuen arkitu. Arrezkero argitaratuko zan, eta gaur bertan eskatu diot ango adiskide bati biali dezaidan. Eta gogoz ekingo diot itzul-lanari, zurekin batean idazti mardul batean Bergili'ren lanegiñak oro argitaratzeko. Bergili olerkari andiak nere atsegiñak egiten ditu, eta maite dut benetan. Zure Jainko-Antzerkia, errex baizen ugari ta zailu itzulita dago. Eztitan irakurri ditut orain arte argitara dituzun zatiak oro. Nekez arkitu diteke gure artean zu bezelako itzulari ederrik. Ez dut uste beste bat dagoenik, eta langilleagorik gure arlo maitagarrian bat ere ez. Iarrai ezazu aurrerantzean ere, Karmel zoragarria neri bialtzen.

Ementxe igortzen dizkitzut ogeitamar dolar txeke batean, nere zorrak ordaintzeko. Dolarrak bialtzen dizkitzut, orko di-

ruak gorabera aundiak izango dituela izparkarietan irakurri du-dalako. Nik uste, dolarreko berrogeitamar laurleko gutxienez emango dizkitzuela. Nolarebait nik ere zure lan ederrari lagundu nai nioke.

Axangiz'ko olerkaria lengo batean izan zan nerekin. Amaikatu bidar damutu zaio ona etorria. Gogoz daragoio idazketan eta olerki gintzan. Artikulu gogortxo bat idatzi du Euskaltzaindiko agindua dala-ta, eztabaida ta liskar askoren iturria. Zuk diñozuna, obe litzake bat ere iaramonik ez egitea, gure arteko aserre-ildoak ez sakonagotzeko... baiña gu beti mergatz. Gure olerkariak gerturik dauka bere olerki bilduma idazti batean argitaratzeko. Or dabilkigu io ta ke, Ortarako txanponak batzen lan eta lan.

Zure aldiazkari OLERTI barriaren erpai naukazu, eta millesker neri ere parnasu Ortarako ateak zabalik uzten dizkidazulako... Besteren soiñekoz sartu bearko nauzu, akerraren adarra baiño elkorragoa bait nauzu zorioneko Muse'kiko. Ala ere ekin gogoz zuek, goi-argia txurrustaka iasotzen duzutenok.

Batiz abarekin gutun bidezko izketalditxoak egiten ditut noiztanka. An dabilkigu, gizaioa, beltzerri artan lerrenak egiten. Ala ere euskeraren miña barnean darama beti ere.

Emengo aldizkaritxo erdel-euzkaldunean, oraintxe asiko naiz euskeraren alde gogor ekiten, ia gure arteko erdelzaleak lotsarazten ote ditudan. Ez da errexa izango, baiña euskeraz beintzat, entzun ditzatela bereak eta txakur beltzarenak. Eztiakin obeto atzematen dirala euliak, esan oi dute, baiño gure euliak makillakin atzeman bear dirala nik uste.

Agur ene adiskide ona, eta ar itzatzu erbestetu onek biotz biotzetik igortzen dizkitzun agur beroenak. Euskera bedi beti gure goiburu.

Ibinagabeitia'tar Andima

Zornotza'ra.

Agur, ene adiskide:

Gaur jaso ditut zure eskutitza eta lenbiziko OLERTI'ren zenbakiak emen zabaltzeko, arpidedunen tartean. Ezin zezake igarri nolako poza eman didan OLERTI'k, ene begiokin zurrut egiteraño urduritu nau. Bada bertan idaz-lana ugari, batez ere Olerkiz, egarri geranok asetzeko.

Konpoziziñoari buruzko oarpen batzuek egingo dizut, gaur-gaurkoz. Aldizkariaren neurria bikaiña da, patrikaran erabiltzeko bezelakoa eta bide batez luzezka itz neurtuak eskatzen duten bezela. Bañan, paperra sendotxoagoa bear luke, presio kontuan ez litzake asko igoko eta orrialde batetik ez litzakez igarriko bestaldeko lerroak; ze, bestaldeko lerro oiek zerbait agiri izateak irakurgaia zikintzen du, batez ere orrelako letra txikia duen irakurgaia. Lan batzuek letra txikiegiakin arkitzen dira ta guziak lerroak alkarrengandik urbillegi direla, lerroak banatuago ipinita askoz ere obeto irakurtzen da, eta nere iritziz obe da lan gutxi ondo jarriak asko gaizki baño; irakurleeri begietatik sartu bear zaie gogoa; gaurko literaturan orrela da. Azkenez, idaz-lanak bata besteagandik urbilegi daude, alkarren gañeregi eta orregaitik, Zenbait olerki bikain beste batzuen tartean galduta arkitzen dira; adibidez; Aurraitz'en «Tori Amatxu», zoragarria izanik, beste garrantzi gutxiago duten olerki batzuen tartean galdurik arkitzen da. Lan bata besteagandik obeto bereztu bear da eta lan bikañak diranen leku bikain bat eman. Multzuka sartzeakin Zenbait irakurlentzako lan bikain oiek galdurik arkitzen dira eta leku bereziago bat eman ezkeror irakurle askori euskal lan bikañetarako bidea zabaltzea litzake. Begiratu batean oiek dira nire oarpenak, alkarrekin mintzatzen geranean aztertuko dugu obeto. Dana dala artzazu nere zorionik kartsuena.

Tintorería «Margóla» — Eibar; Pedro Aguirregomezorta, Dos de Mayo, 8 — Eibar; eta, Julio Sarasua, San Agustín, 1 (Droguería) — Eibar.

Luis Aranberri'ri nere zenbakia eman diot eta bialdu nere-tzako beste bat; Sarasua'ri berriz Juan José Lete'rena eman diot; Juan José «Legarda», orain bi urte dala il bai zan. De-ba'ko Lete bere semea da eta nere adiskidea: Iñaki Lete, Deva, naikoa da zuzen-bidetzat.

Alde batetik Mitxelena'ren karta izan dut eta bestaldetik Irigoyen'ena, gure asmoa ontzat artu dutela esanaz. Urrengo biltzarrean berriz ausnartuko dute baña egintzat eman gene-zakela esaten dirate. Itxaitzeak zerbait balio izan digu. Orain oñarri obeak ditugu gure gauzak aurrera eramateko. Ez al da orrela?

Aurtengo Euskal Billera nagusia ere Eibar'en egitea lortu dugu eta au izango da gure erakunde berri onen lenbiziko eginkizuna. Urrillaren azkenetan izango da, Euskaltzaindia'k agindu digunez, eta lentxoago Larrea'n edo bilduko giñakez len-bizi, igezko bezela, an izan ziraneri gure urratsak adierazteko, gauzak obeto berezteko eta bertakoen iritzia jasotzeko. Bide be-rrri oiek ikusirik, ni asi naiz Eibar'en euskeltzaleen bazkun bat antolatzen, gero gure antzera beste erri batzuek jartzeko.

Eibar'ko jai auetan mugaz-andik ibilli naiz, egun bat Aita Zaitegi'ren etxean igaro nuen. Eusko Gogo'a'kin jarraitzeko asmoetan arkitu nun. Zaitegi dugu gure artean euskerari geien lotuta bizi dan gizona, erakunde onekin lagunduko ote diogu bere aldizkaria zabaltzen. Dana merezi du gure Zaitegi jaunak.

Zaitegi'k aurki argitaratuko du «Platon'en atarían» eta or ere lagundu bearra izango dugu. Nik agindu diok Eibar'en be-rrrogeita amar salduko ditudala, eta erakundea martxan jartzen dugunean beste erretan ere ez dugu orren beste egin eziñik.

Baliteke datorren asteko egun batean orrera oster bat egi-tea, gure berri on oiek puntuz-puntu aztertzeke. Asteartean edo asteazkenean izango da, arratsaldetik, Bilbo'ra joan bearra bai dut.

Agur, eta zorionak berriz ere OLERTI aldizkari atseginga-rri orregaitik. Mintzatuko naiz emengo olerkariekin eta ia lan-txoren batzuek aukeratzen ditudan. Artzazu nere besarkada anaikorra.

J. San Martin

Donosti-ko Loiola-n 1960

«KARMEL»-go Zuzendari Jauna:

Lerrotxo oen bidez auxa esan nai nizuke, alegia, aldizkaria-ren zuzenbidean LOIOLA-SAN SEBASTIAN jartzeko, ta ez San Sebastian bakarrik, Donostian Moja-etxe asko da ta. One-la bada: Venancio Larrarte Capellán Franciscanas Concepcio-nistas LOYOLA-SAN SEBASTIAN.

Bidebatez, or dijoakizu euskeralbentxo ori, lendik beste nor-baitek egiña ezpada beintzat. Nik ez det ezaguna. «No me mueve mi Dios»-ena bai, baña, beste orrenik ez.

Jarrai gogotsu lanean aurrera gure gauz baliotsuenen alde. Jainkoak eta zoritxarreko gure Euskalerriak ordainduko dizuete oparo.

Frantziskotar ta Kaputxinoek ari dira, zuekin, Karmeldarre-kin euskal-alor lanketan, bertako seme jatorrei dagokienez. Aita Josulagunen «Jesusen Biotzaren Deia» bakarrik gelditzen zaigu oraintxe argitaratzeke. Noiz esan bear ote dute azkenorduko mastilangille oiek? Oro gaztela biurtu nai al digute. edo? «Euz-ko Gogoak» bein batean zerbait zirikatu zitun, baña, ez da orain-dik ezeren zantzurik.

Gaurkoz beste gabe, euskal-agurrik anaikorrenaz

Larrarte'tar Benantzio

Pamplona, 1959-VII-16'n
Onaindia'tar Santiago Aitari
Larrea'n

Agur, adiskide gurgarri:

Garaiz artu nuen zure gutuna baita egorriki atsegintsua. Ederresten dut baiki. Osoko boakizu nere zorion-agurra. Ta irrikiz nago bestieri begira.

Idazkide izan nazazuke. Albait beintzat (ahala dut eginen) bi lan bialiko dizkizut banako bakotxarentzat. Olerki izanen da bata, bestea itz lauz (ipui-kari). Konta-idazlariz gera exkax, xuhurregi agian. Bi era ok direla bide, euskalduna gilikatu behar degu. Kontak dira ezin baztertuzko elerkerak. Aspaldion polikixe naiz irakurria ipuiek zer arrakasta duten nun nai. Unek gogalkizun larria eman dit, gure arlotara ekarri nahiz. Ipuia llabur lenbizi untan, luxeago gerokoan, behar degu alik lehen. Saia gaiten ba bietarik egiten.

Baldin oharkizunen bat ba'dagoldo nere esateri uni, betor, ba, arren, nere ikuskera azkartzekotan ala alde uzteko oker ba'-nago.

Urrengo banakorako bertsoak amaitzer ditut. Ipuiaren egi-teari lotuko naiz, zuk erantzun da bela.

Barkatu nere aitzakiok eta aurki itzuliko natzaizu.

Egin didazun adiguria dela-ta, eskerrik asko ta amabi iye-kiak banatuak izan dira. Ez da esan-beharrik albaiteko zabal-gundea eginen diodala aldizkariari..

Betiko leiaz agur biotzetik

Jose Agerre

Larrea'ra

Aita agurgarri ori:

Presaka nabiltzu eta bi itz bakarrik «Olerti» artu dedala eta oso yayo ta atsegiña arkitu dudala adierazteko. Olerki batzuk astun samarrak. Pausu ona eman dezu lenengo zenbakia inprentan atereaz.

Esan nizudan, len, olerkiak bidalduko nizekizuala. Baño «Zeruko Argi»'ra ta «Euzko Gogo»'ra sail aundiak bidaliak neuzkan eta orain dauzkadan gutxiak ez dauzkat oso tajuzkoak. Baño, itxuraz, «Zeruko Argia» ateratzen ez dan ezkerro, aiei eskatzeko asmo det eta bidaltzen badizkidate agian; orduan oso pozik eta laixterren igorriko dizkizut zuri be.

Badakizula uste det Erroma'ra nijoala iraillan. Naiz ara joan, izango al det euskera irakurri ta lantzeko asti ta gogo!

Esan dizut presaka nabillela eta barkatu. Ia oroitzen geran gerokoan ere. Nik beti edukiko det zukanako maite-esker bat biotzean zure zerbitzaritasun ta adixkidetasunagatik.

Agur. Zure zure Jesus eta Mariagan,

Luis Mari Muxika

Donostia'tik, 1959'gko. Dagonilla'ren 8'an
Onaindia Aba agurgarria
Larrea'n

Adiskide maite-maite ori:

Oraintxe bertan, or nunbait bidez galduta ibili ondoren, nere esloitarazait zure lengo illeko 15 gko. idazki atsegiña, ta berialaxe bialtzen dizut nere bigarren idazlantxoa.

Nola eskerrak adierazi ez dakit ldazki ortan agertzen dida-
zun biotz-maitasun barrenkorragatik eta nere alabatxoaren al-
dezko nai-onagatik. Pozarren dirautsut: atzerriko giroa on zaio-
la, osalariak uste bezela, eta obetuaz doala.

Ni, orain, azkatasun geixeagogaz, or-emen, gelditu barik,
nere arazoez nabil. Goikoa'k nai-dezala guziok pakez eta osa-
suntsu jarraitzea.

«OLERTI» ain polita ta atsegiña, garaiz jaso neban, baita
gogoz irakurri be. Euskera maite duanak, begiko izango duala-
koan nago. ZORIONAK, berriz ere.

Berriz ere laister beste Batzar bat Larrea'n izango ote de-
gun diozu. Poz-pozik juango nozu, eta orduantxe Artetxe'ri
igorritako alearen ordaña ta baita beste bi ale «GOIZALE»
renak ere emango dizut, lenago elkar ikusteko zoririk izaten
ezpadegu beintzat.

Emengo euskaltsañei, ez diet oraindik ezer entzun, «OLER-
TI»-etzaz. Ez aldiezu bialdu? Lekuona jaunari bialdu beintzat,
«EGAN»-en edo zerbait esan dezan.

Agur, eta laister arte, Jainkoa gura ba'deu. Zure adiskide
min,

Zeleta

Donostia, 1959 Dagonilla'k 28

Aita Onaindia

Larrea

Eup, adixkide agurgarri:

Antz emango diozunez, neri ere auxe gertatu zait, idazteari
beti biarko utzi eta gaur arte, alegia. Bañan aitzaki makal auek
baño nere berriak jakingarriago izango zaizkizulakoan nago. Bai
adixkidea, zuk neri igorritako OLERTI-aleak dirala-ta ez naiz
asarre, ez orixe, eta ez da au berri exkaxena. Ogei ale oiek
arrera ona izan dute Donostia'n eta danak zabalduak ditut da-

goaneko. Arpidedun artean, jakiña, ba'dira oraindik urteroko ordain-saria eskuetaratu ez didatenak, eta onek batez ere zuri erantzuteke euki nau. Dana dala, datorren ilerako guzien dirua íritxi-aziko dizut.

Arpidedun guzien abizen-izenak jasoak ditut idatziz, ez ordea beroien zuzenbideak; orregatik izen-lerrokadarik ez dizut bidaltzen, bañan ez det uste au ajolakoa danik, ale berri guzien banatzalle, nere ogei arpidedun artean beintzat, ni izango natzai-zu-ta. Nere ustez, zuretzako errexago izango zaizu ale guziak pılan eta bidariz nere izenera igortzea; nik nere gain artzen det, esan dizudan bezela, ogei arpidedunei ale berria eskuetara-tzea. Gngi al deritzaizu? Nolanai ere, zure esanetara nago.

Zure aldizkarian asiera polita eman diozu, olerki eta irakur-gai ederrak jasorik. Ondoren etorriko diran zenbakiak ziur naiz makalago izango ez dirala eta sail berriak ekarriko dituztela. Ia, ba, erro sendoa arrazten diogun gure aldizkari berri oni, landare bikain biurturik igali-ekarle oparoa egin dedin.

Zure eragiñez OLERTI euskal idazle guzien aldizkaria izatera elduko dala bete-betea sinisten det. Agiri-gordeka kuku-egiñaz etorriko zaizkizunen eragozpenak kikiltzen etzaituzten gizona zerala ezagutzen zaitudanez, aldizkanari lore-aldi bete bizi-aziko diozula esatea ez da geiegizkoa. Nik beintzat biotz-biotzez auxe opa dizut. Jarrai sutsu, gaurko odei beltzak gure mendietatik laister urrunduko dira-ta.

Agur eta EUTSI TA BULTZA.

Egaña'tar Gotzon

Bermeo, 1959'ko dagonillaren 28
Aita Onaindia
KARMEL'eko Zuzendaria
Larrea

Ene Aita eta adizkide maitea:

Ariñegun artu neban zure idazki laburtxoa OLERTI'ko nire arpideari buruz, eta atsegiñez darantzut: zelan ez?

OLERTI'ren asmoa laguntzagarria da eta euzkaldunok orretan saiatuten ba-gara, zeuk «aurkez jarduna»n eskatzen dozun lez, lan andia egingo dogu euzkeraren alde, eta OLERTI gero ta ederrago biurtuko. Ara or nik neure ondar-aletxua: «Esaidazu, maite» itz-lauzko olerti laburra. Ni enaz olerkari eta enaz iñoz be olertian benetan iñardun. Baña eder-zalea naz eta erti guztiak atsegin dodaz eder-zaletasun orren bidez, margo ertia batez-be, neu «amateur» margolaria bait-naz. Orregaitik dakit margozten margoztuz ikasten dala eta idazten idatziz ikasten da, olerkiak neurtzen olerki-gintzan jardunez» diñozu zuk len aitatu doten aurkez jardunan. Itz orrein eragin-indarrez ara ni emen «amateur» olertilari be biurtuta! Zeuk ikusi nire lana argitalgarria dan ala ez.

Beste laukingietan Grimm anayen ipuin baten euzkeralpena bialtzen dotzut KARMEL'eko orrialdeetan argitaratu al ba-lei-teke.

Idaz-lantxu bi orren azkenean irakurten dan izenordea margo-lanetan ipintzen dodana da.

Zeure agindupeko Zintzoaren eskerra ta agurrik biotzekoenak artu egizuz.

A. Pérez

Donostia, 59-VIII-9
Onaindia'tar Yagoba Apaiza
Larrea

Ene adiskide langillea:

Zurekin aspaldi ontan zorretan nago. Zure OLERTI bi aldiz jasoa det, baña eztizut ezertxo ere erantzun, ez lanik bialdu ere. Izan ere, gure zorioneko MÉTODO ori dala-ta, emen naukate leporaño eginda. Beti irarkola-zai, eta gaur bukatuko, biar bukatuko, ez dute ezer aurreratzen. Goazen neurri ontan, datorren urtean ere ez degu amaitzen. Bitartean, ezertarako ez nago, ta beste milla lan eder egin ditzakeguna, emen gaude lotuta.

Zure aldizkari ori, etzan, nere ustez, bearrekoa, olerkiak leku izan zezaten. Len ere, bizi eskasa daramate gure aldizkariak, ta aietan leku arki zezaketen gure olerkiak. Baña zure aldizkari onek, aurrera jarraitzen ba-du, mesede aundia egingo digu.

Euzko-Gogoa'k eztu emen sartzeko baimenik, eta ango lanak alperrik zaizkigu gure errietarako. Esan nion Zaitegi'ri: zure aldizkari ori ondo ta eragozpenik gabe joatekotan, Euzko-Gogoa zure ortan sartu bear litzakela. Ari damaioten laguntza, zureari eman dezaioleta, ta orrela bi aldizkari aulagoak izan bearrean, aldizkari mardul bat aterako genduke. EGAN'ek ere beste zirikatzalle bat bear du, bakarrik geldituta lo ar ez dezaigun.

Orregatik, zure aldizkari ori, euskal-lan guzietarako zabalduko nuke nik, ta orrela egin dezula deritzat, zure lenengo ale ori ikusita. Berriro, laster biltzekoak gerala, esan dit Labaien'ek. Ederki etorriko da beste batzartxoa, gure asmoak geiago mugatu, ta aurrera egin dezagun.

Eztizut lanik bialtzen, ta barka. Nere Euskal-Ikastaro orren luzapenak burua ta eskua elbarritzen dizkit. Zerbait egin al izango det, Jainkoa lagun. Baña oraindik esku utsik nazu.

Agur, Aita baikor ori. Zure lanak ez dezatela ostoporik izan. Bejondeizula zure lanagatik! Urrenarte ta Jauna gurekin

Etxaniz'tar Nemesio

Lazkano, Agorrak 28

Aita agurgarria,

Bialdu mesedez guri ere OLERTI aldizkari berria. Aita Goiriak esanda Karmel zabaltzen saia nintzan, banan ezin, bizkaieraz dala ta ez dute artu nai. Olerti uste det errexago zabalduko nukela. Arpidedunak billatzeko ere beste ale batzuk bialtzen badizkidazu? Gero erantzungo billatu ditudan edo ez.

Ta gureztat bialduko dezun OLERTIA nola ordaintzea nai dezu? Kontrareembolsoz? Zuk, esan.

Ordizian bertsolari-txapelketa egin degu ta bertsoak artu ere bai ta nai izan ezker bialduko dizkizut batzuk argitaratzeko, gertatuaren berrilaburra ere emanaz.

Agur Aita on ori ta berriz arte.

Baztarrika'tar Isidor

Irun, 1959. Agorra 29

Jaun Zuzendari agurgarria:

Nere begi aurrera ez etorri arren, oraindik beintzat, belarrietan iritxi zait. Zure «Olerti» bikaiñaren ospea. Asko poztu naizela zer esanik ez dago. Beste aldizkari berria Euskal-errian ikusi ta euskalzale danok bultzada bizi-emate, aize ozkirri zuzpergarri bat naibatzen degu gure biotzetan. Bizi gera, beraz ekin dezagun aspertu gabe. Zu bide ortan zaude; nere zorion bero-beroenak artu itzazu. Bidaldu ezazkidazu orain arte agiri diranak «contra reembolso de 40 ptz.; orrela ordainduko dizut urteko arpidea. Nere lan kankarrak artuko dituzunean nago. Mi-lla esker aurretik. Agur ta zorionak berriz

Olabeaga'tar Iñazio

Veruela, 31-VII-59

Agur, Onaindia A.: Jaso det zure bigarren eskutitza. Lenengoa aztuta neukan. Diozun bezela, biali zaidazu errenbolsoz «Olerti»-rako arpide osoa, ots, urte guzikoa.

Nere lanean, Jaunari eskerrak, aurrera noa. Lenengo eskualdia, A'tik Z'raño, amabost egun barru amaituko det. Bigarreanean, utsuneak bete ta lan osoa orraztu, txukundu bearko det.

Argitaratzeko dirua nundik eskuratu? *Euskaltzale* aberatsen bat ezagutzen al dezu? Nere Iztegia (erdel-euskera) ESPA-SA'ren antzeko tomo bat izango da.

Agur, eta otoi nire alde!

Muxika'tar Pl.

Logroño, 1959-X-I
Onaindia'tar Aitari
Larrea'n

Nere adiskide maite ori: Etzaitut beñere nere begiz jo; ala ere adiskideen artean dut aspalditik aita Onaindia. Lan ederra egin duzu gure euskera maitearen alde ta orregatik, begiz jo ezta ere, ezagutzen dut, zerbaitxo beintzat, gure aita Onaindia

Aurtengo udan Eilbao'tik igarotzean, eman zidaten OLERTÍ'ren lenbiziko zenbakia eta, ura nere poza. Aldizkari polita ta ederra ta egokia bene benetan. Gure euskera maitea biziko da ziur, zu bezelako langille asko arkitzen baditugu. Ta izango dira geroago ta geiago orrelako langille, Jainkoak lagun. Gure erriko lurralde guzietan lorezen ari dira langille bikain eta egiazko euskaltzaletasunaz betebeteak Aurrera beti danok, euskera maiteari gure arnas guzia ematearren. Geurok, euskaldunak alegia, pizkortu bear dugu gure itzkuntza. Eta zutik jarriko da

laster; obeto esan, zutik dago orain eta eztüte inoiz ere zerral-
doan ikusiko bere etsaiak. Naiz ta lei bizi biziaz nai arren. Orra
or mundu zabalean euskeraren adiskide guziak, beraren alde
jokatu naiez. Orra or olerkariak eta idazleak gure maitagarria
edertu nairik. Bere eberkera isrraeldarrak piztu arazi baldin
badute, Zergatik guk ez gure euskera? Bijoaz bazterrera ukakor
eta illunzale guziak. Euskera maitea plazara irten da eta ezta
andik berriz joango. Gai guziak erabiltzen dituzte euskal idaz-
leak oraingo ontan eta, ala izanik, indar berria artuko du eus-
kerak geroago ta geiago.

Euskerak iraun dezan eta zabaldu dedin ere, al baldin bada,
lanik aundiena egingo al du gerokoan zure O'LERTI aldizkari
maite orrek. Eta nere aldetik zerbait egiteko, arpidedun artu
nazazu gaurgero ta irtendako aleak bialdu zaizkidazu. Ordain-
tzeko era zerorrek esango didazu.

Al baldin bada ere, olerki edo lan bat edo bat bialduko di-
zut, noski, egun gutxi barru.

Bitartean ar zazu nere aldetik agur bero bero bat

Zerio'tar Paustin

Bilbao, 1959'ko Iraillaren 18'an

Aita Onaindia'ri

Larrea'ra

Agur, nire adiskide maite;

Atsegin aundiz irakurri nuen zure azkeneko idazkia. Ongi
dizun lez, bearrezko ditugu euskaltzaleon billeratxo ta alkar-
ikusteak, gure neke ta asmoetan alkarren berotasuna somatu
dezagun eta... Zoratu ez gaitezen. Euskalerrriak izan ditun gi-
zonik jakintsuen eta zurrenak baztertu ta... txolin-mukizu ba-
tzuk nai duten bidetik jotzeko ari etzaizkigu ba? Berrizaleasu-
na ongi deritzait, berrizale orrek zerbait mardul ta ganorako

sortzen ba'du, ez berrizale dan aldetik soil-soillik. Ba-dakit, berrizale agertze orrek garrantzi aundia du gaur, errialde ta arazo guzietan. Alabaña... ez dezagun burua gal!

Datorren igandeko billera orretara ez naiz joango. Ba-det emen zeregiña. Urrillaren 18'an, oster, Larrea'n izango nazu, Jainkoa lagun. Urrengo igandez egin ba'zenute, igaz bezela «kale» egin bearko nuen. Baña 18'an ongi datorkit. Ia ba, egun orretan, beste ekiñalditxo bat egiten degun!

«KARMEL» aldizkari politaren azken-zenbakia atzo jaso nuen. Txukun, mamitsu ta begiko dator, etorri be, ardura goxoz egiña. Ekin olaxe!... Ain zuzen, arpidedun batzuen ordain-dirua oraindik jasotzeko zaude, ezta? Urrengo Bilbo'ratzean, gogorazi eidazu, Kar mele neskati la orreri ots-egin dezaio gun. Onuzkero, lan ori burutua du-ta.

Agur, Aita Jagoba. Ondo ibilli Bedoña-alde tik. Zure berri atsegingarrien begira nagokizu, beti bezin adiskide

Xabier

Iruna, Irailla 5'gnean
Onaindia'tar Santiago Aitari
Larrea'n

Agur Aba maite ori.

Garaiz artua nizaizu VIII-31'gkoa. Baita OLERTI-bana-koak ere. Lenagokoak banatuak izan dira. Aba Yurre'ri eman nion berea. Au bego nere gain ala nola beste iru, zeinen-eta nik ordainduko arpidea. Ahala egingo dut ere ea azkartzen ditudan arpidedunak. Edo beintzat saldu ahal dizkizudan oro.

Damu naiz azken banako untan ez agerturik zerbait nerea, ezbeitut nai utsune utzi iñoizko batean. Xede unekin, urren-gorako sartzen dizut ondoko olerkia: DONIANETAN SU TA IKURMENAK. Begira ez den luzegi. Beti ere zuk apain, gura bezala. Orain ta betikotz ekizuke nere idazlanak orraztatu ditza-

kezula, iritziaren arabera. Berriarekin ain sarri agertuko zinez-telakoan ez nengoen-eta, ez-axolak artua nintzen. Gañera lantsu naiz egona aspaldion.

Journées pédagogiques, Bayona'n. Sekulako gauz betea da jalgi. Gaur astirik ez dut zuri albiste xehia emateko. Lengo illako 27, 28 ta 29 egunetan genituen. Erdutu-elia, mardula eiki, aintoz eta zeintoz. 150-200'n bat lagun biltzen ginen Musée Basque'ko aretoan; bealdeko salan asi ziren lenbizi, goaldeko areto nagusian, gero..,

Alaz ere aurreztiko berrikuntz jur batez gozazi nai zaitut. Datorren Urrillaz geroztik euskera-irakaspena asiko da erriek naiko duten eskoletan. Irakaspen au oldezko izango gurasoen aldetik. Au ta be, ez da izanen gauz bat —majoritaire— deitzen oi dugun etarik. Nai duenak ikasiko, dela geiendi, dela gutiendi. Eskatuko duten guraso edo arduradunen aurrek euskeraren ikaspena artuko dute lehen-ikas-eskoletan, dela laique, dela privé. Euskel-irakaspide bakarra izanen da biontzat.

Una ikas-eralguntza. Bazkune bat izendatu dute, guztitariko ordezkari dauzkala. Unek «órgano» bat izanen du iru illerokoa, beronek euskera-ikasgaiak ekarriko dituela; gidari-itxurako izanen da, irakaslarientzat nola ikaslientzat ere. Irakaslieri saio-araukiak argiztuko dizkiezte, gei izanen beita euskeldun eta erdeldunentzat. Ikasian bakotxak saio-ingurti bat atxikiko du. Untaz gañera, eskola bakotxa «discs» et «tourneur de discs» batekin ornitua izanen da.

Unen abiatua zaindu-beharrez, bazkuneak iñarriko du ta noizik bein (iru ilabete guztietan-edo) azterketak egingo dira.

Ohargarri da benetan asmatua, noski geien jokutzen duna nola den gei irakasleri euskeldun eta erdeldunez ere. Ba ordean, ondorea ez da izanen berdin; euskeldun irakasliez eginen da geio.

Beti ere, eskola guztietan sartzeko aukera dutela euskoek (Euskeldun errikoak oraikotz) helmen aundikoa da.

Ez dakit zuetariko batek unen txostena edo albistea izanen duen artua. Ezetzean, neonek egin nezake zerbeit, zuen aldizkarientzat.

Agur eta agindu urrengoa arte

Jose Agerre

La Guayana, 1959, Ireilak 16

Onaindia'tar Santi Abari

Larrea'ra

Adiskide zintso: Gure arteko ixiltasuna urratu guraz emen nozu barrien-barri, basamurtuaren erdian, iru-lau lerro zeuri idazten neure berri ernanez.

Guayana aldean nago, piztiak baino ez dagozan basamurtu itzal baten, Brasil'go mugatik ur-xamar. El Tigre'n lana bukatu zitzaigunean etorri bainintzan ona eta emen nago, Aulesti'ar euskaldun iator bat lagun dodala, euskaldun batzuek emen dituzten lur-arloen arduradun. Emen ez baita ingurutan ere inor bizi. Urren dituguzanak lau orduko bidera Kavanayen deritzaion tokian, Buruinurdun mixiolari espaiñiarren etxea. Ona ez baitago bitzabalik ez ostantzeko biderik. Egontziz etorri gihan odei zabalak-zear. Cr udagoenean egin oi dun antzeko eguraldia egiten baitu urte guztian. Aldi ontan, egunik geienetan, euri zarrastada itzelak.

Emen nago ba, batzuetan pozkidaz, beste batzuetan goibel eta beti erriminaz. Aspaldion olerki pilotxua urratu baitiot neure gogo saminduari; gutun onegaz batera igorten ditizut idazlantxurik eta olerkitxu bat KARMELE'n argitara dagizuzan ahal dituzunean. Atsegin ez ba-zaizkizu ez argitaratu, eta argitarateko gai baldin ba-dira, *ezer kendu ez ipini bage argitara, arren*. Artu nuen zeuk bidali aldizkaria eta pozez irakurri ere. Egunen baten ordaindu bearko dizkizut. Bidali beti, aztu barik, nire sendikoeri be, nire ialetetxera.

Orain alditxua dala zeure anai Laurenti'ren idazkia izan nuen Peru'tik. Beste anai bat ere iatorra dozue emen Amerika-aldean, Larrakoetxea Aba; neure eritxiz euzkera ondoen idazten duenetarikoa egungo egunean. Noiz batuko ote gara euskaltzale guztiak, lekaide ta parkadun, geure Euskalerri maite-maitean!

Nun argitara ahal izanen ote nituzke *ondo*en neure olerkiak? Idazti dotore baten argitara gura nituke ba. Irurogeta sei dira gerturik ditudanek liburua osotzeko. Atzerrian nagon bitartean beste idazti bat be atonduko baitut, Urtzi lagun.

Andimak idatzi didanez gauza andiak egiteko asmuz zabiltzate ortik. Aunitz pozten bainaiz. Orko barriak entzun edo iakiten ditudanetan bularretik igesi bearrean izaten baitut biotza. Urte asko ezin iraun izango ditut erbeste otz ontan; or baitagoz gure toki eta egin-bearrak.

IRRINTZI'n irakurriko duzu Euskaltzaindiaren agindua dala-ta idatzi dudan idazlana. Zeure eritzia iakin nai nuke orretaz.

Gaba baita, arrorio-kurtzuluaren argi motelaz larregi ikusi ere ez baitut egiten, eltxo ankerrek odol-lapurretan dabilddaz eta agur beste baterarte, besarkada biotzekoenaz.

Beti zeure.

Aurraitz

Bilbao, 1959'gko. Irallak 23

«KARMEL»en Zuzendari agurgarriari.

Or doakizu lantxu bat edo beste zuen aldizkingi ortan argitaltzeko gai ba'dira-edo.

Atsegiñez irakurten dot «KARMEL». Taju-neurriak egoikiak dauz. Ingi ona ta argi irarria. Gayak be eztira edozelakoak. Bapo! Xegi ortan.

Azkenengo zenbakian azaltzen dozuen asmoa, «Olerti» al-dizkariatzaazkoa, nere eibartar adiskide batek esango leuken lez, «tremendua» ta «formidabilia» dozu.

Zorionak zueri ta zorionak geuri be. Izpar zorionekoa baita danontzat. Arren, artu nagizube zuen arpide lerroetan. Eskerrikasko.

Ta gaurkoz... kitu! Agurterdi.
Zuena dozube

«Abeletxe»

Bilbo'n 1959'gko Iraila'ren 30'gna.
Aita Onaindia agurgarriari
Zornotza'n

Ene jaun ori, agur:

«Olerti» aldizkari politaren zenbaki biak artu ditut, eta baita zeuk lengoan bidalduriko oartxoak be. Nik Peña adiskidearekin itz egin neban leenengo zenbakia artu ta laster, eta nire izena emon neutson arpidetu nengiala esanaz. Gure adiskide begiko orreri aitzu egin yako itxuraz. Dana-dala arpideduntzat artu nagizu zerorrek.

Gure aberri ostikopetua eta beronen izkuntza bardinbakoa gareanon artean zuzpertu bearko ditugu alegiñez

Gaurkoz beste barik, Jesus'en Ama matagarriaren oiñetan gelditzen nayatzu.

Arrutza'tar Mikel

Londres'tik, 1959'ngo Urrillaren 2'n.
Aita Onaindia'ri
Amorebieta-Etxano'n

Nere lagun ondo artua:

Erbestetik etxeratu naizenian illebira, aurkitu naiz zure kartiakin. Milla esker argaitik, eta detzut beste ainbeste zor, argitara zuk ataraziakin nere bertsolari lan apal batzuk,

Ez naiz asarre, ez orixe, zure maixu-ikutuegaitik nere lanetan. Larregi naiz konturatzen nere laburtasunak zenbateraño diran. Baña nere lanbiarrak dira Eibar'ko euskera biar bada motzian, ez dakiralako besterik gurasuengandikua baño, geure Eibar'ko euskera gaizki-ikasixa zerbait jaso guran. Eta nere eritxian, nere lantxuak biar izan laikien ikutu edo oneratzia, biar'ko leuke izan, Eibar'ko izkera orrek daben bere gramatikan, au ba beste erozeiñek lako guztizkua dau.

Amen detzut beste txortatxo bat. Aintzakotzat badozu, zeurre eskuetan lagatzen dot nai dozuna eiteko beragaz.

Zarra naiz eta belu ekiña asko aurreratzeko ari onetan. Baña, zelan zeregin onek duakotzat dituran —denbora pasagarri letz— nai dituanak artu eta nai ez dituanak itxi. Bardin desta. Baita iñok nai balitu aldatu bere araura, bada bere kontura.

«OLERTI» diñozun aldizkaria, oso txalogarria aurkitzen dot, eta nere ustez, aukerakua euskal kulturari bultza eiteko. Agur ba, eta parkatu naizen aizkidiari.

Toribio Etxebarria

Mexiko, 1959'ngo. Urrilak 16
Onaindia'tar I. iauna
Zornotza'n

Adizkide maite, agur.

Bart ezagutu neban Aurtenetxe iauna, gure etxera etorri zan iluntzean eta bai arkitu be, Agirre Aita lekaidea, doinulari amorratua eta an ziran biok abeslari. Sartu dogu ba, gure artean eta ez iako errez izango iges egiterik. Atzo arte ez neban ba ezagutu, eta berangana ioateko asmoak izan ba nebazan be, naikoa lan izango ebalu bere ol barrian eta ez nintzan ausartu lenago ioaten.

Universidadean alkarrekin egona garala iakiteak asko poztu nau, au tamala baina, izen utsakin ezin gogora ekarri zure iru-

dia; ganorabako fisonomista nozu. Galdetu neutsan gure lagun oni ea zure argazkirik eban. Ez eukan eta or nun nabilen nere garun apurrok urtutzen ezin asmauta.

Eskerrik asko benetan bialdu daustazuzan idazti polit orreik dirala-eta. Ba-genkigun Karmel, Olerti eta beste lan politen egilea zein zan, batez be, emen daukagun Milla olerki orreina. Zorionak ba. Azkue iaunaren iztegia eta zure Milla olerki orreik dodaz maiteen, eta ez neukez galdu nai, ezer galdu biar ba'neuke iñoiz.

Emen agertzen dan Euzko-deia, ez da ezer askorik euzkera sailean, Usturre, Azparren eta neu; ni besteok baino gitxiago, izaten gara idazle, eta aldizkari onek, eunetik amarra besterik ez dau euzkeraz: emen diran erdeldunen artean gure izaera zabaldu biar dala-eta, egileak ez dau nai geiagorik. Alan eta be, bialduko dautzut, bertan agertzen dan apurra ontzat ba'deritzozu, eta bera artzetik okerrik izango ez ba'leuzu. Bitartean ara nere galdera: Zenbat litzake erbestarako zure aldizkari bi orrein saneurria? Ba-dira ba emen arpidetze ori nai dabenak,

Atzen egun oneitan, Iñurritza'ren Abendats ori eldu iaku, eta emen gabiltz astoratuta bera irakurten, ez Unamuno narrugorritu dauskulako, euzko gogo dabilalako argi-argi baino. Ez dautsaguz parkatu baina, Gipuzkoa lotsagarri galdu eta guda-keta eta iaurlaritzari ezarri dautsazan bigarren abizen bakar orreik. Idazti zoragarria da baina.

Zure aldizkariok ezagunak doguz emen, eskerrak San Martin adizkide maiteari, eta atzenengo lerroraino irakurri eta aztertutak izaten dira gure artean. Melo'renak izaten dira guretzat ikutugarrienak, erbestertutak gara ba gu be. Ikusten dogu baita, aurrentzako ipuinak argitaltzen dozuezala, guk be egin dogu emen gure alegintxoak, eta danok toki baterako izango dira-netik, ea orri be garrantzi apur bat emoten iakon. Dante'rena, antzerkiak eta olerkiak be politak dira Karmel'en; Olerti osteragure Parnaso'rako bidea.

Eibar'en dozue egun oneitan, ez dakit ziur noiz, ez dauste ba zein egun izango dan esan, euzkal bilgura bat. An daukaguzan gazteak, inoizko aldietan izan diranak baino benetalaria-goak doguz. Ez da ba inoiz izan nere errian orrenbeste olerkari, idazle edo euzkeltzale. Iai politak izango al dira, biotz orreik sututzeko eta Euzkera maitearen obarako. An izango zara zu be, eta pozik irakurriko doguz beretzat argitaltzeko izango zarana.

Emen gabiz orain, euzkeraren egunerako iaiak gertatzen, ausarti ba'gabiltz be, Menditarrak antzerkia gertatutzen ari gara. Gure adizkide barri onek be bart emon dausku baietza, bere laguntasuna eskeintzen. Pepita Enbil'ek be orretan laguntzen dausku, bere euzkel abesti politekin, eta iai bete-beteak lortzen doguz.

Ba'litzake neu etxeratzea datorren udaberriko, emengo euzkel lokarriak ondo lotuta lagata baina, gero ortik zabalkundeak egin eta laguntasunak lortzeko.

Or, orain, zurearen zain, aldizkarion arpidetze orretzaz idatzi egidazu len-bai-len. Bitartean ar egizu nere besarkada es-tuena,

Beiztegi'tar Ion

Buenos Aires, Urrilla'ren 17'n 1959
(Urrutiko Ego-Amerika ontatik)
Onaindia Aita agurgarria'ri
Zornotza'n

Agur:

«Olerti» euzkal ortzian beste izar berri bat. Amaren magal bigunean, bere ezpañetatik itz banaka-banaka ikasi genduanontzat eta baita ere neke aundiz ikasi duten euzkeldun-berrientzat, leku berarizko bat izango dau «Olerti» aldizkariak emendik aurrera.

Gure erria bertsolari ta olerkari dala nork ez daki? Berezko etorkizun orri toki aukerakoa eskeintzea guztiz buruzkoa da. Nortzuk bertsolari ta olerkariak baño obeak gure izkera eta onen bitartez gure izakera mutiltzeko, zabaltzeko eta txukuntzeko?

Barkatu, ez dakit zaarra naizelako-edo, aspalditxo ontatik olako «konseju» emateko joera sartu zait. Orrenbeste neke egin bear dezun ezkerro Zuzendari bezela, orri bakoitzaren oñean ipiñi itz zail, berri edo gutxi erabiltzen diranak al-ba dezu.

Jakiñean egon bear gera euzkaldunok euzkera askoz gutxia-go dakigula erdera baño, zoritxarrez; len esaten dedan *arrazoia-gatik* nekez irakurtzen dana errez uzten da. Geienetan irakurgai laburrak askoz atsegiñago irakurtzen dira olako aldizkarietan.

Kerexeta Aba'ren «Orbelak» irakurri ditut egun abetan, ni bezelako irakurleentzat guztiz ederki.

Jarrai ba, Aita Onaindia, ekin diozun bide ortatik, beste bide askoren artean onenetakoa gure izakerari buruz. Zure asmo onen inguruan itxaropen anaikorra zabaltzen asi da, danok dakigu gure gauza oni buruz zure arretan berri, batez ere ez dakienentzat or dago beti-betiko zutik «Milla olerki eder» noiz-nai gure gogoa alaitzeko batere nekerik gabe.

Amaituaz dijuakizu nere agurra urrengo zenbakian zai, gelditzen dan onen aldetik

Arregi'tar Errupin

Oarra.—Iruxo'tar Ander Mirena, nere lagun jakindunaren bitartez, iritxi zait «Olerti» aldizkaria, ta esan nion arpidedun artean nere izena ere ezartzeko.

Eibar'n, Urrillaren 28'an. 1959

Agur, Aita Santi:

Jaso dut OLERTI txorta bat ta baita zabaltzen asi be. Zenbaki onetan uts egin dizut. Emengo Euskeltzaleen Biltzarrak dirala ta naikoa buru auste dut nere gain ta ezta erreza guzietara eltzea; toki guzietan Jaungoikoa bakarrik egoten omen da.

OLERTI, beti bezela txukun dator, eta alperrik txolarte gabe ibilli eskuetan artu aldi bat egin gabe ezin natzaizu egon, ain eztikorrak dira olerki gai oiek. Zure itzaurre jakingarria irakurri ondoren, sartu naiz orririk-orri, erlea lorarik-lora ezti billa bezela; lenbizikoa baintzat ederra, gure Bordari jatorrari esker —astrakto antzerako olerki oiek geroago ta atsegingarriago ditut, jakiña, ez guztiz astraktoak, lausotasun apurtxo bat bakarrik duenak baizik—; zuk, Mugarra mendiari eskeintzen diozuna ere, ederki dago; ta baita Ayaldena ere. Asko geiago ez dut irakurri bañan beste ezti xurkatu bat egiteko gogoz nago.

Emen dituzu urrengo OLERTI'rako beste lantxo batzuek ere, ni naizela uste duzun onenak. Naiago nuke neuk ere olerkari banitz, gogoz baintzat geroago ta urrago naukazute, izan ere ain biotz-utsak arkitzen ditut OLERTI'ko lanak.

Zalantza gabe, emen izango zaitugu Biltzarretan eta ordurarte agurtzen zaitut biotzez.

J. San Martin

Bilbon, 1959. Urriaren 29'an.

Jauna:

Gaur jaso dut etxean Olertiren irugarren lumeroa. Bertan ikusi dut Bedoñan eman nizun erdal poematxuaren itzulpena: hobeki esanda: eztut ikusi zuk egindako itzulpen berri bat baizik. Horregatik oso hasarratuta nago Zurekin nire izena imini duzulako itzulpen horren azpian. Zure karta hartu nuenean,

(Olerti errebistaren publikazioa azaltzen zuena), nire laguntza txikia eskeindu nizun; poeten artean prestutasuna egon behar, pentsatu nuen, baina baietz dirudi. Honela, Olertirik ez bialdu niri. Hiru lehenbiziko lumeroen balioa nire etxean kobra zenezake. Nire lanik eztizut aurrerantzean bialduko. Jainkoak salba dedilla Euskal erria!

Agur, eta inoiz arte.

G. Aresti

Zarautz, Urrilla'k 30. 1959'garrena
Aita Onaindia'ri
Zornotza'ra

Jaun agurgarria:

Zuzen artzen ditut bialtzen dizkidatzun «Olerti'ren» ale-
txoak.

Zorionak zuri ain lan txalogarria daramazulako.

Emen dijoazkitzu berrogei peseta karta barruan. «Reembol-
so» bidez ordaindu bear zalakoan nengon.

Oraintxe ari naiz ni ere beste liburutxo bat gizontzen; sor-
tzen ditudan bertso berri guziak «Itxaropena»-ra eramaten di-
tut, an pillatu ditzaten.

Ea danon artean gorako on bat ematen diogun gure izkuntz
maiteari. Premian dago gaxoa.

Zure ben benetako serbitzari dan,

Eizmendi'tar Iñaki

Bilbao, 1959'gko. Abenduak, 29
Aita Onaindia'ri
Larrea'ra

Ene adiskide begikoa:

Urte zarrari agur on bat egin ta barria mamitsu izan dagizula opa dautzut; beno, mamitsu izan dagigula danok arlo guztietan, baña batez be euskal-arloan.

Milla esker nere ipuintxu ori, garaiz ta ain polito argitaldu daustazulako zure zuzentzapean dogun OLERTI aldizkari yayo ortan.

Ikusi daroatenez ba dot oraintxe adiskide on ta begikoa. Esker ugariak barriz be.

Aizu: Euskal-irratsayoa egitekotan edo ete zabiltzaten entzun dot. Egia?

Gu be emen ibiliak gara ortaz zerbait egin nairik, Bizkai-Aurrezki Kutxa'ren babespean. Ortarako, euskal-irratsayoa zer izan daiteken azalduteko, ordu erdiko egotsaldia egin gendun, ta «cinta magnetofonicaz» artu.

Oso entzungarri dala diñoe aitu dabienak. Erderaz be ez ei da egin alako egotsaldi dotorerik. Baña... zorioneko baña!, goralmenak izan dauzan arren koxkatxoren bat jarriko ete dautsoenekoa daukat, ta ez agindarien aldetik; eurak egin ez ta besteak egiteak min emoten dautsenen aldetik baño.

Or eskurik-esku dabillan «cinta» ori barriz neureganduten dodanean, igande goiz baten yuango nazu orra zuek aitu ondoren zuen eretxia yasoteko.

«Cinta» ortan izldndu geban alkarrizketa bat bialtzen dautzut KARMEL'en argitaltzeko gai ba da-edo

Beste bat arte

Abeletxe

Azkoitia'tik 1959'gn. Azaroak 16

Aita Onaindia jauna

Ene Aita maitea:

Poz aundiakin artu ditut, beorren eskutitza eta Olerti'ren iru zenbaki. Eskarrikasko ta G. P. etik bealduko dizkiot, zortzi ogerleko.

Larrea'ko Lekaretxe ori, ezaguna det. Gure gudan, Morse ikasten aste batzuek igaro nituan bertan.

Atxilotu ninbenian, Gasteiz'ko Karmelo'n, gure olerkaririk onenetakoa zan Lauaxeta zana egondako gelan, zazpi illabete egin nituan. Beraz, ixexixe karmeldarra nauzu.

Euskeraz, idatzi det pixka-bat; naiz ta, askotan, neure izkuntzan erderazko yokera eman, eta, erderaz idazterakoan ostea, euskerarena. Prantziskatarren Goiz-Argi aldizkaritxoan, txorilari txiki bat argitaratu zidaten, Etxeberria'tar Matxin'en izenakin; beste lantxo bat ere bialdua det, baña... argi ori, illundua ote dan beldur naiz.

Agur ba Aita maitea, eta eskuetan darabilkiten Olerti au, oso atsegin zait. Zorionak.

Martin Itziar

Oñate, 1959, Abenduaren 11'an

Onaindia'tar Jakoba

Zornotzan

Ba-dakizu, noski, nola nabillen aspalditxotik Euskal Literaturaren Kondaira bat prestatzen. Ain zuzen, oraintxe nabil garbitan jartzen nere lan au. Eta duda batzuek zuri galdetu bearrean arkitzen naiz. Zure Milla Olerkitan (223 or.) ikusten det bérri zeatz batzuk jartzen dituzula Bernard Gazteluzar-i buruz: 1614 urtean jayo zala eta 1701-an il. Nun jayo zan ere jartzen dezu: Ziburu-Bexinean, alegia. Ez Lafittek eta ez Vinsonek

ere eztakarte olako garbitasunik. Orregatik galdetu nai dizut ia nondik jaso dituzun berri auek edo zerorrek arkituak ote diran, nere lanean jartzeagatik. Gaiñera, erri ori Ziburu-Bexin, zein da? Nik ezagutzen det Ziburu erria, Doniane Lohitzunen sarreran dagoena: au bera al da adierazi nai dezuna? Bexin ori zer da? Parkatu zuri alamina ematen ibiltzea, baiña orrela ibilli bear izaten det, gauza askoren sustraia jakiteko. Eskerrik asko, ba, aurretik eta agindu

Villasante'tar Luis A.

Tolosa, 1959-XII-14
Yakoba Onaindia aita
Larrea.

Yaun agurgarri: Bizpairu itz nai nitizuke zuzendu. «Olerti» aldizkaritxo eskuratu nai nuke. Numero bat bakarra —aurrenekoa— ain xuxen ere irakurri nuan. Atsegiña izan zitzaidan. Biali izkidazu arren aurtengo numero guziak, eta esan zenbat ordaindu bear dizudan. Geroan atera ditzakezen numeroak ere segi bialtzen.

«Karmel» ere ezagun dut. Orain berri arpidetuak gera konbentu ontakoak. Aldez atsegiñ zait eta aldez, ez. Nik Zenbait artikulua kendu egingo nituke. Naiz ta oso poliki idatzirik egon or dakarzkizuen ipui-kontu oiek, errebista zertxobait moteltzen dutenentz edo nago. Obekiago esan: ipui oiek ere sar daitezke, bere ortan utz, bañan beste artikuluetatik geixago sartu. Munduaren berri, alakoak zer esan duan, besteak zer egin duan iakitea erriari atsegiñ zaio oso. Ipuiak bañon areago bearba. Jolasak alako batean, artzen bide dute parte zure errebistan. Me-rezi luke beintzat, erriak ori ere maite baitu.

Eta formatoa? Etzait gustatzen. Illunegia da edo...! Begiak ere bear dute atsegiñ bezelako zerbait. Dena baso ematen du zuen errebistak. «Zeruko Argia» azken zenbakia bezelakoxea ez

ote daiteke atera zuen au? Arin antxa emanen lioke, naski. Errien berri, ez ote ditek eman? Erri xumeak idatziko ditizuen kartak ez ote ditezke argitaratu? Baionako «Gazte»-k egin oi duan antzera? Saltxa geixago eta gozoago litzaidake bide batez, olako zerbait emango bazenigute.

Ala ere... zer esanik eztago: ederra dezu errebista. Niretzat akats edo diran oiek, ezer gutxi dira. Gipuzkeraz ere bear genuke olakoxeren bat Propagandarik eginen balitz, erriak erosiko luke. Aixa erosi ere. Erriko balitz batez ere. Jainkoak nai leza! ! Txanpon batzu gora-bera, emazu gipuzkeraz. Eizkaian baño geiago saltzen aal dezu probintzi ontan! Ontaz ari naizen ezkerroz, arpidedunak zenbat diranentz jakin nai nuke. Esango ote zinidake?

Jarrai ortan. Buru zut, biotza eusko maitasunez pil-pil. Zure erantzuna artu nai izanen nuke. Besterik ezean, agur bero bat eta Jainko jaunak bedeika zaitzala.

Salbador Garmendia

Isasondo, 1959'go abendua'k 18

Aita Onaindia'ri

Larrea'ra

Ene Aita on eta euskaldun mardula:

Zuk ill onen 9'n idatzi zenidazun eskutitz jator eta trebeak, biotza poz pozez utzi dit.

Aipatzen dituzun bezela, zure orretan, Jainkoa, lagun urkoa, sendia, euskera... beti maite izan oi ditut eta, gaur edo biar, Gure Egilleak ordainduko nauen uste osoan nazu. Zuk, euskaldun jator bezela, zoriontzen nazu ta ez da gutxi gaurko egunean. Gazte asko ta askoentzat gauz on guzti oek txorakeri aundiak dira bañan, Jaungoikoari esker, ez zuretzat eta neretzat. Eskerrak, bada, Aita Onaindia, zure biotz zabaltasuna ta gizatasuna aiñ ederki agertu dezulako zorionak neri emanaz, urteak zear, egiñ detan lanagatik.

Jesus-Aurra, umil da txiro, jaiotzera dijoan egunetan gaude. Nik pake ta zoriona eskatuko dizkiot zuretzat eta euskaldun damentzat eta uste det neretzat ere ez duela ukatuko. Pakea bear bearrezkoa degun egunetan gaude. Ez pake luditarra, ez. Pake santua, pake zerukorra bear degu alkar maite izan gaitezen. Maitasunik gabe benetako pakerik egundo ez degu iritxiko.

Nere illobak biotzez eskertzen dizu egiten diozun agurra. Berak, ere, Eguerri zoriontsuak opa dizkitzu ta iñoiz bertso egokirik moldatuko baluke OLERTI'rako, poz aundiz bialduko ornen dizu.

Gaurkoz agur eta zure otoitzetan ez aztu nitzaz nik zure alde egingo det eta.

Sarasola'tar Joseba Imanol

Tolosa, 1959-XII-23
Onaindia Yakoba aita
Larrea.

Adixkide txintxo:

Artu ditut zuk bialitako «Olerti» lau numeroak. Eskerrik asko! Dirua sobre barruan bialduko dizut. Iritxiko ezpalitz, esan. Gerora agertuko dituzun numeroak ere biali izkidazu, mesedez.

Atzo santomasak Donostia-n da, an giñan euskal teatroa ikusten. Iru aldiz eman zuten da gendea erruz bildu zan ikustera. Zazpitan giñauden eta billeterik ezkenun arkittu. Ba-du oraindio gure erriak euskera gosea. Ala obe! Teatroa ederki egin zuten da esku zartako ugari entzun zuten antzelariak.

Jarrai zazu olaxen lanean eta Jainko aundiak ordainduko dizu, zure erriak ere bai. Jesus Aurtxoak bedeika zaitzala eta Urte berri on igaro dezazula!

Salbador Garmendia

Aita Onaindia eskualzale bihotz zabalekoa: Oso pollita da argitaratzen duzun OLERTI hori: agian Eskuara eta Eskual-
arima goiti hegaldaraziko dituela.

Eskerrak ere ZERU-MENDITIK-eri agur bero bat egin baitiozu. Ikusten duzu neretzat olerkia etzaitala bizitzearen pin-
darra (txinparta) baizik. Ezin dezaket nik, zuk bezala, Horati-
ren odarik egin: uste dut, karmeldarra banintz, San Juan Ku-
rutze bezalatsu berma nintzakela Jainko Maitearekilako hitz-
aldiak aipatzen eta bihotz barruko itsas-mendiez kanta egiten.

Lan egin bethi eta eskual-hitza helaraz guziez goragoko Hitz
hartaraino.

Urthe on bihotzetik

Xabier Iratzeder

Iruña, 1960. Urtarrillaren 6'gnean.

Onaindia'tar Santiago Aitari

Larrea'n

Agur, ene adiskide gurgarri.

Zure eskutitz 4'gkoa gaur artu dut bai eta atsegiñez ira-
kurri.

Aita Bera zanaren bizialdi-berrixka bialiko dizut, ahal du-
kedan funtsekoena naiz ez zure. Baita bialiko ere olerki'n bat
edo bat urrengo zenbakirako.

Atzo egorri nizun dirua uste dut eskuratua duzula.

Beste arpide bat bildu dizut —bosgarrena—. Bañan onena
zeorrek jaso bear duzu dirua. Edo beintzat areri galdetu sari-
agiria beroni bialdu bear diozunez ala neri. Nere etxera etor-
tzen beita maiz, agian erosoago duke neri uztea dirua ezik ez
dirua zuri bialdu. Beti ere agiri au aren izenaz jar zazu baita
areri xuxen egorri. Onen izena da: Sr. D. José María Satrús-
tegui — Coadjutor.—VALCARLOS.

Bialtzen dizkidazun gañerakoak neoni ere egortzen ari naiz. Badakit batzuek bederik ederresten dutela. Emendik guti bu-ruan idatziko diet edo asiko natzaie zirika ea igitzen diren ar- pide-aldera.

Opa berekin agurtzen zaitut (geurtzerako) aurtengorako ta Jaungoikoak oro zain gaitzak.

Besarkada estu batelón gelditzen natzaizu

Agerre'tar Jose

Paris'en 1960'ko ilbeltzaren 7'n.

«KARMEL»

Amorebieta-Zornoza (Bizkaya)

Agur jaunak

Urte berri ontarako zorion aundienak opa dizkizuegularik, eskari bateaz gatozkizue gaur.

Auxe: Ongi baderitzaizue, zuen aldizkari ortan, urrengoan azaltzen dizueguna jartzea:

EUSKAL-KULTURAREN ALDE

«Ipui-Sariketa»

Igazko Euskeraren Eguna'n, lotazillaren 3'garrenean, sari- keta ontarako epea amaitu zan.

Atsegiñez beterik, Euskalerrri'ko alde guztietatik ipuiak erruz eldu dirala jakinerazten dugu; bai ta atzerrietatik ere.

Beren lanak igorri dituztenganako esker onez beteta gau- dela adierazi nai dugu, eta bide batez, aiduruz, guziaz gure zo- rion-agur kartsuenak biali ere, ipui geyen-geyenak baitziran po- litak.

Epaikariak guztiak aztertzen ari dira eta ez zaie oso gauza erreza izango, bear dan bezela muetaka jartzea. Dana dala,

epaia laister amaiturik izango dalakoan gaude, eta orduan, be-
realaxe, ezaguneraziko da, bai ta bere arauz sariak banatu ere.

Eskerrik askorekin aurretik, onar ezaiguzute, arren, gure
adei onezko agur beroena

Urrestarazu'tar A.
Idazkaria

Donostia, 60-1-11
Onaindia'tar Xanti Aba
Larrea

Agur, adiskide:

Zure Urtebarri-agurra jaso det. Orobat zeuri ere opa dizut.
Aspaldi ontan eztegu alkar ikusi, ta gure lana etenda gelditu
da. Gañera gure San Martin ta bere lagunak, eztakit zer dara-
billen buruan Eibar ortan.

JABIERTXO, euskal-eskoletako irakur-liburua, ba-dakizu
nola ta nori esker argitaltzeko bidean degun. Pozik egon beas
gendukela guztiok, uste det nik; baña eztira uste ortan Eibar'ko
lagunok.

Or asi ziran lenbizi, liburu ortan EUZKADI-itza azaltzen
zala, ta berak orren kontra egingo zutela. Kendu zitzaion itz
ori, ta orain, beste lelo batekin datoz onera, esanaz: liburu ori
baimen guztiekin argitaldu bear zitekeala. Gaur bertan San
Martin'i idazten diot, zer ote dabiltzan galdezka.

Garai ederrean datoz istillu oiek sortzen gure liburu xalo
orri. Bideak al dan bezela ta nolanai zabaldu bear dizkiogu
gure liburuei, ta ez gure iritzi estuei poz emateko bidez ba-
karrik.

Olerkiak eskatzen dizkidazu, ta pozik bialduko nizkitzuke
erako banengo; baña nere Método zorioneko orrek umorea ta
astia jaten dit, eta enago olerkietarako. Noizbait bukatuko al-
degu lan ori, ta umorea berritzen asmatuko al-det gero!

Nolanai, zerbait alkar berotzeko, alkarrekin egon bearrean gera; ta Donostia'ra zatozenez, agertu zaite gurera; Amara'tik bertan dezu-ta.

Bitartean, jarrai zure lan jator orretan, eta Urtebarriak zabaldu deigula gure lanetarako bidea!

Agur, ba, biotz-biotzez; eta urrenarte zaude Jaunarekin

Etxaniz'tar Nemesio

Derio'n, urtarrillak 11, 1960

Onaindia Aitari

Larra'ra

Ene adiskide maite: Agur bero bat lenen, ta lerrotxo batzuk gero, geure artu-emonak apur bat argitzeko.

Emen aurkitu nituan 24 «Karmel». Ederto dago au. Baiña batzuk kok-egin dabe 25 laurleko dala jakitean. 23 gara gelditu gareanak, baiña bada-ezpadan beti bialdu 24, ba baten bat beti dator ondo edozeiñeri itxiteko.

Beste batzuk «Karmel» itxi dabe «Olerti» artzeko; au ez dago ain txarto. Ona emen zenbat «Olerti» bialdu bear daustazan. Gañera bialdu bear daustaz 3 zenbaki igazko laugarren iyekikaz, ta beste 3 zenbaki 3^o iyekia lakoak.

Onak bialtzean, mesedez, bialdu eistazuz «Karmel»-en liburu barri saillean aipatzen dabezan orritxüak, au da, «Gure Meza». Bialdu bakotxerik bana, ba uste dot artuko doguzala.

Lengoan egun ederra izan genduan, ta berorrekina igaro gendun ordua guztiz gozoa izan yakun.

Beste barik, agur! Urrengo batean geiago ta obeto, Jauna lagun.

Garitaonandia'tar Gotzon

Larrean

Agur.

Artu dut zure eskutitza eta uste eznuena bezala atsegiñago gertatu dakit. Eta nora zoaz, adiskide maitea, alako balioko liburua gehiokorik gabe bialduz? Esker mila esanez utzibeharko!

Oso ongi zait «01erti»ren bi urte sariak ala eginik. Ikusi banuen ta ikusi, begia bete zidan agerkari orrek eta ez nuen dudarik izan arpidedun egitean. Oso txukun eta egokia zait eta astapenetik ekartzen asi zaigun su-gar ori bizi-bizia atxikitzen jarrai dezala.

Bialduko daizkizut eldu den ilabetean «Luzaide» orri Zenbait. Orai prestatzen ari gera beste zenbaki bat. Apez nausiakin biak argitaratzen dugu.

Nere goresmenik beroenak, Aita Santiago.

Zure serbitzari den

Satrustegui'tar Joxe Mari

Oña, 1960'ngo Ilbeltzaren 26'ean

Aita Santiago Onaindia'ri agur:

Bearbada, onezkero izango dezu gure asmoen berri. Ez ba-dezu ere, emen bertan bialtzen dizudan orriak jarriko zaitu jakiñaren gañean.

Zer derizkiozu? Nere iritzian, onekin obetotxo zaituko ditugu euskeraren muga guztiak. Auxe da nere aspaldiko leloa: Euskerari eutsi nai badiogu, euskeraren inguruko muga guztiak zaitu bear dirala. Inguruko esiaren puska bat irikita baldin badago, ez gero galdetu nundik sartu zaizkigun atsekabeak.

Aspaldi ontan etzan erriarentzat libururik ateratzen. Oso gutxi beintzat. Aldizkariak bai, zeozer bai. Libururik ez ordea, eta orregatik liburuak ateratzea nai genduke.

daukagu: diruarena. Oso merke utzi degu; liburu bakoitzak 140 orrialde eta iru duro bakarrik. Orregatik ez ditugu gastuak beteko, milla arpidedun edo suskritore izan artean. Bestela beti galtzen. Eta orrela ez dago liburu sorta ori ateratzerik. Orregatik orain arpidedunen billa ari gera. Zerori izan nai badezu ere...

Artarako mesedetxo bat eskatuko nizuke. Egiteko modurik badezu, mesede ederra egingo diguzu; ezin badezu, esan, eta ez gera orregatik zapuztuko. Auxe da nai gendukeana.

Zuek «OLERKI» ta «Karmel» ateratzen dituzute. Len esan bezela, gure AUSPUA ez dioa cien aurka. OLERKI erri erriarentzat ez dalako; ta KARMEK liburua ez dalako. Euskeraren aldeko lanetan, badago, bai, danentzat tokia.

Auxe nai genduke. Arpidedunik billatzeko orri oiek atera ditugu. Nai al zenduke orri oietako bat «OLERKI» guztietan atera, urrena azaltzen urrengo «01erki»-aren ale guztietan orri bana sartu danean? Nik uste, «OLERKI» artzen dutenen artean, asko izango dira AUSPOA ere artuko lutekenak. Eta ori bera egin nai bazenduke «KARMEK» aldizkarian, obe. Bañan ez det uste ain probetxugarria izango zanik.

Orra gure eskaria argi ta garbi. Orain zuk esan.

Beste gauza bat. Urrillan bisitatu nizunean, esan nizun izan bear zula Larrean norbait bertso-mordozkaren bat zuana. Azaldu al da nor dan ori?

Orduan ere galdetu nizun ia antzerkirik ote zenduten. Antzerki zarririk baldin badezute zuen liburutegian, esan guri, «listatxo» bat bialdu. Euskerazko gauza asko galdu da, eta orain lanak artu bear dira alen bat bazterren baten agertzen ote dan.

Agur, ta nai dezun arte. Zure adiskide:

Antonio Zavalá, S. J.

Motriku'n 1960'ko Otsailla'ren 15'an,
Onaindia Aita
Larrea

Jaun agurgarri ta euzkaltzale jator; Agur t'erdi.

Zure azken-idazkia jaso nuen, baita pozik irakurri ere. Izan ere, ain ederki idazten dezu... bizkaitar euskera eder ta txukun ori... Egia esan, zure idaz-lanak oso guztizko atsegingarri zaizkit.

Ni, gure etxeko azken gaxoa izandu genunetik zearo makurturik arkitzen naiz, bañon aurrerantzean aleginduko naiz sarriago idazten.

Emen dijoakizu nere idaz-lantxo bat KARMEL'en argitaratzeko, ezer gutxi balio du, bañon, esan bezela, aurrerantzean zerbait lan egokiagoak egingo ditut.

OLERTI'rako ona emen beste lantxo bat. *AMA'REN ITZ GOXOAK*.

Gutxien uste dezun egunen batean or izango nazu. Bazkari ederra emango didazula? Ortan zalantzarik ez det, badakit bai, prailleak jateko kontu ortan oso onak dirala. Azkenengo aldiz, idazle-batzarrean or izandu giñanean ere, ez genuben edozelako bazkaria egin. Ura bazkari ederra! Ura alkartasun gozoa! Ura egun bikaiña! Noiz berriz?

Pello jauna «gripe» deritzaion gaxoarekin oeratua arkitzen da, bañon laister kaleratzeko asmoz.

Oraingoz besterik gabe bukatzera noa. Artu nere besarkadarik sutsuena, bañon ez Bergarakoa, baizik biotzetikoa. Agur.

Andonegi'tar Ziriako

Arantzazun Zezeillak 23
Aita Onaindiari
Larrara

Aita Onaindia: Bakea eta ez asarratu!

Ez asarratu mesedez, naizta Orretarako be motibo ugari izan nik. Zure eskutitz bi daukadaz neugaz, bien zorretan naiz. Eta oraindio geiago be bai: Gabonzarretan etxean izan nintzan, eta nere asmo ta uste guztiak onantzean zugaz egotekoak ziran. Baiña Urtebarri egunean emengo komedi (euskal komedi ta dantz) batzuk zireala ta nere anaia derrior eberdirako ekarri bear izan neban. Pena izan neban baiña, nire Muxikan goizean urten, Larran zugaz egon eta gaberako ona eltzeko asmoak aizeak eroan ebazan. Zer egingo dogu ba?

Zeure azkenengoan amaitzeko zera diñostazu: YAKIN eta OLERTI truk egitea. Esan bear deutsut dirua artu nebala, baiña truk egite ori, ez dakit egin neikean, edo argi esateko, ezara konturatu KARMEL'egaz truk egiten dogula? Ezin ba biekin. Zuk ezendun YAKIN zertan ordaindu igaz KARMEL'egaz truk egitekotan gelditu giñan da. Zer egin geinke?

Lenago esan zeunstan etxatzula YAKIN eldu, Eibar'era bialtzen dogula-ta, an izango zala-edo. Ori be ebai neban nik; zuri bialdutakoa bidean galdu zan, noski, seguru bainago nere eskuetatik pasa zala. Eibarrera zijoana kendu neban zuzenbidetik eta Larrakoagaz aldatu. Igazko urte guztian Eibarrera be bialdu neban zure izenekoa, urtearen lenengoan ordaindu eusteelako. Baiña geiagorik ez. An A. Goiriak artzen dau.

Orregatik ba, Eibarrera ez doa zure izenean. Lenago KARMEL'egaz truk egiten dogu. Ez daukazu, ba ezer ordaindu bearrrik, eta neuk bai zeuri.

Bialdu zenduzan 50 laurlekoekin zer egin neikean oraintxe eskatu bear deutsudan mesedearen ostean esango deutsut.

Epaikari billa nator. Bai. YAKIN'en ain zintzoki idazten duten ainbatek zerbait merezi dutela-ta, sari bi jartzea erabaki

dogu. Ez dira aundiak izango sari orrek, ezin baigeinke geiagorik gaurkoz, baiña bai zuzpergarri. Baiña sariak nori eman jakiteko ez gera geu maiburuko jarriko, gitxi gora-bera geu be idazleak geralarik. Orretarako kanpoko batzuegan pentsa dugu. Ara nortzuk: Lekuona zaarra, Zu, gure A Iturria, Mitxelena jauna eta Txillardegi. Azkenengo irurak baietza eman dute, Lekuonari oraintxe idatzi deusat eta zure baietzaren billa nator karta onekin. Norma auxek bete bear dira: sari Ortarako teoloji, filosofi ta kulturako lanak bakarrik balio dute. Alkarrizketakoak ez. Urtean sari bat izango da bitan zatitua; orregatik urteko iru ale edo zenbakietatik autatu bear da lanik onena. Euskera ta gaia, orra fijatu bear diran gauza biak, ze gai dabilizan eta gai orrek merezi duan euskera. Urteko lan guztietatik, ba, (urteko iru zenbakietan agertzen diran teoloji, filosofi ta kultura-jakintza-antze ataletako lanak) lau aukeratu bear ditu epailleak bata bestearen atzean beren balioz erreskadan. Gure gazteon epaikari izatea ukatuko ez diguzuna idatzi aurretik dakit, orregatik zure baietzaren zai nago.

Zuk bialdutako berrogeitamar laurleko oiek berriz itzultzen ez ibiltzeko, geitxoago balio duen liburu bat bialduko deusut zeure epaikari lana zelan-alan ordaintzeko. Bai al daukazu A. Omaetxebarriaren EUSKERA? Ezezkoan esan eta beingoan bialduko deusut. Edo beste emengo ezer edo...

Eta beste gauzatxo bat jakin gura neuke: Bizkai aldean salduko ete litzake Meza liburu bat? Errez egiña (errez mordoi-110); nere ustez Orixe'na ederto egon arren ez dago errez erriarentzat, eta gitxiago Bizkai'ko erriarentzat. Gipuzkerazkoa ia eginda daukagu, baiña ez dakit au saldu arte bestea atartzeko itxorain edo biek batera. 3.000 saldu bear doguz eun laurlekoetik bera prezioa jartzeko. Eta prezio merkea jartzea derriorrekoa deritxat.

Meza liburua esan deusut. Onelakoa izango da: Urteko Domeka guztiak eta gordetzeko jai egunak, apostoluen jaiak eta «dúplex I edo II»koak. Fundatzaille bat edo bi, Euskalerriko

santuak eta Santuen betikoa. «Duplex majus»'tik berako santu guztiak kanpora, Eleizak ere laister kendu egingo baidauz asko eta gaiñera gure errian jende geiena ez baidoa egunero meza entzuten. Orretarako ere ba-dauka naikoa Santuen betikoaz (Común de santos). Gero Mezaren egunerokoa, ta azkenean gaur bogan dauden paraliturjia funtzio ugari apaiz eta kristaueri laguntzeko. Auxe da egiten ari gareana. Eta amaituta daukagu paraliturjia orrek ez bestea. Orraztea, sarrerak-eta... atondu ta olako batzuk palta. Udazkenerako imprentan izango da. Emendik aurrera egun txarrak datorzkigu gauzak aurreratzeko: Aste Santua, examiñak, kolejio berriko lanak, beste lenagoko libuxka batzuk...

Meza liburua eta baita lau Ebanjelioak be. Biak atara gura doguz batera. Eta ni biak bizkaieraz jartzekotan nago. Baiña esan deusduna, salduko ete geunkez 3.000? Ostantzien prezio alturik jartzerik ez dot gura. Ta lenengo Gipuzkerazkoa ateratzekotan eta geroago bizkaierazkoa, akats asko dagoz, ba, bizkaitar askok erosiko leukee gipuzkerazkoa eta gero ez bizkaitarra.

Beste batzuen be itaundu deutset pregunta berau. Zer deritxazu?

Mesede bat eskatzen deusut ordea, gaurkoz ixillik eukitzeko barri au. Ez dogu gura beste liburu batzuekin gertau dana gertatzea: au ta bestea egiten ari dira Arantzazun, eta gero ezer agertu ez. Ez. Eta gaiñera elarte edo zirkunstantzi batzuek be gaurkoz ixillik eukitzera garoz.

Zure eritxi ta baietzen zai gelditzen naiz, ba. Eta gaurkoz beste barik, bedeinkaziñoa eske belaunikatzen naiz. Agur! Zure-zure

Enbeita'tar Kepa

Buenos Aires'en 1960'ko epaillaren 8'an.
Onaindia'tar Iagoba Aba'ri
Amorebieta (Larrea) Karmeldarren Lekaidetxean

Agur, aberkide on ori:

Aspalditik zuri idaztekotan nintzan, bañan beti atzeratuaz gaur arte orrela eldu naiz. Azketsi bada lenago ez idatzia, eta emendik aurrera maizago zure berriak jakitea poz izango nintzake.

Labayen'dar Andoni gure adiskide maitearen bidez jakin nuen nere XABIERTXO¹ bizkaieraz or egiteko asmoa zendutela eta Ortarako arrezkiak edo grabaduak eskatu zizkidan. Illabete batzuek ba da irurogeien bat biali nizkiola, bañan beste guziak arkitu naian emen ibilli gera bañan beste bederatzi besterik ez det geiago arkitu. Zokoren batean emen izango dira, bañan galdutzat jotzen ditut eta beste guziak or egin bearko dituzute. Ez dakit zenbat diran berriz egin bear diranak, bañan uste det zeok merke egiñaziko dituzutela. Liburua egin ondoren grabadu oen bear izango naizela uste det, lapurtarrez beste egiñaldi bat egingo ote degun uste detalako.

Zuen asmoa, uste detanaz, zuen aldizkingi batean XABIERTXO¹ ori ateratzea da, gero orri oek jasoaz liburu bezela saldu dezazuten. Jainkoari nai dakiola gai ontan ongi irtetzea.

Gure Labayen'en bidez jakin det Donosti'n beste irrarraldi bat, margotan bera, nere XABIERTXO'z egin dutela. Esan dit ongi irtengo dala, eta bera ikusteko gogotan arkitzen naiz.

Egia esatera nere liburu ortako esaera asko ez daude ongi josiak. Nere lagun bat sartu zitzaidan laguntzera eta bere gogora esaera asko sintaxis edo itz-joskera oso ona ez dute. Nai al dezute esaera oek zuzenduta zuei nik bialtzea, or txukunago irten dedin. Bizkaieraz nork ipiñiko du? zuk ala? Gaur goizean orrera, Madrid'era obeto esateko, joan dan, egazkiñez dijoa, nere adiskide Montane-Irazusta'tar Manuel'ek daramazki len aitatu dizkitzudan bederatzi grabaduak, eta berak korreoz zure

ere zuen lan orren gorabera guziak.

Zure idazti bikain «Milla Olerki eder», egunetik egunera maiteagoa det. Lan ederra benetan egin zenduen. Zoritxarrez nere begiak asko illundu dira eta irakurtzeak eta lan egiteak naiko galerazpen ematen dit. Ala ere jakingo zenduen orain illabete batzuek dala «Etimologías de apellidos vascos» nere liburu berria egin nuela. Orain nere idazti «La Lengua Vasca»' ren beste irarkaldi bat egin nai nuke, bañan guzia garesti dago ta... Orain beste idazti bat «Páginas nuevas de la Historia Vasca» bukatzen ari naiz, bañan Jainkoak bakarrik daki irarri al izango ote detan.

Laister erantzun eta zure berrien zai gelditzen da zure adiskide eta aberkide

Lopez-Mendizabal'dar Ixaka

Caracas'tik Epaillak 9-1960

Onaindia'tar Iagoba Abari

Larrea'ra

Adiskide ona:

Garaiz artu nuen zure gutun atsegiña eta arrezkero KAR-MEL, aldizkari ederra, baita OLERTI zoragarria ere. Esan bearririk pozez gaiñezka irakurri ditudala bi-biok. Berriz ere zorionak eman bearririk nagokizu ari duzun lan eder orregatik. Orrela guztiok iokatuko ba'genuke gure euskeraren alde, beste oilar batek ioko liguke kukurruku. Ementxe bialtzen dizkizut BOST dolar, txeke batean, nere arpide sariak ordaintzeko, aldizkari bienak alegia.

Nere illobek zure berri onak ekarri zizkidaten, eta atsegiñez entzun nizkien zure berri onak. Geroago artu dut EUSKERA 1959 Euskaltzaindiko aldizkaria. Mokoaz eperdi gelditu naiz ango

idazlan batzu irakurrita. Olakorik... Munstrokeriak besterik ez dirala idatzi euskeraz iragan berrogeitamar urteotan? Ori esateko kopet arroa bear da, seta ere ez gutxi. Ikusiko dugu zer egiten duten gazte auntz-euskera zaleok, esperanto berriaren fundadoreok...

Betaurreko gabe idazten ari natzaizu, eta beldur naz bear baiño uts geiago egiten ez ote naizen ari idazki onetan. Arren zeorrek zuzendu, eta barkatu nekea.

Ez naiz oraindik Bergili'ren itzulpenean bear bezela murgildu, ala ere asita nago. Asmoa artu dut, eta bete ere egingo dut, bai orixe, bion artean idazle andi orren lanak beinbetiko euskeraz ezarrita utzi ditzagun. Esan dezatela nai dutena aker-euskera zaleak.

Amaitzera noa bidai-kutxan len bait len idazki au ezarri dagan. Eta parkatu berriz ere nere utsak oro,

Emen gelditzen naiz zurearen aiduru. Berri onez gaiñezka etorriko al da, ain maite ditugun berriak.

Ibinagabeitia'tar Andima

Bilbao, 1960,ko Epaillak 12.

Agur, Aita Onaindia maite ori:

Atzo jaso nebazan «KARMEL» aldizkari kuttunaren bost aleak. Ederra dator benetan, eta eskergarri zaitugu. Iñoizko idazlan ederrenak jantzi dabe oraingo zenbaki au. Gero ta bikaiñago yatorku zure alegiñen seme jator ori. Jarrai orretan, adiskide: aurrera beti!

Izan be, idazlerik onenak zeuganatu dozuz: Ibargutxi, Orixe, Abeletxe, Arrugain, Mitxelena, Agerre, Enbeita, Aldabe, etxeokak lenengo dozuzala (Goiria, Atxiti, Olagoiti, Bizkargi, Botanz, Zubizarreta, Mitxelena, Xanti Anaia ta beste batzuk be ondiño). Atal gazigarriak be polito datoz: Gurutzegrama, Eritxiak eta Zinekoa...

Etzaitut ikusi joan dan asteen. Euskaltzaindi'ko ete zara? «KARMEL»-arpidedunen ordain-saria jasotzeko, txanteltxoan begira nagokizu. Ezpazatoz be, bialdu egidazuz, mesedez.

Fr. Livinus'entzat agindu zeustan izen-ordekoa be etxean daukat aspaldion.

Eztot beste barririk gaurkoz. Zure adiskide,

Xabier

Derio'n, martiak 14, 1960

Onaindia Aitari

Larra'ra

Urduliz'ko adiskide bat etorri yatan atzo, neu ikertzera. Beste gauza batzuen artean esan eustan idazti batzuk eldu zira-la euren etxera berorrek bialduta. Mutil au neugaz berori ikuster a j uan zan mutillaren anaia da.

Berorregaz or geundela eskatu eutsazan «Milla Olerki» ta zerbait geiago, nire lagun Martin Ardeo'k. Artu dabez etxean, baña Martin itxasoratu ta gero. Antza dagonez, ez dau ipiñi barruan beorrek salneurria ta ez dakie etxeoak zenbat ordaindu bear daben.

Augaitik, mesedez, labur labur esan beist zer ordaindu bear daben; ba, eurak bialtzeko gogotsu dagoz. Neuk idatziko dau-tset gero.

Mikel'en liburua zabaltzen gabiltz. Dana da lana!

Beste barik gaurkoz agurtzera noakizu. Irakurri dot «Karmel» eta ederra dator. Lengo bateko «Karmel»-en iragarten ziran «Meza Deuna» fitxak, zetan dira?

Agur bero bat

Gotzon'ek

Larrea'ra (Amorebieta)

Agur, adiskide:

Emen dijoatzu lengoan eskatu zenidan lantxo. Luzeegia atera zaida, baña arren, ez ezer ebaki. Obe da letra txikian jarri, ta ezer ebatekotan Enbeita'n bertsoetatik bat bakarrik jarri, ta Eleizanburu'nakin beste orrenbeste, baña al dala oso-osorik ematea obe da. Ba dira gauza batzuek bertsolarien dako jakingarri, ta beste batzuek zirrigarri. Saltza pixkat ere bearrezkoa izaten da gaiak ez moteltzeko.

Beraz, lengoan bialdutako olerkiekin eta onekin ba duzu nai-koa lan urrengoko OLERTI'rako.

Beste gabe, jaso nere besarkadak,

J. San Martin

Derio'tik, 1960'ko epaillaren 11'an

Aita Santi'ri. Zornotza'ra

Biotz-biotzeko Aita Santi: Ez zaitut aitzu. Ez. Ariñeketan arrapaladan noatsu. Izan be, zu zaitut benetako aita. Lenago bialdu bearreko izan da liburu au. Baiña, emen neukazan lenengo liburuak esku artetik kendu eustiezan-da, gaur arte euki zaitur begira. Barkatu, ba, ta eskerrik asko.

Emen doatsu nire lenengo seme jaioparria. Artu begi onez. Uts batzuk ba-ditu. Irarkolakoak dira... Zer egin, ba...

Eta, orain, entzun: Zenbat bialdu neuskizuz or saltzeko? Erantzunari begira nagokizu. Zure laguntasun guztien ordaiña egunen baten... elduko yatzu, Jaungoikoa lagun.

Seme dozun

Zarate'tar Mikel'ek

Oña, 1960-3-20

Nere adiskide A. Santiago: Gaur goizean jaso det zuk bial-
dutako «Olerti» ta Auspoaren orria. Eskerrik asko. Zuen la-
guntza orrekin, arpide sorta bat sortuko da.

«Egan»-ek ere beste orrenbeste egingo du.

Auspoaren arpidedunak gero ta geiago daude. Aspaldi on-
tan ez didate esan zenbat diran eta ezin zuri esan.

Aurki lau bat milla orri partituak izango dira.

Agur, ta milla esker. Mesede ederra egin diguzute.

Zure adiskide,

Antonio Zavala, S. J.

Donostia, epaillaren 23, 1960

Aita Onaindia'ri

Amorebieta

Lagun agurgarri biotzekoa: «Olerti» errebista nai nuke li-
burutegi onetan.

Orain arte agertu diran numero guztiak. Bidali izkidatzu fa-
turakin edo errenbolsoz, nai dezun bezela.

Agur, lagun zarra. Biotzez,

Jose Artetxe

Altza, 23-3-1960

Aita Onaindia agurgarria

Zornotza

Aita karmeldar agurgarria: Nere barrua lasaitzea bezin bea-
rreko det eskutitz au idaztea, au egitearekin ura lortuko det-eta,
noski; eta egiteko asmoak aspaldi artu ba'nitun ere, oraindño
ezin: joan diran ogeita bi urte abetan zirikatzeke bestetarako

izan ez dedan «duodeno» dala bidez, azkeneko ogei illabetetan sabela bi aldiz iriki bear izan didate. Eta Olerti'ren arpidea ordaindu nuanean, estu ta larri nebillen bigarren aldi Ortarako bidea egiten..., eta bi urtekoa izaki ta bat bakarra ordaintzen nuela, orduan bururatu ere ez neri. Gero bai, bañan gero artan lur jo-ta nengon, eta gero ta gero ere lan abetarako ez nintzan gauz: indarrak zearo aitua, burua lotua, idazkortza eskuan artzean, dardaiza... A zer nolako jipoia!... Orain igotzen arinai-zen aldapa bai bizi ta nekosua, ta bai poliki igo bearra. Ala ere, Jaunari eskerrak, aurrera noa ta lengo ittuntasuna baztertu ta uda-berriaren —kanpoko ta nigan sortzen ari dan udaberriaren— alaitasuna nabaitzen asia naiz. Nere asmoak betetzen ba'dira, emendik illabetera, J. 1., betiko nere lanpean ariko naiz. Barkatu bada nere okerra.

Al-dedan lenen zure izenean 52 laurleko bidalduko ditut: 40, zor dedan urtea ordaintzeko, ta 12, azkeneko Olerti'ren zenbaki bat neri bidaltzeko: jakiña, Ixiar'en gurasoak ere nai omen luteke-ta...

Agur, Jaungoikoak nai dezala urrengo eskutitzarako zearo suspertuta egotea. Eta bitartean eta beti Berak zaindu zaitzatela bai zu ta bai zure lan guztiak

Irigoién'dar Román

Villaro'tik, 4-IV-60

A. Onaindia'ri

Larrea'ra

Aita on, Jainkoaren pake ta osasun:

Itz bi, gure Arnas'en zergatikakoa azalduz eta zure azken eskutitzari erantzuna emanez. Milla esker botatzen zenizkidan lauxintxagatik. Bitez guztiak lotsak baztertzeko. Izan ere, bat, jardueran, saiatuz izan oi da zerbait. Aleginduko natzaizu zer-xobait egiten, ene indarrei dagokien neurrian.

aurea ta aurreti aizea miaztu oi dut, daukan ederra nireganatzen saiatuz. Jarrai ortan, berriak argitaratzen, ta nik pozik gogartuko.

Onezkero eskuetan duzu Arnas. Zer deritzaizu? Lan-pillatze bat baño ez duzu. Euskaldun guziok, anaitasun miñenean, metaturiko xorta. Asmoa? Biar egunerako esku-miñgañak zailldu. Ez darama berekin beste asmo berezirik, euskeraganako miña baizik. Ara sortu Arnas. Lenik jaioa da, au bigarren alea baita. Orregatik, itz-aurrean diñodanez, gaiak arin xamar ibilliak ditugu. Ondorengo asmoa artu genduan: labur eta errex. Gerora zer? Geroak esanen.

Besterik ez, Aita agurgarri, euskaltzale bizkor ta bero. Euskeran gizon aundiki opa dizut, Euskalerriaren aintzarako, eta ez gutxiago, guzion aurrerapenarako. Biotzez agur ta beste bat arte.

Iztueta'tar Paulo

Zumaia'n, 1960'ko Jorraillak 28
Aita Onaindia'ri
Larrea'ra

Adiskide ona:

Bere garaian artu nun zure idazki ederra, baita ere «Olerti» aldizkaria. Eskerrikasko! Eztakizu zenbaterako mindutzen naun euskeraz geiago jakin ezak! Gere gurasoai eskerrak itz egiten degun a erakutsi zigutelako, baño geroztik zer gutxi landu degun gure euskera. Berandu bada ere bildu gera taldetxo bat eta alkarren leian saiatzen gera zerbait ikasten irakaslerik gabe... Ia iñork eztu ezertxo egin nai euskeraren alde, eta geure kas-karrean ezjaldñak izan arren gazteakin zerbait egiten ari gera gutxienez beintzat itz egiten dana bada ere iraun dedin gure

beti emango det ontzat; nai dezuna egin-ba. Eta orain erregu bat: San Pedro jaietan gure Erretore Jaunak beartsuentzat tombola bat eratu bear du eta guri eman digu tombola orreri euskal itxura emateko lana; euskal giro ori sor arazteko beste asmoen artean euskal liburu ta bertso liburuxken zabalketa egiteko asmoa degu eta orrekin batera KARMEL eta OLERTI-ren arpidedun berriak egiten ere saiaturako gera. Egun oietako bear genduzke salgei dauzkaten liburuak jendeari eskeintzeko; «depositoan» artuko genduzke ta gero jaiak amaitzean itzuli orruntz saldu eztiranak Zer derizkiozu? Ia zerbait egiten degun.

Agindu ba, eta agur.

Besarkada gozoz

Aizpurua'tar Manuel

Praga'tik 1960'gko Loraillaren 15'ean

Onaindia'tar Jakoba Aitari

Larrea'n

Nere adiskide maitea:

Joan den illaren 22'gko zure eskutitz maitagarria bere egunean neregana eldu zitzaidan.

Poztutzen naiz, nere euskerazko olerkiak gustatu zaizkitzula eta «01erti»-n agertu ala agertuko dirala. Aurtengo «Olerti»-ren lenengo zenbakia bere denboran artu nuen. Bertan arkitu dut nere olerki bat «Gora Euskera» izenekoa. Badakit nere olerkiak garrantzi gutxikoak dirala, baiñan irakurleak aintzat artu bear dute ni ez naizela euskalduna sortzez. Aurtengo «01erti»-ren bigarren zenbakia ez dut gaurdano artu.

Karmel'en Maiatza-bagilleko zenbakia ere eldu zaizkit. Zenbakitik zenbakira geroago ta ederrago da aldizkari au eta zer nolako artikulu jakingarriak dakarzki! Eta euskera eder ta erra-

zean egiña dago. Lan merezigarria egiten dute orko Karmeldar-
rak gure euskera maitearen alde, eta zuk, adiskide maite,
lenengo tokian!

Izkribatzen didazunez, pakete txiki bat bialdu didazula li-
burutxu batzuekin —Gure Mezak fitxa batzuk eta abar— eta
barruan idazki bat. Zoritxarrez, gaurdaño ez det ezer artu. Bil-
dur naiz bidean galduko zala. Orra Zergatik eskatzen dizudan
orko idazketxean erreklamaziñoa egiteko. Onelako liburutxoak
ez dira emen agertzen, orra Zergatik pozik euki nai nituken,
katoliko bezela ere.

«Umien Deya» izeneko aldizkaritxoan Enbeita'ren seme-
txoak beste kartatxo bat, bertsoetan egiña, eskeiñi dit. Aiton eta
aitaren jarraitzalle bikaiña da 10 urteko olerkari gazte au. Jon
bezelako gaztetxoak bear baiditu Euskalerriak!

Iparraldeko Euskalerrian asi dira ikastetxeetan euskera ira-
ksten batez ere disko edo txirriken laguntzareldn. Emen daukat
txirrika bat «Eskuara eskolan» izenekoa eta «Ikas» izena duen
aldizkaritxoaren lenengo bi zenbakiak.

Besterik gabe, ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurrik be-
--enak.

Zure menpeko:

Tauer'tar Norberta

Ondarribi, Lorailak 23. 1960'gn
Onaindia'tar Jakoba, C. D.
Larrea'n

Agur Aita maite ta adiskide begiko ori:

Itz bi bederen «bi olerkitxo» onek igortzerakoan, «Olerti»-
rako.

Zu bazabiltz zintzo aski, xuxen-xuxen, bere garaian argi-
taratzen. Bejondeizula!, orla jokatzen da. A, zure eskutan ba-
lira beste Zenbait gauza!

ñurdun nagusiak. Gure eskulan balitz autsak arrotu baietz, bazterretan !

«EGAN» berriz, kabi beroan ez arrautze ta ez ume. Uda-berrian ez egatzekotan... «Nagi» ipiñi bear lioteke izena «txori» orreri. Ez?

Lanpetua nabil eta astirik gabe milla gauz garbi jartzeko. Aurten zerbait argitarau nai nuke, alajaña!

Ainbestean, zu ikusteko zaletua bizi dan onek goraintziak bialtzen dizkitzu.

Bordari

Karakas'en 1960, Bagillak 6

Onaindia Abari

Larrea'ra

Neure adiskide gogoko ori; aspaldiko aldezu eldu zan neure eskuetara zeure gutun pozkorra ta erantzun egin bear deusut arraztada baten.

Asko poz nintzan nire ipoin barregarria ontzat ar dozulako. Baina, zer dinot? Ez aal dozuz ba ontzat artun nire lan guztiak. .. Ipoín asko dakidaz, nik neuk iakin, baina gogorik aldeta daukadaz asko, ta gogoratu-ala idatziko dodaz noizik-bein bat KARMEL'eren ipoinzaleendako. Baina, arren, idazten dodazan lez, bardin-bardin argitara, gero, gatza gal ez dagien. Ondo dakit, ba, gure ernetan zelan berba egiten dan...

Zure azkenengo gutunak eta nireak bidean gurutz-egin eben antza. Artu zendun? An bidali neutsuzan «Bitargi» ta «Zeru Menditik» olerki idaztientzat egin-lantxu bi. Uste dot pozik argitarako dituzula OLERTI'n. Atsegin be atsegin iataz ba, Kerexeta adizkide Zintzoaren olerkiak. Auxe benetako olerkari gure Parnasoan!

ra kontua 3.000 «bolibar» zenbat laurleko urtetan duten 17,70 pesetan «bolibar» bakoitza. Or barriz, 1.000 (anei) «bolibar» inguruaz egin aal izango nuke...

Aspaldion etorri polita daukat. Iru olerki egin ditut amabost egunean. Atzerri legor ontan ogeitsu egin ditut idazti barri baterako. Ez dot uste Euskalerrri'n eginak baizen ederrak izango diranik.

«Izartxo» deretzan eleberri polit bat irakuri dot egunotan Andima'k itxita. Atsegin-atsegin izan iat eta emen doatzu bera-tzaz egin dodan maxio-lantxua, KARME'L'en argitara dagizun. Irakurri dagianean asko poztuko da egilea. Zeruraino iasoten dot ba. Nor ete dogu Estonba'tar Joxe Manuel ori? Dana dala, euskaldun iatorra da.

Azkenengo «Irrintzi» bidali neutson Arteaga'tar Laurenti Abari ta egundoko idazkia igorri eustan eskarrak ematen: Atsegin ez-titan iarri dau, antza, aldizkari abertzale orrek. Aserreak aserre izan dabez Matxari'k eta Andimak, azkenengo «Irrintzi'n onek «Gure *lendakaria* il zaigu» izenburutzat daben idaz-lana idatzi ebalako. Andimak ez dau geiago idatziko «Irrintzi'n, ba, eta nik bere ez noski... Mingarria izan da au iaso bearra. Abertzale-tasun lokartua ondo inarrosi dau ba, aldizkari matxino onek.

Zetan zan Erroma'ra eresia ikasten iun iatsuen, KARME'L'-en Zuzendari izan zan —aztu iat izena— Aba? Emon nire gorantziak.

Argitara ba, Onaindia Aba, adiskide min orrek urrengo «Karmel»ean emen doatsun lan kaxkar au, eta nire biotzaren biotza.

Aurre'tar Balendin

Añorga'tik, 1960-VII-9'gn.

Aita Onaindia'ri

Larra'ra

Aita Agurgarri: Itz bi baño ez oingoz:

1. Aspaldi andian egiñ eustan «Zeleta»k aurpegi-auste edo *entrevista* bat, eta, Etxaniz Abade Iaunak esaustanez, geroz bialdu ei dau orra. Arrezkero, ba dira iru illabete, Euskaltzaindi'ari eskutitz ixil bat bialdu neutsola, eta belutxo izango da Zeleta'ren ori argitara emoteko.

Arren eta arren, ez egizula emon KARMEL'en, Euskaltzaindiari yakokon ezebe. Len bereak eta bi entzunik dago.

2. Ni oge aldetik ibilli naz luzarotxo, eta lengo KAR-MEL'erako ezin bialdu izan dot ezer. Urrengoan, lainkoak gura ba'dau.

Orrenbestegaz.

Memento.

Orixe

Durango'tik, 1960, Karmengo egunean

Ene Aita Santi; Aspaldi ontan ez dogu alkarren barririk. Igaro dan apirillean bialdu nizkion 25 lauerleko, eskian etorri zan praille batekin Meza bat ateratzeko. Uste det Meza ori emana izango dala onezkero.

«Karmel» ere aspaldi ontan ez dot artu. Denboratxua da Dn. Eduardo'ri 5 ogerleko emon neutsazala, baña ez dot, iñondik, ezeren barririk. «Karmel» ez al da galerazoa ixango. Goiko Jaunak ez al du naiko.

Aita Santi, nik egindako arpidedun bat, Miren-Biotza Trueba, il da oraiñ egun batzuk. Guztiz sendi Kristo'tarra da Trueba sendi ori eta gañera... augaitik eskatzen diot «Karmel»-en leku apur bat emen bialtzen deutzudan biartxu ori argitartzeko.

Eskatu Jaungoikoari geure alde. Milla esker eta agur.
Azpeitia'tar Julene

Zabalegi. Añorga, 1961'go. Uztaren 25'gn.

Aita Onaindia'ri

Larra'ra

Agur.

Lelengoz artuizuz nire atsegiñak zure izeneko eguna dala-ta. Gero, barriz, Donosti aldetik ibili ornen zara. Egon eta egon, eta etzintzan agertu, ta onezkero or zagoz zeure txokoa.

Ni osasunez makal, sendagaillu barriakaitik edo. Bapere ez deukot kemenik bearrerako. Etorriko ete iata, datorren illabete ortan «Jainkoaren billa» kopiatzez amaitzen ete dodan? Neke egiten iata kopiak ataratea, ta laguntzailerik ez.

Gaztelu'ren liburua bukaeran dogu, ta urrungo illean bialdu gura leuke irarkolara. Nire Sarrera luzetxoa da-ta ez dakit zelan sartu zure lantxoa. *Cántico espirituaren* itzulkizunak, bai, irurak emongo doguz. A, B, C.

D. Zirilo'ri bialdu neutsona, zuri bialduriko aren kopia baño ez zan. Bigarren aldiz emon dozu, ala? Oindiño ez dot iaso KARMEL, bañan emen etorko da gauetik goizera. Etxaniz iaunak ikusi ei deu.

Tolosa'ko batzaldiko neurtitzak zuri emotea erabagirik neukon, bañan etzintzan agertu. Batak eta bestek eroan deustiez iru kopia; itzuliko ta itzuliko, ta, uts. Itzaldiaren kopiak orobat. Al dodanean bialduko deusudaz.

OLERTI'ren batzaldirako enaz ausartzen ezebe bialtzen: lotsa emoten deust alde batera. Loba asi da beure saioa egiten. Nik *extra concursum* bialdu bearko dot.

Beste barik, egizu otoitz nire alde, eta nik biar bereizi bereiziak zure alde.

Orixé

Agur Aita: lengo egunean itz lauzko lan bat bialdu neutson Karmelerako. Al ba'da argitaratu begi irailleko zenbakian. Gaur olerki bat doakio, katalanetik euskeratua. Azkenean, oartxo bat ipiñi dautsot, egillearen bizitzari buruzkoa. Olreki au bere urrengo OLERTI'rako.

Ikusi daikenez idaz-makiña lortu dot, ekiñaren ekiñaz. Ia emendik aurrera argiago ez eze sarriago ere idazten dodan. Orixe da nire amets gozoena. Itz lauz ba-daukat beste zerbait. Orain martirien agiriak euskeratuten nabil. Oraingoz lau egin ditut. Prisa barik, euskera, latera ta gerker a menderatu-ala ekin-go dautsot lanari. Ainbat edertasun ta aberastasun dagoz argitara atera gabe, gure eskuen begira.

Perrault'en ipuiñak ere aurrera doaz. Irugarrena laster amaituko dot. Esan daustenez Larra'n bertan geratuko da aurrerrantzean. Asko poztu nintzan ori jakitean. Irratia-ta noiz azalduko irrikaz gagoz.

Gaurkoz besterik ez. Laster egingo dot ostertaxu bat Larra'ra. Ordurarte, ondo izan Jaungoikoa lagun.

Etxebarria'tar Juan Anjel

Donostitik, 1960-VIII-12'an
Aita Onaindia jaun agurgarriari
Larrea'ra

Nere adiskide miñ ori, agur:

Zure eskutitza eskuratu nun, atsegiñez gañera. Ni ere zuri luzeago idaztekotan ibilli naiz, baña beti berantiar, eta oraingoa ere ez da nai nuken ainbat luze izango. Barkatu, beraz, eta ez aserre izan jasangaitz.

Ni emen nabillazu buru-belarri lanean. Gure euskera edermaiteak ez al-du onenbesterik merezi? Orra nere lantxo batzuk: Donibane Gurutzeko'renak, t. a. Lenbailen bidali nai nizuke ere lantxo bat beratzaz, baña eginbearra daukat oraindio. Illabete au igaro gabe, egingo al det!

Lengoan neurtizkeraz niona dala-ta, baten batzuk adizur dituguta? Obe! Pozgarri zait. OR edo emen, nunbait, bil albagindez, olakoen adierazi nai nieke zearo ta garbi nere burubidearen berri. OLERTI'barruan beintzat badet luzeago egiteko asmoa. Bestelaz, zuzen baño zuzenago gai berortaz zerorrek diotuna. Aunitz esker!

Bitartean nere agurrik beroena ar zazu. Baliteke laster ustekebez zuri ikustalditxo bat egitea. Etxean al-zera?

Biotzez agur adiskide miñ nauzun

Aita Goikoetxeak

Areatza-VIII'ren
Aita Onaindia'ri
Larrea'ra

Nere aita txit gogoratua:

Gaur bertan irakurri det Otaegi Anaiari zuk egindako eskuritz eragille ta ziztagarria. Alako bultzada kementsu batez igurtzi iguzu gu ere. Naimenak suspertu, lanari eragin, euskera landu, ori dagiguzu, Aita aipagarri, zure itz-jario legun ta ugariaz gurengana zuzentzen zeran bakoitzean. Milla esker ba ainbat arreta artu diguzulako.

Ikusi dedanez aspalditik nere olerkien itxoeran zeuden. Baraka luzatu naizelako. Egunek damazkite nere olerkiak maigañean bidaltzekotan, baña azken errebistako lanak alboratu egin didate eginbear au. Zuk ain zabalki idiki izkidatzun ezkerok KARMEL'en atear, «pozez-pilpilka» natorkizu nere olerki sortatxo batekin. Baña batez ere, zuk ainbateko atentzioa ondo

merezia nerekin daukazulako, bidaltzen dizkitzut. Lendikan esana dizut asko zorretan nauzula euskera-soroan; ez naiz geldituko ezta ere aituko, MILLA OLERKI EDER liburu orren aipamenean. Begi onez dut ikusten ere orain eratzen ari zeran itz-lauzko antoloji ori. Betor laixter; bijoa biltzalle trebe ta ausartari nere agurrik bero ta zintzoena.

Emen dijoazkitzu olerkiak. Zeukaten erdoi-akatsak aleran kendu dizkiet; baña zerbait agertzen bazaizu ez-itxuratsua kendu, moztu ta eratu nai eran. Oraingoz sortatxe au bidaltzen dizut. Oso pozik geldituko nintzake illero edo... argitarako baziñuzteke. Gero ere jarraituko det bidalketa ontan.

Gaurkoz uztera nijoakizu, ta barkatu, arren. KARMEl'al-dizkaria oso apain, pirpirin ta betea dator. Paperan eta bete-tasunean... ZERUKO ARGIA'ri asko ematen dio.

Zure serbitzari:

Muxika'tar Luis Mari

Donosti-ko Loiola-n 1960-gngo. dagonillak 25

Aita Onaindia adizkide ona:

Zerbaitzuk esan, edo itz-lauz idazlantxoren bat bialtzeko asmotan nintzan, baña Ortarako gogo danak kendu dizkate ta lendik eginda neuzkan itzneurtuzko oietxek dijoazkizu nai dezuna egiteko.

Jakingo dezu noski mutill gizajo batzuk, Donosti, Zarautzko lau, Zumaiko bat, Getariko, Orioko, Debako, Itziarko-ak espetxeratu dituztela. Zumaiko orrek ba zun nerekin arremarik eta Manolo Aizpurua'n laguna da. Eztakigu zertan bukatuko dan auzi zital au, baña, «KARMEl»-en zabaltzalle direla guziak arpegiratu diete beste gauz askoren tartean, ori ere auzigai baltz bezela!

Aitzaki billa dabiltzala nik uste zure aldizkaritxoa nondik ezkutarazi. Kontuz ibilli bada. Bederatzi dira, Txillardegi idaz-

lea barruan dela. Praintzitik pasatako ixil-orriak eta Iturraldearen liburuak arrapatu dizkate. Ea etxe-miaketaren bat egitera joaten zaizkizun?

Gaurkoz ba besterik gabe agurrik maitekorrenaz

Larrarte'tar Benantzio

Donostia, 59-IX-I

Aita langille ori: Zure «Olerti» ikusia det, eta gogoko zait. Bial dezaidekezu, beraz, bigarren alea, ta arpide ordaña «reem-bolsoz» jaso dezakezu, nai dezunean.

Urrengo batzarra asmo berriz eta egikorrezt aberats izango al degu!

Agur, eta Jainkoa lagun

Etzaniz'tar Nemesi

Altza, 5-9-60

Aita Onaindia, Karmel'dar agurgarria

Zornotza

Aita agurgarri ta lagun ona: Joan dan Dagonillan nere eguneroko lanak alde batera utzita egun osoaren jabe izateak ematen dun lasaitasunarekin, beste nere gogozko lantxoak egiteko egundoko asmoak nitun: illabeteaz zer egin ez...? Joan zan Dagonilla, ta nik egindakoa auxe: ezer ere ez, olerki-lanean beintzat. Izan ere, arazo onek lenen-lenen eskatzen dituenak bakardadea ta pakea, noski; eta ni, opor-aldiari asiera emateko, sendi guztiakin «sanixtebanatara», nere jaioterriko (Oartzun) jaietara joan: asiera ona. An, jakina, naiago anai-arreba, illoba ta lagun zarrekin egon. Amar-bat egun ondoren etxeratu giñanean Donosti'ko aste nagusian bete-beteaz geunden, ordeaz, ta ango jaiekin ez ba'nintzan kutsatu ere, ez nun Oartzun'en baño

geiago nere asmorik bete. Gero San Bartolome'ak, eta nere emaztea elgoibartarra... eta an goaz danok beste aste luze bat igarotzera...

Bañan nere burua orren jai-zale azaldu dedan ezkeru (eta egi-egia esateko ez da ez det uste ala naizenik), au ere esan bear det: amarretarako beti etxean eta leku geienetara emazte ta alaba zarranerakin; eta jan-edanean zer esango, ogei ta bederatzi urte abetan janari bereziak artu ba'ditut, eta lengo indarrez eta oraingo beldurraz nere artan geientsuena jarraitzen ba'det? Baiñan nere erriko jaiak, nik txikitan ezagutu nitun jaiak orain ikusi, ta ikusi nere semetxoaren poza, ta ni ere bera bezela aurbiurtzen naiz. Ederragorik...!

Au ez da guztia. Orain dala aste-bete len aitatu dedan alaba lekaime-etxera, Kataluña'ra joan zaigu Dominika'tan izateko ustez, eta Ortarako bear zitun guztiak zuzendu bear. Ara emen zertan amaitu diran Dagonillako nere olerkiak.

Orain egiten ez dedan ezkeru lengoak aurrera bota bear, eta oiek laister amaitzean, plot!, nereak egingo. Bi bidaltzen dizkitzuten oietako bat, luzeena, len egin eta berriro zerbait txukundu ta ondotoxoz luzatua det, Jaungoikoak eta nik bakarrik dakigu zenbat lan ondoren. Izan ere «seta» da nerea: puntu berean berrogei, irurogei edo nik al'dakit zenbat egin bear; eta jakiña, gurdia loitan sartzean bezela, iñolaz aurreratu ezin: egunak bear «puntu» berri bat billatzetako. Ez oso gogozkoa nunnabait estrofa estrofa-gañean idaztea; naiago erderazko romanzearen antzera aria ta autsi gabe berari jarrai al'dedan arte... e do poto egin arte. Olerkari kaxkarren gauzak izango dira abek, kaxkar eta setatsuenak.

Gaurkoz amaitzera noa. Ez nik eskatu ta zuk bidaldu zenizkidan bi «Oleri» artu nitula esan eta beragatik eskerrak eman gabe.

Nere eskutitz au arintzearen orri bakoitzaren bialderdietan idatzi det, eta orrexegatik ingia ere bada-ez-badakoa. Barkatu.

Eta lenen-lenengoan esandakoa berrituaz, alegia ezagutzeko diña ba'dira argitaratzeko eta ez ba'dira zokoratzeko, batera edo bestera emen dezu beti zure lagun

Irigoi'en dar Román

Villaro'tik 27-IX-1960

Aita Onaindia'ri

Larrea'ra

Gogoratzen zaitudan Aita agurgarri:

Aspaldixotik zorretan natzaizu. Oraingoan, Arnas lagun dudala, natorkizu agurka. Olako poz izkirritxo legun bat bare dabilkit barruan. Lan bat burutzean sortu oi dan poz betea. Gazteak gaituzu ta sentimenkorrak.

Ale au, irugarren frutua dugu, ta, aurrekoen gixa, neke askok ernea, noiz edo noiz gauari orduak kenduz. Zerbait onik balu, banaka lituzke. Ez da batere arritzeko. Zailtzen ari gerranon saioak dira bertako lanak.

Eskaritxo bat egin nai nizuke. Barka ausartegi banatzaizu. Begiko bazaizu, biali iguzu, mesedez, Olerti, Arnas'en truke. Nere lagunak, eskari ori egin dezaizudala eskatu didate. Zuk ikusi... Neri, beti bezela bialtzen jarraitu, etortzen dan bakoitzean maite-miñetan eduki oi nau-ta.

Onezkero, esan ere esango zendun, ziaro alpertuta nagoela. Ez maite. Lanez gañezka nabil, ezin burutuz. Etzait palta idazteko gogorik, baño.. Jakinlarien erabakiak irakurri ditut. Badugu nun zer egiña. An-emen ta toki guztietan, euskal-soroak dauzkagu atxurraren zai. Gure aldetik, aal dezakegun pixka jarriko dugu.

Iru luma arin kanpora joan zaizkigu. Bat —Uranga—Erroma'ra; beste bi Aita Saizar eta Arozena Aitak— Madrid'era. Biotzean txerta zitzaiena etzaie belakoan igertuko.

Besterik gabe, biozki estutzen zaitut denen orde.

Iztueta'tar Paulo

Taranto.—B2, 17-1-61

Onaindia'tar Jagoba Aba'ri. Karmeldarra

Larrea'ko Lekaide etxian

Zornotza. Amorebieta'n. Bizkaian

Nere adizkide eta euzkeldun zintzo ori. Agur.

Arrituta itxi nau zure eskutitz maitagarri orrek, jakin eraziaz, nererik ez dezula ikusi, adierazijaz, nola artu neban zuk bialdutako «ASTE GURENA», euzkeraz ta Lateraz, ZABALLA-ARANA'tar Yoseba Aba, Miren Bijotz Semeak atondua, eta nik ainbeste maite nebana, bana ez joan dan urteko Aste Gurenerako, baizik, ez da Berbizkunde Iganderako ere. Osta-osta artu neban Etorkunde Iganderako, eta emengo Custom-House edo «Aduanak», eskatu ziran ango edo euren landoletara agertu nadiela, ba baneuzkala alako argazki edo idazki batzuek nere izenian eta jakin gura ebela, ze izkuntza zan ura.

Inola be, ibilli ziran azterketan, bana euzkerea, geuria bakarrik da Oso pozik artu neban eta arrazkerotik nerekin darabilt. Ezin neike esan ordua danik, ba jakinian nago, lan eta lan ari zerala euzkeraren alde, eta ori egiten daben gustijeri, aurrez asketzen deusat bijotzez ganera. Zeu zara neri asketzi bear nozuna edo dirazuna, naiz da errua ez izan, ez zeuria eta ez neuria. Orra ba, nik uste eta sinisten dot, lanpian gustiz raakurtuta egongo zinala eta ez dot erratu. Baña eskutitz ura gal-tzijak min eman dik. Ez gauza bear etzanik eukalako, baña, bai barri geiago euko gendualako bata-bestiagandik. Zergaitik bera dala ta, egon gara ainbat denboran alkarrri idatzi gabe. Orixe izan dala zijoa uste dot. Baña, gauz aorreik aldebatera itxita, goazen erantzunaz.

Ez dot uste olako *alferra* zarienik. Nik esan dodana gertatu zaigu eta ola egon gara aldi luzijan. Zeure buruari erru ori bota nai diozu, baña nik ez dizut itxiko. Ez da zure errua. Neria geiago izan da, ba zure erantzuna ez artzijan ain aldi luzian, neuk berriz idatzi baneutzu, aspaldi gauza au, aztuta egoan eta

bear dan tokijan jarrita. Eskerrak ainitz zeure zorijon-agur eta oparija gaitik. Nik bialdutakoa ez dakit artua dezun, itzneurtu txiki bategaz bota nizun. Enintzake arrituko, lengoari gertatu zaijona, gertatu leiteke onekin ere. Eta englanderaz idazten asi bearko dogu alkarri, bestela ezin neike Siñistu Tchecoslovaquia'tik Tauer'tar Norberta'k euzkeraz idatzi eta Euzkadi'ra ezin izatia... zelan izan leikijan. Ez dakit ulertuko dezun nik esan nai diotena, baña euzkeraz jarraituko diogu oraingua gaitik beintzat, ez al da ala, Aita Onaindia? Ganera aztu baño len jakin nai dot zenbat diran idazki orreik. Orain dijoakezu amar «dolareko» txantel bat, eta au da zeure lan orri putz edo apurtxo bat arintzeko. Baita gura neuke jakin «AUSPOA» deritxon illeroko edo asteroko arria argitu dan, ba bota neban arpidetasuna eta ez dot ezeren barri. Baña oraintxe gogoratzen naiz gauza batekin, eskutitz ori, ez al zan joan *txantel* edo *sello* barik? Kezka auxe daukat oroitzen naizenian, ba nola nituan eskutitz mordo bat egun artan uste dot zeurijari imini barik bota nebala. Esan egidazu arren ola dan. Baliteke orregaitik, zure eskuetara ez eltzija. *Auspoa* deritxon aldizkingi orren arpide orrija, zuk bota zeustan.

Poztutzen nozu diozunaz, orduan bezela edo obeto aurkitzen dala gure ele edo euzkera maitagarrija. Euzkel giro ori, guk bi-jotzijan sartuta daukagun maitasuna gaitik esan naiko dozu, eta ala bada, ez dakizu zelako poza ematen deustazun. Orrela bada, ez da alperrikakua izan danok egin dozuben lana. Guk, erbestijan eutsingo diogu al degun bezela, baña, ezin izan leike zuek, or barruan egiten dozuben bezelako lana. Ija, ba, danon artian bultzakada bategaz, euzkerea jartzen dogun gorenge mallan, geure Aberri maite ortan. Apaiz on orrek atera daben Barri Ona bizkaijeraz, alen bat or galduta badozue eta aurkitzen edo agertzen bada, arren bialdu egistazu, Aita Onaindia. Esan zenbat ordaindu bear dodan eta beriala bialduko dizut, ordañeko txanponak. Era badozue zabalkundea egiteko, ez galdu une ori, ba gure Aberrijak dana bear dau, danen biarrijan

dago ta. Bai, gure baserri etxe-jaunak, beti euki dabe euzkeraz irakurtzeko naitasuna, ganera itzneurtu edo «bertsoetan» bada. Nik, nere aitaren anayak, ez eukijen ikastolan ikasita ezertxo bere, baña euzkeraz, zuk diñozun legez parra-parra irakurten eben *bertsoetan* egoan gustija. Arrese-Beitia'k esaten daben antzera bere «Ama Euzkereari azken Agurra», deritzajon itzneur-tuetan, gure baserriak izan dira orain arte Euzkereari eutsin diotenak. Askok esan dirate, gaur ez dala gu gastijak ginan antzera, gustija dagoala erderatuta, eta tamalgarrijena, gastedi artijan, baña zure barriak asko poztutzen nau, eta oiñezkero ez dala galduko uste dot; zer deritxazu?

Nere anai, illoba eta aide askok idazten dirate eta jakinian naiz itzneurtu txapelketak izan dirala, bai Donostijan eta bai ere Bilbon. Nere lagun dan Eizmendi'tar Iñaki dogula txapel-dun ere badaldt. Gure sasoe bateko Urretxindorran semea ere oso gorengua dogula Muxiken. Goian bego Enbeita'tar Kepa, gure Urretxindorra.

Orra ba, jakiñian jartzen zaitut artu nituala eta nai neuki-jala jakin zenbat zor dedan eta ordaindu bear dodan. Tamala da gertatu dana, baña esan zaidazu txantelik barik artu dezun nere idatz edo eskutitz ura. Orixe izango dalakuan nago erru gustija eta orduban, ez da zuria ez baizik neria. Artu nituan Etorkunde jaietarako. Saspi aste Aste-Gurenetik. Luzaro egon zan zure naia, nere eskuetara eldu gabe. Baña, esaten deutzu-dan eran, gaur igande eta jai gustijetan nerekin dabil. Zaspi Itzak, Igande arratsaldijetan, jaiero-jaiero, irakurtzen ditut. Baita Jaupa ere, euzkeraz. Pozik naukazu ldazki orrekin. Asketzi ba, Aita Onaindia, nere erru zital ori. Baña esan bear deutzut, *Olerki* eta *Karmel* ez dira nere eskuetara eltzen. Zeuk onduen derizkijozun eran bialdu dizkidazu danak berriro, nik ordaindu-ko dizut eta, pozik ganera. Ateratzen dozuzan une artan oroitzen bazara edo bestela gerotxuago, zeuk nai dezun bezela.

Baña, zoritxarrez, gure guda zital ura zala bitarteko, euz-keldun abertzale asko galdu ditugu, gure Aberrija'ren onerako.

Batzuek, Jainkoak eramanak ditu bere Almenarekin berak auke-ratuta eukezan lekutara. Beste asko, ainbeste urte igarota, naiz da abertzaletasuna galdu ez, atzerrijan geldituko dira, euren alogera edo biziera jarria daukelako dagozen lekuetan. Eta beste mordo bat, nere antzera, naiz ta txanponik euki ez, beti geure amets goxo au noiz beteko ete dan. Orrutz joatija. Iparragirrek egi aundija esan eban, etxetik bota ebenian. Erbestera urten dogun danok esaten dogu ori. Orko mendi-arbasoak, leku gutxitan izaten dira. Poztutzen nozu jakin erazijaz artu-emon apur bat badozula ludiko euzkaltzaleakin. Ni, nola emen ez gauden bat edo bi bakarrik, ez dago ezer eta bazkide naiz Buenos Aires'ko Euskeltzaleak dauken batzokijan. Montoya'tar Bedita dogu Lendakari. Euskeraz lan asko egin da Argentinan. Antxe dogu López Mendizabal'tar Ixaka ere. Tolosarra eta ezagutuko dozula uste dot, Artxanko'tar Paul, Irunarra, Biteri'tar Bingen, Otxandijoko semea, eta abar, oneik dira euzkera irakaslijak Buenos Aires'ko Laurak-Bat deritxajon bazkun etxian. Rawson'en daukagu beste lagun bat, nere onenatarikoa Etxezarraga'tar Bingen (Zidorra), Zeanuri'ko semea, bere arrebea egoan antxe urte askoan, Zeberio'ko Orue'tar Florentino'kin ezkondata eta ara joan zan. Idatzi nion Gabon aurretxoan eta ez dira erantzun.

Asko gara Erri-min, baña oraindik ori ez dagoala bear dan bezela eta obe dogula itxogin apurtxo baten, esaten digute. Ez da kexkarik, Gure Goiko Jaun Altsuak, lur ori eman ziotenian gure asabeai, zer edo zergaitik emongo eutsijela. Egija diñozu, bakoitzak bere txokoan bizi nai duala, eta ala ere Euzkadin. Dana dozu ederra gure Aberrijan, esan lei, gezurra ere, dan itxusijaz, ura ere ederra dala or. Orra garbi esanda zein ederra dan. Nere lagun dan Leizaola'tar Josu Mirena, gure Lendakari berriak, itzuli bat egin dau Ego Ameriketaruntz. Lenengoa ere laguna nuen. Tamalez eneban jakin garaiz nola joan zan. Nik aditu neban Madrid'en dan *amilen* (North West) aldeko ori zala, baña, geurija zoritxarrez, baña gure Jaungoikuari utzi bear zaio, Berak daki zer egiten daben eta. Zai nago, Iruxo'tar An-

der, nere lagun eta Imanol'en anaiak, esango dirala zer egin daben erri artan. Beti iminten nau, jaun onek, jakiñian gure arazoetaz. Su ori, ez da itzaliko. Beti piztua dago.

Goguan artu zazu nere zuzenbide berrija. Ara; 42, D'Arcy Street, Toronto.—B2 Ziur nago zu ere or ibiliko zerak jo ta ke, geurijari eutsiten. Oitura, kondaira, izkuntza, jolas, joko garbi eta ganeuntzeko gauza gustijak, gure asaba zarrak oituten ebezan gustijak sendotu eta zaindu bear dira. Zuek jarraitu ortik eta danok eskatu bear diogu gure Jaun eta Jaungoikuari, Osasuna eman daigula, zintzoro, kementsu eta sutsuago lan egiteko, gure Aberri gaxoaren onerako lan egiten. Guk, atzerritik, eta batez bere nik Kanada'tik, al dodana egiten lagunduko dizut, gauza aundirik ez baña... Orra ba, orainguan be, oitura dodan antzera, enaiz luzaro egon erantzunge. Uste dot garbitu dogula geure aldi luzian idatzi gabe egon izate ori, eta, urrengoan obeto eta geiago esanaz, gaurko naikoa dala eta artzazu nere euzkeltzale besarkada goxo eta anaikorra, ongarri gustijak zuretzat nairik.

Gorantzijak Nikasi eta ganeuntzeko gustijeri eta zuk artu bijotz-bijotzez nere agurrik beroena eta berriz ere eskerrak ainitz zure neretzako gurari eta eskerrak gaitik eta agindu beti Jelpian zure lagun dan,

Ormaetxea'tar Kepa

Benetzuela'n, 1964, Urtarrilla'k 27

Onaindia Abari

Larrea'ra

Aba agurgarri ta neure adiskide zintzo ori:

Eskuratuko zenduan nire Gabon-aurrekoa, zeureari erantzunez, baiña esateko andirik eztodan-arren, emen doatzu gutuntxu au be, besterik barruan dabela, Jauregi'tar Koldobika olerkari zintzoari igor dagitsazun, neuk eztakit bere zuzenbidea ba-

ta. Igorri, ba, arren, mesedez, ikurrazturik jarrita, eta laurle-kotxu orren ordeaz «Geure Aita»-txurik otoiztuko dot zeure egin-bearretan ortziak lagun dakizuzan. Mundu gaikoi onen bizkar urratuak-zear bizitzeaz burruka gabizenon otoitzak lekaideenak baizen leun eta artez, eztira elduko Goietara, bear ba-da, baiña Urtzi onak ba-daki alegin guztiak egin da-be praileak lez gogo-barruetan sakonkiro sartu ta gertau ezin geinkezana geure otoi-ñoak eta ontzat artuko dauz gureak bere, zuenen beste indar ezpa-dabe be.

Eta, nire neure bizimodua bere ez ete da, ba, lekaideoenen antzeko? Ezetan eztot larregikeririk egiten, obenaren gerizeak berak bere bildurtu egin oi nau, alegin guztiak egin daroadaz Kristo'ren jarraitzaille zintzoa izaten, eta naiz-ta sarritan arrapa-ladan eta iraduz, egun bakartxurik etxat joaten zeruko Amatsu laztanari Agurtza Deuna esan barik, ez goiz-illuntzean zeruetara biotza jaso barik. Ez uste, gero, deuna nazenik, ez gitxiagorik be, izateko gogoia pei etxatan-arren. Eta, poztu zaite, adiskide; zeuen Karmel'go Ama maitearen araukoa nozu txikitxikitandik eta beti-beti erabilten dot aldean Karmego ikurgailua (kutu-na). Guztiak politak bidali be bidalten daustaz neure arrebatxu lekaimeak, idazki-barruan. Egun eztaukatsut beste asatekorik eta umekeriak esaten diardudala uste dot. Badakizu, baiña, olerka-riok nozik-bein ume-gogoia izaten doguna ta irribarretxurik bai-ño eztozu egingo, urrean, nire orbelokaitik. Praillea ezpa-zin-tzake eneuskizu esan bere egingo olakorik, baiña gogoezaulari edo *psikolari* onak izan zaroaze elizgizonik geienok eta badaki-zuq gogoen barri...

Pozarren nabil, adiskide, beste bost edo sei illebate barru, Urtzi'k onez, zeuekaz batuko nazan gogorapenakaz. Au poza! pozik ludion baldin ba-da; beiñola baitegi zikiñetik urtetako izan neban baizen poz aundia daukat atzerri legor baizen go-gaikarri au itxita Aberriraturteko. Geure baso ta mendi ezeetan abestu gura dodaz neure neurtitzik bikaiñenak euskeldun loak artuak iratzarriz geure izkuntza maitea edertuteko. Ikertuko

indartu ezkeru Euskalerria zoriontsu dateke ta.

Ondo izan, ba, ta ekin gogor zeure aldizkariekin. Eta, tori neure biotzaren biotza.

Aurre-Apr aiz'tar Balendin

Ondarroa, I-IV-1964

R. P. S. Onaindia

Larrea

Adizkide on:

Irakurri neban zure «kritika». Beti laban ta bitsa atara nai-rik. Praillekeria. Noiz ikasiko dogu euskaldunok sits eta bits kritikak egiten, beti zuri-zuri agertu barik?

Oraingoan, ixil-ixilik, «Jaunaren Bidetan» emoten ibili gara. Deba, Lekeitio, Markiña, Soraluze ta Ermu'n. Txalorik bioz-korrenak Deba'n jo euskuezan. Luze ta ugarienak Ermu'n. Ala ta be enabil pozik. Gaur lako ikusle on ta beso-zabalekoekin, ez dogu aurrerapide andirik egingo.

Euskal teatroan eta euskal literaturan zelan gabiltzan gogoratzeko... egunotan egon da agerpide bat.

Orain urte bi edo iru, azpeitiarrak antzestu eben Donosti'n «Jaunaren Bidetan», izen orregaz eta egillearen izena aitaturik. Aurten aldakuntza txiki batzuk eginda, lan bardiña emon dabe, baña beste izen bategaz eta beste egille batena ba'litz lez. (Odol eskeintza, Altzu'k egiña). Kuadro txiki bi geitu dautsez ta zoritxarrez gertu be. Ni Azpeiti'n izan nitzan ikusten, erderaz esaten dan lez, «de riguroso incógnito», ta igarrita neukan plagioa gordin gordin iruntsi neban. Idatzi be egin neban kritika bat Zeruko Argia'n idazteko asmotan, baña gero bertan bera laga dot, bialdu barik. Musika barria ipiñi dautse, azpeitiar ba-

tek egiña, baña ortik kanpora... Orrelaxe bizi gara gure artean. Onetan be kulpas asko praillioz daukazu, beti seigarrenari tengadaka ibilli zarielako, zazpigarrenari akulurik sartu barik.

Dana dala, gaur enator onetan.

Bake deungarri egun onetan, lanari lotu naz. Ta ara nire guraria.

Aurten, Domingo Aguirre'ren eun-urtegarrena dala-ta, emen argitaratzen dogun «Boga-Boga»n, datorren illean, berari ome-nezko lan batzuk agertu nai gendukez. Praillien antzera eskale nabil oraingotan. Egingo al zenduke ainbat ariñen lanen bat? Milla esker beintzat ez yatzuz faltako.

Biotz biotzez

Zubikarai

Eibar, 18-6-64

Aita Onaindia jaunari

Larrea-ra

Nere adiskide ona:

Eskaritzo batekin natorkizu. Barcelona-n ibili naiz, bertako feria zala-ta. Baña, zelan bestelako gauzetan ere alperreko denborarik ez dedan pasatu, ango Zenbait idazlekin mintzatzeko bidea izan nuen. Aiek, guk uste baño lan geiago egiten dute, ta gure berririk ez dute. Oraintxu argitara berri da ango poesi antologia. Ta, nai luke emengo gaurko poetak ezagutu, ta Ortara-ko gerturik daude guk, ogei urtetik onuntza, egin degun olerki sorta bat argitaratzeko. Esan zidatenez, amabost edo amai olerkariren lanik aipagarrienak naikoa dirala. Baña, danak gaurkoak, edo, obeto esan da, ogei urtetik onuntza idatziak.

Ni, gertu nago lan ori aurrera eramateko, baña guzion laguntzarekin. Guziorena edo obeto esan da, aituenena. Ta, laguntza eman bear didazu. Lenbiziko: Zure iritziz, nortzuk dira

ni baño geiago zera.

Bein, aukeratzea egiten dedanean, idazle bakoitzari eskatuko diot bere iritziz egin dituanik onenak bospasei olerki, erderarako itzulpenarekin, eta bere fitxarekin: noiz jaio zan, nun eta zer estudiatu duan, libururik idatzi duan, nun idazten duan eta abar.

Aal dala, gizarte edo soziologi gaietarako jokera dutenak nai lituzke. Aiek, or ikusten bai dute poesiaren etorkizuna. Baña, ori ere, ezta derrigorra.

Angoak egingo dute gazteleratik cataluynierarako itzulpena, ta liburua euskeraz eta cataluynieraz etarako litzake ango irarkola batean.

Gure literaturari balio aundia emango diolakoan nago. Ez bakarrik erbestean aintzat artzearren, baizik Euskalerriko seme asko ere orduan arduratuko lirake gure poesiari buruz. Iñor ez baita bere errian profeta.

Noiz dator «Olerti»? Urduri naukazu.

Nere eskaria ongi beteko dezun konfiantzan,

J. San Martin

Donostia, Uztaillak 2. 1964

Aita Onaindia'ri

Larrea-Zornotza'n

Adiskide on:

Jaso dut «Etorkia» izenarekin argitaratu duzun «01erti»ren azkeneko zenbakia. Benetan mardul eta bikaiña ale auxe. Ekin eta jarrai euskal-olerkiaren alde egiten ari zeran lan txalogarri onetan.

Etxahun'en olerki-sailla «Ahargo eta Kanbillu»raiño atera duzu ikusi dudanez. Uste dut zure esku izanen dituzula bes-

teok (beñepein nik bialdu nizkizun): «Montebideio'rat juailiak», «Bi berset horiez», «Hauze'n ba-da laboran», «Maria Solt eta Kastero», «Gaztalondo'ko prima», «Defis», «Sur un proces» edo «Bi berseten huntzera» eta «Khantoren khantatzeko».

Orain «Ahaide delezius huntan», «Bi berset dolorusik» eta «Mündian malerusik» deitu elejiak prestatzen ari naiz. San Inaziotarako bialduko nizkizuke «Gorrotoa Lege»ren proba zuzentzeak asko atzeratuko ezpa'nindute. Baiñan, Agorrerako beñepein or izango dituzula uste dut.

Ahaztu gabe: otoi, bidali zaidazu «Etorkia»ren ale bat gure Mirande aundiarentzat. Agur sutsu bat.

Yon Etxaide'ko

Eibar, 13-7-64

Aita Onamdia jaunari

Larrea-ra

Adiskide:

Emen dijoakizu lantxo bat Shakespeare-ren jaiotzaren laureun urte betetzearen oroitzaz Otsalar-ek euskeratua. Otsalar-ek diñuanez, Shakespeare-ren olerkirik onenak noski. Baditeke orrela izatea, klasikoetan atsegiñena du, ta, gañera, onduen eza gutzen duana noski.

Nola dijoa eskatu nizun lana? Aukeratu al dituzu olerkirik onenak?

Gaztelu, Polikarpo Iraizoz, Erdozaincy-Etchart eta Bilbao-ren zuzenbideak falta ditut. Zuk ba-ote dakizu? Baldin bada-kizu, bialdu, arren. A, ta baita Zaitegi-rena ere.

Orixe-ren bost edo sei olerkirik onenak nork aukeratuko lituzke onduen? Aukeratu, ta gero, aukeratzalleak edo beste norbaitek itzulpena egin.

Nik beintzat, onenen bilduma egiña bialduko diet, naiz eta gero beren irritzian, sartzen ez diranak kanpoan utzi.

Zortzi amar bat aukeratuak eta olerkiak eskatuak daude. Beraz, gauza aurrera daramat. Beste zortziren batekin zalan-tzan naiz eta iritzi geiago jasotzearen zain naukazu. Askoren artean ain diferentzia gutxi baita, ta ez naiz ausartzen. Ala ere, ez det egingo guzien gustoa. Baña, zerbait egingo bada, eztago beste jokabiderik.

Zuk aipatutakoetatik L. Muxika, Muniategi eta Bordari ez, beste guziak sakuan sartuak daude: Orixe, Gaztelu, Etxaniz, Iratzeder, Zaltegi, Gandiaga, Otsalar, Aresti, Erkiaga, eta Iri-sarri. Ta, zu, zer esanik ere. Ta, beste gañerakoak oraindik du-dakoen artean daude. Dana dala, amazortzi edo ogei sartu ezi-ñik ezta.

Zure berrien zain, biotzez agurtzen zaitut,

J. San Martin

Oñate, 1963-ko uztaillaren 30

A. Santiago Onaindia

Zornotzara

Euskalzale ta adiskide ona: oraintxe iritxi zait zure «Izar», edo bere izen egokiaz deiturik, Olerti, esan dezagun. An agiri da ozta ozta neronek ere ezagutu ezin dudan Joseba A. Otaegi bat. Noski, ni neu. Noizko denporak aiek... Arrezkero, beti la-nez leporaiño, ezin olerkiari eman nai nizkiokean denporak. Ida-tzi dudan gutxietan —olerkirik, euskeraz— enkargatuak izan dira. Milla esker, apur baterako besterik ezpada ere gusto du-dan barruti ortan murgildu nauzulako. Ta areago, murgildu ezezik, neronen beste denpora bat agiri baizat bertan, leialta-sun eske bezela. Asti faltaz agur eginda nenbilkion poesia!

Baiña uste dut ez duzula osorik argitaratu. Ez dut emen aren beste kopiarik, baiña lehenengo asmoa beintzat iru zati-tan banatzekoa zen, eta orren oroitzapenez pentsatu dut ez du-zula osorik argitaratu. Bearbada, azkena —fedarena— gogortxo

zen? Edo orrela ere bai aski luze? Oso luze baita, izan ere. Orobat, eztuzute eman «Euskal Koblakaria». Au, berriz, abertzaleegi zentsura pasatzeko?

Laister argitaratzeko asmorik ez baduzu, biotzez eskertuko nizuke bidali nai badidazu, bai bateren azkenaldea ta bai bestea osorik. Onela, proba egingo nuke EGAN-en argitaratuko ote lidakean. Onekin Egan-ekoeri lagunduko genieke —laguntza eskatzen digute ba— ta batera, nire izena zabalduagotzen joango litzake. Zeuk argitaratzeko badauzkazu, berriz (guztiz zureak dira, izan; eskatu egiten dizkizut, jabetasuna galdurik dut aietan eta), Joseba A. Otaegi ez baiño J. Azurmendi Otaegi jarri dezazula naiago nuke. Au da zuk konprenituko didazun izen bakarra zabaltzeagatik. Deseo au ezta lotsagarri, ta on da, geiegian estimatzen ez badugu. Ta itz lauz idaztean beti erabilli dut lehenengo abizena, noizpait Jakin-en bi lehenengoak, baiña bigarrena bakarrik, lotsagatik jarri nuen zure sariketarako presentatzean, bildur nintzalaki ez ote zuten ezertxo balioko. Orduan presentatzen nintzan —euskerazkoetan— lehenengo norgeiagora. Ta erderaz egindako probak eta sariak ez ninduten animatzen euskeraz jardutera.

Bidaliko badizkidazu, agustuaren amabosta aurretik bada, arren, Foruako gure komentura edo onera egin dezakezu, andik aurrera onera bakarrik. Milla esker. Zorionak zure lanagatik, gu baiño geiago zera, Jakin-en ankaz gora gabiltza ta. Zorionak, eta aurrera. Zure zerbitzari,

J. Azurmendi Otaegi

Irun'dik, 1964-VIII-30'n

Aita Onaindia adiskideari: Agur biotzez.

Oraintxe artu dot zure areñungoa. Eskerrik asko atsekabe ta otoitzakaitik. Txarto ibilli geñien abade billa, ta zuek be ezin izan zeñuen bat bialdu. Azkenean Eubatik etorri zan bat, eta Garai'koa. Oroigarri bat bialtzen deusut, euskerazkoa.

«Boga-Boga»-n emon neban lantxoan aipatzen nebazan lanik geienak Jon Bilbao'ren Bibliographia'tik artuak dira, eta ezot gorde oarrik. Orain Ameriketatik dabil. Virginia'ko Unibersidadean egon da, izkuntzalarien batzar aundi batean (mundu guztikoek batu dira), eta aste onetan idatzi deuste barriro Chicago'ko Newberry Library'tik (Bonaparte'ren liburutegia eruan ebeen Unibersidade'tik) eta esaten deuste aste bete barri idatziko deustela Washington'etik. Or dauko Bibliographia, baña uste dot paketeetan oraindikan. Gure badozu, eskatuko deustadaz bear diran oarrak, zure lanerako.

Aurten beste ankia apurtu dot, eta egun batzuk miñ aundiekaz pasau dodaz. Orain obeto nabil. Etxera joatekotan naz datorren illeko 14'garrenean, amagaz eguna pasauteko asmotan. Eztot uste Bilbora joateko gauza izango naizenik.

Zure liburuak argitaratzen dozuzanean, aleginduko naz zabal-kunde pixka bat egiten emengo euskaltzale urrien artean.

«Egan»-en emon dodaz lantxo batzuk. Ikusiko zenduzan. Bitaña, Markue, Ozerinjauregi, N. A. G., A. Alzola izen eta izengoitiakin. Oraingo zenbakirako be egin dodaz gauzatxo batzuk. Eztakit noiz agertuko diran, ba Mitxelena erdi-gaixorik dabil.

Bol. Amig. País'ean emon dodaz beste gauza batzuk. Ortik kanpora gauza aundirik ez. Gotinga'ko «Fabula»-ra bialdu dot aspaldian eginda neukan lan bat, Portugal'era bialdu nebana orain pare bat urte dirala. Beste esatekorik ez. Urteak aurrera eta gaztetako moduko indarririk ez idazteko. Al danean aldan-txue...

Agur, adiskide, eta agindu. Zure menpeko, Jaunagan.

Anai Berriotxo

Neure adiskide maite: Ordu lauren bat barru, artuko dot egazkiña New-York'era juateko. Amerika'tik izango naz dato-
rrren illian, amabian.

Euskal jaien bat egiten badozue egun orretan, igez esan zan legez, artu zazu neure aldez milla laurleko, sari batentzako.

Urrijaren emeretzian egongo naz Bilbao'n (J. 1.), eta bialduko dautzudaz laurleko orrek.

Gorantziak euskeltzaliენტzat.

Zure adizkide dan

Arrospide'tar Jon

Villaro, urrillak 15, 1964

Aita Onaindia

Larrea

Aita maite-agurgarria:

Poz-pozik artu ditut zure bi liburu bikaiñak, ta nola ez ba eskertu zure biotz ona orrelako erregalu jatorra egitean. Benetan ez dakit eskertu zure eginkizuna. Lotsa ematen dit... Joan dan egunean asmotan egon nintzan erosteko, ta azkenian aitzu egin nintzan bat-bestekin jarduten egon nintzalako.

Uste det izango detala okasiñoa zuri ordaintzeko OLERTI bidaldukoengatik eta zuk ain zintzoki egindako mesedeengatik. Liburu au gaur berton irakurri det dexente, eta ikusten dut arrigarritzko naturaltasuna daukala zure euskera onek, xamurra da, ulergarria, ta aberatsa. Etxaitut ikusi lehen ain situazionista euskeran. Egitan, ta zorionak. Borobil dago.

OLERTI-EGUNAK on asko egin zigun deneri alkar eza-
gutzeko; ori bere zuk organizatu bear zenuen... Agian goizeko sariena luzeegi gertatu zan. Bazkaria oso bikain, eta San Martin

Yon oso ondo, olerkiaren muiñaz ondo ta egoki jardun zuen; beste batzuetan absolutuegi olerki sozialaz jardutean. Ederra ederragatik egin diteke, baño retorika utziaz.

Beno, denagatik zorionak eta eskarrik asko. Oraingoz ez daukat olerkirik eta astirik, baño itxoin illabete batzuk... Agur,

Luis Maria Muxika

Villarreal-Zumarraga, 64-X-19'an

Onaindia'tar A. Santiago'ri

Zornotza'ra

Agur t'erdi!

Iru urte ba-dira alkarren berririk ez degula. Ni Aita Joxe Austin naiz, Pasiotarra, CAMINO'ren euskeratzallea. Ni Erroma'n bizi izan naizen iru urte auetan amaika gauza gertatu dira nere len-sume txatxu orrekin. Baiño, gaurkoz ez noakizu gauza oien berri ematera. Laister alkar ikusiko gerala uste det eta orduan esango dizkitzut danak.

Gaurko nere eskutitz onen xedea ondo bestea da. Ez dakit jakingo dezun LITURJI BERRIKETA oietarako gauzak gertutzen asiak gerala emen Gipuzkoa'n. Joan dan ostegunean batzar bat izan genduan emen, Lekuona zarrarekin, Gipuzkoa'tikan, Pasiotarrak, Frantziskotarrak, Beneditarrak eta Lekuona zaarra etorri ziran. Bizkai'ko Liturji komisioari ere deitu genion baiño etzeukatela etortzerik esan ziguten. Bildurra nunbait! Orduan telefonoz Kerexeta'ri otsegin genion eta bera etorri zan. *Datorren ostegunean*, berriz ere alkartzekoak gera emen. Gipuzkoa'tikan lengoak berak izango dirala uste det Bizkai'tikan zu ta Kerexeta etortzea nai genduke. Kerexeta'k baiezkoa eman zigun. Eta zuk ere ez dezula eragozpenik izango uste det, izan ere aspalditikan lan auetan sartua zaude. Bizkai'ko Liturji Komisioa'ri begira bagaude orrek ez digu ezer egingo. Beraz, geron artean gauzak egitea izango da onena. Aizu, Onaindia, gau-

za auek ez dira eskutitzez adierazteko ain errezak. Etorri zaitzez ba *datorren ostegunean* eta emen ikusiko dezu zer eta nola egin naian gabiltzan. Datorren ostegunean etortzerik ezpadezu gaztigatu garaiz.

Besterik gabe TA DATORREN OSTEGUNERA ARTE.
Zure anai ta adixkide

Aita Joxe Austin

Eibar, 17-10-64

Aita Onaindia adiskideari

Zornotzara

Agur, Aita Santi:

Emen bialtzen deusut igandian or egin neban itzaldia. «Olerti»n argitaratzen badozu, mesedez, berrogei ale solteak atara bear deustazuz neretzat. Baña, kondeziño bategaz, izango dana ordaintzekotan. Geien bat be dodaz, gure olerkari batzuen artean zabaltzeko, eta noizean bein bialtzen deustezen liburu ta liburuxkaren ordez emoteko.

«Gure bertsolariak» irakurtzen diardut. Oso ederto dago. Mitxelenak naiko baleu, «Egan»-erako idazldtxo bat egingo dausatz; ortara idatzi dausatz. Gauza jakingarri asko izateaz gañera, euskera samurra dauka, ederra,bizkaieraz gutxitan irakurtzen dogun bezelakoa. Atsegin jata zure liburu au. Gañera, enziklopedia erara egin dagonez, ez dau antzik eta itxurarik orain argitara berri dan «Bosquejo de historia del bersolarismo», Aita Zabalak «Auñamendi»-n argitaratuagaz.

Atzo, Bilbon egon nintzan, ta, ango Librería Ercilla-n esan zeusten euskal liburuen katalogu bat argitaratzekotan dirala Donostiako Librería Manterola-k iñoiz egiten daben erara, ta argitara barri diran euskal liburuen galdera egin zeustanez, zurearena be aipatu neutsen, ta ale bat gura leukie «Gure bertsolariak»-rena bertan salgai ipintzeko ta or salgai dituzun li-

buru guztien barri. Luis Várela da bertako nagusia, Bilboko Librería Varela-ko semea ta Eibarkoaren anaia. Badakizu euskeraz zerbait dakiala ta euskeltzale dogula. Au da bere zuzenbidea: Librería Ercilla, c/. Ercilla, 27 - Bilbao.

Bialdu egiozuz Arrese-Beitia-ren «01erkiak»-ren barri eta «Uskeriak», «Urre bitsa», «On-bidea», «Salmoak» eta abarren barri, jarriaz egilleen izenak, argitaratu daberen irarkolarena eta argitaratutako urtea. Gure liburuak, argitaratu bakarrik ez, zabalikunderako bideak be egin bear doguz, aldanik geien eta bide guztietatik gañera.

Beste barik, biotzez agurtzen zaitut,

S. Martin

Arantzazu'tik
Onaindia-tar Xanti-ri
Larrea-ra

Adiskide jatorra: Bakea ta Zoriona.

Lenengo-lenengo, nire ta Jakin-ekoen guztien aldetik agurrik beroena eskeinduten deusugu. Ta batez be nik bizkaitar lez esker beroenak emoten deusutaz Bizkaiko euskeraren alde egiten dozunagaitik. Ta asko da, izan be. Geu be zeozer egiten ibilli giñan, baiña orain Egutegia be kendu deuskue-ta. Dirurik ez dagola edo ez dakit zer atxaki atara eben. Batek ez daki atxaki edo arrazoi dan... Gaiñera, azkenengo egun euetan beste gauza bat be entzuten nago emendik. Egia esan, ez dakit zer oiñarri daukan. Anaitasuna be kendu egingo deuskuela. Estadutik ez danean beste lekuen batetik jatorku tiroa-ta, ez dogu zer egiñik.

Baiña noan arira. Idazti onen izan muiña auxe da: Eskatutea. Nik be fraille ona izan gura ta eskatu egin bear ba Orretarako derrior.

Ba-dakizu zelan Jakin-ekin asi giñan oster a be, beste ekital-di batean. Onelako errebista bat etxeko artikuloekin mantenitea iñork baiño obeto dakizu zuk ia eziña dala, eziña ez esatearren. Orregaitik gatoz eske. Zuk zeuk ezin badozu be, beintzat agindu daizula ortik idatzi daien. Jakin'ek danon arnasakin bizi bear dau, danonakin. Gureakin ta zuenakin, bai. Jakin-ek artikuloak bear dauz, zuen artikuloak. Idatzi eta agindu, ba. Ta guk, se-guru egon, milla esker ta geiago emongo geuntsukez. Eskerrik asko, aurretiaz.

Agur, zure adiskide barriak

Joan Mari Torreáldai

Donostia, Azaroak, 7-1964

Aita Iakue Onaindia'ri

Larrea'n. Zornotza

Adiskide miña:

Gaur igorri dizut Etxahun'en elejia-sailla. Dakizunez, iru dira: «Ahaide delezius huntan», «Bi berset dolorusik» eta «Mündian malerusik». Aspaldi agindu nizun irurok bidaltzea, baiñan etzait posible izan gaur arte, gero ta beta gutxiago arkitzen baitut euskal-lanetarako. Azkeneko sailla Gabonetarako bialdu nai nizuke, baiñan ba-dakit nolanai ere ilbeltza edo otsai-lla izango dela zure eskuetara irixteko.

San Martin'ek esan zidan «Gure bertsolariak» liburu ederra atera duzula eta «Karmel»en orde z zabaltzen ari zerala. Ni zuen aldizkariaren artzaille ninduzun beronen azken bi urtetatik, bai-an zure liburua etzait iritxi. Otoi bidali zaidazu korreuz, nai ba'duzu contra-reemboloz eta bestela zenbat den esan eta be-reala jiratuko dizut.

Nik bialdutako originalak eztatdt gorde ala puskatu egiten dituzun. Autsi ezpa'dituzu eta zerorrek gordetzeko interesa ez baldin ba'duzu, otoi, inprentaratu ondoren bidali zaizkidazu, gaur edo biar mesedegarri izan dakidake-ta.

Besterik gabe, agurtzen zaitu zure adiskide eta agindupeko
onek

Yon Etxaideko

P. D.—Naiago baldin ba'duzu «Gure Bertsloariak» nere
«Gorrotoa Lege»rekin truke eginen dugu. Zuk duzu itza.

Bilbo'tik, zemendiak 12-1964

A. Santi Onaindia karmeldar agurgarriari
Larrea'n

Agur, ene adiskide:

Ordua be bada, ezta?, zure eskutitzari erantzuteko... Egunokaz, egia esan, bateko zeregiña, besteko nagia, ezertarako asti andi barik nabiltzu. Baiña, tira ba, gaurkoan erantzungo deutsut.

Erantzun, be, lenengo ta bein, eskerrak emoteko, ain karta ederra egin zeunstelako. Olako aupadak edonor poztuten dabe, ta aurrerantzean lanari eltzeko be adore pixkat emoten dabe. Euskaltzaindi'ko Urgazletasun orrek neuri be ez deust, orain-diñokoan beintzat, logura andirik kendu: ez dakit nik zer dala-ta egin naben, baiña ezetzik be ez noa esaten. Zertarako? Bear bada, ondo etorriko jat lagun barriak eta egiteko, eta orrelan euskerari sutsuago ekiteko.

Laster izango dozu esku-artean nire «Lorategi» barri au. Ale bi. Zuk ez daukazu ordaindu bearrik: zer, ba? Neuk lapurretan egin, eta ganera dirua be eskatu egingo ete deusuet? Ori bai: mesedetxu bat eskatuko neuskizu. Auxe: kritika sakon eta gogor bat, errukirik bakoa. Urrengo baten uts gitxiago egin dagidazan... Maixuokandik beti daukagu zer ikasi gaurko gazteok, gure arteko batzuk olangorik autortu gura ez ba'dabe bere.

Beste eskabide bat: Antologia au osotuteko, zure «Milla Euskal Olerki Eder» erabiliko dogu eskoletan. Beraz, laster egingo deutsu legezko eskabide bat gure Liburutegiak. Amabi bat, gitxiendik, bear doguz. Beste batzuk be —«depósito» lez— bialdu gura ba'dozuz, bear ba'da saldu egingo litzakez.

Bai, aurtan indar barri bat artu dau gure artean Euskera maitagarriak: lenengo urte bietan eskola bi daukez astean. 5-6 gnetan be, beste orrenbeste. Filosofian, lenengo ta bigarren urtean, eskola biña. Eta teologian, 3'garren urtean, bigarren aldian, asteko eskola bat. Euren kontura ikasten diardenak be ez dira gitxi... Baiña, egia esan, oraindiño urrin be urrin gagoz bear dan neurrira eltzeko. Ez daukagu zetan arropuztu!

Eta, amaitzeko, aspaldiko leloa: noz argitaratu bear dozu zeuk, Euskalerriko Idazleen Lorategi andi ori? Gaur bertan artu dot A. Villasante'ren karta bat, eta auxe diñost: bestekal-deko euskaldunak gogo andia daukela olango Lorategi eder bat ataratzeko, aren baten gitxi-barru Euskera ango Batxillerrean aintzat artuko dabelako. Ekin, A. Santi, betiko bide orri, gero ta sutsuago. Alakoen baten artuko dozu aspaldion merezi dozun saria!

Besterik barik, edozein egunerarte. «Curia»'tik be etorri-bearra ba dozu-ta, antxe ikusiko dogu alkar. Bienbitartean, eskerrik asko, eta betiko adiskidetasuna.

Karmel Etxenagusia

Irundik, 1963-XI-21'n

Aita Onaindiari: Agur.

Artu dot zure eskutitza, eta millaesker nirekin gogoratu zeralako. Ez deutzut noizko esaten, baiña len-bait-len bialduko deutzut Lizardi zanaren etxeartekoai-eta buruz gauza laburtxu bat, «01erti»-rako.

Lengo egunean Mitxelenak esan eustan ia egingo nuen ON-BIDE-ren iritzia «Egan»-erako, baiña zuk ondo dakizun moduan nik eztauket maillarik orrelako liburu bateri buruz «Egan»-en kritika egiteko. Don Manuel Lekuonari esan neutsan, eta baietz, egingo ebalá. Oraingoan ez, baiña urrengoko zenbakian agertuko da ba, Don Manuelen kritika.

Niri asko gustatu iate liburu ori, eta dan-dana irakurtzeko asmoa daukat. Bizkaiko euskera onian dago. Geroago edo, egingo dot HERRIA-rako zedozertxo. Aspaldian be eztot idazten astekari onetan, baiña Olertiri buruz egingo dot ba gauzatxon bat, gauza kaskarra bada be, orrelakoak dira nire gauza guztiak-eta.

Itz-lauz euskal idazleen liburua zelan doie? Astiro astiro bada be, aztute ez egizu itxi, gauza ederra egiteko gaia badaukazu-ta.

Idazliei galdera batzuk egiten nabil, batez be gaztiei. Zuri be bialtzen deutzut paper bat, eta al dozunian, estutasun barik, erantzungo deustazu.

Emengo arpidiei buruz, egongo naz Loidikiñ, eta neure kontura artuko dot gauza orren arduna, Nagusiari baimena eskatuta gero. Aspaldian eztot ikusi (gitxienez bi illebeté bai) gaixorik egon nazelako, eta bera Madrilletik dabil lelako botikariyuen ixpetore izateko ikasteak egiten, baiña zure mandatuarekin ez naz aztuko, ori eta asko geiago be zor deutzut-eta.

Ia nun ikusten garien ba alkar. Gabonetan edo? Euskaltzaindiara be etzara etorten bein be. Ni be pare bat urtean ez naz joan, baiña Lojendio bi aldiz be emen egonda, eta orain joatekotan naz, osatzen naizenian.

Urrengorarte. Agindu.

Zure menpeko eta adiskide, Jkgn.

Anai Berriotxoá

Larrea

Agur apaiz zintzo ta euskaldun jator;

Nere anai Teodoro'k ekarrita artu nuen «GURE BERTSO-LARIAK» zuk argitaratu dezun liburu bikain, jator eta txalogarria. Nere zorionik beroenak zuretzako ta, baita ere, nere esker onenak liburu ori egitean nitzaz oroitu zeralako. Urrea bezin maite det «GURE BERTSOLARIAK» nere ondorengozakoz bertan ni noraño iritxi naizen argi ta garbi agertzen dezulako.

Gaxorik ibili naiz. Nere anaia or izan da andik iru-lau egu-nera «gripe'k» jo nindun. Andik urdailla gaxotu ta ogei bat egu-nean etxean egon naiz ta, bitartean, lantokiko papelak erabat atzeratu zaizkit. Ortik sortu da nere ixill aldia zuretzako. Esango zenduan «IBAI-ERTZ» au ere esker txarrekoa ote dek ba? Ala esan ba dezu ere, etzan arritzeko ain ixill une luzea izan-nik. Barkatu. Orain, Jaunari esker, txuspertu naiz.

Oker ibili nitzan zuen txapelketarako. Nik uste nuan *amar-amabi* bertso jarri bear zirala *gauz* bateri ta bestalde izan. Amar-amabi gauzari iru-lau bertso jarri. Ez-ta ala? Urrengoan ia zerbait egiten detan. Zure iritziz, zer moduz daude zuen txapelketara biali nituanak? Datorren urtezar egunerako biali bear dira Euskaltzaindira urte ontan argitaratuak eta ez dakit astoari jarritakoak biali edo berriak egin. Arren eman zaidazu iritzia. Eskerrak.

Illobari ikustaldi bat egiñaz joan nai nuke alderdi oietara. Bear bada datorren illean or izango naiz. «GURE BERTSO-LARIAK» iru-lau liburu nai nituzke ta orduan ekarriko ditut.

Gaurkoz agur eta jarrai osasun onez.

J. Lete

Ondarroa, 10-XII-64
Aita Santi Onaindia'ri
Larrea'n

Kaixo:

Ba diardut «Gure Bertsolariak» sartu nairik. Esan neutzun len be zelako arrerea emoten dautsen batzuk.

Neska bi ipiñi nituzan. Etxe barru baten, listan, eztakit bost ala sei egozan. Eta danak ezezkoa. Neskak etorri yatazan ta go-rantziak emoteko esan eusten, eurak ezebela nai geiago ate-illunik ikusi-ta.

Ogetamar inguru banandu dodaz. Bost edo sei len arpide eziranak erosi daustez. Baña arpidetan frakaso itzala dago. One-la ezin lei beintzat, borondaterik onenagaz be, arpiderik eutsi.

Lore jokuak il onen 20'an izango dira. Eztakit nortzuk agertu diran. Berrogei lanetik gora.

Zetan da «Ondarrak»?

Nire ustez liburu au «komertzial» bezela saltzera atara biar zenduke. Beste Liburuak egiten diran eran zabaldu. Guk, emen-dik, bost-sei millak pesetako laguntasuna emongo geuntzuke, laguntasun modura. Ortik aparte, Ondarroa'ko Ayuntamentuari zuzendu ezkeru, nik uste dot mordo bat erosiko leukela. Orixe agindu eustan beintzat atzo be gauza onetan sartuta dabillan kontzejalak (Jabier Alkorta).

Gero, ortik aparte, il onen 20'rako agertuko ba litz, Lore Jokuak egingo dan egunian Teatro-atean salgai ipiñi ezkeru, bertan salduko litzakez akaso eundik gora nire ustez errez. Ondarrun, Ayuntamentuak artu leikezanetatik aparte, beste berreun bat saldu biar litzatekez beintzat.

Nik uste dot zuretzat egokiena auxe izan leikela. Berroge-tamar pesetan saldu ezkeru ta berreunen bat saldu emen, 10.000 peseta inguru bertan batuko zendukez. Beste eunen bat Ayun-tamentuari sartu ezkeru, eta ori uste dot lortuko litzakela, beste

bost milla peseta dira. Orra amabost. Beste bost edo sei bat guk laguntasun modura emon ezkerro, ogei milla peseta beintzat or izango zendukez. Bat edo bi geiago edo gitxiago.

Gero Zumaya'koa be len beintzat erostekotan zan ta liburutegian be asieran beintzat berreun bat errez salduko zendukez. Ta orrela burua ordaindu ta irabazia ziurrago litzake zuretzat. Nik uste egokiena orixe izango dala.

Gu asi ezkerro, barri barri asi biar dogu. Liburutegiekin-eta eztaukagu ezaupiderik. Eta abar.

Ikusi egizu egokien zer yatzun.

Libururik bape ba daukazu, komeni izango litzake ainbat ariñen emengo alkateari erakustia ta eskintzea. Olako «rendez vous»ak asko atsegin yakoz.

Len gugaz ibiltzen zan Teatro aldria lenengoz sortu gendunian. Diru gauzak eta erretratu gauzak eta olako gauzak berak erabiltzen euskuzan. Gero ezkondu zan ta «lanpetu». Orain alkate egin dabenetik, eztakit begi onez ikusten gaitun. Orixegaitik komeni da ainbat ariñen berari liburu ori eskiñi gerorako pixkat zuritzeko.

Ni, igandian, pafrikako zeregiñekin, Barzelona'ra nua. Alegin egingo dot urrango bariku ingururako agertzeko. Nai neuke beintzat emen egon il onen 20'an, sariren bat eltzen ba da be artzeko. Ta gañera il onen 21'an fabrian bakaziñoitan asteko gara ta ordurako kontuak-eta langillien gora berak konpondu biar dodaz. Origaitik nai neuke barikurako bueltan etorri. Gaur-edo orra juateko gogoa neban, baña biaje ori dala-ta laburtu egin yataz «nire egunak» eta origaitik ezin jua.

Lengo «Boga-Boga»-n ipiñi neban zerbait liburu au dala-ta.

Agur ta erdi ta esango daustazu obetoen deritxozuna.

Zubikarai'tar Agustin

El Tigrito, 1963, abenduak 10
Onaindia Abari
Larre'ra

Neure jaun gurgarri ta adiskide zintzo ori:

Eldu datan zeure itxaroten eneban idazkia ta bai pozik irakurri bere zeure itzak, geure mendien sundea itzela ekarren, ba, ekarri be-ta. Beti dira, ba, pozkor niretzat zure idazki urri baiden anaikoiak.

Ondo gogoan neukan zuen Larre'ko olerki-jaiak, baiña aurretik ez izan gogorik ezer ordurak idazteko. Gogo obeitu izango al naz urrengo urtean. Ba-daukat ba gogoak geure olerkari ta olerkari-gurakoak ezagututeko. Eta eurek bere ezagutu gurakoa dabe, urtean, zelako gogorabakoa nizan. Olerkariok gogorak gara izan be, gero, gaitz andiko zelai loratsuetan egaztadarik egiten eztaikienentzat.

Andima ta ni emen luzaro ba-gara geixotu egingo gareala esateaz zuzen be zuzen zagoz. Abertzaleegiak gara gu erbestean bizi izateko. Ni neu gura dodanean alde naiteke, ta, Urtzi'k onez, datorren urtean edozein illetan aldeko nizan uste beteaz bizi nakizu, ta oldozkizun onexek poztuten nau apur bat, neure errimin eta atsekabe guztien erdian. Baiña gure Andima Zintzoa ezin leiteke Aberriratu, menpetzailleek epaipetuta daukietan. Berak orko auzia azkatuteko eleuskio inori mesederik eskatuko, arean, ezegaitik be. Zuok lekaideok adiskide asko izan oi dozue bazterretan eta, ezin azkatu ete zeinkie gure idazle bikain onentzat Aberrira-bidea, ezetariko eragozpen barik etxeratu daiten leen bait leen? Ez uste, gero, olakorik inori aitatutekorik berak esan daustanik. Olakoxerik egin aal ba-zendue, biotz-biotzez poztuko gintzake, ta zenen artean (geure artean) izango genduke, euskerearen aberako, ezagutu dodanik euskeltzalerik purrukatuena.

Biotzez poztun nau KARMEL-en illeroko birragertuteak. Ba-dogu Bizkaia'n olako aldizkariaren biarrianik, arean bere.

Baiña, apaizak bakarrik ala, zelako irakurleak dabezan jakin gura neuke aldizkari orrek. Zelako irakurleak doguzan jakin ezkerro zer idatzi bere obeto jakiten da ba. Artu neban Andima'ren bitartez bidali zeustan Terese Deunaren «On Bidea», eta bai pozik irakurri bere. Euskera errezez eta ondo itzulita deritzat, batez be autsak daukazuz olerkiak biurtuten. Gipuzkeritxu batzu be sar dautsazuz artean, baiña *oben* ori etxatzu parkezkor... Eta zer dala-ta *irudi* aditza *iduri* biurtu giputzak obarik zekula eztala izango uste dabeen Olerkarien batek txarto idatzi ebalata? *Iduria* ikatza egosi ondoren larriñean geratu oi dan ikatzerrautsa datsu, eta *irudia*, *antza*. Baserritarrak bere ba-dakigu zeozertxu, eta ezkara «diruzale ta *materialista* utsak» azkenengo EGAN-en Samartin'go Yon'ek idazlan ziztriñean esan ebanez. Erantzukixun ederra igorri dautsat aldizkari beretara kaletar soso ari. Guztiz mindu nenduan ba irakurgai arek.

Jo ta kee diarduzue or euskeltzaleok; Jakin dot Kerexeta'ren Meza liburuak be argia ukusi dabela. Oso apain agertu ei da. Ba-genduan orren biarrizana. Gurean izan dan beste elizgizon izan eta guzurra dirudi orainartean «Misal» osorik ez izatea. Orain laster, barriz, bakoitzak bere izkuntzan Mezea esan bear izango dau, ta onak gengokeyan bizkaitarrok.

Ondo eretxi bakarrik ez, poztu bere asko pozten nau neure *txori galduak* bere zeure olerkiekaz batera argitaratuteak. «Zoa-ze» itzaurre ta guzti argitaratu, gero, arren. Eta itzaurre oneri azken-aurreko erreskadan daukan *gure-ren* lekuan, *geure* ezarri, otoi, euskerearentzat uts itxusia da ori ba-ta. (Or, bear ba-da, zuzenduta izango da akats au). Eta ba-deritxazu, kendu Aita Villasante-Kortabitarte'ri eginda daukan eskintzea.

Muniategi'tar Sabin'i idazteko asmurik eztaukat Oraingoz, baiña eskerrik asko aren zuzenbidea bidali daustazulako. Muniategi au olerkari olerkaria dogu, baiña «Goiz-Aize» egin ebanik ona eztau aurrerakuntzarik egin olerkigiñan, idazten jarrai ez ebalako, urrea. Aapaldiak ondo biribilduko ba-leuz, onene-

tarikoa genduke, aurki. Niri neuri atsegin dataz beintzat aren olerki oro. «Egieder» ezagututeko gogoa bai ba-daukat. Onexen zuzenbidea bai jakin gura neuke idazteko. Euskel-olerkari guztiok alkar ezagutu bear genduke ba.

Gabonak bere etxean doguz eta zoriontsu egin, eta urte zaar au be ondo amaitu barria obeto asteko. Ta datorkun urte onetan, esan dautsudanez, Jainkoa lagun, alkar besarkatuko dogu. Arteatan, gaitezan, ba, onez Jainkoz, eta beitez oso-osorik Bereztzat gure biotz eta gogoak, mundu anker onetako gaikeri ta naasteak gora-beera. Aa! Ta eskerrak ON BIDEA rr (erre) gangardunaz idatzi dozuelako, ta gorantziak Akesolo'tar Lin abari, nigaz gogoratuten baldin ba-da. «Itxasalde» guda-saildian alkarreaz ibilliak gozuz.

Agur, ba, ta biotzaren biotzean zaukaz,

Agerre'ko Balendin'ek

Eibar, 18-12-64

Aita Onaindia jaunari

Larrea-ra

Adiskide:

Gaur jaso dot zurea ta milla esker beraregaz batean bialtzen deustazuzen barri guztiegaitik. Aipatzen deustazuzen batzuek eztakit zelan laga dodazan kanpoan, batez be Arrese-Beitia eta Riezu-ren bildumak.

Bertsolari konturik ez dot nai nastau olerkiegaz. Bakoitzari bere mailla gorde biar jako, eta erri olerki-orren barri emongo da baiña ez dogu atarako bibliografiarik ortaz argitaraturik liburueri buruz. Otoitzak be ez dodaz sartuko; oietakoak dira Salmoak, baiña bai «On-bidea». Ta, gauzak obeto bereizteko, lau zatitan egingo dot bibliografía: Euskal olerki liburuak; itzulpenak (ez nastutzeko apartauko dodaz); erri-kantak (onetariko

egin neinke: Olerkiari buruz. Ortara bai euskeraz edo bai erderaz olerkiari buruz argitaratu diran liburuen barri emongo neuke. Adibidez, «Estudios sobre la poesía vasca» eta «La «Crónica» en la poesía popular vasca» emongo nituke, Leitzao-lak «Ekin»-go liburutegian argitaratuak. Besterik ez dot uste izango danik. Gogoratzan bazara esan.

«Ondarrak» artu dot. Millesker. Orra itzaspertu bat egitera azaltzen naizenian ordainduko deusut. Ikusiko dot ia emen be ale batzuek saltzen dodazan. Ederki dago. Oso ederki. Poz aundia artu neban atzo, zure gutuna baiño len, jaso nebanian. Belaxe sartu neban bibliografian.

Zeru-menditik sartu neban zuri idatzi ondoren. Aiztuta neukan *Urrundik-ren* zeaztasun guztiak be bai. Aste onetan mugazandik egon naiz eta egillea ikustera joan nintzan. Beti bezin jatorra dago. Bere lan batzuek bialduta neukazen ta orain beste aztarkizun bat egin biar dot liburu onetan ia besterik arkitzen dodan arako modukorik.

Ain zuen be, mugazandik Juan Maria Lekuona adiskidearegaz nintzan eta bera gelditu da «Orix»-ren olerkiak aukeratu eta itzultzeko. Uste dot oberik ezin nebala billau. Gaiñera, bere batzuek be sartuko doguz. Juan Mari olerkari fiña da.

Zailegi eta Aurraitz-ena egiten badeustazu asko poztuko nintzake. Muniategi-rena be ondo erizten jata. Asieran baiño iritzi zabalagoaregaz egitekoan gara eta berarenak be ondo etorriko dira.

Bilbao-ri idatzi neutsan baiña ez eustan erantzun. Biderik badozu dei egiozu bost edo sei olerki itzulpenegaz gertatzeko esanaz. Bordari-ren *Nere baitan-en* barriak asko poztu nau. Berak zerbait esan eustan, baiña ez gauza garbirik. Berari be aspaldi eskatu neutsazen olerkiak baiña oraindiñok ez deustaz bialdu. Aukera baduzu a be zirrikatu.

Ogetak Olerkarien lanak daukadaz bialduak. Guztiz ogeita amarren batera elduko naiz. Ola iñork ezingo dau esan aukerarik ez deusagula emon.

Gañerako kontu guziegaz mintzatuko gara egunen batean. Laster izango alda.

Besarkada estu bat eta Eguerri zoriontsu ta urte-barri on bat opa deusut.

J. San Martin

Oña, 1965'ko ilbeltzak 25

Onaindia'tar Aitari

Larrea'n

Aurrera, agur bero bat. Ondoren bi gauzatxo: Bata: datorren illaren azkenean edo urrengoaren lenengotan aterako da gure aldizkari ABSIDE'n zure *Gure Bertsolariak* liburuaren epaia. Nik, neuk, egin det. Alegindu naiz al detan ondoena eta zuzenena egiten. Asmako al nun! Onak adierazi ditut eta dagon gaitz apurra ere baietz uste det. Jakiña askozaz ere geiago dagola ona txarra baño... Nolanai ere zorionak ematen dizkizut zure liburuagatik. Bejondaizula.

Bigarren gauza auxa: Irakurri det azkeneko *Zeruko Argia'n* idatzi dezun artikulua. Ara, egia esango dizut. Onegia zera zure iritzietan. Ala beintzat, deritzat. Bear bada, zuk baño gutxiago ikusi detalako, edo zuk bezela langintza auetako aurrerapenik ia ikusi eztetalako, edo... gazteak —enaiz ni ain gaztea, jesuïta artean gatzetzat ba'naukate ere, 29 urte baditut eta—, gazteak, diot, edadetuok baño gogoragoak izan oi omen gera, ta orregatik, bear bada, nere iritzia ere eztira izango objetiboak, baño... Zergatik erdel-idatzi ta izparringiak baño txarragoak izan bear dute euskel artikulua ta aldizkariak? Eta urremanik ere eztiotela ematen esango nuke alkarrekin berdindu ezker.

Bati bakarrik begira dezaiozun: Oso —eta ain oso ere—, iritzi ona damazu gure DEYA'z. Eskarrikasko, bai, baño, nik, neuk, eztet uste ainbeste merezi dunik. Naiago nuke oker ba' nego! Ezta ateratzen bear bezela. Eztute irarkolan egiten esandakorik. Artikuluak, berak ere, bat baño geiago, errezegi egiñak ez ote ditugu? Bene-benetan esan: *Deya* zuzenketan neu ibilli nabill, naiz ta zuzendaria ez izan —zuzendariak zer egiñik asko baititu—, eta enago gustora. Ezta gutxiagorik ere! gauzarik gogorrenak ere bururatu zaizkit. Baño... utzi dezagun jardun au. Batzarre bat egitekoak gera laister eta ia nere kezka auek neu edo aldizkaria osatuaz zuzentzen ditudañ.

Beste bat: Begiratu bat eman diot *UDAZKENA'ri* —olerki liburuari—, eta... orko olerki askori zer irizten diezu? Badet nik barrenean alako kezka edo bildurtxo bat gure euskal olerkiak askotan aldrebes xamarak ez ote diran. Bildur naiz ortan ere ez ote geran errezkoiegiak. Onek eztu esan nai danak txarrak diranik. Ezta gutxiagorik ere. Baño...

Geiago ezer ez. Asperraldi ederra eman dizut. Barkatu. Berdin nere iritzietan gogorregia izan ba'naiz. Ara, esanak esan dizkizut aldizkari lanetan aspalditxotik sartuta nabillelako. Ni emen *Abside* aldizkariko zuzendaritzakoa naiz. Izparringi eraketa —composición, confección—, neuk egiten det. Geuk —eta neuk—, dakit nola ibiltzen geran gauzak dotore ta irakurgarri ateratzeko. Zer esanik ez nola baiian pasa oi ditugun idaztiak onartu baño len, ondo baño ondo aldizkaria atera dedin. Orre-gatik pena ematen dit gure euskal aldizkari askoren joerak: kintenkeri asko, gaizki presentatuak, errezkeriak, berriz, konta ezin ala... Eztet onekin esan nai gaitz orrek jota daudenik ez *Karmel* eta ez *Olerti*. Auxe bakarrik: onegia izan zerala zure iritzietan gure aldizkariei buruz eta bildur naiz onelakorik komeni ez ote zaigun. Nere iritzia askoz gogorrangoak izango ziran. Eta litekena da iñoiz nunbaiten ere adieraztea.

Gaizki esanak, barkatu. Naikoa dala uste det gaurkoz. Agur eta beste bat arte. Zure otoi itzalea jarririk

Baztarrika'tar Daniel

Oña, 1969, Otsailla'k 3

Onaindia'tar Aita agurgarriari, agur bero bat!

Ez da ez erreza itz-aspertu batean mamitsu agertzea zurekiko, ta gutxiago oraindik ain euskal-kumea izanik gure euskal arloan. Ala ta guziz, gure euskera maitearen egoera jasan ondoren, ez gaitu lotsak makaltzen, alik eta saiatze bizkorrenean ari geranean.

Aspalditik nuan asmoa, bi lerro badare, zuri idaztekoa, baño, urrengorako uzte orrek denbora iruntsitzen du, uste baño azkarrago. Umilki badare, egilari natortzu. Baztarrika ta nere euskal anaiei esan diet aspertzeraño, ez ote genuken buru geiagokin joka bear gure euskera pizkortze onetan. Orain gutxi GOMIGA izeneko josulagun gazteak ederki zion, naiz ta bere euskera ez izan ain ukigarria, naiz ta nere adiskide aundia izan!, ere, «organizasioa», zorioneko batasun eta buruz jokatzeko ori palta zitzaigula. Ez diozu uste? Nik ez dakit ziur zeren bearrerean gauden, baiña guziok, geruago ta geiago maite ta gorde, ta batez ere zakondu nai degularik, zerbaiten kezkan ari gertatzen lanean. Nik neronek ere, ez daukat neure burua idazletzat, gutxiagorik ere, baiña zerbaitek mugierazten ba'nau, neure kontzientziari jarrai nai diotelako da, ez beste ezerगतik. Ondorengo au esaten diet nere lagun josulagunei: zergatikan ez genduke alkartu bear, ta EGIZ aztertu zer ta nola joka bear degun euskeraren iraupenerako!... Au da buru-nasketa!, esango dezu ta Etxaniz'tar N.'k, esango lukean bezela, «egi borobilla» erantzun bearko nuke. Zerbait egin nai, ta euskaldun askoren lelokeria ikusita barreneko alako ondo-ez batek ukitzen nau.

Bestaldera joanik... Neronek bidali nizun ABSIDE'ren ize-nean tarjetatxo ura, ni bainnago buru liburu artze edo Bibliografiari dagokionez. Pozikan idatzi izango nizun, luze ta zakonago, baña orduan gogorik ezak gaitendu nindun. Baztarrika'k osore iritzi polita egin dizu, ta atsegingarria. Ni oraintxe ari naiz irakurtzen, ta pozikan egin ere... Olerti saillak, betiko do-

toretsian datorzkigu, ta benetan txalogarria zure lanketa, maji-
ñabatentzat eredu bikaiña zalararik. Zorion beroenak Aita
Onaindia zure leialtasuneagatik, ta zu bezin maitale sutsu erne
bitez Euskalerrri zear.

Zer geiago?

Emen ez aundirik, Oña bazterrean... utsa Euskalerrri'ko erri
koxkorrenean bederen biziko bagiña! !! DEYA'ri dagokionez,
zer geiago esango dizut, bada! Bein asi genun ta orain jarrai
egin bear. Ni oraindano Ikastetxean egondu izan naiz, Tudela'n
Aita Barandiaran'ekin batera, ta bein oneratu ezkeru ari naiz
zerbait egiten, irakurri oi ba'dezu. Ni ez nago ain ogi ta mai
aldizkaritxo onekin, batez ere, gure euskera, nerea batez ere
oraindikan mardulegia, muzkerregia dakusdalako, ta ez dakit
zer pentsatuko duten ainbat euskal irakurleek. Zuk zer diozu?
Esango dezu, gaur dana galderaz josia datorkizula eskutitza...
baliteke, baña batez ere oso pesimista xamar nabil, ikusten du-
talako askozaz geiago egin dezakegula ta emen gabiltzala esker
eskuira alkar joiaz. ZERUKO ARGIA'tzaz, zer diozu? gure
eskutitzak erantzunik gabe errez gelditzen dira beintzat. KAR-
MEL lurperatu al zenuten zearo?

Bueno, A. Onaindia, barkatu nere gaurko txepelkeriak, ta
zuk beintzat jarrai eten gabe, oraindano lez, bizkaitarrak diozu-
tenez. Askozaz geiago mintza nezakean (akitu eziña baitda eus-
kera gaitzat artzen degunean), baiño urengorako utzi bear. Aita
Migel Mari'ri, zorionak, ta zuretzat, nai dezun guztia; adis-
kidetasun beroenean,

Iñaki Epelde

Bilbao'n, 1965. Otsalla 3'gn.

Agur Aita Onaindia:

Badakizu zelan asi garan Bilbao Erri Irratitik euskera irakas-
ten eta, au da poztutekoa, entzuleen artean guztiz arrera onagaz.

Xabier Peña'ren gramatika-idaztia imini dogu ikasteko, ta bi milla eukazanetatik, ia guztiak saldu dira. Atzo be barriro bialdu izan bear genduan emisorara beste idazti pillo bat eta egun gitxi barru, amabost geyenez nire ustez, bape barik geratuko gara.

Xabier Peña'k esan daust zelan zuk bialduko dozun Madrid'era Zensuratik pasetako bear dana. Nik gaur, idazki onen bitartez gura izan dot adierazi zelan denpora galtzerik eztagola ta al dozun guztia egiteko len-bai-len baimen ori lortuteko.

Ille ontako 14'gn., igandean, euskerazko meza bat lortu dogu. Badakizu non? Katedralan! Izango da goizeko 9,15'tan, MIGUEL ANGEL ASTIZ'eri Euskal Folkloreak egiten dautsen omenaldiaren jayen artean. Gero jai eder bat eukiko dogu 11,30'tan Santiago Apóstol Antzokian, eta bazkari bat El Coci-nero'n.

Asko daukat esateko baña denporarik ez. Olan ba, ikusi ar-te, ta mesedez, ez aztu Madrid'eko baimen ori.

Zurea,

Xabier Gereño

Madrid, 1965-11-10

Onaindia Santi

Larrea

Adixkide miña: biotz-biotzez agurtzen zaitut berriz ere bazter ontatik. Eldu zitzaizkidan zure iru liburuak eta eskeñi nizkien Zenbait ordu, irukoteari gain-begiratu bat emanaz, aal nuen onena. Zorionak, Onaindia, arimaren erditik, eta or banengo besarkada estu bat eskeñiko nizuke nire estimazioaren ezaugarritzat. Papereko itzak gutxi dezakete, bañan txurgatu iezu duten zorion-guna guzia. Oro zuretzat!

Segi ortan kementsu ta bizkor, adimen argi ta zain bero, «pattarkeriak» utzirik, jakintzaren gaikaldetik, or baitakagu guk arloa, atxurraren bearra, etorkizunean itxaropen apur bat degun bitartean. Bestela, goazen emendik...

Zenbait aburuetan bat ez bagatoz ere, alkar-ulertzen gera ia beti. Gañera, begia oso irikita daukazu mundura ta onek arras pozten nau. Zergatik? Komeni zaigulako ateak irikitzea, ez geiegi ta ez gutxigi. Iriki esan dut, neurri bat gordeaz. Ni bide ortatik abiatu nintzan eta ortik noa. Emen poema bat asi nuen eta, bear bada, biarko egunean gizen xamrara irtengo zait. Eta zuri bialtzen dizudan zatitxo ori «sarrera» bezela izan ditek. Tankera ortakoa izango da. Gero ta gogorrako, mallu-zartakoak tarteka-tarteka siñaletuz. Egizale izan nai nuke ta ez idealista.

Olaxen dituzu nire gauzak.

«Lizardi» sariketara aurkeztu nuen poema eskatzen zenidan. Barkatu, Onaindia, egun batzuek lentxoxeago Luis Mitxelenak eskatu baizidan «Egan»-erako. Bertako ateak iriki zizkidan, erre-gutuz igorri nezazkion lanak aurrerantzean. Beraz, barkatu. Ta ordañetan, beste onako au bialtzen dizut. Zuk itza.

Ez dut besterik esateko. Gañera, denboraz urri nabil.

A, bai!, Salvador Garmendiarekin (sinisgabearekin? ja, ja) egon nintzen. Tolosan, ain zuzen ere, gabonetan... garai artan egin bainintzen apaiz Donostin. Orduntxe antzerki-saria jaso berria zen. Azaldu zidan muña ta Zergatik egin zuen eta nola eta beste milla gauza... Ezagutzen dut idazlea ta bera ere kon-prenitzen dut zertxobait. Esames gogorak entzun ditut beraren kontra, Jainkogabea dela esanez. Beste batean, mintzatuko na-tzaizu ortaz, udaran or izango bainaiz seguru asko, pasadizun beintzat.

Beno, aski zait. Torizu oroitzen zaitun onen besarkada.

Oremus pro invicem!

Paulo Iztueta

Caracas'tik 1965'gko Epaillak 7

Agur, Onaindia:

Emen doiatzuz «Unai-kantak» eta «Alor-kantak». Unai-kantak Euzko-Gogoan agertu zirean lez, bapere aldatu barik doiaz. Neuk be, ainbeste urte ondoren irakurri ditudanean, eder arkitu ditut, eta eztitut bapere aldatu. Ganera olan obeto ikusiko da amar urteren buruan gizon baten idaztankerak zelako aldakuntzak egin leikezan. Zuzendu biarrak eta asko daitekez, zuzendu erruki barik. Itzaurretxua, egunotan egingo dot, neure itzulpenentzako soilik. Sarrera nagosia (liburu osoaren), zure eskuartean uzten dot, Ortarako ni baiño antzetsu eta iakintsuago zara-ta.

Paperok artzen dozuzanean, lerrotxu bat egin nire bakerako.
Agur

Andima

Donostia, Maiatzak 13, 1965

Aita Onaindia'ri

Lrrea'n. Zornotza

Adiskide on-ona:

Eldu da zorionez LAUS DEO esateko eguna. Etxahun'en itzulpena bukatu dut. Bost urte luze labaindu zaizkit lan onetan: 1960-1965. Nork esan! Noski, bitarte ontan beste lanak ere erabilli ditut eskuartean, euren artean «Gorrotoa Lege». Eleberri onekin erabilli nuen denbora aldebateratuz, iru urte aritu naiz lan ontan eta aipatutako nobela egiten ere iru urte jarri nituen. Biok dira noski ene eskuetatik atera diren lanik luzeenak.

Oartxo bi egin nai nizkizuke. «Mündian malerusik» poemari dagozkion komentarian nere 46'garren folioan 42'garren leerroan (ongi kontatu baldin ba'dut), ikusiko duzu Mirande'k dio-

la: «izkuntza *gutiz* geienetan gertatzen den bezala». Neri oso bitxi iruditu zitzaidan esaldi ontan «gutiz» eta pentsatu nuen konfundituta idatziko zuela «gutziz»en ordeztu. Baiñan, berari galdetu nion eta ez da ala. Zuberotar euskalkian txit esaera jatorra orren da. Beraz, utzi dagoenez, gure euskalkietan ongi ulertzen ez baldin ba'da ere, «gutziz» ezarri ezkeror zentzuz aldatuko genduke-ta.

Poematxo beronen komentarietan ere, 49'garren orrialdean (folioan ,alegia), boskarren errenkan ikusiko duzu *consequence* itzaren ondoren Mirande'k, utsegitez (), parenthesis arteko bi ikur nahasiok ipiñi dituela. Beroietan punto eta koma da balio duena eta tarteko marra baztertzekoa.

Ez dut uste beste esan bearrik daukadanik. Ikus dezakezu-nez eraskin bat erantxi bear izan diot. Bat «Gaztalondo'ko Prima» bi hemistikioko arnasaldiaz baliaturik (Lengo itzulpenak amabi silaba baitzituen tarterik gabe eta gogortxua iruditzen zitzaidan), «Oraiko neskatilek» deritzanetik bi ahapaldi geiago eta «Ahargo eta Kanbillu»tik bat, Larrasketa'ren liburuak etzekarzikianak.

Agur ba, adiskide on ori, eta nere eskerrik biotzekoenak lan luze au ain egoki argitaratzen ari zatzai'dalako. Zure agindupean naukazu

Yon Etxaideko

Donostia, 65-VII-'1

Aita Xanti Onaindia

Larrea

Ene adiskide ta Aba (Pater):

Bartzelona'tik eskaera bat egin didate ta nik eztakit nola billatu eskatzen dizkidaten xeetasunok. Zuk zerbait egin al bazeneza, bial zaizkidazu biltzen dituzun xeetasunak, eta nere aldetik egingo det al dedana. Ona emen zertzuk eskatzen dizkidaten:

- 1.—Una lista completísima de todas las publicaciones periódicas que han vivido durante estos últimos 26 años, aunque su vida fuera efímera e incluso que no fueran impresas.
- 2.—Fecha exacta de la aparición del primer número y fecha exacta del último número, esto de cada período, en el caso de que una publicación periódica haya resucitado y muerto varias veces.
- 3.—Una distinción entre las publicaciones periódicas enteramente en vascuence y las bilingües y las trilingües.
- 4.—Lugar o distintos lugares de nacimiento y muerte y resurrecciones y muertes.
- 5.—Pequeña biografía de cada fundador.
- 6.—Pequeño análisis de la tendencia de cada una y su contenido.
- 8.—Principales colaboradores.

Xeetasun auekin katalaneraz liburu bat atera nai dute ta Orretarako eskatzen dizkidate.

Zere aldetik zerbait laguntzen ba-didazu, mesede izango degu gure elertiaren ezaguera zabaltze onekin.

Zure berrien zai gelditzen naiz.

Jainkoa ta euskera biotzean degula, bota bostekoa.

Etxaniz'tar Nemesio

Santurtze'tik 1965-ko dagonillaren 8-garrenean
Onaindia'tar Jagoba Abari

Agur jauna: atzo artu neban berorren eskutitza. Deituko dautsot urrutizkiñez, Kerejeta'gaz batzarra egin baiño len. Anartean, goazen beste arazo batera.

Martial'en ziri-bertsoak euskeraz jantzi dodaz eta bertsotan. Atzo amaitu neban itzaurrea ta auxe jakin gura neuke: Nik, Martial'i buruzko gora-berak azaldu ondoren auxe diñot: beste

bertsolariak, euren bertsotan, aapaldi batzuk daukezala ziri-bertsotzat artu leikezanak: lagun-urkoa edo alkar zirikatuz agertzen diranean, batez bere. Ta baita bere euren bat-bateko ateraldietan (Domingo Kapaña, Bilintx'ena aipatzen dot) ziri-bertso egilleen parean jartzen dirala askotan. Ondoan, Eusebio Maria Azkue'k PARNASORAKO BIDEA'n dakazan ZIRI-BERTSOAK. Orain Peliipe Arrese'ren olerkiak arakatuten nabil. Epigrama-antzeko batzuk be ba-dakaz Otxandio'ko olerkariak. Ta geiago? Beste iñork (edozein euskalkitan) epigrama izeneko idaz-mueta landu ete dau euskeraz? Edo berez epigramak diranak ez ba-da be, antzekorik edo aintzat artzekorik idatzi ete dau iñork? Esan begist nork eta nun. Orixe da gaurko nire kezka.

Iraillaren asikerarako salgai egongo dala liburu barri au uste dot. Bitartean, euskeraz ikasteko bigarren ikastaroko apunteak gertatzen nabil. Oneik Irailla-azkenerako agertuko dira. Orduantxe, atsedeen-alditxo bat artuko dot, burua ta soiña arintzeko. Ta ondoren, ikastaroa asitakoan, barriro be lanari ekingo.

Il onen amazortzigarrenean Baiona'ra noa. Ezer jakingarri-rik ba'da, ekarriko dautsot eta orraño joango naz, al baizen laster.

Latera-euskerazko idazlanok Seminarioan sartu gura neukez datorren illean. Gure gaztetxoei konpleju guztiak kendu bear dautseguz. Martial'ek legez, «dicere de vitiis, parcere personis» egin bear dogu apur bat gure abadegei-etxeetan.

Laster bialduko dautsot beste BERTSOLARIAK'en diru-pilloa.

Beste gabe, agur gaurkoz. Ondo izan Jaungoikoa lagun.

Etxebarria'tar Juan Anjel

Helsinki, 1965, dagonillak 17

Agur, Aita Onaindia ona!

Eskarrikasko zure idazkiekaitik eta «Ikurrin» liburu ederra-gaitik.

Ni enaz euskalduna eta eztaikit euskeraz garbi itzegiten; baña euskalduna banintz bezela biotz-biotzean poztuten naz, benetan, zure liburuak ikustez eta irakurtez.

Zuk lan oso aundia egiten dozu Euskalerrriaren alde. Nere ustez ezer, beste gauza, politikak eta abar, baño asko inportanteagoa da literatura egin eta izkuntza biziro erabiltea. Jende guztiak, ikasita edo ez, alfabeto dakina bakarrik bada, eusko irakurgai, liburu asko euskeraz euki bear dauz.

Umien ikastolak euskerazkoak izan bear lirake danak. Agintariak ezpadabe nai, onegaitik bai politika egitea oso inportantea da. Euskaldunak ez daukie iñola bizitza erreza. Otoï egiten dot Euskalerrriaren alde.

Nere ikasteak iraungo dabe ondiño luzaro. Ikastolako ikasteak diñot (Bizitzako ikasteak bizitza guztian iraun bear dabe). Ez dakit eta bearbada ez dot iñoiz jakingo zelan zatitu bear neukezan neure orduak nai dodazan gauza guztientzat.

Sorpresa bat daukat zuretzat...; ez dakit aundia ala txikia izango yatzun, baña niretzat zorionezkoa izan da. Ia noiz jakiten dozun!

Biotzez agurtzen zaitu zure

Kirsti'k

Tolosa, 1965-VIII-27

Onaindia'tar Santi Aita

Zornotza

Aita gogoratua:

Mesedetxo bat eskatzera natorkizu oraingoan.

Barcelona'n nago ta hango poeta batek, Miquel Bauçá jaunak, euskal-olertiaren bilduma egin nahi duela, San Martin jau-

naren bitartez nere laguntzatxoa eskatu dit. Liburu hau katalanera-
z ta euskeraz agertuko litzake, luzagarri bat deramala. He-
men, azken 26 urteotako euskal-literaturaren, eta euskeraren
onerako izan direnen berri eraango litzake. Hori bai: eskema
bat eskeini-az bakarrik, hau da, liburu-aldizkari ta abarren al-
bistea laburkiro emanaz: jaiotza-urtea, iraupena, zertarakoa, lan-
kide nabarmenenak...

Luzagarri honetan, ba, Ordena bakoitzak bere txokoa izango
du, etxeko lanen berri jakin dezagun. Ta... karmelitarren 26 ur-
te hauetako egindakoen zera jakiteko ta jakinarazteko zu ez zera
batere txarra izango, ta besterik ezean ez ote zenuke horretara-
ko, eskema hori egiteko, iñor idoroko? Honatx nere eskaria.

Zeulon berri emateko nor hoberik zeuok baiño? Zure berrien
zai gelditzen natzaizu, ba: orain Donosti'an, egunotan, ta urria
ezkero Barcelonan; hara bihal dezaizkidakezu eskatzen dizki-
zudan hauek: P. Joseba Intxausti. PP. Franciscanos. c/ Santa-
l6, 80. Barcelona-6.

Ba dakit Zenbait gauza aztertze-ko lana eskeintzen dizudala,
baiña ez genuke, nere eritzi eskasez, gure gauzak kanpokoei
erakusteko aukera hau galdu behar, askotan egin dugun bezela.
Zuenarena egitea, ba, esku onetan uzten dut. Barka, ematen
dizudan buruhaustetxoagatik. Eskerrik asko. Ta agindu zure
euskal-anai ta apaizgokide kaskarren honi.

J. Intxausti

Buenos Aires, 1965-8-28'gn.
Aita Onaindia'tar Jagoba Iaunari
Larrea-Zornotza'n

Aita agurgarria:

Berorren idazkia artu genun garai onean, eta eskerrak emo-
ten dautsoguz emandako izen zerrenda gaitik. Batzuekin eta
bestetzuekin artu emanetan asiak gera, eta bai bialdu ere ale

batzuek. Orain emen ere eragozpenak dira mordoak atzerri aldera bialtzeko. Ale bat edo bi bakotxean, eta aldizka bialdu bear dira. Ludi onetako eragozpneak onerako, ba txarto egin nai dunak, bialtzen du nola legeak gora bera.

Abegi onez artzen dugu beorren asmoa, Enbeita'tar Kepa zanaren olerkiakin liburu bat ateratzea. Alegiñak egingo ditugu beintzat ala izan dedin, eragozpen aundiren bat ezpadegu. Baña ale bitan ateratzea izan leike pizka bat merkeago, ori da 220 orrialdeko ale bakotxa. Esaterako 440 orrialdeko ale bakotxa 100 peso inguru kostako leiteke, eta 220 orrialdeko ale bi, 480 peso inguru. Au adibide bezela esaten dugu, ba berori asmo onekin pozik bada, azkenengo zergaitia bialduko iako, eta beste ezerrik bear bada au egiteko, idatzi bidez ulertuko gera.

Berorren iritxia ala izan ezkeru, guk uste dugu lan ori Biblioteka de Cultura Vasca'n erantzitea ona izango leitekela, idazki ale bat geiago bezela, zabalkunde geiago eukiko leulelako, ba bere zabalkundea oso aundiagoa izango leiteke gure arpidedunen artean, ateratzen duguzan lan guztiak artzen dituezelako, eta gure argitalkuntzak laterri guztietan zabaltzen diralako.

Danadala, au gure eritxi bat baño ezta. Berorrek du itza, ze asmo duen eta nola nai duen egiteagazko goraberatzaz

Agur Aita onori, eta agindu.

Iruxo'tar Ander

Roma, 26-IX-1965

Aita Jakoba Onaindia jaunari

Anai biotzeko:

Zure gelaraño natorkizu oraingo onetan agurka. Erroma-n arkitzen naizelarik, merezi duzu nire atzerri-diosala. Itza eman nizun. Bete dut.

Azkenean, Érroma-n. Filosofia ikasi beharrez noski. Ez naiz, badakizu, emen erakutsi oi duten filosofiaren zale. Bañan aginduak-agindu, ementxe nago. Bear bada, gerora, izanen dut beta nire gixara pentsatzeko. Eztakit zenbat urtez egongo naizen. Gutxienik bi urte. Bitartean, onerako zuzenbidez idatzi idazu, edota zure lanen frutu umotua biali nai didazunean onera zuzendu. Begira gora ta or daukazu dena.

Ongi naizela bakarrik esanen dizut soilki. Oraindik jarri gabe giro berri ontara. Karta egiñean naiko lanpetua nago ta ezin naiteke Oraingo aras luzatu, eskutitzak kanpo baitaukat buruauste aski... batez ere orain asieran.

Beraz, barkatu arren. Gutxi eskeñiko badizut ere, jaso itzazu miresten zaitun onengandik arnas preskoak zure yakinduribidehetan gora zindoki ekin dezazun iñoiz aspertzeke, beti goraka, beti yoranez, beti obeagotuz, beti ameskoi...

Zure lanak onartuko ez banitu, onezkero aspaldian zapuztuko zindudan. Bañan aupatzen zaitudalako, iritziak-iritzi, gordezten dizut sekulako oroigarri au.

Zai naukazu, eta berriz ere zure esanera. Anai-besarkadakin, agur!

Paulo Iztueta

Eibar, Gabon eguna, 1961
Aita Onaindia jaunari
Larrea-ra

Adiskide:

Gaur, jiroz bialdu deutsudaz 3.400 peseta. Ordua ez al zan?

Artu neban il onen 19-an egin eustazuna. Bialduko deutsudaz Azurmendi ta Lasa-ren olerkiren batzuek. Bear bada Arestirenak ere bai. Mirande-ren ura aspaldikoa zan. Nere paper zaarren artean agertu iatan.

Urerngo «Olerti»-rako itzaurrea egindo deutsut, Lasa ta Azurmendi-ren olerki bideari buruz. «Zeruko Argia»n labur ta arrapataka egin nebana sakonago ta luzeago. Zeuri ondo bade-ritxozu. Nik uste dot gazteeri bere bidean libre utzi bear de-utsegula. Gure etorldzuna gazteetan dago.

Badakit laister Virgilio-renak argitaratzekotan zabiltzala. Ori be bearrezkoa dogu ta nik begi onez ikusiko dot. Era ba-rrikoa naiago izanarren. *Bukolikak* eta *Georjikak*, *Eneida* baiño atsegiñagoak dodaz. Lelena, guzia ez neban irakurri, bigarrena bai, ta irugarrena aspertuta laga neban; gudu ta gudueri dago-kiona maite ez dodalako edo. Beraz, ira lan oiek irizpideetatik geiago ezagutzen dodaz, neuk zuzenean baiño. Joandako mundu ori ezagutzea ta bertan jolastea atsegingarri iata, baiña aspaldi onetan, batez be azken urte onetan Eibarren euskeraregaz ikusi dodan erortzea ikusi ondorean, gaurkotasunezko lanak eta etor-kizunerakoak askozaz geiago kezkatzen nabe. Orregaitik ardura-tzen nabe olerkari gazteak, ta orregaitik lagundu nai deutsiet. Iñoiz, lengo erakoak astintzen baditudaz be, jakin deizen, ez dodala egiten atsegin ez dodazelako, gaurkoak kilikatzen nabe-lako baiño.

«Jarrai» (Donostia) antzerki taldeak txartel dotore batzuek atara dituez Eguerriak dirala ta, eta Mikel Lasa-ren olerki au dakarre:

«Izar bat jeikitzen da...

Gabon euskalduna, gaba luzea da
illunpean dagon erriari Eguberri on
gau-pean dagon anaiari (illuna baita gaba) Gabon
pakean iragan bi milla eta geiogarren segidari
ala nai badegu bego eta Urteberri on,

Izar bat jeikitzen da goizerra aldetik.,
Gabon diot, on eta txar bereizten ez dakidalako
guztiori diot, ain gutxi gera, atzo baino bat gutxio
aberria, anaia eta Eguberria diot

oiturak agintzen duan moduan
goiz-albaren esperantza enegan dutalako.

Izar bat jeikiko da goizerra aldetik argi ederretan
sinisten dut, baiña bitartean merezi duanari diot
Gabon eta aberri on anaiok!»

Olako olerkariak gazteria eramango dau berakin, egon se-
guru. Ta, arren, eman daiogun laguntza.

Eguerra ta Urte-barri on! Biotz-biotzez,

f. San Martin

Donostia, 66-1-3

Aita Onaindia adiskide:

Aurrenengo, Urteberri on bere ondasun eta osasunekin.
Aurtengo onek azkenerarte eramane gaitzala euskal-bidez eta
Jainko laguntzaz.

Zuk utzi zenidan lana, oraindik asieran dago Gure lanak
bere tarteak bear izaten ditu ta eguna artan joaten zaigu ezer
gitxi aurreratuaz gure eginkizunetan.

Azkenengo zurean, Gabon jaietan emen agertuko zina
agintzen zenidan; baiña etzera agertu alde onan.

Zatarain'dar Ambrosio'rentzat Pisia ta Kimia lana ekarriko
zenduala ere, esaten zenidan. Ori guzia egiteko daukazu. Ikas-
toiletako jolas eta kanta liburua ere, eztinguzu oraindik ekarri.

Ia, ba, Aita atzeratu ori, noiz agertzen zakigun. Bitartean, ar-
itzazu gure gorantzi minenak eta zure parrez-parrezko illargi
arpegia lenbailen ikusteko gaudela ba-dakizu.

Ordurarte, ba, agur biotz-biotzez. Zure adiskide

Etxaniz'tar Nemesio

Ezer baiña leen: URTE BERRI ON. Astirik ez det izan orain arte ezer egiteko, egia esan. Gaur beta pixka bat atera det eta emen natorkizu. Gaiñera olerki bat egin ondoren. Ez dakit nolakoa irudituko zaizun. Aspaldian bai erderaz, bai euskeraz, onelako lanak baztartuta euki ditut. Berriz langintza ontan asi bearko ote det gero? Alare prest nago edozertarako euskeraren alde izan ezker. Beraz, baita olerkiak ondo edo gaizki egiteko ere. Orregatik noizean bein bialduko dizkizut nik neure lan-rxoak eta zuk ondoena iruditzen zaizuna egin. Arazo ontan ez da errezegia bakoitza bere buruaren epaille ona izaten da. Egin, bada, olerki onekin ere zeuk ondoena irizten diozuna: atera edo paper saskira bota. Eskerrikasko.

Azkeneko Olerti ikusi det. Baita zerbait irakurri ere. Onelakoak komeni zaizkigu Euskalerrian. Zorionak. Irakurri ditugu Gabriel Aresti'renak ere. Garbi esan: gauza bat da bertsoak egitea ta bestea, oso ezperdiña, olerkia, poesiá, egitea. Nunbait orrek pentsatzen du isturia edo literatura kritika bertsoetan egin ezker naikoa dala... Gaur egunean bertso gabeko poesi asko dago. Baiño... bai bertso askodun poesi gabeko asko ere... Utzi dezadan, ordea, gai au onetik ateratzen nau eta. Noiz sartuko ote zaigu oraingoaren onena sakona dala ta iñola ere ez axala?

Emen ari naiz teologja ikasi bitartean neure dalako misal ura egiten. Pentekostean aurrera noa, naiz eta poliki xamar ibilli, danak neuk egin bear bai-ditut. Meza oar, sarrera luze xamarrak eta gaurko gaiak darabilzkit. Gaiztoena nun argitaratu izango det. Baiño, alare, egiña eginda egongo data, ura geiago.

Durango'ko liburu azokan zure billa ibilli nintzan, baiño aurreko egunean izan ziñala zu esan zidaten. Beraz, gogoakin bakarrik gelditu nintzan. Alare alegiñak egingo ditut zu ikus-teko. Etorri bestela zu gure artera egunen bat pasatzera.

Geiago ezer ez, aita Onaindia. Ondo ondo segi. Eta... zeuk nai arte.

Baztarrika'tar Daniel'ek

Igeldotik, Otsailak 1-66
Santiago Onaindia Apaiz jaunari
Amorebieta

Agur, jauna. «Orixe Omenaldi» irakurrita gero, zerbait esatera nator. Liburu ori ondo dago; bañan A. Baztarrikak dion bezela, gauzik bearrena, aren lanak argitaratzea da.

Euskaldunen artean gutxi ditugu erdal-idazleekin berdintzekoak.

Bat, iñor bada ta, Orixe; ta bitartean, aren idazki asko geienontzat ezezagunak dira.

Orregatik lenbailen idatzi oiek argitaratu egin bear dira. Ortarako dirua bear bada, Zergatik ez eskatu?

Batez ere biotz bertso oiek txoragarriak dira, erdal izkuntzetan ere gutxi bezelakoak, Alde ortatik ta euskeraren bikaintasunaren aldetik, Lizardi atzera gelditzen da, ondotoz ere.

Bañan Orixe ez dugu euskal-idazle bakarrik, bai idazle mistiku ere, gaur gutxi ikusten dan gauza. Orregatik apaizok eta Jaungoikozaleok arekin zorretan gaude.

Ta auxe esan nai dizut: gauz au agirian jarri ta Zergatik ez eskatu diru-laguntza apaiz ta kristau oneri?

Asmo on ori agertuz, erlijioarekin zer ikusi dun asmo on ori, Zergatik ez egin txartel batzuk, malla banakoak, dirua eskatuz?

Nik 5 mila pestatik asita, andik bera, mallan mallan, eskea egingo nuke; apaiz guziera aurrena, euskaltzale diranai ta ez diranai, Ortarako orritxo batzuk inprentan aterata, ta gero, Zenbait kristau on ta aberatseri.

«Orixe»-ren merituak ondo agertu ezkeru, Zenbait aberats euskaldunek ere lagunduko luteke. Or dago bat Patrizio Etxeberria, Legazpikoa; nik dakidanez, ondo euskaldun ta euskaltzalea.

A. Baztarrikak dion bezela, batek dirua, besteak burua ta abar, ta izkutuan dauden obra oiek lenbailen atera egin bear dira.

Gero, nere ustetan, lanik onenakin, bertsoekin batez ere, antologia bat egin bear litzake, ondoan erdal-itzulpen on bat jarriaz.

Ta bai aren eskutitzak ere bildu; euskera erreza ta erritarra ikasteko, aukerakoak.

Bat emen bialtzen dizut, zerbait moztuta.

Agur ta agindu.

Igeldoko apaiz-laguna

Marzelino Errezola

Caracas'tik 1966'gko Otsaillak 5

Onaindia'tar Iagoba Aba

Larrean

Adiskide maitea:

Arrituta lotu nintzan zure igaro illeko 30'ko gutuna jaso nebanean, nik zuri lenago egindakoa aipatu be etzenuelako egiten. Ara zer iazo dan gure artean: Urtarrillaren amazzpian nire itzulpenentzako ATARITXOA bialtzen nizun, egalontziz bialdu ere idazki bat lagun; eta zuk eztozu aitatu be egiten zeurean ez prologorik ezta gutunik be. Galdu egin ote da? Edota galbaian lotu? Eztakit auxe baño: zu, Urtarrillaren 30'ean bialkun ori artun barik zengozela baño.

Gaur doiatzuz barriro be Ataritxoa eta nere lenagoko gutunaren aldakiaren fotokopia bat. Gutun au berezian bialtzen dautsut baten bat beñipein zure eskuetara eldu daiten eta itzaurrea ta beste gutuna zertifikata doiaz gaur bertan beste sobre batean.

Ikusi neban Enbeita eta eskatu neutson barriro be aitarean bilduma; magnetofonoan iaso ei ditu olerki guztiak alabeak irakurrita. Donostiatik bialduriko Orixe'n omen liburuak eztira oindiño eldu, baño arrebeak eskuaz bialdurikoa arañegun artu neban. Nire lantxoan mozketa aundiegiak egin dituez ikusi daitezunez eta ezin on ulertu naita be gauza batzok. Agur adiskide, besarkada aundi batekin.

Andima

Zornotza-Amorebieta

Adiskide min:

Lengoan jiroz bialdu nizkizun 100 peseta Zurekin daukadan Oleri'tren arpidetza-zorra nolabait ordaintzeko. Hori baiño askoz gehiago merezi duzu, batez ere gogoan edukirik zenbaki bakoitzetik bi ale bidaltzen dizkidazula Mirande adiskidearekin kunplitu ahal izateko. Hemen izan zan ere karmeldar bat zure «Jalasketa» liburu bikaiña ekarriz eta 100 peseta eman nizkion, iduritu baitzitzaidan 50 pesetarekin nahita nahiezko diru galera daukazula. Eztakit nola ari zindezken hain merke zurrian lur-jo gabe; neri «Gorrotoa Lege»ren ale bakoitza 75 pesetan atera zitzaidan; salmentak gutxienez prezioa bikoiztea eskatzen du eta hala ere 130'ean jarri nuen, ikaratu bainintzan 150 eskatzen. Zuek, lekaideok, mirariak egiten dituzute nunbait.

Irakurri berri dut Orixe'ren omenaldi liburuan zure zatia. Lan bikaiña benetan! Eztakit nundik ateratzen duzun denbora hainbeste gauza egiteko. Nik gero ta gutxiago egiten dut. Ezin naiz iritxi! Irakurtzeak bakarrik ene txolarterik gehienak kentzen dizkit. Amorrizita eta etsi-etsi eginda nago nere nahi eta eziñean. Urteak aurrera dijoazkit eta egin nahi nituzkean lanen erdiak egiteke geldituko zaizkit.

«Jolasketa»ri axal-axaleko ikusmira bat egin diot. Ikusi dut nik hainbeste maite nuen «Goikolako Txoria»ren ipuin bat beintzat sartu duzula. Eskerrak bihotzez!

Besterik gabe, orizu ene euskal-agurrik beroena

Yon Etxaideko

Elgoibar, 1966'ko Epaillaren 23'an
Onaindia'tar Santiago Jaun Agrria.
Larrea'n

Jaun agurgarri orri, agur:

Z. ARGIAN eta beste nunbaiten ere bai, irakurri degu, liburu berri bat atera dezula, ta, oso egokia gañera.

JOLASKETA du liburu orrek izena ta izenak dionatzaz egiña bada, bear-bearreko degu liburu ori gure artean. Emengo ikastolan, egunezko saioan, eun umetik gora ditugu eta ez degu eurentzat bear aña jolas, ezta gutxiagorik ere. Gure umeak egun guzian euskeraz itzezin arren, ikastolatik ertetzean erderaz jolasten dira ta ori etzaigu komeni. Jolas on asko izan ezkeru, oien bitartez lan asko egin genezakegu.

Emengo ikastolakoak, jai-aldietan eta edonoiz, liburuak saltzen aritzen gera, liburu egilleei laguntzearren, guretzako txanpon batzuek ateratzearren eta itz baten EUSKERARI laguntzearren. Orregatik deskuentoren bat egingo ba zenu, beste batzuk egiten diguten bezela, oso ondo etorriko litzaiguke ta al dezun laisterren bidali amar (10) ale edo liburu.

Besterik gabe, arraiki, tarte au artzen det zorionak emanaz agur bero bat egiteko emengoen izenean, ta agindu.

Ettxeberria'tar Félix

Praga'tik 1966'gko Jorraillaren 5'ean
Onaindia'tar Jakoba Aitari
Larrea'n

Aita guztiz agurgarria ta adiskide ona:

Igazko gabonetarako eskutitz bat bialdu nizun, zoritxarrez zure erantzupenik gabe gelditzen naiz. Ala ere, zenbakitik zenbakira artzen dedan «Zeruko Argia» izeneko asterokoaren bidez zure lanaren berriak neregana eltzen dira. Ba-dakizu, zure lan

merzegarria estimu aunditan daukadala. Orain prestatzen ari naiz artikulua bat, euskal-literaturari buruz, emen agertzekoa den txekerazko liburu bat osatzeko. Zure izena euskal-idazleen artean leku berezian aipatzen det.

Igazko urtean «Philologica Pragensia» izeneko errebistan euskerari buruzko artikulua bat argitaratu det. Ale bat bialdu nizun, baiñan ez dakit, eia zure eskuetara elduko zan.

Ba-dakit, berritan, euskal-liburu eder bat, «Jolasketa» izeneko argitaratu dezula. Beste biderik ez daukadalako liburuau artzeko, ausartzen naiz zuri eskatzen ijeki bat, zuk izenpetuta, niri bialtzeko. Aurrez eskerrik asko.

Pozik ikusten det Euskalerrri osoan euskalzaletasuna aunditzen ari dela. Auxe garrantzi aundikoa da!

Ar itzazu, adiskide maitea, nere agurrik bizienak eta agindu nai guzia. Zure menpeko:

Tauer'tar Norberta

Bermeo'tik 1966'gko. Bagilla'ren 9'gnan.

Aita Onaindia

Larrea'ko Lekaidetxea

Zorrontza

Ene aspaldiko irakaslea: Agur.

Alpertu egin nazala esango dostazu. Egia. Alperra naz. Ezin ukatu. Baño zure ontasunaren zai nago, dakidalako parkamena izango dodala.

Norbert Tauer jaunari daukotsat iru eskutitz idatzita. Ez dot erantzunik. Bai ete dakizu ezer berarenik?

Adizkide on bi dabiltz nere lantokian. Eurok gure dabe zure azken liburua, *Jolasketa*. Baño guk ordaindu dogun salneurrian gure dabe.

Euzkera alde lan egin gurian dago emeko gastediya. Ia egunen baten itxartuten garan Euzkotarrak. Artian ikusi eta ziñistu.

Beste barik gaurkoz, betilez, jauna, agindu egitsazu zure menpeko eta adizkide dan

Urkidi'tar Julen'i

Eibar'en, Garagarrillaren 4-an. 1966

Aita Onaindia

Larrea

Biotzeko adiskidea:

Neregaz dot maitezaren 28'an idatzi zeustazuna. Eskerrik-asko «Olerti» banantzeko billatu dozun bideagaitik. Nere bizkarretik lantxo ori kendu deustazu, beste premiazko baterako emon al izateko.

Zu andik etorri bazara be, aste onetan neu noia Barcelona'ra. Badaukat asmoa ango Zenbait idazlegaz mintzatzeko.

Badaukot. Z. ARGIA'n idazten jarraitzeko asmoa, baiña Oraingoz ezin dot, esku-artean daukadazen lanok kendu arte. Izan be, udabarria txarra da neretzat. Udar bertan be lan geiago egiten dot. Ta, aurtengo udaran, al baldin badot, lan nagusiren bati lotu bear naiz, beti txikiak egiten jardun бага.

Ia noiz eskuratzen dodan Virgilio'rena. Pozik artuko dot. Barriz «Kirikiño»rena oso momentu onean datorkigu, baiña azkartu zaitez urrirako atera al izateko. Gauzak berotasunean geiago saltzen dira, ta urrian egingo doguz (egingo doguz diot-sut, neu be, «Gerediaga»koegaz, bere omenaldia antolatzen nabillelako) bere gorazarreak, ta tartean euskal liburu ta diskoen fereia be antolatuko danez, orduan izango litzake salketa ona. Guk, bere ipuiñegaz, disko bat ateratzeko asmoa dogu. Zuretzat, zeintzuek dira bere bi edo iru ipui onenak? Guztien iri-

ben zure ustean.

«Olerti» banantzean, kontuan euki nik ale bi biar dodazala. Neretzat eta Otsalar'entzat. Emen bialtzen deutzudaz bere olerki ta itzulpenak.

Zuk jarrai olaxe, liburu asko ta merke ateratzen. Guztiak falta egingo deuskue.

Besarkada estu bat,

J. San Martin

Errera'tik 1966'gko. VII-10'an

Aita Onaindia jauna

Larrea'n

Agur adizkide zintzo eta langille kementsu ori: Orain egun batzuk eskuratu nitun, lenengoz Olerti eta, andik egun bat edo bira zure idazkia. Emen bialtzen dautzudaz gure Enbeita parebako bertsolari edo obeto esateko gure urretxindor, oleskariaren lan eder batzuk. Filipinas atzerrian Euzkadi izparringi, egunerokotik artutako olerkiak dira ta, ementxe idazti bat bezela, enkuadernatua daukat orduko Lizardi ta beste olerkari batzuen lanakaz baita neure asi-barriko olerki tuntunakaz. Bost lan zoragarri dira, ara emen izenak: «GEURE ANAI ZARA» «ANAYAK GARA» «POZTU GAITEAN BA» «EZ AL-DA EL-DU ORDUBA» eta, «BIDASO ERTZIAN». Besteren batzuk be ba'dira baña, auek zure «Enbeita Oleskari» idaztian datozte. Ba'da beste bat bialtzen ez dautzutena ta, zalantzan arkitzen naz; bere izenburua: «Zeu beti gure Zaindari» (euzko gaztedijari opaldua). Bai ete dozu? Zure iritzikoa naz esaten dozunian, gipuzkoarrak siñistu gura eypadabe be, alako bertsolaririk oraindik ez yaku sortu; jakiña da: bertsolari baño geiago da, bertsolari ta Olerkarien tarteko, oleskari.

«Olerti» beti lez, dotore agertzen yaku, batez be, pozgarri, euzkel olertia aberastuz. Ikus-Miran, gure Muxika gaztearen poema ederra bein eta, barriz irakurriz nabil. Gaur eguneko olerkari dogu, ta bere joskera bereziaz gure berbeta, izkuntza zarrari, beste bizitasun aize-barri osasuntsu baten eder-giroa damotso. Bai egunian doguzan olerkarietatik gorengo bat dogu. Zer gertatzen yako Aita Gaztelu'ri? Oraingoan ez dau idatzi. Muxika'ri jarraituz neure iritziz, utsune aundi batzuk ditu eta, dana, landuezaren erruz: Au da, Zertako sartzen ditu ainbeste erdel-itx alperreko euzkerazkoak ba'ditugu? «frutaia» «serioski» «fuertezko» «plaiak» «erralidade» «esperoa» «egoismua» eta, anitz kideko eta gipuzkoarrak ain maite daben bailara ori... Otsalar betiko antzera egokitasunez datorkigu. Eta Aurraitz iñoiz baño obeto, bere «Larrosa gorriak» «Esku latzak» (luginaren) eta, «Azken-Ópageia»z. Eta, oraindik beste olerkari barriren bat ete? Olaetxe. Begiko yat eta, baita Oxiñondoko Txoria, be. JOLASKETA'ri buruz, ez neban usteko ainbeste salduko ziranik: Bi milla; auxe benetan pozgarri. Jarraitu aurrera, urte askuan euzkera-alde, lan eta lan. Eta, ia noiz agertzen dozun zeure olerkirik onenak idazti txukun batian. Niriak? Ezta kit noiz izango dan. Ba'dot gogua, ez uste... baña, dirurik eza... ori gertatzen yat. Aurten be, bialduko dot sariketarako olerkiren bat edo beste... Orain, lan, emen Pasaiko portuan egiten dot (Silos de Rezóla) Erretereri aldian; len baño askoz lotuago arkitzen naz, turnotako lan barri ontan, baña Jaungoikuak lagun nai nuke Urrillean, zuen artean, Larrea'n izan.

Aleginduko naz ume-olerkitxoak aukeratzen eta bat edo beste on-onik ezpadogu be (españarrak baño obiagoak bai), bialduko dautzudaz «Enara abesten» «Aize errota» eta abar, eta gero zuk ikusiko dozu zerbait balio daben.

Agur. Biotz-biotzez besarkatzen zaitu.

Muniategi'tar Sabin

Bilbo'tik, 1966-VII-11
Aita Santiago Onaindia'ri
Larra'ra

Ene adiskide on ori:

Lengo baten artuko zenduan nik bialdutako lantxu bat: «Orixe»'ren «EUSKAL LITERATURAREN ATZE EDO EDESTI LABURRA», beiñola «Euskal-Esnailea»'n argitaratua. Zuk, jakiña, lendik be ezagutuko zenduan lan eder ori; baiña nik, aurtan, Seminario'ko ikasleentzat atara dot, eta ainbeste mesederen orde, zuri be bialtzeari bearrezko eretxi deusat. Asko be enebazan argitaratu, baiña oraindiño badodaz banaka batzuk: besterik gura izan ezkeru, ba —nai Zeuretzat, nai zeure adiskideren batentzat— eskatzea baiño ez daukazu (bakotxa ogerleko batean ipiñi dogu...).

Or ikusiko dozun lez, «ORIXE»'k ezarten dabezan olerki-zatiak ez dodaz ipiñi, zure «Milla Euskal Olerki Eder» orretara bialdu baiño irakurlea. Izan be, alde batetik lana laburtzeagatik egin dot orrela, eta bestetik, zure orretan olerkiok oso-osorik dotozelako (ta au be mutillok ezagutzea mesedegarria da beti be).

Igazko udan, Euskal-Idazleen Lorategia gertau neban uda-ko oporraldietan. Aurtengoan be badarabilt zerbait esku-artean; ez gauza aundirik, egia esan. Zure «Milla Euskal Olerki Eder» oiñarriztat arturik, auxa egin gura neuke: Antoloji-antzerako bat eratu, gai eder batzuri buruz (esate baterako: zelan ikusi dabe euskal-olerkariak Eriotza, Izadia, Abereak, Maitasuna, Aberria, Euskera, Sendia, Urte-aro ta Gau-Egunak, t. a. Zertarako au? Ara: bein baiño sarriago esaten deuskue —batez be, gaurko euskal-«yeyeista» batzuek— Aresti ta onen antzerako «eskritore» batzuk agertu arte, ez dogula izan benetariko olerkirik... Zer irakurri ete dabe gazteok? Dana dala, esamesok, apurka-apurka, barrura sartzen dira, eta ezer irakurri bako gazteak bein baiño sarriagotan ontzat artzen dabez kaikukeriok. Ez dogu, bear bada, beste erri batzuen ondoan, literatura ede-

gauza geiegi agertzen yatalako. Amaikatu gauza eder egin dabe gure aurrekoak! Au zuri esatea, alperrekoa da, badakit: zeure liburu andi-eder ori atondu zenduanean, ikusiko zendun au beste. iñok baiño obeto.

Astirik ba'dot, beste «Antoloji» bat be egingo dot, aren baten: Gipuzkoa'ko idazleena. Batez be, idazle garaiena, iztegi luze batekin (dan-dan au, neure ikasleai begira egin bear, jakiña). Baiña, J. San Martin be or ei-dabil orrelako zerbait egin gurean, eta ez dakit zer egin: aurrera ala itxaron. Zer deritxazu?

Amaitzeko, eskaritzu bat: Datorren kursorako artuko neu-kez, pozik be, 25 «Milla Euskal Olerki Eder», oraindiño salgai da'dozuz. Uste dot Karmen-arratsaldean or izango nazala, ta, etxean ba'zagoz, orduantxe ekarri neikez. Ordaindu, ostera, ezingo deusadaz egin, mutillak Seminario'ra etorri arte. Ez dakit jakitun zagozan: datorren kursorako laguntasun bikaiña izango dot Seminario'an euskal-arloan: Mikel Zarate abade gáz-tearena.

Agur, ba, Aita Santi, ta beste bat arte.

Besarkada bat,

Karmel Etxenagusia

Legazpia, 1966'nggo. Uztaillak 14

Aita Onaindia'ri

Amorebieta'n

Agur, Aita:

Juan zan urtean berandu xamar ibilli nitzan bertsoak bial-tzen. Ona emen aurtengoak; nik ere oitura zaarren alde eta batezere euskeraren alde, aldedan pixka egiñ nairik.

Urrillaren amabiko jai-aldiaren albixta artu nuan baña ez nuan juaterik izan. Emen gelditu nitzan pena askorekin.

Agur, begirune guziz, eta agindu *l. Olea*

Helsinki, 1966-IX-27

Agur, Aita Onaindia!

Denbora asko pasa da. Parkatu ez dautzudalako beingoan «Ikus-miran» liburuagaitik nere eskarrak emon. Orra emen eskerrik asko, asko! Lotsatzen naz ainbeste emon daustazula eta nik ez dautzudala idatzi ere.

Turkiatik etxera biurtu-ta Euskalerrira joan nintzan. Donostian egon nintzan lenengoz aste bat; gero Muxikara joan nintzan, eta Zornotzan zu be bai azkenetik ikusi bear zindudan, eta Bilbaon lagun askogana joateko asmotan nengoan. Baña berriz nere planak betetu gabe, urten bear nintzan. Examiña baten eguna orduntxe Suomin zala ikasi neban, ez agorreko asieran, uste izan neban lez.

Biajetan naiko diru gastatu neban, naiz Euskalerrian beti etxean lez artzen nauzute, ama, aita, aizta, nebak dauzkat eta etxea, jatekoa, lo-egiteko lekua toki askoetan, Euskalerrian. Euskalerriko alde guztietan jende oso ona da. Zoriontsua naz eta zorretan nago Jainkoari! Baña neukan dirua gastatu neban eta oraindik aurrera ez naz emen lantegira joaten, ez irabazten, ezta orregaitik udaretan kanpora biajatzen. Orain zintzo-zintzoa ikasketak ondo bukatzea probatuko dot. Eta etxean amari asko lagundu bear dautsot; diruakin ez dot orain laguntzen eta etxean egoten naz geiago orain.

Olakoak dira nere barriak. Zu ni baizen ondo zagozala biotzetik opa dot eta zugandik entzungo dodanean asko poztuko naz.

Nere iritxiak Turkiari buruz idatzi gura dautzudaz; Orrelaxe nere idazkia itxaron daikezu, eta zure adiskidea bezela artu zazu zure

Kirsti

31 - Toulouse - 03, 1966'ko buruilaren 30'an

Aita Onaindia

Amorebieta

Bihotzeko adixkideari:

Joanden Ekaina ondarrean bukatu ditut nere ixtudioak, Parise'n. Azken asteak izan zauzkigun asko akigarriak. Bainan gero, uztaila hatsarrean, zonbait egun goxo eta pausagarri iragan nituen nere etxekoen artean. Nere Frobintziako buruzagiek Tolosa'rat izendatu naute gure Teologilari ixtudianten Maisu bezala. Beraz zonbait urtez bederen ez dukek Eskual-Herria'n bizitzeko itxaropenik. Halere hurbiltzearekin pozten naiz sendi baitut Eskual-Herri'tik ez naizela hanbat urrun eta Parise'tik bezain ongi segitzen ahalko duketala eskual-bizitzaren oldea eta moimendua. Aurtan behin ez duket ixtudiant moltxo handia hameka baizik ezpaitira, halere aski izango da neretzat Maisu bezala aprendizgoaren egiteko! Urri huntan hasiko ditugu kursoak. Tolosa hiria ez dut batere ezagutzen eta zonbait hilabete joanen dira segur hemengo bizitzeari jarri artino eta hirian zerbait gisetako lan bat hatzeman artino. Tarteka bederen uste dut deskantsu kotsia izaitea Eskual liburuen irakurtzeko eta ere lan zonbaiten egiteko, olerki ala poema, goi-izar batek gogobihotzak hunkiko eta harrotuko dauzkitalarik! Ukan zinukun segurrenik igorri nauzutan azken poema «EGUNEAN EGU-NEKOTIK»: zer deritzaitzu? Neri asko gustatzen zaut bainan ez da errana berdin gustaturen zaiotela irakurleeri! Ahal bazinu nik igorri poema horiekin zonbait zenbaki berexi moldatu, atsegin handia nuke nere adixkideeri eskaintzeko, bainan beharba fresak handiegi izanen dira zuretzat eta ez nuke nahi fresetan sar zaiten neri plazer egitea gatik! Zuhaurk ikusiko duzu zer eta nola egin, zeren nik fitsik ezpaitut ezagutzen irakorlako lanetan. Horra zonbait berri nere zuzenbide berriarekin. Egungo uzten zaitut, Aita ONAINDIA adixkidea. Onhar-kitzu nere bihotzeko sendimendu goxoenak. Egin dezagun lan egu-nero eskualdungoaren onetan eta zerbitzuko.

Jean Erdozaincy-Etchart

Aita Santi bedeinkatu ori:

Bart eldu nintzuan Salamankatik, eta gaur etxeko edo etxartekoen zeregintxu batzuk egiten diardudala, Irigoien-ek dei egin yeustak etxera. Mutil, egun bakar bat be ez arnasartzeko be! Zera, domekan «Kirikiño»-ri buruz berba egin bear dodala, Euskaltzaindikoen izenez. Frailleren batek eta andereñoren batek be, egingo ei dabe.

Zer esan gura deuan? Auxe: mesedez bialdu egidala biar berten —iretzat gaur berton— Kirikiñoren albistaren batzuek, edota besterik ezean, ointxe egin barri doan liburu mardo ori, Lenengo eta bigarren abarrak eta... «Onaindiaren abar geigarriak».

Gustorako egin izango neban nik itzaldi biribillagoa Kirikiñoren onez eta omenez. Baiña zuek, «antolatzaillleok» azken-orduan emoten deustazuek niri zeregin oneek. Eta esan oi dabe-nez, «improvisado» ez da egoki ez zuzen, sarri askotan.

Baiña, aupa mutillak! Euskeraz eta euskal-gaietazko zerari, zelan ezetzik esan, guk geuk?

Bialdu egidak, ba liburu ori, besterik ezean, Banco de Vizcaya - Zorrontza-ko «botones» dalakoaz. Egunero dator ona, gure Akademiara, Bankura, eta berak emon leist niri, edota Hurtadori.

Biar arte, edo Mañarirarte. Besarkada estua. Santa Teresa-ren egunez, Alba de Tormes-en egon nintzuan, atsegin aundiz egon be.

E. Erkiaga

Larrea

Aita begiko ta lagun maitea:

Gaur bederen txolarte bat eskuratu dut zuri esker beroak bialtzeko. Milla esker Aita Xanti, zure idazki sentikor eta zeru-tarra gatik.

Ludiko gora-berak onela dira. Jaiotzak eriotza zor! Baña zuk ondo diozun bezela, illunpe onen ondokoa degu egiazko bizitza. Eta gure sinismenaren «Fede ta Itxaropenak» indartzen dute egi aundi ori. Zer litzake gañontzean ludi likits au, gizonarentzat, gerokorik ezpalitz? Nik, orain nere emazte maitea galdu detanean argiago ta garbiako dakust geroko betiko bizitza. Gorputza illobian dago baña bere animarekin alkartuta bizi naiz, auxe baño ezaugarri oberik ez dut topatu Santuen alkartasuna bizitzeko. Ola obe; onela, «galdu dut baño ez dut galdu».

Olerti eguna ospa zazute alai, ni ez nijoa aurten. Umorea nere umore biurriak betirako alde egin dit; nik ala uste. Ez pentsa ordea kezkatu ta illun bizi naizenik. Yainkoari eskerrak emanaz bizi naiz, zeru-bidean, noiz baño noiz, eta laister izango da, nere emazte maitearekin berriz ere alkartzeko. Agur guzioi. Satarka'ri zertxo bat esan diot, eta benetan pozez artu duala berria. Agur, Aita Xanti ta egigun otoitz. Zure adixkide.

Fernando Artola

Caracas'tik 1966'gko Abenduan

Onaindia Aita agurgarria:

Asi baizen arin artuixuz neure zorionik beroenak gan-ganean daukaguzan iaiak dirala-ta. Goiko launak bere esker ugarriz aseko al zaitu zu eta zure inguruko guztiak be. Artu neban

zure liburu eder ABARRAK ETA... ABAR, baita ioranez irakurri be. Kirikiñoren idazlan zarrenak be gaurko idatziak dirudie. Orduan be antza, beste erabatera, baña euskeraren auzia gaurkoa lakoa edo zan... Baña poztuko giñako orduko bestean itzegingo balitz gure Euskalerra maite onetan. Baña liburu ontaz eta beste zure idazti ederretaz beste nunbait idatzi nai neuke... KARMEL agertuko balitz...

Auxe eskatu nai neutsuke... Eztakit zetan diraken Bergileren idaz-lanen irarpenak, baña iñoiz amaitzen diranean bost ale (ejemplar) nai nituke apain edo beintzet polito lotuak (enkuadernatuak) emengo norbaitzuei bezuza egiteko. Lotura orreik neuk ordainduko dautsudaz, pozik ordaindu be. Eta eskerrik asko aurretiez.

Izan ditut Balendin'en barriak eta nire lobak be an izan ziran Aiangiz'en bera ikusten. Zu ikusteko be urreratu zirean Larreara baña ezinduen arkitu, zoritxarrez. Ortik ibilli zirean ia iruillabetea, eta pozik biurtu ziran ona barriro be.

Laster datorrela onuntza iragarri eustan Batiz gure adiskideak. Dirudinez aberriko aizeak kalte besterik eztautse egin; aize lotuak diralako orkuak? Baleike ori be. Larunbatean edo, Maiketian ikusiko dot, berton egun batzutan geldituten ezpada.

Guzurra dirudi baña OLERTI'ren 1965'gko urte osoa paltaiat, eta ezin izan dot utsune ori ezelan bete. Zeuk izan ezik, eztakit nok beteko leuskidan be.

Artuixuz barriro be neure zorion agurrik beroenak gabon ialetarako.

Agur eta ondo izan

Ibinagabeitia'tar Andima

Larrea'n

Agur adizkide zintzo, Aita agurgarri:

Agindunekoa betetzera natorkizu; eztakit neure itzulketa lantxo oni zer iritxi, zer irudiko dautsazun baña, zelan edo alan moldatu naiz amaia emoteko eta, ara, emen bialtzen dautzudaz bostak. «Gizon itsaren abestia» (Au, izenburu au eztakit egokia danetz baño, datorren bezela isten dot). Gero, «Igeltxo Ibiltaria» oso polita; «Maitari ta Emankor». Oni, alik onduen itxura emon dautsat; «Kolonbiar Ikurriña». Oni be, zelan-alan alik txukunen euzkeraren guna emon dautsat. Eta, azkenez Constelaciones edo Izardiak deritxonari be, irudimenez bete dot. Or aztertu ta ikusiko dozuz ta asti unetxo bat dozunian esango daustazu zeure benetako iritxia. Erderazkoak be, emen duakituz. Idazti ori agertzen danian nik be pozik artuko neuke ale bat edo bi. Ez aztu ba, nigaz. Orain aste batzuk dirala irakurri neban zure «artikulu» eder bat oso ederra eta egokia, euzkera aberats ta doterez iantzia, «Zeruko Argia'n» argitaldua. Baita irakurtzen asi naiz gure Kirikiño aundiaren «Abarrak». «Oler-ti» eskuratu dot eta, beingoan konturatu naz beste olerkari on bat dogula: Dolorezko Izarrak'en egillea. «Galería Barandiaran»'ko Zuzendari jaunaren eskutitz bat artu dot zuk emon dautsazula zuzenbidea ta, bialtzeko nai edo gogoko izanezkero olerki aukeratu batzuk berak aztertu ta, gero euzkel Antoloji idazti batean azaltzeko asmoz.

Erantzun neurson neure baietzik pozkorrena emonaz ta, emen aurkitzen naiz zein aukeratu eztakidala. Baña Olerkariarena eta, besteren batzuk bialduko dautsadaz ta, or-konpon. Eskerrak ba, zuri milla bider.

Jarraitu kementsu olantxe lan egin ta idatziz. Olerkietan be, bere bizikoa zara. Karmel ataratzen ba'dozu arren, bialdu. Ondo

artua izango da. Amerika aldian entzutea dot euzkerazko aldizkingien bat edo beste argitaratzen dala. Egia da? Ez al dozu biar ez dozun aletxoren bat? Poz-pozik artuko neuke.

Zurearen zai, biotzez agurtzen zaitu

Muniategi'tar Sabin

Praga'tik, 1966'gko Azaroaren 2'ean
Onaindia'tar Jakoba Aitari
Larrea'n

Nere adiskide maitea:

Nere gaurko eskutitzaren ziorik nagusia da nere eskerrik onenak zuri ematea ain maiteki bialdu dizkidazun euskal-liburu eder-ederengatik. Badakizu poz-pozik irakurtzen dedala euskeraz idatzitako guzia, batez ere Kirikiño ta Enbeita bezelako euskal-idazleen lanak. Enbeita sendiarekin / batez ere Balendin'ekin/ aspalditik eskutitzezko artu-emanetan nago ta bialtzen dizkidan eskutitzak asko sarritan bertsoetan egiñak dira. Muxika'ko Uspasitza izeneko basetxea, euskal-bertsolaritzaren kabi bat da; an sortu dira euskal-bertsolari ospetsuak eta gure euskera maitearen egiazko pizkortzaleak! «Gure bertsolariak» deritzaion zure lan eder-ederrean ongi itzegiten duzu Enbeita'tar sendiari buruz.

Kirikiño'ren lanen bilduma ere ongi egiña dago ta Bizkai'ko euskalgia istudiatzeko neretzat txit garrantzitsua.

«Miñezko Ezpata» izeneko liburutxoak ere lan bikain-bikainak dakarzki; nere sailla osatzen du. Orain «Olerti» bilduma, zuri esker, oso-oso daukat. Danarengatik, berriz, nere eskerrik onenak.

«Zeruko Argia» izeneko asterokoa asteoro artzen det eta atsegiñez beterik irakurtzen ditut bertan agertzen diren artikuluguziak. Kasik zenbaki bakoitzean zure lan bat edo beste arki-

tzen det; Zure lanak beti atzalgai jakingarriak erabiltzen dituzte/ Azkeneko zenbakian nik egindako artikulu txiki bat arkitzen da.

Beste berririk gabe, ar itzazu, adiskide maitea, nere agurrik bizienak eta agindu nai guzia zure menpeko:

Tauer'tar Norberta'ri

Bellok-Urt, 13-12-66

Aita Onaindia

Eskerrik asko «Dolorezko izarrak» eta «Abarrak» igorririk. Ikusten dut lan eta lan egiten duzula. Jainkoaren osperako eta Eskualdunen onerako izan bedi.

Orai ilabete bat, karmeldar batek Aita Abadeari idatzi dio. Eskual-aditzaren joko lapurderaz eman beharrez, gure artean joko zuela. Ez du sekulan jo. Jakin dezala karmeldar guzientzat ate eta bihotzak zabalik daudela Beloken.

Ainitz urtez eta Eguberri on!

Agur

Xabier Iratzeder

Toulouse, 1967'ko Otsailaren 8'an

Aita Onaindia adixkideari

Aspaldi huntan lerro zonbait nahi nauzkitzun idatzi, baina lan askorekin borroka nabila; arteño bat nahiz ebatsi? Lehengo denboretan, diotenaz, fraile komentuak bake toki batzu ormen ziren! Lehengo denboretan! Gaurkoetan, bederen nizan komentu huntan, ez da erretx arte baten hartzea eta baztertzea. Halere BAKEA, barnekoa, ez dut uste galdua dugun. Lana bai, lana ba da ausarki, eta batzuetan ezin helduz gerorat utzi behar. Gure ikastegian hameka ixtudiant ditugu, zortzi teologian, biga

filosofian eta bat gizarte jakintzan. Ez dira segurki itxura xaharretako sainduen gisan besoek kurutze edo eskuak juntaturik egoki! Ba dute moimendu eta solas! Ba dute ideia eta jeinu! Gaurko munduko gazteen kidekoak dira bai gutiziaz, bai pentsakeraz, bai izan eta bizi moldeaz. Elgarrekin egiten dugu asko gogo barnatze gure frantxixkotasunari izan eta bizi molde berri bat eman nahiz, gaurko gizona salbatzeko Jainkoak duen xedearen eretzean. Gure saila deramagu polliki eta ahalaz funtski.

Urte berria hasia dugu: urte on beraz, Aita Onaindia. Ez da berantegi! Urte on ere Eskual-Herria'ri eta Munduari! Jainkoak lagunt gaitzak gure sailean eta gure eginbidean Berak nahi duen bezala lan egiten!

Duela hirur ilabete azkenik argitaratu «Olerti» eskuratu nuen atseginekin eta milesker bihotzetik igorri dazkidatzun aleentzat. Beti bezala eskelari natorkizu, ahalgerik eta... beldurrik gabe! «Zeruko Argia»-n irakurtu nuen nok bi liburu berri argitaratu dituzun: bat «*Kirikiño'ren Abarrak*», bestea «*Enearena*» Virgile'n idatzi guziak. Bi liburu horiek igortzen ahalko dazlddatzia? Atsegin izanen dut obra horien irakurtzea. Milesker bihotzetik.

Mementoan ez dut poemarik zuri igortzeko! Zerbait izanen dutalarik helaraziko dautzut.

Horra beraz zonbait berri. Egungo uzten zaitut, Aita Onaindia adixkidea. Onhar-kitzu ene bihotzeko sendimendu hoberenak.

Jean Erdozaincy-Etcharí

Alsasua, 196?-II-23-an

Onaindia'tar Shanti Aba txit Agurgarriari

Larrea'n

Agur, Aita Onaindia on-on ori, agur ta erdi: Yauna'ren ba-kea gugaz.

Oraintxe bertan artu dodaz zuk bialdu liburu biak: bata «*Kirikiño*»; ta bestea «*Bergili'ren idazlanak osorik*».

Biotz-biotzez neure eskerrik sutsu-sutsuenak egin deustazun doai ta bezuza eder-ederragatik.

Egun oneitan lanpeturik nabilkizu, «Batikano» Batzarraren bigarren liburua ta azkena irarkolan daukadala ta amabost egun oneitan argitarako dala.

Orregatik neure eskutitz au laburrago egiten deutzut, nik gura neunkean baiño laburrago. Eta milla ta milla bider neure zorionak eta zorionak egin dozun lan alango baliotsu-baliotsuagatik.

Eskuetara deustazun «Kirikiño» irakurtzeko irrikiten naukazu ta une pozkarriak ta alaiak igaroko dodazala uste dot, bera irakurtzen ta beraren ezia zurrut egiten.

Eta bardin Bergili'ren idazlanak ere poz-pozik xurgatuko dodaz. Eta ganera Ibinagabeitia'tar Andima jaunari ere bereala idatziko dautsot zeure doaiaren barri emanaz.

Ta neure liburua be, irarkolatik urten da laster, bialduko deutzuet, bai zeuri, baita Ibinagabeitia'ri be.

Gaurkoz eztot besterik. Goian esan deutzudan lez, lanpeturik nabilkizu ta amaiera emoten deutsot neure oneri.

Zeurea Yosu, Miren ta Yoseba'gan

Yurre'tar Yulen

Zarautz, Apirilla'k 12, 1967'garrena

Aita Onaindia'ri

Larrea'ra

Jaun agurgarria:

Lan maiaren gañean ditut zuk bialitako liburu mardul biak. Eskertsu nagokizu egin didazun erregalo zoragarritz.

Denbora bear ondo ausnartzeko, ta denborarekin ain gaizki ibiltzen ni! Egingo det ordea garaiz beren aitamena.

Jarrai zuk etengabeko zeregin txalogarri ortan. Arrigarria da zure lanerako trebetasuna. Egindakoa or geldituko da betiko.

Gaurko lau mukizuk egingo ezpadizute ere, erriak egingo du justizi.

Bakoitzak geure jokabideak ditugu euskal barrutian. Ala bear ere.

Alkar errespetatzen jakitea da lenengoa, ta auxe gaur askotxok egin nai eztuna. Bazter guziak «Hachez», «mentalitatez» eta «errealitatez» estaltzen ari diran oiek, zar kutsu gogorra arkitzen digute. Guk ezin eskeiñi ezer oientzat gustokorik. Berak ere aldatu bearko dute ederki gure gustoko ezer egin nai badute.

Esker beroa berrituz, agur dagizu zure serbitzari leiala dan,

Basarri'k

Waterloo, 1967-ko Maiatzaren 7

A. K. Onaindia'ri

Agur;

Nitzaz ahaztu ote zeran ez dakit. Ez ni zutaz. Zoritxarrez, maizago ikusi zindudan Donostia'n bolara batez orain baiño: sei urte huntan buruz buru Zurekin mintzatu ez naizela iruditzen zait.

Z. Argia'ko zure artikuluak irakurri izan ditut Zenbait aldiz; ez aspaldisko huntan, uste dudanez. Nahiz beste irizpiderik ez izan, euskeraren aldeko lanetan ari gerala iruditu zitzaidan: hizkuntza aberats hori ez baita askotan irakurtzen euskaltzale batzuen lumetan.

«Olerti» ri buruz dagoenik ere ez dakit. Azkenekoz, San Martin adiskidearen bidez uste dut, 1962-ko bilduma bat jaso nuen («Zortzikote» izenekoa). Geroztik ezer argitaratu ahal duzu? Nola egin dezaket jaso ahal izateko? Esaidazu zer egin behar dudan.

Ez dakit On Nemesio ikusten ote duzun lehen hainbatetan. Baiezkoan emaiozu goraintzi.

Egia esateko «Olerti»'ren berri izateko idatzi dizut, eta zure berri noizpait izateko itxaropenean ere bai.

Atzerrialdi huntaz aski nazkaturik, eta sei urte t'erdi haue-tan kanpoan gaudela gero eta garbiago agerturik, ez nago la-nerako etsita. Bigarren saiakera-mordo bat idazten abiatua nau-kazu; lehenengoa, oso zailla bai gaiaren aldetik eta bai hortarako hiztegi egokirik ez dugulako, gertu dago halere. Urrengoak ere ahal izan ala idatziko ditut; eta ia onurakorrak diran.

Besterik gabe gaurkoz, agur t'erdi eta goraintzi

Txillardegia

Basauri'tik, 1967'garreneko bagillaren 30'n
Aita Onaindia'ri

Adiskide:

Zortzi illabete daroaz nik gexorik. Obetotxoago nagola di-rudi, baiña osagille *especialisteak* etxe-barruan nauko zirkiñik ez egiteko aginduz. Ezin eldu, beraz, zuen batzar orretara.

—Zuen asmoa onesten dot. Orraitiño, idazleak alkartu baizen bear, edo bearrago dogula uste dot, *zabaltzaüleak* eta *irakurleak alkartu* bearra. Euzkotarrak ez dira euskeltzale. Gure Bizkai onetakoak, gitxien. Emen, uri onetan, ainbat eta ainbat Arratiar, Dimostar, itxas-ertzeko euskeldun dituzu. Onein Umetatik ba-tek edo bestek baiño ez daki gure izkuntza. Ta dakienak be, euskeraz egiten lotsa dira. Bizkaiko uri ta errizketan be, ez dot nik somau euskel-zaletasunik. Beraz zabaltzaüleak bear doguz. Gure idazti ta irakurgaiak surtzilloetatik sartu-eragiteko aiña. Asmuok ez dira errazak. Baiña, bai, eginbearrekoak.

—Nik ez daukat txurikorik. Gurean, arreba izan da beti di-ruzain. Mille pesetok eskatu neutsozan. Ez iakon nire eskabi-dea gogoko izan. Aurten, ainbeste eralgite izan dogula-ta, sa-kela utsik daukala ta abar. Orraitiño, zuek esku-artean darabil-zuen arazu ori biribildu orduko aldatuko dalakoan nago, ta neuk, *giroz edo*, bialduko dautzudaz mille pesetok.

Arako EDESTI DEUNAREN ordezeko da. Edestia erdi-ondatu, erdi agortu egin da. Aren ordezkia doa au, gaurkotu ta zertxobait luzetuta. Argitaldu nai dozue ala ez? Baietz izatekotan, ainbat lasterren eginbearrekoa da. Bai edo ez, argi ta garbi erantzun. Neuri bardin daust naiz bai, naiz ez.

Zuen barri emongo daustezuela uste dot.

Otoi nire alde.

Kristo baitan zure

Gurutz Ibargutxi

Bayona'n, 1966'ko uztaillaren 22'n
Onaindia'tar Santi aita agurgarria
Larrea (Bizkaya)

Agur aita agurgarri ori:

Emen ikusi zindugunetik auetxek dira zuregandik artu ditugun berriak.

Lenengoz «Itzartze» bertso-bilduma berriaren bidez. Milla esker orren bialtzea egin diguzulako.

Bigarrenez, zure asmo ederra dan «Euskal-liburuen Alkartasuna» sortzearen jakiteaz. Onar ezaizkiguzu gure zorion-agurrik beroenak zure lepoan artu duzun lan berri orrengatik; ia uzta yoriena jaso al dezakezun.

Geron aldetik gure lengo yardunetan ari gera. Orain irugarrenez iragarri nai dugu gure «Agirre-Saria», ta euskaldunen artean sari orri garrantzi aundienik eman dakion, zabalkundea geitu nai-izango genuke gure aldizkariaren bidez.

Ba-dakigu orko giroa, sanaren izenagatik, oso egokia ez dala, baña ala ere alegindu bear dala uste dugu. Jakiña xede Ortarako oso ona izango litzaiguke, zerorrek izenpeturik eta sariduna izan zerala esaten, lantxoren bat argitaratzeko egitea, baña ongi da-

guna, bakarrik, eta asmo orren alde, zuk al dezakezun eraz, ezer egingo bazenu esker onekoak izango gindukezu zearo. Eta barkatu, arren, esondatze Orrezaz zuregana joateagatik.

Eta zuri buruz adei-onez bete-beterik, onar ezaiguzu, otoi, gure agurrik beroena

*Urreztarazu'tar A.
Idazkaria*

Errera (Alza), 1967'gko. Dagonilla'ren 19'an
Aita Onaindia
Larrea'n

Aita agurgarri ta adizkide zintzo ori, agur;

Aspaldiko ixiltasuna ausi ta urratuaz emen natorkizu ia bizi ete dan itaunduaz, ia, oraindik, Bizkaiak artu dabezan astiñaldiakaz bere esipe ta zigorpean, zauriak ondo osatu barik arkitzen ete dan...

Batetik bestera emen ibilliarren eztot emen idazle ezagunik iñor ikusten ta, kezkaturik, burutasun txarren iabe egin naz, ia, gure langillietan langillena dogun Aita Onaindia zoritxarrezko eragozpenak menperatu ta ixil-azi egin ete daben. O, ez neuke olakorik nai! Gure Olerti, Karmel ta abar zertan dira? Olerti batez be, urte-garai ontakua izanik agertuko ote da, ala, eragozpen orren bidez atzeratua arkitzen da? Dana-dala ziuurrik nago gure larreatar Aita geldirik eztala egongo eskuak lotuta, ta zerbaiten asmo ederrak izango dituala gerorako. Ta aztu baño len: Zorionak, bai, zorionak. Bergili'ren ENEARENA euzkeratzalle bardingabeari.

Zorionak ta eskerrak gure Erriari olako idazlan ederrak eskeintzen dautsozan gizonari, eskerrak bai, mille bider. Askok aintzat artu ezpaditu be, neuretzat beintzat, oso lan bikain ta

eder-ederra (gaurkotasunik eza alde batera itziz) zoragarria dala esango neuke euzkeraren egokitasun ta bere mami ta iantziari begiratuaz benetan zoragarria. Batez be or dabilzun ioskera, or ikusten dogun izkuntza ain berezi ta goitarra da. Bai, Aita Onaindia ta A. Ibiñagabeitia lako langille zintzo askoren Harrean arkitzen gera euzkera-arloan, ikasi nai dabenak ba'dauka bai, emen zer ikasi!

Ain euzkera txukun, garbi, ain euzkera mamitsu ta goitarrez ta, ainbeste itz begiko, itz berezi ta aukeratuz ainbeste itz sustartsuz iantzia arkitzen da zorioneko idazlan eder ori! Baño lan au, astiro-astiro irakurri ausnartu biar da, bere aunditasuna barrendu nai ba'dogu. Zorionak maixu zaran orri, baita gure Ibiñagabeitia Andima aundiari. Iarraitu olaxe.

Ta, amaitzeko, agur bero bat, besarkada aundi bat biotz-biotzez

Muniategi'tar Sabin

Donostiatik, iraillaren 5'an, 1967

Aita Onaindia, lagun zarra:

Gaur goizean, bakazioak izan arren, lantegira joatera beartu naute. Karmelita Aita bat zegoan *Oierti'ren* errezibua kobratzen. Ezagutzen det, baiño ez naiz gogoratzen nola duan izena. Agurtzerik ez det izan; itxura gabe gelditu naiz, eta faborez eskatzen dizut bere aurrian diskulpatu nazazula. Au ez da bizitzia. Danakin gaizki gelditzen naiz. Etzenduke pentsatuko nola bizi naizen.

Eskarrikasko eskatzen dizudan fabore onengatik. Agur. Besarkada biozkor batez

Jose de Arteche

Donostia, 67-XI-24

Adiskide ori:

Zure 2'garrengoia emen det. Nik ere, berri txar ori, Deba'tik Markiegi'tarren amaren illetatik etorrita artu neban. Andima gizajoa! Jaunak bere pakean artuko al-zeban! (G. B.)

Orain, bere gogoa ori omen-zuan, eta Lazkao'ko beneditarren etxean bere illetak egin bear ditugu, Euskalerriko idazle guziei dei eginda. Ortarako eguna, Gabonillaren 17'garrena aukeratu degu. Egun ortan, eguadiko amabietan ospatuko degu elizkizun ori.

Zabal ezazu berri au, eta Bizkai'tik etorri nai dutenak, jakin dezatela berri au zure bitartez.

OLERTI'rako zerbait ba-det emen. Txillida zizelkariaren omena euskeraz neronek jarri bear izan det. Andik zerbait bialduko dizut laster. Azkenengo nere kanta-itzak ere or dabil-tza, ta alik azkarren zuri igorriko dizkitzut.

Presaka naiz eta agur, urrengorarte. Beti zurekin lagun dezun

Etxaniz'tar Nemesio

Waterloo, 1967-ko Azaroaren 26

Agur adiskide:

Garagarrillaren 1-ekoa hartu nuen; eta orobat ere hartuak Olerti guziak («Urtarrilla-Bagilla, 1967» deritzana barne). Denegatik bihotzez milla esker.

Andima hil da. Dagoeneko ba dakikezu. Zure adiskide haundia izan zala ba dakit, eta nere dolumiña bidali nahi dizut. Hizkuntzaren aldetik hobea zan Andima, nere ustez, bere garaieko idazle gehienak baiño. Gazteriarekiko guztiz zabala, euskaltzale amorratua, galera bat da zalantzarik gabe.

«Atzerri-ogía garratza baita» esan zenidan zurean, eta egia dana ongi dakit! Ez nuen, ordea, aukerarik izan orduan; eta gaur gauza bera. Nere anaia eta Donostia'ko legegizon bat hor ari dira nere «kasoa» aztertzen; eta gauza «oso gaizki» omen dut: hamabi urte «hasteko» anaiak esan didanez. Ez dut, beraz, aukerarik, ez banoa bederen komenturen batera fraillez jantzi-rik. ..

Ogi garratz hori irentsi beharrean naukazu, beraz; baiña gogoa EZERTAN ere hozturik dagoela uste baduzu, oker zaudete. Beti bezin gogotsu nago, areago ez bada. Eta lanean jo-ta-ke, zoritxarrez frutuak oso diztiranteak ez badira ere...

Hortik datozen berriak, danak onak ez izanagatik ere, bihotz-altxagarri dira gehienetan. Ba dirudi, alde batzutatik bederen, gure gauza ez dala sekulan izan gaur bezin ondo. Ikastolen fenomenua harrigarria da; eta ez dator soillik; egun hauetako gertaera batzuk, gure etsaien beren ezinbestezko jokoa, dana, oso pozgarria da.

Ikastolei dagokienez, ez dakit nik zertan ari diran, nola moldatzen diran liburuen aldetik esate baterako. Oso pozten dira danak ikastolen ugaltzearen arabera, eta bidezkoa da; baiña askotan gelditzen naiz ni pentsakor, ez baikaude alde askotatik ez gertu eta ez gutxiagorik ere. Anarkia oraindik ere haundiago egitea ez zaigu inundik ere komeni, eta nik ez dakit irakasle (txalogarri eta goragarri! ! !) horiek nola moldatzen diran, zer irakasten duten, zer liburuz baliatzen diran, haurrak zer irakur dezateken, eta abar, eta abar. Hor zaudetenok problema hauetaz pentsatzen duzutela ez dut dudan jartzen; baiñan ez dut ulertzen. Neure emaztea izan zan Donostia'n euskal ikastola bat jarri zuen lehenengoetako bat, dakizun bezela, Elbira'ren laguntzaz; eta ba dakit, beraz, nolako urritasunak jo izan gaitun orain arte, eta nolako saltsak, ezin-ikusiak eta akatsak izan diran. Nola ikusten duzu zuk arazo hori?

Gure arteko alkarrizketa, bidenabar, bai politikan eta bai hizkuntzan, beti bezin eskas eta kaxkar dago. Ez dugu alkarre-

kin hitzegin nahi. Danok azpikerian ari gera, alkarren kontra, hitz politak aipatu baiña alkarri behaztopa eta ankarte egiñaz! Noiz arte? Noiz bildu behar dugu funtsean gogaide geran guziok? Noiz arte gure ebakidura azkengabe huntan?

Ugalde horrera doa. Berri ona da. Ikusiko duzula espero dut. Laguntzaille ona doakizue, nik uste.

Gure B.6 datorren hillean agertuko da.

Lehenago zu ikusten ez bazaitut-edo, Eguberri on, eta nahi duzun arte.

Txillardegí

Salta'tik 1968-1-9

Onaindia'tar Yagoba Abeari

Karmeldar Lekaideenean (Larrea)

Etxano-Amorebieta

Agur, aba agurgarri ta adiskide maite:

Aspaldi nintzan zuri idazteko, baña zerak gerorako izteak iñoz be onik eztakar-eta, niri be eztaust ezetarikorik ekarri. Izan be, zegaitik itxi gerorako oraintxe egin leitekenik? Gero be egin bear ba'da, egizu oraintxe lantxo ori, gero gerokoakaz batera lan-arlo itzalen bat agertu eztakizun.

Gabon, Urtebarri ta Erregen-yaiak ondo baño obeto igaro al dozuz, eta urte barri au iñozkorik eta zoriontsuena izango al yatsu.

Berandu nabil onetan be, baña berandu be iñoz ez baño oba ei da-ta, or doatsuz nire zorion-agurrik beroenak oraintsuengo «Agirre-saria» zeuretu dozulako. Bapo, Yagoba! eta ekin gogatsu zure arloan. Izan be, gure bertsolariekazko zure lana neke barik eta gogaitik egiteke irakurtekoa ta zer yakingarriz ondo onidua da. Zorionak beste bein.

Beste galtze andi bat izan dogu oraintsu emen Ameriketari: Ibinagabeitia'tar Andima gizon on-zintzo-euskaltzale amorratu

ta zure lankidea betiko yoan yaku gure artetik; ba-nekian aspal-di biotzetik makal ebilena. Yaungoikoak berean izango al dau oinganik Andima ona zana! Iru urteokaz agazko artu-emonak be etenda euki dodaz-eta areago nire tamala aren eriotzeagaitik. Orain egin bear litzakena gerorako istearen beste oker bat emen dozu. Maite-maite neban Andima ta, orrexegaitik, zorrotzago nitzako aren eriotzak emon daustan biotz-miña.

Birgili'ren lanak euskeratzean zure lankide izan zan-eta, zuk zeuk be biotzean zartada gogorra artu izango dozu Andima zaren eriotzeagaz. Zegaitik ilten ete yakuz orren gazterik gure gizonik onenak? Lanik geyegiagaitik ala? Ba-dakit (berak esanda) Andima bere idazlanak orraztuten ibili zala osagilleak lanik ez egiteko aginduta egoanean.

Ze barri dogu ortik, Yagoba biotzeko? Igazko olerki-ingurraztia argitaratuteko baimenik ez ete dozu lortu? Ona beintzat ezta eldu igazkorik. Agertzen ba'da oraindik, aurrerantzean ordaindu egin bear dot, Oñati'ko gureai ordaindu dagiela aginduta; izan be, emendik zuzenez ordaindutea ezina da-ta, olan atonduten gara ortik zerbait ekarri bear dogunean.

Aspaldi onetan eztot egin esateko euskal-lanik, euskerazko idazkiez besterik, baña orain «LEAR ERREGÉ» orraztu ta orra bidali bear dautsut, Shakespeare'n lanak osorik eta batzuk bigarrenaz orrazturik or izan eta euki dagizuzan. Len enindun lanek bildurtuten, baña orain onango lantzarrak bildurra ta ikareta sartzen dauste: urteen gatxa urrean. Zuk zeuk zer ete darabiltzu esku-artean? Gizon eragina ta bizkorra zauguz zu, Yaungoikoari eskerrak; bizkor eta buru-argia ta Osasuna ta adorea luzaro izango al dozuz zure laguntzat; gizon eragin-eragikor bana-ka bat da asko erri loak artua biztu ta berari batera naiz bestera eragiteko, eta gure erriak ba-dau olango batzuen bearrik, luzaroan lo-zorroan egon da-ta. Iratzarriko ete dogu nozbaiten?

Zure barrien begira nago. Agur eta onik ibili. Zure

Larrakoetxea'tar Bedita'k

Salta'tik 1968-II-19'gnean
Onaindia'tar Yagiba Abari
Etxano-Amorebieta (Larrea)

Agur, adiskide maite: Artu dot oraintsuengo ta lenengo zure idazki atsegingarria, nirearentzako erantzuna. Eskarrik asko. Nik idatzi ta zuk erantzunaren bitartean eldu yatan azkenengo Olerti sallean aldizkaria ta an irakurri dot pozaren pozez zure saria artzeko Eayona'ra zuk zure adiskide bigaz eginiko osterea-ren barri; nire zorionak beste bein eta ekin lanari, Orretarako iñok zirikatu-bearrik zuk izan ezarren; izan be, gizon ordotza zauguz zu euskel-lanetan. Nagikeririk ezta agiri Larrea'ko zure txoko orretan; idaz-lanetan orren buru-belarri sarturik eta a ta guzti be erririk-erri belguntza-arloan lan egiteko astirik be bai. Luzaro iraungo al dozu orren adoretzu. Pilatu dodaz emen izan dodazan Andima'ren erantzunak eta berak niri idatziriko idazki guztiak; askotzarik, ez gitxiagorik be, eztira. Portugal'dik ona etorteko baimena eskatu eustan, eta bai nik lortu be baña nire erantzuna (baimenagaz batera) ara eldu-orduko a andik orra alde egin izan-eta, nire idazkia atzera etorri zan. Agiri danez, estu-estu ebilen gure Andima aldi atan, bere nagusiak orra bidaliko ebelakoan eta, nire ustez, andik bere kitetik alde egin eta orra ixilean yoan zan, eta or zer yazo yakon ba-dakizula uste dot; zelango estukuretan ibili zan, or goatu ta zelan igesi eban, gero ortik Guatemala'ra alde eginarte. Orrako zertzeladak bere amak-eta garandu eustiezan orain amalau-amabost bat urte dirala Deustu'n.

Gitxienez urtebete ba-da Shakespeare'n antzerkietatik azkenengoak nire anai Maurixi'ri bidali neuntsozala, baña ak, nagitzarrak eztaust iragarri oraindik artu dauzanik be. Bat bakarrik dot bidaltzeko, zera, LEAR ERREGÉ, baña au be barriro orrazturik garbi idazteko gertu-gerturik dot. Gizonaren lanak iñoz be eztira izaten osoak eta akatsik bagakoak-eta (Yaungoikoa bakar-bakarrik yatsu olango lanik egiten dakiana) eta nireak be

neuke. Birgili Erromar idazle ospetsua il-aginik egoanean bere Enearena bikaña suari emoteko asmotan ei egoan, or norbaiten irakurri dodanez, eta orrako orrek enau bape arrituten. Eder da Enearena ta tamalgarri litzakean lan bikain ori suak irunstea, baña dan baño ederragorik izan eitekeala nok ukatuko? Astiz eta otz-otzean irakurriazkero gure lanik onenak, beti izten dauskue agoan mingoztasunik arean eta bai sarritan arean baño geitxoago be. Maite-maite dot LEAR ARREGA ta ardurarik asko imini dot, bai len bai orain, txairo urten daien. Atsegin yat zure idazkerea, atsegin yataz zure urteerak, atsegin zure buru-argialdiak zer askotan. Zure lan santuak be badau olango zerik eta arduraz eta astiz irakurri neban orain iru urte Zeanuri'n nintzala. Ekin ba lanean eta gogatsu ekin.

Zarrok matxura asko izaten doguz asko erabiliriko traman-kuluri yazoten yakonez-eta, emen nabil errenka erreumeagaz udaldi ezo au dala-ta; egualdi oberik laster izango al dogu.

Zure barriak yakiteko beti nozu gertu baño gertuago-ta, astirik eta barri atsegingarririk dozunean asti apurren baten yabe egingo al zara lerro batzuk idazteko lain beintzat. Arren nirealde ta onik eta ondo yarrai. Zure

Larrakoetxea'tar Bedita'k

Eibar, 1968-7-8

A. Santi Onaindia jaunari

Larreara

Adiskide:

Artu nebazan zure argazkiak. Eskerrikasko. Nere azken karta zurearekin kurutzatu zan bidean, ta bertan esaten neutsun lez, billatu neban Arantzazuko bidean atera neutsuen argazkia. Orregaitik, emen igortzen deutsut zeurea.

Brecht'en itzulpen bat bialtzen deusut «Olerti»'rako. Zatika zatika antologia bat osatu nai nuke bere kanta ta olerkiekin. Ez dakit ortara elduko naizen.

Brecht'enak polito datoz gure girorako. Berak, umeen izkuntzan lez gauza aundiak esaten ditu, ta gurean aundikoiz ume-keriak. Ikasbide bat da.

Azken olerkia, Galileo'rena, gordintxo da, ta gura badozu kendu zeinke. Oraingoan, zuk Mao Tse-Tung'en olerldegaz eta nik Brecht'enegaz, euskeltzaleon baratza erreboluziopean ipini bear dogu, ikusten nago.

Idazle on katalogua amaitutzat daukat eta laster izango da argitaratzeko bideetan.

Agindu,

J. San Martin

Errera, 1968'gko. Irallak 9

A. Iagoba Onaindia

Larrea'n

Agur ene adizkide maite, zintzo: Aspaldiko gure ixil-unearen ondoren emen natorkizu eskerrak emonaz ene langille kementsu ta iatorrari, eskerrak bai zure bidez eskuratu dodazalako bost ale dotore ta ederrak. Ederra benetan, bai azalez ta bai mamiñez, itxasoz beste aldetik, amerikar euzkaldunak irarri dauskuen idazti begiko ta txukun au. Eskertu neure izenean ta zoriondu ango euzkeltzale ta batez be, ainbeste lan dagin gure Abrisketa Iaun ori. «Kolonbiar olerki txorta» au, oso begiko ta eder iruditzen iat; emen nabiltzu asti-une guztietan pozkiro irakurritz. Itzulpenak, geienak beintzat, ondo baño obeto egiñak dagoz ta, ortan zu, irakasle aundi zaitugu; baita gure Goikoetxea ta bai Akesolo ta Beistegi be; niriak be eztagoz ain txarto. Diñozunez Aita Santu ta Kolonbiko Lendakariari be, narruzko aie eder bana eskeñi dautsoez. Beraz gure lantxuok goitik dabilzt.

argitaldi barriakin. Nik be neure alegintxoak egingo dodaz beti-ko antzera. Agur ba, ta, eskerrak ta zorionak zuri be ain idazti ederra argitaratzen lagun ta lankide baliotsuena izan zarialako. Urren arte, zure barrien, izparren zai, zeure adizkide

Sabin Muniategi

Bellok-Urt, 30-9-68

Aita Onaindia, ene adiskidea:

Hartu ditut zure bi liburu edarrak eta zure bihotzetikako hitza ere.

Horren eskuratzek ez daut bihotza hotz utzi. Eskerrik be-roenak.

Belokeko liburu-tokian ezarriko ditut denen agerian.

On da Belokekoak jakin dezaten nolako eskual-semeak zarezen Larrean eta nolako Goiko-Amaren semeak.

«Kolonbiar olerki-txorta» hori zer lana eman dautzueken bai zuri, bai Aita Lino'ri. Aita Sainduak ere eskutan izan duela liburu hori? Nolako eskuak ez ditu beharko Aita Zerukoak zure liburu guziak eskutan hartzeko!...

Nahi duzun arte. Jainkoaren argi zabalean, zure

Xabier Iratzeder

Donostia, 68-X-9

Xanti, adiskide:

Emen jaso det zure azkenengoa, Txillida'ren euskeralben zatiarekin. Olerti'rako lan berri bat eskatzen didazu. Oraintxe dezu aukera polita aldizkaria bizi-arazteko.

H'ren kontuak gai asko emango dio jendeari ezpai bizia sortzeko. Arantzazu'ko billerak negargarriak izan dira. Batipat, Mitxelena bigunegi agertu dalako gazte egosgaitzekin. Aurrak negar eginda nai duana iristen duala konturatzen danean, gerroago ta negar aundiagoak egiten ditu. Gazteok ere, konturatu dira Mitxelena ta Lekuona eztirala gogor jokatzekoak eta txakurrak bezela agertu dira, aiek berenera makurtzeko.

Azkenean au erabaki dute: «Euskaltzaindia'k BEGI ONEZ ikusiko duala, «H» ori itz batzuetan erabiltzea. Ala bi bokal berdiñen erdian: zaarra, leen eta abar... Eta gaiñera guk aokaldi batean eta besteak bi aokaldiz esaten dituzten oietan: behin eta abar...

Orain gurea da. Aiek beren JAKIN aldizkarian eskuak jarrein dituzte nai dutena esateko. Guk «H»ren kontra gogor jokatzeko, or daukagu Olerti. Eska zaizkiezu lanak gai ortaz, eta bizi-bizi jarriko dezu inguruan jendea. Aita Plazido Muxika, Justo Mokoroa ta abar izan dira beren ezezkoa eman dutenak. Bildu itzazu ale batean guzien iritziak. Beste bat, UXOLA idazlea izan da, (au, Urruzola dala uste det).

Guziok JAKIN'en erronkari erantzun bear diogu, ta Euskaltzaindiaren aolku orri, ez entzun egin. Gure izkuntza ia itoan dagola, nola geituko diogu, ba, nekea ta oztopoak? Orduntxe izango gera kinka gorrian.

Ia, ba. atzartzen dituzun erdi-lotan dauden «H»ren kontrako guziak. Gazteok beren asmoak aurrera eraman nai dituzte, azkenean urtero letra bat sartu nai digute. Poliki-poliki, «c, ch ta azkenean «v» sartu naiko digute. Orregatik garrantzi aundia du oiei bidea istek.

Eztaikit zer bialdu al izango dizudan. Igandean, Markiña'n itzaldia egitera noa, Bertsolari egunean.

Agur, ba, ta presta azkar gure erasoak gazte zazpikien aurka. Beti adiskide ta lagun

Etzaniz'tar Nemesio

1969-1974

Praga'tik 1969'gko. Otsaillaren 6'ean
Onaindia'tar Jakoba Aitari
Larrea

Nere adiskide maitea:

Beste zerbait idatzi baiño lenago eskatu behar dizut niri bar-katzeko ez dizudala gaurdaiño erantzun eta niri ain maiteki eskeiñi dizkidazun liburuengatik nere eskerrik onenak eman. Baiñan denbora laister igarotzen da eta emengo gertaerak ez didate ematen idazteko gogorik. Zer emen gertatzen den orko egunerokoen bidez ongi badakizu ta ez da bearrezko zerbait geiago esatea. Emengo egunerokoetan irakurtzen degunez orko egoera ere ez da barea. Dirudi mundu osoa kinka txarrean arkitzen dela.

Nere begien aurrean daukat zure azkenekoa, luze ta mimitsua, beti bezela Euskalerrian ta euskerari buruzko berri jakingarriak ekartzen dizkidana, arretaz eta atsegiñez beterik irakurri det.

Egi-egia da zure eskutitzean esaten didazuna, aspaldi ontan euskaltzaletasun aundia sortu dala. Nik Euskalerritik urruti bizi naiz eta or zer gertatzen den nere adiskideeri eskutitzen bidez eta artzen ditudan aldizkarien bitartez jakiten det: eta nik ere argi ta garbi ikusten det, nola Euskalerrian euskerarenganako maitasuna aunditzera dijoan.

Euskotarren artean, batez ere gazteen biotzetan, euskere-nganako garra piztutzeko euskal-idazleak lan txit merezigarria egiten dute, eta aien artean, zuk, nere adiskide maitea, leku

nagusia daukazu. Azkeneko denboran liburu asko argitara emana dituzu —bi eder-eder, ots Giza-bizia ta Larrea eta Karmeldarrak zuri esker emen dauzkat / eta bialtzearengatik ar itzazu eskerrik bizienak / —eta zure lan paregabea euskaltzale sutsu guziok estimu aunditan degu. Zure eskutitz maitagarritik jakin det zuk lanari etengabe su ta ke eldten diozula?, eta idazten didazunez beste liburu berri bi, Iztueta'ren Gipuzkoa'ko Dantzak eta Azkue'ren Ipuinak argitaratzera prestatzen ari zerala.

Gabonetan urteiro bezela, aurten ere nere euskaldun adiskideengandik zorion-txartel eta eskutitz asko —eun inguru— eskuratu ditut eta guzi-guziak euskeraz ederki eginak. Bainan txartel eta eskutitzak ez bakarrik, liburu asko ere neregana eldu ziran, besteen artean: Dechepare, ediziño berria, Escritores euskéricos, Coplas Roncalesas, Gure Almanaka 1969 eta beste batzuek,

Beste berririk gabe, nere gaurkoa bukatzera noa ta zure berrien zai gelditzen naiz. Badakizu, zuk idazten didazun guziguzia pozik irakurtzen dedala, batez ere gure euskera maiteari dagokiona.

Bitartean, ar itzazu, adiskide ona, nere agurrik bizienak eta agindu nai dezun guzia zure menpeko:

Tauer'tar Norberta'ri

Ondarrabi'tik Maiatza'ren 8'an, 1966

Agur Aita Onaindia, adixkide ez-ezagun on ori;

Artu det zuria.

Benetan pena dut zu Sara'ra ez etortzia txapelketara.

Batetik BIZKAIA-LAPURDI, erria erriaren aurka lenengo aldiz jokatu da bertsularien historian, era ortara.

Uste det, era ori guztiz egokia dala jendiari adierazteko «Zazpirak Bat» dalako esaera ori. Ez da izango bertsulari bat txapeldun: izango da edo Bizkaia edo Lapurdi.

Eta bizkaitarrak bear zenduteke etorri zuen bertsulariak txalotzera eta indartzera. Atletik txalotzera joaten zerate...!!

Egun ortan ere bertsulariak epaitzeko BIDE BERRI bat enseatuko degu.

Ondo dakizu, oraindañoko bideak ez duala ondorio onik ekarri. Bear degu saiatu beste bat billatzen. Eta saiaturuz-saiaturuz, bear bada zerbeit on argituko degu.

BIZKAIA-LAPURDI. Jarriko ditut BI KOPA eder. Eta jasotzeko bearko dute irabazi bi urtean erreskadan.

Beraz eldu den urtian berriro jokatuko da txapelketa bera. Lenengo saiua jokatuko dute Bizkaia'n eta bigarrena Sara'n.

Lapurtarren eta bizkaitarren artu-emanak, ondorio onak euskal anaitasunari eta euskeran batasunari buruz ekarri lezatekela uste det. Etzaizu ala... ?

Urren arte, nere agurrik oberenakin

Ernardorena

Bilbao, 1966'ko iraillak 6

Aita Onaindia:

Letra bi bakarrik eta mesede bat eskatzeko. Jakiña, aurretik agur bero bat. Ara: Baztarrika jesuïta naiz. Teologia'ko fakultadetik eskatu didate eskola batzuek euskeraz emateko. Gaia: zerbait Euskalerriari eta emengo gogo bizitzari, kristautasunari, buruz. Egia esateko ez nago ni Ortarako gertatuta, baiño zerbait jaso det, alde batetik, eta bestetik; berriz, euskeraz dira irakasketak eta onela gure ikastola nagusian nolabait euskera sartuko genduke. Beta gutxi daukat danetarako. Orain eskaritxo bat: Emengo kondairari buruz, eta erlijiosoei dagokienez, nere ustez gure errietan lan geiena egin dutenak dira: frantziskotarrak, jesuitak, karmeldarrak, pasiotarrak... eta bear bada Napparuan kaputxinoak eta umeen artean lasallatarrak. Auxe nai nuke, beraz; zerbait karmeldarrei buruz; Noiz etorri ziñaten

Euskalerrira. Nun jarri, zer langintza egin. Gizon ospetsuren batzuek. Au labur labur. Orrialdetxo bat eta geiago ere bai nai izan ezker. Garbi al dago? Ni neu danetara ez naiz allatzen. Amabost edo ogei eskola izango dira, baiño... Liburutegi onik ere ez det gai oietzaz. Orregatik eskatzen dizut mesede ori. Beraz: labur labur, orrialdetxo batean datorik interesanteenak karmeldarren isturiari buruz Euskalerrian. Eskerrik asko aurretik. Presa aundiegirik ez det, baiño urrillarako bidaliko bazenida... benetan eskertuko nizuke. Eta eskerrikasko bein eta berriz. Agur. Ondo segi.

Baztarrika'k

Bilbon, 1969 urriaren 7-an

A mutil!

Pare bat astean neure erritxuan egon nok, eta ona biurtu, ta samaraiño lanez beterik nabil. Eguneroko lana, Bankuko akademiako mutillen azterketak eta irakaskizunak, gure Boletín barria gertetan asi gareala, eta abar.

Ori dala-ta, azken-orduari begira egon barik, ekarridazuz aurtengo sariketarako artu izan dituzun olerkiak. Asko al dira, ala urri? Azkar ibili, ba, mutil.

Iraillean elerti-sariketea izan dok an Donostian, AGORA-koek eratua. Etxuek Bilboko egunkariak ezer agertu; ezta Zeruko Argiak be. Eta ain zuzen, zaharrak izan dituk euskerazko lanetan saridun: Zubikarai eta Erkiaga, teatru-zerean lenengoa, olerki luzean azken au.

Ango paper baten puxketea bialtzen deusut. Zure OLERTI lenengokoan zerbait agertu behar dozula Orrezaz, uste juat. Gazteek eurek alkarri ederto lagunduten jeutsek. Guk be, gerrate aurreko gazteok be, bardin egin beharko.

Nire lana «Aritz jeikian» izenekoa da; amalau kantu ditu, giputz-nafarrez egiña. Oraingo kutsua be ba dau, lirika ikutuaz

ganera, gizon-poesiaz betea dalako. Gure egunotako bakerik eza, alkar kaltebideak, zapokeriak, salatariak, eta abar astintzen ditut. Gitxienez, 600 lerro eskatzen zituen. Izneurtuz egiña da, amaierako doiñuz, zera, guk ohi dogun antzera. Bertso askatueta millaka lerro —itz bakarrekoak eta— egitea errez da. Nireak, ia 700 lerro ditu. Zati batzuk on samarrak dirala uste joat.

Erkiaga

Bayona'n, 1969'ko urrillaren 15'n
Onaindia'tar Santi aita agurgarria
Larrea

Agur aita agurgarri ta maite ori;

Egun aundia gaurkoa karmeldarrentzat; orrela zuetaz geixeago gogoratu bear; ia deun arek laguntzen gaituen gure bearetan.

Ongi jaso nuen zurea, bai ta berarekin zetozen eres-paperxoak ere. Oiek Minaberri andereñoari eraman nizkion eta benetan pozik artu zituen emengo euskaltzale on orrek. Milla ta milla esker bere aldetik eta niketz ere.

Pozgarria da niretzat, izan be, osasuntsu ta ondo zabiltzala jakitea, atz-bete lan ibilli bear baduzu ere. Ta orobat izan bear «Karmel» zure aldizkaria berriro ateratzeko aukera eldu zaizun berria ere. Aurrera, beraz; H'rentzako tokirik izango al da or, apika? Ez dut uste.

Ez dut oindiño ikusi al-izan «Anaitasuna», baña ba-nekien mordollo bidean barna berriz ere abiatu dala; ulergaitza, benetan, orren itsukeriz ibiltzea; ez ote ditugu iñoiz begiak idekiko?

Ori izan ezik, zure gutunean oro da pozgarri. Agiri berezi ori ateratzeko duzuten asmoa ere orrelakoa da niretzat; eta geyago Euskaltzaindi'ko batzuk orixe izenpetzeko gerturik dagozela jakitea, antxe baitagoz mordollozale batzuk.

Mordolokenen aurka nauzu ni ere; ta naiz orri buruz, naiz «H», euskal-iztegia ta euskeraren batasunarekiko, zerbait idatzi dut, onekin batera igortzen dizkizudan paperetan ikusi al-izango duzunez. Zuen asmoetarako idazki oietan on izan dakizueken zerbait aurkitzen baduzute, niretzat poza ere.

«H» dala-ta, emen doakizun idazkia, bere egunean, erabakirik artu baño lenago, Euskaltzaindi'ari biali nion; ba-dakit artu zutela baño jakin ere ba-dakit alboan utzi zutela.

Esan didatenez, «Anaitasuna»'n irakurrita, joan dan illearen asieran, ementxe euskal-idazle batzuk alkartu ziran; baño ez «Herria»'n ez eta beste izparringietan ere, ez dut irakurri bilkura aren berririk. Minaberri'ri be galdetu nion eta berak ere etzekien ezer; beraz, eztakit Zeintzuk bildu ziran ez eta beren billeran zer erabilli zuten.

Bazter auetan aurten aurrentzako iru eskola asi dira lanean: bat Bayona'n, bestea Miarritze'n eta irugarrena Kanbo'n, ume-pillo aundi xamar bakoitzean. Gero aundientzat ere ikastaldi batzuk ere idekirik dagoz. Irratiz, len bezela, goizeko zortziretan bost miñutu, ta igandero bederatzi t'erdietan ordu erdi. Gañera, Minaberri'k esan zidanez, laister Donostia'ko irratian laburdierazko ikastaldiak ematen asiko dira Oñatibia'ren ikasbide arauz,

Dagorret'ar Beñat jaunak —eztakit ezagutzen ote duzun— bere ikasbidea ere argitaratzen asi da; orain lenengo liburutxo atera du, gero besteen bidez jarraitzeko asmotan.

Iratzeder'ek «Argiz Argi» liburuan itz-neurtuz eta itzlauz egindako lan-mordo ederra argitaratu du; ene ustez oso idazti ederra dugu ori, goi-olertiz bete-beterik. Soubelet kalonje jaunak ere «Jesus» izeneko beste liburua atera ornen du; nik ez dut oindiño ikusi.

Goraintzi bero asko Errapel aitari; zuk artu eidazu, otoi, nire biotzeko agurrik kartsuena

Urrestarazu'tar A.

Bayona'n, 1969'ko urtarrillaren 16'n
Onaindia'tar Santi aita agurgarria
Larrea

Agur aita agurgarri ori:

Joan dan igandean emen agertuko ziñala uste nuen, uste oso-osoan egon gabe, baña etzindudan ikusi.

Eta itzez esan nai nizuna gutun onen bidez jakin-eraziko dautsut. Ona emen zer dan:

Ba-dago uri ontan euskal-aurrentzako lanetan ari dan Us-taritz'eko andereño bat, Marijean Minaberri; bi ipuin-liburuto ere argitaratu ditu, ta orain eskoletan erabiltzeko filma batzuk gertutzen ari da; filma oietan abesti, bertso ta ipuin txikiak sartzan ditu. Ba-dauka «Jolasketa» zure liburua, ta bertatik, esandako elbururako, bertso ta abesti batzuk artu nai-izango lituke laburdieraz jartzeko, ta zure baimena bear du ori egiteko.

Niri eskatu dit zure baimen ori eskatzea ta orra gutun onen zioa. Ba-liteke, xede ortaz ere, Kirikiño'ren ipuñak ongi etorriko litzazkiokela; ta oiek ere zuk argitaratutako libururik jaso al-izango lituke.

«Larrea eta Karmeldarrak» zure liburua ere bere egunean jaso nuen, baña eztaikit niretzat ala E.K.A.'rentzat igorri ote ze-nidan. Niri, beste aldetik, beste igeiki bat eldu zait (adiskide baten bezuzaz), eta orrengatik uste dut ohea izango dala bazkun orri ematea; baña edozein moduz ordaindu bear-izango dizugu, ta liburuan ez da salneurrik agertzen. Beraz, erantzuten al badaustazu, esan eidazu, otoi, zenbat ordaindu bear-izango dau-tsudan; bai ta ontzat artzen dozun igeiki oietako bat E.K.A.'ri ematea.

Zer gertatu zaio «Anaitasuna»'ri?; ez al. dago gerokoan be-rriro argitaratzeko asmorik? Ona izango litzake, ene ustez, ate-ra ta asterokoa egin, bizkaieraz emateko ta euskera garbi egokiaz idazteko.

Arreba emen egon da joan diran jaietan, eta alkarrekin ospatu al-izan ditugu guziak oso ondo.

Nire goraintzi oberena Errafael aitari, ta zuk onar ezaidazu, arren, nire agurrik adeitsuena

Urrestarazu'tar A.

Durango'tik, 1969'gneko azillak, 20

Agur, Aita Onaindia:

Ai zer-nolako pozaz artu nuan zure eskutitza! Ni bildurtuta nago, guztiz bildurtuta, gure Ama Euskerak artu dituan (obeto esateko, artu arazi dizkioten) bideakin. Gure Jaungoikoa'k naiko al du, Euskaltzaindia'k edo Euskerazaleak, edo bat-edo-batek, bidera ertetea, geiegikeri oiek aurrerago jua baiño len. Ondo egin zenduan nere izena artzea. Beste batean ere orrelako kasuetan egin berdin.

Zer pozik itz egingo neuken Zurekin gauza onetzaz! Ez al du etorri bear, emengo moja karmeldarrak autortzera edo beste orrelako lanen batera? Gure etxea komentu ortatik urbil dago.

Orain, orain bezela, ezin neuskio idatzirik bialdu «Karmel»-erako. Lana buruz gaiñ (ez idazten, papera ta boligrafua urte bete bai dira gorde nituala) ontzi garbitzen, jatekoa egiten, gauzak ekartzen, josten, konponketan eta gaixoa zaitzen. Endika gixajoak geroago ta lan geiago ematen bai dit! Eta neu bakar-bakarrik danak egiteko...

Agur, bada, eta beste bat artio.

Eskauriatza'ren Azpeitia'tar Julene

Aizarna'tik 1969'go azarearen 21'ean
Onaindia'r Yakoba aba agurgarriari
Larrea'ra

Jaun agurgarri eta adiskide miñ:

Artu nuan zurea. Adiskidetasunak esanerazten dituanak!
Nola-nai ere, pozgarrigo da onelakoak jasotzea, beste zenbait
eraso zorrotz baño. Eskerrik asko.

Or bidaltzen dizut zer bait. Ea zer iruditzen zaizun. Aurrera-
koan ere orrelako gaiak erabützea... zer iruditzen zaizu? Izan
ere, Coire'ko «agerpenak» euskeraturik dauzkat; sarrera edo-ta
oartxoren batzuk erantsi eta bidali nezaizuke orrelakoren bat,
urrengorako ere. Zuk esango didazu zer egin.

Neurriari dagokionez, onelakoxe bi orri aundi bete oi ditut
ZERUKO ARGIA'rako «kezkak» idaztekoan. Laburrago? Lu-
zeago? Bere ortan Zuk agindu.

Aurrena esan bear nizuna esaten dizut azkena: Zorionak!,
baimen ori lortu dezulako. Ea luzaro eusten diozun gure errian
on aundia egiñaz.

Gaurkoz besterik ez. Zure oar eta berrien zai gelditzen naiz.
Bitartean besarkada aundi bat zure adiskide

Gaztañaga'r Jesus'ek

Bilbon, 1969 abenduaren 19-an

Anai irribarre:

Artu naiuan ire eskabide bikotxa, ain zuzen arazopeturik
naiagoanean. Eta egunokaz, areago.

Gauari unada batzuk ostuta, egin joat egin bere, eskabide
bata. Eta emen dok, izan bere. Ipuintxu mingotsa ire aldizkari
ager-osten orrentzat. Baiña etxuat aurrerantzerako bearkunik ar-
tzen, e? Ulertzen dok?

Olerkiok, aurkitu egin bear joadaz, or nunbaiten argitara ba-
koak izango joadaz-ta. Astirik izatezkero, eta gogo ta olde argi-
--k, barriak egin bere bai, baiña tarteka, goi-aizeak jo gaizanean.
Noizko, biali-epea?

Zorion, Gabonetan! Eta bakea, gizonen biotzetan. Agur ta
erdi,

Erkiaga

Lazkano, azaroak, 25
Onaindia'tar A., karmeldarra
Larrea'n

Agur adixkide on ori:

Zure eskutitza iritxi zan Lazkao'ra kanpoan nenbillela. Ta
gero berriz zai egon naiz zer erabakitzen zuten Andima zana-
ren alde Mezetaz. Ortan Etxaniz ibilli da ta azkenik —bear
bada jakingo dezu— datorren illaren 17'an Meza bat emateko-
tan gelditu dira *amabi'tan*. Egia esan nik naiago nuen amaike-
tako Meza nagusia, elkarteko Meza. Bañan orrela erabaki dute
eta... ortan gelditu gera.

Etortzen bazera, elkar itz egiteko aukera izango degu. Orain-
txe eraman ditugu irarkolara Orixe zanaren Salmoak, argitara-
tzeko Donosti'an. Geroxeago, agertuko degu Euskal-aditza gure
Aita Baztarrika'k gertutu duna, errax ikasteko gure aditza. Lan
asko dago egin bearra... Beraz denok bat egin bear eusteko.
Liturji gauzetan gure izkuntza bezelakorik ez dago beintzat.

Agur bero bat zuri ta zuretarrei

Elizondo'tar Mauro'k

Lazkano, azaroak, 29
Aita Onaindia
Larrea'n

Agur adixkide on ori:

Oraintxe artu degu Arregi'tar Lore'k idazten digun eskutitza. Berak dionez onela azaldu zun bere azken naia: «Ni iltzerik balitz, nere illeta Caracas'eko eleizik pobrienean emon eta euskaldun utsai dei egin bakarrik. Baña nere illeta nagusi edo berezia, Lazkao'ko Beneditarren Lekaidetxean nai dot emotea. Bertara dei dagiela euskal-idazle guztiei...».

Esaten nizun noski nola Etxaniz'ek erabaki zun datorren jaiaren amazapian, eguerdiko amabitan izango dala meza ori, illetako meza beraz. Orain jakin nai nituzke bizkaitar euskal-idazle izen eta zuzenbide batzuk adierazteko illetaren berri. Aldizkari batzuk ere izango al dira... baño nora bialdu?

Zure erantzun azkarraren zai naukazu.

Biotzez

Elizondo'tar Mauro'k

Lazkano, azaroak, 30
Onaindia'tar A., karmeldarra
Larrea'n

Agur adixkide on ori:

Atzo idatzi nizun ta berriro emen zuregana. Gure artean itz egin degu eta pentsatu degu Zuk egin bear dezula Andima zaren illetan *itzalditxoa* Ebanjelioa ondoren. Zure adixkide zan eta bera bizkaitarra: bizkaitar batek bizkaieraz itz egitea egoki litzake.

Etorri zaitez ere nai badezu «konzelebratzera» amabitako meza ortan bertan. Izan ere Meza ortan ere elkar-arteko Meza eman genezake. Beste batzuk ere nai baluteke berdiñ.

Al dezun azkarrena emaidazu *baiezkoa* nere eskaera oneri,
baiezkoa eman bearrean arkitzen zera ta.

Agur bero bat.

Elizondo'tar Mauro'k

Elgoibar, 1970'gko. ilbeltzak, 3

Aita Santiago Onaindia'ri

Larrea'n

Nere jaun agurgarria:

Artu nun zure eskutitza, igezko Urrilla'ren 21'ekoa. Bertan esaten ziazun, nola ospatzen zan, OLERTI eguna, 26'an. Ez nuan betarik izan, or azaltzeko. Baño, zuk oartuta, egon nintzan beiñ —ez naiz oroitzen zeñ urtetan— Etxeberria lagun nula. ORIXE zanak, erten zun garaille.

Artu det, baita ere, orain bialdu diazun POEMA AMAITU BAKOAK. Eskarrik asko, zure itz pozgarriakaitik.

Bañan ez det artu, nere olerkia datorren ale ori. Nik, azkenik artu detana da, UDABERRI izendatzen dana. Orregatik, bialdu zaidazu. Gañera, uste det, igezko ale biak, ordaintzeko dauzkatela.

Besterik gabe, arraiki agurtzen zaitu,

Larreategi'tarLuken-ek

Taiwan-Rep. of China, 1970-VI-3

Onaindia Yagoba karmeldarrari

Larrea'ra

Adiskide:

Zeure aldizkari KARMEL Bilbo'ra igorri izan dozu. Ieki bat. Bañan, euskeraz ez dakinari. Carcamo'ri.

Carcamo onek, Indautxu'ko norbaiti emon zekioken. An euskaldunak ba-dira. Bañan, neri biali daust.

Au, zuri eskerrak emoteko da.

Eskerrak eta zorionak.

Zeuren langille bizkorra zareana guztiok dakigu. Aldatz gora ibiltzen ederto dakizu. Aldi oneitan iakin bearra be izan! ! Guztio! Eta, iñork baño geiago geuron atzetik datozen gazteak iakin bear leukie aldatz gora ibiltzen. Eurak auxe iardetsiko daustie:

—Geu! ! Mendigoizale ospatsuok aldatz-gora ibiltearen bel-dur! ! Nok esan dau olangorik?

Neuretzat Karmel opari bikaiñenetakoa! !

Bai ta bai! ! Eskarrikasko!

Banatzalle zareanez idazten deustut.

Geu, mixiolari txiruok, eskean ibiltzeko aurpegian zazpi azal bai ei doguz. Olan ezik, emen lan gitxi egingo geunke...

Eta, Carcamo'ri zuzendu bearrean, onera bialduko ba'zeunskit! ! Orrenbeste txanpon izango dozuzala uste dot. Gero, lantzian-lantzian zerbait idatzi al izango neuke. Geiegi ezin agindu: urtetxuak pillatu iataz sorbaldan eta beti enaiz izaten aldarte oneko. Asmaixu: 70-garrena lengo iorraillaren 23-garrenean bete neban. Ondoren, emengo eguraldiak, sarri, ez deuskue geiegi laguntzen...

Etxe ontan mezadun bi eta bi anai gara. Nagusia asko ibiltzen da, batera eta bestera: Caritas'eko Zuzendari da eta sarritan izaten dauz deiak. Olangoetan bakarrik izaten naz etxean. Bi anaiek osalaritza egiten dabe. Igandietan bakarrik atsedeen. Egutero, eun da geiago makal etortzen. Urrutitxotik be bai. Igandietan txadona polito betetzen dabe. Emakumezkoak gizasemeak alako iru be bai. Gaur beintzat alantxe ziran.

Euskadi'tik barri nabarrak irixten dira. Beste itzez esanda: barri nastuak. Margodunak. Ulertuko daustazu: margodunak esatea, iapandarren esakeratik urten iat. Eurak alantxe esaten dabe-ta.

Italiarrekin bizi naz. Eta, ango aldizkari ta izparringiak irakurriz. Areik geure aberriko zertxoak, españarrak ez bezelako begiz ikusten dabiez. Alegia, españarrak baño garbiago, zuzenago eta kistarkiago.

Zerbaitetarako on ba'litzaizu edo, ona argazkitxo.

Bein Salomon'ena antzestu eben emen, eta Saba'ko andere gurenarena egin ebanari argazkitxo ori atera.

Ongi izan eta beste bat arte.

Idazkitxo be, Karmel'erako artezkariari ongi ba'deritxo. Zeure-zeurea IESU baitan:

Etxeberria'tar P.

Iruña-tik 1971-go Jorraillaren 10-an
Onaindia'tar S. A. agurgarria
Larrea-ra

Euskaltzainkide biotzeko:

Euskaltzaindiak il ontako batzarrea Bilbon izango duala gazitatu ez ba'zaigu ere, or izango dala nago; azkeneko batzarrean ori erabaki zalako.

Illaren 20'garrenean izango ornen da. Joateko asmotan naiz eta atsegin aundia izango nuke Zurekin berbalditxo bat egin al ba'neza.

Batzarrea Euskaltzaindiaren bizitegian (Ribera, 6), izango da, goizeko 10 t'erdietan asten dala.

Etzaniz'tar Nemesi jaunak esan zidan nere sail berri bat zuri eman, zizula, argitara emateko itza eman zeniola-ta.

Lengoa oraindik bukatu gabe, ez nizun eskatu nai azken ori ere argitaratzea. Eskerrak damazkitzut bada, lengo ta Oraingoz. Lengoaeren bukaera nerekin eramango dizut ara noanean.

Batzarre Ortarako asmorik ez ba-duzu, 19-garrenean Bilbo-ko Kaputxinoetara urrutizkiñez, arratsaldeko 4 t'erdiak aldera

deitu; eta orduan esango didazu nun egon giñezken elkarrekin. Orko zuen konbentura joateko alegiñak egingo nituzke, Zu aruntza orduko baldin bazoaz.

Azkeneko lan ortan Euskaltzaindiari dagioten eskaera ez ote dan ondo izango, jarri zait buruan. Eta beraz, zure iritzia garbi ematea naiko nuke.

«Karmel»en kontua ordun ordainduko dizut.

Artean eta beti gogo duzunerako zure eskuko nauzu.

Berpizkunde zoriontsua bekizu gure Jaun, Maitale aundiak!
Agur.

Intza'r Dámaso

Donostia'n, 1971'go Urrilla'k 14
Onaindia'tar S.

Adiskide jator: Jaso-berriak ditut zure idaz-lerroak. Etzera zu bereak atzera egiten dezuna, ez. Eragozpenak gaintzen nagusi zaitugu. Jarrai bai orrela. Eta bidali nai dezun guzia. Poz-pozik artzen ditut Larrea inguru goxo ortatik datozkidan paper guziak. Eta ez dira geiegiak. Obe geiago ba'lira.

Orain iru urte irarkolara bidalitako nere lan bat «Euskal izkera ta Elertia» Lizeo'ko ikasleentzat gertatua, oraintxe ari gaituzu zabaltzen. Lantxo ariña dakigunez, bañan zensurakoak pekatu larriz josita ikusten zutena. Argitaratu ondoren, zatika-zatika askotxo kendu-azi zidaten. Eta etzaigu merke-merkea atera gero! Milla ale, eun milla pezeta! Bañan zorionez, eskuartera-ko ba'degu zerbait Lizeo'an. Okerrak ba'dituala? Urrengo argitaldirako zuzenduko ditugu. Bañan Lizeo'ko jendia pozik da; eta gu ere bai. Bearbada beste «taldekoak» ez. Eta aurrera jarraitu nai nuke, naiz ta jakin zensurakoak asarre ibilliko zaizkidala.

Betoz ba lenbailen eta ugari zure lanak eta zure lagunarenak, muinka jasoko bait-ditut.

Urren arte. Beti zure

Egaña'tar Gotzon

Legazpi-tik, 1971-ko urrillan 24'an
Aita Xanti Onaindia
Zornotza

Aita agurgarri, ta adiskide zintzo:

Egun batzuek joan zaizkit zuk igorririko albistea artu, ta lerro urri auek idaztera jartzen naizeraíño. Ala ere, gaurkotasunik ez duela galtzen iduriturik, esanak esan, eta barkatu.

Leenen, aitatzen didazun liburua artuko dizudala itza eman nai dizut. Joan zen urtean «Olerki-egunerako» bildu ziren lan guzi-guziek argitaratzekotan gelditu giñan noski, ta geroztik ainbat bider onetaz gogoratua nauzu, ta jakiña, orain ezagutu aal izan dut «zeren zera» gaitik ez den azaldu aitaturiko liburua.

Dena dela, aurtengoa gaiñean degu-ta, Jainkoak lagun, nai nuke urteeroko adiskideen artean, or Larrean, ordu atsegin batzuei leku eman.

Ez dakit zer irudituko zaizun emen dijoakizun bertso-xorta soil au. Joan zen urtean ikusi nuenez lanak urri zirela uste dut, eta komeni da ainbat eta geien biltzea, erabat mututu ez gaitzen, eta onexengaitik, astearen erroan nola-ala moldatu ditudanak auxek dituzu.

Jakiña, denborarik ere larregi ez-eta, xamurrera jo dut, eta bide batez, besterik balitzake sail ontarako, naiago nuke «Karmel»'en edo argitara eman, urteero betikoak izan ez gaitzen. Beste norbaitzuek ere poz izan dezatela noski.

Gaurkoz besterik gabe agurtzen zaitut, zure menpeko naizen onek:

Ugarte'tar Martin

Irun'dik, 1971-X-25'ean
Aita Onaindia'ri
Amorebieta'ra

Jaun agurgarria:

Artu dut zure orria. Zer esanik ere ez dago oso pozik jasoko dutala aitatzten duzun OLERTI'ren urrengo alea. Orri berean, zure eskuz idatzita, auxe eskatzen didazu: «Bialdu eidazu lantxoren bat».

Ni (ondo asko dakizu zeorrek) ez naiz olerkari, eta leen ere iantxoren bat biali izan ba'dizut, besteenak «obeagoak» izateko asmotan izaten zan. Aldamenean txarragorik ez ba'litu nola izan zitekean bada «onena»? Sariketa batean lan bat bakarra, edo gutxi beintzat, azaltzen ba'dira, irabazten duena anka-motz xamar gelditzen da. Ziara «txarra» izanda ere, «onena» bait'da! Eta jendearen aurrean, saria irabaziarren «txarra» izan zitekean zalantza geratzen da.

Nik onela pentza izan nuen leen eta berdin uste det orain. Baiña orain gauza bat aitortu nai nizuke. Ni, Zurekin edo, obeto esan, zuekin, Olerti'ren ondoan zabiltzatenekin... aserre xamar nengoen aspaldi batean. («Nengoen» esaten dut, baiña egote ura joan zan).

Ni sariketa batzuetara azaldu izan naiz. Batzuetan irabazi izan det (aurten Espairia'ko botikarioen arteko lenengo saria: «Estudio de la potabilidad del agua del río Bidasoa» eta «Hidrología del Camino de Santiago» lanekin, eta Gipuzkoa'ko botikarioen saria «Aguas de abastecimiento y aguas residuales de Irun y Fuenterrabia» deritzaioten lanekin. Joan dan urtean Irun'go uri-batzarrak antolatu zuen sariketako lenengo saria nere «Irun bere aurrerabidean» Irun'go euskal-ixtoritxoarekin). Bestetan aipamenak izan ditut (Euskaltzaindian, Consejo General de Farmacia'n). Eta bestetan ez dut ezer izan. Besteen lanak nereak baiño «obeak» izan ziran eta kito. Baiña sekula ez zitzaidan gertatu (eta ez dakit iñori gertatu izan zaion) nere lana,

Olerti'n, «Izar» izeneko alean, 161'garren orrian. Txarra ba'-zan... Zergatik adierazi ta argitaratu?

Orain ere ezer bialtzeko beldur naiz. Baiña... leen esan dizudana esango dizut:

- a) aserre xamar «nengoen»... baiña ez «nago».
- b) lan «onak» txarragoen babesa bear duela alegia, «ona» izatez.gaiñera «onena» izateko.

Eta:

- c) zuk, leen bezela, eske bat egin didazula.
- d) euskaldun batek, zuk bezela euskeraren alde lan egiten duen bati, lagundu egin bear diola.
- e) nere barruko xomorro ura (min eman zidan benetan!) ziaro zapaldu nai dedala.

Ona emen bada onekin batera nere lantxo bat. Besteenak baiño «txarragoa» izango da noski, baiña, mesedez... ez adierazi berez «txarra» danik. Azalpen orrek ez lioke onik egingo ez euskerari, ez olerkariei, ez Olerti'ri, ez zuri, ez neri. Txarra baldin ba'da, aintzakotzat artzeko diña ez ba'da, puskatu ta kitto.

Besterik gabe (naiko luze joan naiz) artu ezazu nere agurrik beroena.

Zure

Loidi'tar J. A.

Legazpi-tik, 1972-ko epaillak 15

Aita agurgarria:

Udazkenean orruntz jotekotan nintzan. Ala agindu nizun azkenengoa, baiñan asmoak ez dira beti nai bezela irtetzen, eta asmoarekin bakarrik gelditu nintzan. Ain zuzen, auzoko ezbear batengatik izan zan nere eziña. Barkatu.

Gaurkoan matasa batekin nauzu, ez dakit nola arildu deza-kegun.

Aurrenetik asiko naizkitzu esaten. Leendik nobela edo orre-lako zerbait idatzia daukat itz-lauz. Emen, Legazpin, talde ba-tek uda bukaeran, Iraillan (Agorran) erdi aldera euskal-astea antola naita antolamentuak egiten asiak ditu, ta nolabait jakiña dute aitaturiko lantxoaren aztarra, ta onetxengatik liburuxka bat argitatu nai dute onekin.

Nik nere aldetik ezetzik ez diet eman, baiñan nere baitan ordea, beste burutamen bat jaio zait: Nola-alako «Aizkorri» poe-mari Zergatik ez leku eman liburuxka orren orrietan?

Jakiña, ontarako, orren saria jaso nuen-da, zure baimena bearko aurrena. Eskubide osoa zuk daukazu-ta.

Ontara ordea beste konponketa bat egin ote litekean iduri-ten. Alegia, «Olerti»-ren orde-edeo, joan zan urtean beintzat liburu mardul bat sortu zenuan, eta sail ortan sartu aal izateko eragozpenik bai ote legoken.

Nere aldetik ez det txanpon bakarraren egarririk, bide batez, ezniok beste iñori ere galerarik ekarri nai, ta onexengatik, zen-batsu arpide dituzun jakiñean, eta emengo talde onek beste moltso bat artuaz, zerbait opildu ote diteken iruditzen zait. Au nere iritzi utsa dala gogoan izan. Zuri zer iruditzen zaitzu?

Aitatu detan nobela edo lantxo onek 130 orri inguru izan ditezke. (130 folio bitik batean beteak). Eta or dezun poema orrek oster, 100 edo izango ditu, baiñan au pitin bat tolestuaz erdira edo ekarri ditekela uste det. Danera ere 200 orrialditan sartu liteke.

Zuri ala iruditu ezker, mesedez idatzi idazu len-bai-len, eta orrera bertara azalduko giñake zuk nai dezunean, egin bea-rrekoak egin aurretik garbiago jakin dezazun, eta bide berean alkarren arteko konponketak egitera.

Gaurko besterik ez, ulertuko didazula uste det esan nai niz-kitzunak, ta ontan, zure erantzunaren zai gelditzen naiz.

Zure menpeko:

Ugarte'tar Martin

Bayona'n, 1972'ko jorraitharen 5'n
Onaindia'tar Santi aira
Larrea

Agur aita agurgarri ori:

Ongi artu nuen «Karmel»'en azken zenbakia ta pozik ari naiz bera irakurtzen; milla esker.

Etzait aztutzen ona etorri nai duen neskatil orren arazoa; bost tokietan dei-egin dut baña oraindik erantzun egokirik gabe; ortaz jarraituko naiz eta zerbait sortzen bada bereala idatziko dizut.

Arreba emen egon da egun batzuetan nirekin, eta gaur doa berriz etxeruntz; ongi xamar dago ta uste dut gero ta obeto jarriko dala, batez ere orain elduko zaigun eguraldi onaren esker.

Gaur zerbaiten eske noakizu, barkatu. Eztakit ezagutzen ote duzun orain bi edo iru urte emen argitaratu zan «Nor Nun» idazia, Ludi'aren zear bizi diran euskaldunai buruz egiña, baña Laburdi, Benaparroa ta Zuberoa'koak bakarrik agertzen diralarik. Norabide edo katalogo bezela izan zan liburu ori egiña.

Orain Euskalerriko guziekiko bigarren liburua egin nai dute ta, bertan ipintzeko, euskaldunik ospetsuenen izenak biltzeko eskatu didate. Emen ibilli naiz liburuetan azterkatzen eta dagoaneko ba-dauzkat berreunen bat jasota; baña ba-dakit geyago bil ditekela, ta orrengatik zutzaz gogoratu naiz ia Ortarako bideren bat eman al ote dizaidakezun galdetzeko, bizkaitarrak diran eta izan diranak ezagutzeko.

Noski enuke nai-izango lan ori zerorrek egitea, lanaz okiturik zagozela ongi baitakit; baña orko ala Bilbao'ko mutil edo neskaitillen bat egon ditekela zera ori betetzeko, nun begiratu bear duen eta nola yardun bear duen zure aldetik edo esan ezkeror. Barka ezaidazu, otoi, eskari onengatik, baña ez dut ikusten niretzat beste biderik.

Egitekotan, auxa da zure ta mutil edo neska orrengandik, jakin nai dudana: *Bizkaitar ospetsuen* IZEN ABIZENA, bakoitza

jayo zan ERRIA, jayo ta iltzearen URTEA, ta bakoitzak egingako LAN'aren berri motza (iru edo lau lerrotan jarri ditekena).

Emen bizkaitar batzuen zeatz oiek ba-dauzkat; beraz, oietzaz ez da ezer egin bear; baña ba-dakit beste asko ere dagozala. Ez da guziak ez eta geyenak ere aurkitu bear, berrogeiren bat aski izango da, ta aindo ortaraño eltzen ezpada, berdin.

Ona emen nortzuen izenak dauzkadan:

AGIRRE'tar Yoseba Andoni, ARANA GOIRI'tar Sabin, ARRESE BEITIA'tar Felipe, ASTARLOA'tar Kepa Paulo, AURRE-APRAIZ'tar Balendin, AZKUE'tar Er. Mirena, BERRIOTXOA'tar Balendin, BUSTINTZA'tar Ebaista, BUSTINTZA'tar Errose, ENBEITA'tar Kepa, ERZILLA'tar Alonso, GARZIA DE SALAZAR'tar Lope, GANDIAGA'tar Bitorino, KEREXETA'tar Jaime, LAKOTZA'tar Yon, ONAINDIA'tar Santi, UNAMUNO'tar Mikel, URKIAGA'tar Estebe, URKIJO'tar Julio, VILLASANTE'tar Koldobika, ZABALA'tar Bruno Maurizio, ZAMAKOLA'tar Yon Andoni ta ZUMARRAGA'tar Yon aita.

Lana geyegi iruditzen bazaizu, utzi lasai ezer egin gabe, ta nik bildutako izen eta zeatzak naikotzat artu bear-izango dituzte.

Beti bezela nire goraintzi onena Errafael aitarentzat; eta zure berrien zai, onar ezaidazu, arren, zuretzat nire agurrik on eta kartsuena

Urrestarazu'tar A.

Iruña, 1972'go urtarrilak 12

Aita Onaindia

Amorebieta (Bizkaia)

Agur, Aita Onaindia:

Lehenbizikoz «bi hitz» nor naizen esan beharrez.

Iruñen bizi naiz, hemen bertan sortua. Medikua. Ezkondua. Iru alaba eta iru semetako aita. Andrea eibartarra da. Nere aita

txikitan nintzalarik nere gurasoak euskeraz erakutsi ez bazidaten ere gero medikuntzaren ikastaroak egitearekin batera euskera menderatzen asi nintzan. Beraz euskaldun berri naiz.

1957'go urtean bertako Diputazioak «Principe de Viana»-ren magalean «Euskeraren Alde»'ko Saila sortu zuen eta neri, oraindik ez dakit Zergatik, Zuzendari eta Bokal bakarra izendatu nindun. Amaika urtez, 1968'go urteraino Diputazioaren partetik eginikako euskeraren alde egin ziran lan guziak neuk zuzendu nituen. 1968'go urtetik nere tokia, nere borondatez, Jorge Cortes Itzal'eri utzi nion nere ogibideko lanak, famelia... eta, gauzak behar ziren bezala egiten utzi ez nindutelakoz. Orduan, bi lehentxeago, obe esateko, eta nere eskariaz, Diputazioak beste lagunkide bi izendatu zituen: Leitzeko apez den Jsoe Manuel Lasarte, eta Urdiaingo Erretorea, Jose Maria Satrustegi. Gero, orain bi urte edo, Ultzamako Sekretarioa den Iribarren eta Elizondoko Mariano Izeta ere gurekin lan egiteko izendatu zituzten. Ni orduan euskal «Principe de Viana» agerkariaren aferak eramateko soilik utzi ninduten.

«Principe de Viana» aldizkaria, ilabetekariaren zuzendaria ni naiz, sortzetik hona neronengan izan da errebista honen zuzendaritza. Izenburuaren azpian beste izen-deiturak agertzen badira ere nere eskutan izan dira beti aldizkariaren lanak. Turismo delakoak guk beste errebista ezberdin bat sortu beharrean lehen argitaratzen zen erdal «Principe de Viana»-ren gehigarria, suplementua izateko, eskatu zuen. Honelaz «Roncesvalles», edo «Orreaga» izena izateko zegona «Principe de Viana» ere bai «bataiatua» izan zan. Honengatik beti Zuzendaritzat Erdal «Principe de Viana»-ren Zuzendaria den Jose Esteban Uranga jauna agertu behar da.

Eta orain natorkizu, Aita Onaindia, «Bertsolaria»-ri buruz zerbait mintzatzeko.

Jose Maria Satrustegi jaunak zuk igorritako idazlan guziak ekarri zizkidan eta «Bertsolaria» 'renak besteekin batera inprentara eraman ditut garaiez argitaratzeko. Idazlan bat bakarra, uste dut, ez da kabituko «Bertsolaria»n. Beste numeru baterako, urrerorako utziko dut. Nere ustez «Bertsolaria», lehenengo «Bertsolaria», ongi aterako da.

Hemendik aurre, eta Hernandorena'k esan zidan bezala, baita Urdiainen zuek eta guk (Sarduy anaiak, Alfontxo Irigoyen, Hernandorena, alde batetik, eta Satrustegi eta ni beste aldetik) erabaki genuen bezala, Zuek, ongi esan, zuk neri bihaldur behar didazu «Bertsolaria»n argitaratzeko prestatzen duzuten guzia. Honelaz dena «bere tokira» zuzenki joango da eta ez dugu minuturik galduko.

Ohar bat; hileoro, hile bakoitzaren lehenengo egunerako, ahal ba diteke, bidaldu mesedez. Hile hontakoa oso ongi dago. Gauza bat eskas aurkitu dut argazkiarenak, irudiarenak, Zergatik lauek orriak apaintzen, txukuntzen eta alaitzen dituztelako. Zuk bi erretrato bidaldu zenituen, Abel Enbeitarena eta beste Enbeitarra. Nik orduan Pello Errotaren foto bat bilatu dut eta beste bat Mattinarena. Halaxe orriak «politagoak» agertuko dira.

Zuk Satrustegiri idatzitako eskutitzan esaten duzunez hileoro amabi kuartilla prestatuko, obe esan, bilduko dituzu. Nik uste nahikoa izanen dela, baño obeago da gehiegiz bidaltzea gutxiegiz baino. Ez da ala?

Hileoroko lanak bidaltzen dizkidazunean zure nahiaz, oharrak, asmoak, eta nahi dituzun guzia esan neri konfiantza osoan, Zergatik zu zera «Bertsolaria»ren benetako zuzendaria, eta ni zure borondatera, zure esanetara egonen naiz. Esan bada lasai nahi duzuna.

Nere zuzenbideak orri honen asieran daude (Pedro Diez de Ulzurrun Etxarte - San Anton, 43 - Pamplona).

Guk orain, Satrustegi eta biok, diru-bila gabiltz, uste dugu zerbait aterako dugula. Zuek orain, arpidedunak aurkitu behar dituzute. Hala esan zuten Urdiainen egon zirenek.

Ez dut oriangoz beste esatekorik (ordua da bukatzeko!). Agindu ezazu nahi duzuna hemen geratzen den zerbitzari eta menpekoari.

P. Diez Ulzurrun

Tolosa'tik, 1973-III-5
Aita Xanti Onaindia'ri
Larrea'ra

Nere adiskide maite ta Aba on ori; Alare zuk bidalitako «Karmel» eta «Euskal Literatura» eskuratu nituan eta oso pozik irakurtzen ari naitzazu bi liburu eder eta mamitsuak. Zein baiño zein obeak. Zure eskua nun-nai agertzen da, eta Jainkoak eman dakizula orrela lurrean jarduteko Osasuna eta almena.

«Euskal Literatura» benetan dezu lan arnas aundikoa eta txairo, zentzuz eta jakituriz eramana. Jo ta pasa egin diezu orain arte gai ori ikutu duenai. Izkuntzan ere bikaiña, *batasun eredu*, errez eta argi, Azkue'ren bidetik. AGUR aldizkarira igorri dudan lantxo batean aipatzen zaitut labur, baiña goresmen aundia merezi duzu. Urrengo aleak irakurtzeko irrildtzen nago.

Besarkada estu bat

A. M. Labaien

Onaindia'tar Yagoba Abeari
Larrea (Zornotza)

Agur, adiskide maite:

Ekandu on ala txar danik esaten ez noa bein-beinean, baña ekandu da idazlanen bat norbaitek argitaratzen dauenean lanaren aitabitxiren bat billatzea, idazleak berak barik idazlan ori aitabitxik aurkeztu dagian, yaioko dan seña eder baño ederrago dala-ta esanaz.

Aor ba, Shakespeare'ren antzerkiak, nik euskeraztuak eta euretariko batzuk beintzat zuk ezagun dozuzanak, irarten asita dagoz, laster argitara urteteko eta orain zortzi bat urte dirala, ointsuengoz ni emen izan nintzanean, or Larra'n, zu aitatu zindudazan nire idazlan orren aitabitxitzat eta zuk zeuk ez zendun emon ezetzik zure aitabitxitzarako. Ba-dakit aldi onetan zeregintsu zabizana, euskel-idatziekazko ta euskel-idazleetzazko zure lan barria irarten dabiz-eta, ez dakit aitabitxitzarik egiteko astirik izango dozun ala ez, baña, dana dala, aitabitxitza ori beste iñori ez dausat opatu gura izan zuri aurreztik itandu bagarik. Zuk ezinean, Akesolo Abeagana-edo yo bearko neunke, eta orrexegaitik zuri itandu bear aitabitxitza ori zeugan artzeko gai zareanentz.

Onazkero ba-dakizu nire lana Kardaberaz-Bazkuneak argitaratuko dabela, orko batzarrean orretara gelditu gintzazan-eta. Iru zatitan argitaratzeko gintzazan aldi atan, baña iru zatitan ateraazkero idaztiak lodiegi urtengo ei leukie-ta, atzenean be sei zatitan, sei idaztitan aterako ei dabe.

Idaztiak argitaratzea ez da auntzaren gaberdiko eztulik; larri-larri idazteak berak baño burukomin geiago dakar idaztiak argitaratzeak: argitaratzeak eta saltzeak. Zure lana egoki baño egokiago etorriko da garai onetan, batez be Billasante'k euskel-idatziekazko bere erderazko lanean euskel-mordollokeriaz egin

dauen zabalkundearen ostean. «ANAITASUNEAN»-eta agertzen dan euskerantoa sartu gura ete dauskue euskeratzat? Ut! Ut!, olangorik ez al dogu iñoz be ontzat artuko, atxakitzat «venerable antigüedad» eta olango beste zerak guri iruntsia-zota.

Antzutu egin ete da ba gure euskera len beintzat ernari be ernari izan dana? Irendu egin gura ete dauskue? Olangorik! Eladeraz ia sein ederrik emon-aurretik olangorik egin izan balebe, non legokezan orain Eladereak bere erraietatik sortutako itz bizi ta ugariak eta eurekaz orniduriko idazti zoragarriak? Idazleak dira izkuntzak geien aberastuten dabezanak eta idazleoi iragarri bear dogunerako lanabasak asmau ta erabiltea be galazo egin bear ete dauskue? Gure-gureak baño ederrago, txukunago, polífago ete dira ba gure aldameneko izkuntza idorretatik arturiko itzak?

Ñongo euskeltzaindik galazo bear dautso idazleri berari ondo deritxon itzak, gure euskerearen errotik egokiz sorturiko itzak bere idatzietan erabilterik?

Bein-beinean geiagoko bagarik, onik eta ondo ibili ta zure gogo-asmoak len baño len iragarri begira dagotsun oni.

Zure

Larrakoetxea'tar B'k

Donostia, 24-IV-73

A. Onaindia Jakue, adiskide agurgarria!

Atsegin andiarekin irakurri dut (gaiñetik) zure Literatura liburua; zure dohaiak, sendotuta erakusten dituzu. Amatiñok dio illuna dala zure izketa; baina berenarekin berdinkaratuz, distiranta da; eta zorionak nere aldetik.

Hor doakizun kritikatxo «Diario de Navarra»-ra igorri dut, eta zuk nai ez geroz, beste tomoenak ere sartuko nituzke; baina hortarako liburua behar...

Beste artikulutxo horiek eztakit interesik dutenez zuretako; Los Angeles-en agertu astekariaren (1893-an) zatiak dira, hemen guztiz arraro; hortik dute interes andia, aldizkari batean publikatzeko obeak; fotokopiak ba-ditut (Reno'n Yon Bilbao-k ateriak), 5-6 numerokoak; 5 urte iraun zuen.

«Literatura vasca en castellano» Díaz Plaja-renari egin nion bibliografia, igorritzen dautzut; ez dut uste begi zorrotz izan dutenik textoak autatzen; erderaz ere edertasuna agertzeko egin behar zutela nago, ez txoilik euskerari so-eginez. Hortarako erdera ere matizatu beharko da, nik uste. Gu beti matizaren eskasean...

Zure I liburuan —p. 111-an— *Txorta bi dira...* diozu. Txorta=gota (trago) da; *remillete=sona*: barka ausardia.

Noiz dugu bake izpi bat ikusiko bi aldetako idazle fanatikoen artean? Zertako ez (batzuk beinik-pein) erdibide bat? Nazkagarri da aldizkariaren irakurtzea.

Zure aspaldiko adiskide,

Aingeru Irigarai

Iruña-tik 1973-ko Jorraillaren 25'ean

Aita Santi agurgarria

Larrean

Gure Aita Santi maitea:

Jainkoa lagun uste dut, berealaxe elkar ikusiko dugula: Loiolan, datorren lenengoan, ala amabigarrenean. Orregatik, orain, agur bat; au bakarrik esateko: emen nauzula!

«PRINCIPE DE VIANA» aldizkariaren arduradun egin naute; ez da nolanaiko zama, euskaldunberri batek bere gain eramateko; aldi berean, irarkola berrian atera bear: zailtasuna dena; azkenean, Epaillaren zenbakia agertu da. Oitura dan bezala zure lotura bialdu dizute; nere aldetik, beste bidetik biali

dizut ale bat. Irakurri ta ontzat artzen baduzu, mesedez, len-
baitlen bialdu olerkiak —Bizkaiko laguntza eder ori— ill ontako
zenbakia luzatu gabe ateratzeko.

Besterik gabe, laster arte!

Garde'iar Markelin

Eibar, 1974-VI-14

A. Santi Onaindia

Larrea-Amorebieta

Aspaldiko adiskidea:

Bihotzez eskertzen zaitut *Euskal Literatura (III)* aleagatik.
Zure lehenengo bi aleei egin nioen artikulua, uste dut ongi me-
rezia zela. Herria gure literaturaz informatu beharra dugu, eta
informatze horretarako zein zure liburuak baino hoberik? Arti-
kulu hargatik, badakit Estornestarrak esan zutela goregi ere
altxatu zinudala, lan guzian berenetik aterea zanez. Baina, nik
uste, zure lanean gauza asko agertzen direlako beste haietan ez
dagoenik. Legezkoa da geroztikoak aurretikoekin baliatzea, ba-
tez ere iturriak agertzen direnean, zurean egiten duzun bezala.
Zurea, orain artekoetan osatuena da, eta gainera euskara hutsean
emana. Beraz, txalogarria bi aldetatik.

«Etor»en harpideduna naizen aldetik, handik ere hartuko
nuen eta ez zendun zuk ale hau bialdu beharrik. Baina ezagu-
tzen dut zure borondate ona eta zuzenki kunplitu nahi izan
duzu. Nere aldetik eskaririk egitekotan, Euskaltzaindiko biblio-
tekarako eskatuko nizuke. Badakizu diruz urri gabiltzala eta bi-
blioteka ahalik hornituena edukitzen ahalegintzen garela. Bes-
talde, hartzen ditugun liburu guzieri egiten diegu aipamena,
batzar agirian eta «Euskera» aldizkarian, liburuen zabalkunde-
rako. Beraz, ongi iduritzen bazaizu, pozik jasoko genituzke le-
-en bi aliak, eta neri bidali didazun hau ere zure izenean eman-

go nuke gure euskal bibliotekaren aberasgarri. Ez duzu ezertariko konpromisurik, baina gu ere holako eskeetan ibili beharra gaituzu urtean barrena liburu pilaz jabetzeko.

Gainerakoan, agindu beti zure lagun zahar honi. Agur!

f. San Martin

Tolosa, 1971, dagonillak, 8

Onaindia'tar J. Abari

Larrea'ra

Adiskide maitea: Ez dut aspaldi zure berririk, ain oparo eskeintzen dizkiguzun zure idaz-lan ederrak izan ezik. Au adorea osasun ezaugarri bikaiñenak dituzu ta Aita Xanti euskal literaturan langillerik eragikorrena danik ez dezake iñork uka. Jarrai ortan anitz urtez!

«Karmel» polito dator, eta pozik irakurri dut; Aita Damasori ere zorionak bidali dizkiot H'ri buruz argitaratu duan idaz-lan baliotsu dala-ta. Ondoren ona izango aal du, gure auzi doakabe ortan.

Zertan dira beste zure lanak? Udarako opor aldian gaudela eta atsedean artzeko garaia izan, oi da, baiña udazkenerako zitua biltzeko sasoia elduko zaigula uste dut. Jakin gura neuke ea «Olerti» azaltzekotan ete zeran eta bertan nire «Bastían eta Bastiane»-ren euskerapena. Ala baldin bada, beti legez *separata* batzuek bear izaten ditut. Beraz, ez aantzi.

Datorren astean Naparro'rantz (Obanos'era) noa, J. 1., zor-tzi-amar bat egun igarotzera. Illaren 20'rako etxeratuko naiz eta ordurako pozik irakurriko nituke zure berri onak. Obeto oraindik: Donostiaruntz etortzeko asmorik baldin ba daukazu, ea alkar ikusten dugun inguru auetan itz aspertu bat egiñez otordu aitzekitan.

Agur, Aita Xanti. Besarkada batez

A. M. Labaien

Donostia, 1973'gko dagonilla'ren 13'an
Onaindia'tar Jagoba Aba
Larrea'n

Adiskide maite ori, agur:

Leenik ikusia nuan nunbait, zure «EUSKAL LITERATURA» deritzan lendabiziko liburu ederra baiña, nere eskariz, gaur ekarri diate «ETOR»'ekoak, eta SARRERA sailla baizik oraindik irakurri ez dedan arren, ezin egon naiz, zuri adierazi gabe, zeñen irakurgarri ta jakingarri izan zaidan ainbeste Xeetasun jakingarriz orniturik argitara dezun atal garrantzi aundikoa.

EUSKERA'ren berri jakin nai-duanarentzat, ezin idatzi zitekean idazlan sakon-txalogarriagorik, eta nere ZORIONIK GARTSUENAK dagizkitzut, lerro kaxkar aben bidez, euskaltzale geranoi eskeintzen diguzun idazlan benetan onuragarriagaitik. «EUSKERA'REN BERRI ONAK» idazburuaz argitara zezakean, adigarri, ezpairik gabe arduraz, arretaz eta arrigarriro irakurria izango dan irakurgai bikain ori.

Oar; Liburuak dakarkin BIBLIOGRAFIA atalean, uts bat somatu det orraitik, neuri dagokidana eta ezagutzen ez dezulako edo azagutu arren saill ortan sartzeko duin danik iruditu ez zaizuna: Nere «EUSKERA'REN IRAUPENA ETA EUSKAL LITERATURA'REN AURRERAPENA» deritzan idazlan-txoa. Baiña, nere idazlanak, kaxkarrak izan dira beti ta ez dit batere ajolik ez aipatze orrengatik.

Eta Zurekin ari naizen ezkeron, nere esker-ona azaldu nai dizut, eskutitz au bukatzerakoan, ointsu nere lengusu Berasategi Aba'kin or izandu nintzanean guretzat izan zenduan begirapen eskergarri ta estimagariagatik.

Gaurkoz, besterik gabe, AGUR; eta agindu zure aspaldiko lagun zar eta idazkide begikoa dezun

Zeleta-ri

Bilbao, 74-ko maiatzak 27

Aita Onaindia

Larrea

Aita Onaindia agurgarria:

Zure liburua jaso bezain laister, hemen gaituzu, lerro hauen bidez, zure azken honen argitara irtetzeak ematen digun atsegina, eta bidenabar, bidali diguzun aleagatik eskerrik beroenak adierazteko asmoz.

Uste dugu liburu hau euskalzaleentzat oso mesedegarria izango dela, euskal literaturari buruzko liburu urritasuna oso nabaria baida.

ANAITASUNA-ren izenean bihoazkitzu zorionak egiten ari zaren bildumako hirugarren ale honegatik, eta aurrera jarrai dezazun adorea izan dezazula. Ea noiz heltzen zaizkigun falta diren beste hirurak!

Berriz, eta honenbestez amaitzen dugu, tori gure zorionak eta eskerrik asko.

Anaitasuna

Donostiatik 1974-garrengo Uztailaren 5-ean.

Aita Xanti Onaindia

Amorebieta

Agur adiskide:

Ezagutzen nauzu, noski. Joxe Mari Aranalderekin elkarrizketa egitera joandako hura berbera nauzu. Oraindik ez zait zure harrera alai eta gozo hura ahaztu. Horregatik natorkizu berriz ere zure atalondora. Badakit ongi hartua izango naizela.

Bertsolaritzari eskaini nahi genioke 600-garren alea. Zuk ere zertxobait idaztea nahi genuke. Hitz-lauzko literaturan ez ezik mutila zara bertso eta olerki lanean ere. Besteak beste hor daude zure MILA OLERKI EDER eta GURE BERTSOLARIAK.

Baina zertaz nahi zenuke?, galdatuko didazu. Kepa Enbeita, URRETXINDORRAZ zertxobait idaztea nahiko genuke. Hemendik lau urtetara dugu beronen jaiotzaren ehun urtehurrena. Goraipatzea merezi duen bertsolaria dugu. Bizkaiko beste norbaitetaz egin nahi baduzu ere berdin zaigu. Nahi baduzu zeuk aukeratu gaia. Nik, gaia hautatzen denbora gal ez dezazun, jarri dizut gaia.

Abuztuaren 15-erako hemen beharko genuke zure lan hori. Jarrai aurrera honelaxe lanean, Xanti. Zure zerbitzari

Mikel Atxaga

Bilbo'tik 1974'garren Dagonillak 7

«Itzalpeko» lagun zar gaztea:

Ille onen 3'an izketalditxo bat izan nuan «JAUTAR-KOL»-en anai dan Ixteban'ekin, onen Algorta'ko bizitzan (Abasota 22). Badaki bere anayaren idaztiak ona eta ara sakabana-tuak izan dirala, Zarautz'ko txauburuak esanda, eta idazti talde bat Zuentzat izan dala.

Ixteban'ek dionez, ikusi nai lituzke zuek artu dituzuten idaztiak eta atsegin lizaioken idaztiren bat beretzat jaso ere bai, al bada.

Zurekin egoteko esan diot eta eztaikit noiz orra joango zaitzun.

Egiozute, arren, abegi xamurra eta al bada utzi egiozute idaztiren bat, atsegiñezkorik ikusten ba'du, beretzat artzen.

Urte askotxo dira Mexiko'n bizi danetik eta ezta arritzekoa anai zanaren gauzatxoren bat eraman nai izatea. Ertze Garamendi'tar Erramon'ekín artu-emon asko izan du. Au dala-ta izan naiz Algortan Ixteban'en etxean,

Badakit lan zabal-luzetan murgilduta zaudela. Eztizut astirik kendu nai.

Gu ere bagoaz. Ertze. Gaur, ikusi Aita Patxi'ren eriotz-berrria (G. B.).

Besarkada estu-estu bat.

Agirre'tar Luis

Altza, 1974'gn. urrillak 17

Agur, aspaldiko lagun, Aita Onaindia:

Joan dan igandean D. Nemesio-k izparringian ziona irakurri nuenean artutako asmoa da: aspaldi ontan nere berririk joan ez ba-zaio ere, oraingoan, bere omen-aldia dala-ta neronek joaterik ez dedan ezkeru, saiatsu bear dut ixiltasun luze au austen.

Joaterik ez... Eta aitortu dudan ezkeru, lau itzetan Zergatik ez: ba daldzu osasunez aspalditik makal nebillela. Ba, dala lau urte ta erdi, ajeak ugaritu ta aunditu ta nere lan guztiak utzi bear izan nitun. Aspalditik nekarren errejimena naikoa ez oker neuzkan odoleko analisiak zuzentzeko, eta estutu nuen —berrogeitaka urtetan agindu nuen gogorrena..., eta, nik uste, zintzoena eramana—, baiñan odola lengoan edo alatsu, eta nik, dezakedan artean bizia luzatzearen, nerean jarrai.

Ango edo emengo oiñazea noiznai, gaurik geienetan loarekin burruka bizian, oi ditudan otoitzak amaitu eziñik orduetan, gorputza auldu, askotan etxetik ez naiz irtetzen; iñoiz egoaldi ona dalako eta etxean egonaz gorputza erdoitu ez dedin kilometro bat ibiltzen ba-naiz, nere biziko lanik gogorrenak eginda bezela etortzen naiz. Ori guztia naikoa ez eta eskuetan sortu zaiten dardarizak —oartuko zera, noski— idazteko erreztasuna eta gogo guztiak kendu zizkidan. Esan liteke Venezuela-n nuen eta orain gurekin etxean dagoen seme gazteenari eta Italia-n dagoen alaban egindako eskutitzak dirala nik urteotan idatzi dudana.

Baiñan gurutzeak falta ez ba-dira, ordaiñak ez dira txikiago: emen daude nerekin diteken lagunik onena, emaztea, nere ez-bearrak arintzetik zer-nai egingo lukena, ta seme gazteena, Venezuela-n urte betean mixiotako laguntzaille izana; emen, etxean, noiznai bi seme ta alaba ezkonduak sei billobatxoekin. Guztiok agertzen duten maitasuna ta guztion arteko armonia ikusita, zer geiago eskatu? Ba geiago ori ere eman dit gure Jaunak: nere irakurtzeko irrika jakin eta eguneko ordu geienak eman dizkit Ortarako, eta ortan igarotzen ditut. Ezbear guztien artean gustora bizi naiz, eta orain bezela, Jaunaren laguntzakin eta Berak nai duen arte jarraitzeko gertu nago.

Amaitzeko garaia etorri da ta nere asmoak oraindik ez dizkitzut agertu, erdizka ez bada. Omen-aldia eratzen dizutela-ta —ondo irabazia ala ere—, artzazu biotz-biotzez bidaltzen dizuten nere *zorionak*! ! Igandeko meza, Jaunartze ta agurtzan oso gogoan izango zaitut eta bero-bero eskatuko daramazkizun lan onurakorrak urte askotan egin al izatea.

Eta, azkenik, besarkada estu batekin, agur.

Román Irigoien

- Abeletxe*, 142, 150.
Agerre, Jose, 40, 66, 72, 81, 130, 139, 155.
Agirre, Luis, 298.
Alzpuruu, Imanol, 172.
Anaitasuna, 197.
Andonegi, Ziriako, 161.
Aresti, Gabriel, 113, 148.
Arregi, Errupin, 146.
Arrospide, Jon, 198.
Arrutza, Mikel, 108, 143.
Arteaga, Laurentzi, 35, 55.
Artetxe, Jose, 12, 15, 170, 254.
Artola, Fernando, «Bordari», 33, 123, 174, 243.
Artzubiaga, Zirilo, 60, 62.
Atxaga, Mikel, 297.
Atutxa, Agustín, 12.
Aurre, Alazne, 87.
Aurre-Apralz, Balendin, 42, 56, 82, 141, 175, 189, 209.
Azpeitia, Julene, 94, 177, 274.
Azurmendi, Joseba, 195.
- Barriola*, Maritxu, 109.
Batiz, Bingen Aba, 14.
Baztarrika, Daniel, 213, 229, 269.
Baztarrika, Ixidor, 136.
Beiztegi, Jon, 144.
Berriotxo, Balentin, 69, 79, 196, 204.
Botanz, Xabier, 95.
- Diez Ultzurrun*, Pedro, 288.
- Egaña*, Gotzon, 77, 121, 132, 281.
Eizmendi, Iñaki, «Basarri», 149, 249.
Elizondo, Mauro, 276, 277, 278.
Enbeita, Kepa, 83, 105, 162.
Epelde, Iñaki, 215.
Erdozaincy-Etchart, Jean, 241, 247.
Erkiaga, Eusebio, 16, 35, 242, 270, 275.
Ernandorena, 268.
Errezola, Marzelino, 230.
Etxaide, Jon, 88, 90, 193, 202, 219, 232.
- Etxaniz*, Nemesi, 135, 157, 182, 220, 228, 255, 262.
Etxano, Josu, 122.
Etxabarria, Jose Antonio, 30.
Etxebarria, Juan Anjel, 179, 221.
Etxebarria, Toribio, 143.
Etxeberria, Félix, 233.
Etxeberria, Frantzisko, 279.
Etxenagusia, Karmel, 203, 238.
- Galarra*, Joseba, 47, 68.
Garde, Markelin, 293.
Garitaonandia, Gotzon, 158, 168.
Garmendia, Salbador, 152, 154.
Garro, Bernata, 82.
Gaztañaga, Jexus, 57, 63, 70, 275.
Gereño, Xabier, 106, 107, 216.
Goikoetxea, Iñazio, 179.
- Ibargutxi*, J. Gurutz, 251.
ibiñagabeitia, Andima, 45, 114, 125, 166, 219, 231, 243.
Ijurko, Premin, 52.
Intxautsi, Joseba, 223.
Intza, Dámaso, 280.
Iratzeder, Xabier, 155, 247, 262.
Irigarai, Aingeru, 17, 22, 52, 292.
Irigoi, Román, 170, 182, 299.
Irujo, Ander M., 224.
Itziar, Martin, 151.
Iurre, Julen, 248.
Iztueta, Paulo, 171, 184, 217, 225.
- Jauregi*, Luis, 61, 116.
- Kapanaga*, Bitor, 99.
Kerexeta, Jaime, 38, 50, 51, 98.
Kirsti, 223, 240.
- Labaien*, A. M., 54, 89, 93, 112, 290, 295.
Larrakoetxea, Bedita, 257, 258, 291.
Larrarte, Luis, 67.
Larrarte, Benantzio, 129, 181.
Larreategi, Luken, 115.

- Lekuona*, Imanol, 21, 46.
Lekuona, Juan Mari, 120,
Lete, Jesus, 206.
 Loidi, J. Antonio, 283.
Lopez-Mendizabal, Ixaka, 86, 165.
- Manterola*, Gabirel, 36, 116,
 Mokoroa, Justomari, 4.
Muniategi, Sabin, 236, 245, 253, 261.
Muxika, Palgida, 137.
Muxika, Luis Mari, 96, 118, 131, 180,
 198.
- Olabeaga*, Ifiaki, 136.
Olea, Inozenzio, 239.
Orbegozo, Joxe Agustin, 199.
Orix, Ormaetxea'tar Nikola, 22, 24,
 28, 121, 177, 178.
Ormaetxea, Kepa, 185.
- Peña Albizu*, Xabier, 91, 111, 138, 167,
Pérez, Antonio, 134.
- San Martin*, Jon, 108, 110, 117, 127,
 148, 169, 192, 194, 190, 211, 226, 235,
 260, 294.
Sarasola, Joseba Imanol, 153.
Satrustegi, Jose Mari, 159.
- Tauer*, Norbert, 39, 64, 124, 173, 233,
Torrealdai, Joan Mari, 201.
Txillardegi, 250, 255.
Urrestarazu, Andoni, 74, 75, 104, 156,
 252, 271, 272, 286.
Ugarte, Martin, 282, 284,
Valverde, Antonio, 115,
Villasante, Luis, 32, 103, 151.
- Zabala*, Antonio, 159, 170.
Zaltegi, Jokin, 17, 19, 27, 33, 43, 58,
 78.
Zarate, Mikel, 169.
Zeleta, Jon Garmendia, 132, 296.
Zerio, Paustin, 137.
Zubikarai, Agustin, 191, 207.